

ZUZENBIDE PENALEKO
IKASGAIAK
ZATI OROKORRA ETA ZATI BEREZIA

Jon-Mirena LANDA GOROSTIZA Irak. Dok.
Zuzenbide Penaleko Irakasle Titularra
Zuzenbide Fakultatea
Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV-EHU)
Leioa, 2004

AURKIBIDEA

HITZAURREA	5
LABURDURAK	7
SARRERA: ZUZENBIDE PENALEKO IKASGAIAK HONEN EGITURA	8
1. ZATI OROKORRA	9
1.1.- ESKEMA PRAKTIKOAK.....	9
1.1.1. KASU PRAKTIKOEI EZARRI BEHARREKO METODOLOGIA.....	9
1.1.1.1. LEHENENGO FASEA: KASUA ULERTU BEHARRA	9
1.1.1.2. BIGARREN FASEA: EGITATEZKO SUPOSAMENDUAREN AZTERKETA JURIDIKOA	9
1.1.1.3. HIRUGARREN FASEA: KASUAREN AZTERKETA JURIDIKOA ERREDAKTATZEA	13
1.1.1.4. EGITE-DELITU DOLOZKOAREN AZTERKETA, ZENBAIT ELEMENTU NAGUSIRENA: BIGARREN HURBILKETA	14
1.1.2. ZATI OROKORREKO FUNTSEZKO ESKEMA PRAKTIKOAK.....	17
1.1.2.1. ERANTZUKIZUN PENALAREN ESKEMA LABURTUA.....	18
1.1.2.2. DELITUAREN FUNTSEZKO OSAGAIEN ESKEMA	19
1.1.2.3. DELITUAREN OSAGAI AKZIDENTALEN ESKEMA (erantzukizun kriminalaren inguruabar alderazleak)	20
1.1.2.4. DELITUA AGERTZEKO ERAK: IKUSPEGI OROKORRA.....	21
1.1.2.5. SAIKUNTZARAKO IRIZPIDE PRAKTIKOAK.....	22
1.1.2.6. ZIGORRAREN ZEHATZAPENA: IKUSPEGI OROKORRA	23
1.1.2.7. PENA-SISTEMA: IKUSPEGI OROKORRA	25
1.1.2.8. ZIGORRAREN ZEHATZAPENA: IKUSPEGI PRAKTIKOTIK (AUZITEGI GORENAREN IRIZPIDEAK)	27
1.1.2.9. ORDEZPENA (88 art.)	29
1.1.2.10. ZIGOR ERANTSIAK	31
1.1.2.11. ZUHURTZIAGABEKERIAZKO TIPOAREN ESKEMA	33
1.1.2.12. EZ-EGITE TIPOAREN ESKEMA	34
1.1.2.13. LEGEBIDEZKO DEFENTSAREN ESKEMA.....	35
1.1.2.14. BEHARRIZAN EGOERAREN UKANBEHARRAK.....	36
1.1.2.15. EGINBEHAR BAT BETETZEA (kargu publikoen kasua).....	37
1.1.2.16. ZOR DEN OBEDIENTZIA (eginbehar bat betetzearen kasu berezia).....	38
1.2.- GAIEN ARABERAKO KASU PRAKTIKOAK	39
1.2.1. ZIGORRAREN ZEHATZAPENA: ARIKETAK	40
1.2.2. DOLOZKO TIPOA	40
1.2.3. ZUHURTZIAGABE(KERIA)ZKO TIPOA.....	44
1.2.4. EZ-EGITE(ZKO) TIPOA	47
1.2.5. LEGEBIDEZKO DEFENTSA.....	49
1.2.6. BEHARRIZAN EGOERA.....	52
1.2.7. EGINBEHAR BAT BETETZEA	53
1.2.8. EGOZGARRITASUNA.....	54
1.2.9. DEBEKU-ERRAKUNTZA	56
1.2.10. BELDUR MENPERAEZINA.....	56
1.2.11. GARAPENA ETA PARTAIDETZA	57
1.2.12. DELITU-PILAKETAK	58
1.2.13. DELITU JARRAITUA.....	59
1.2.14. BALDINTZAPEKO KONDENA ETA ORDEZPENA.....	60
1.3.- ESKEMA TEORIKOAK	62
1.3.1. LEHENENGO ZATIA: ZUZENBIDE PENALAREN SARRERA.....	63
1. IKASGAIA. ZUZENBIDE PENAL OBJEKTIBOA	63
2. IKASGAIA. ZUZENBIDE PENALAREN OINARRIZKO HELBURUAK ETA EZAUGARRIAK.....	66
3. IKASGAIA. ARAU JURIDIKO PENALA	69
4. IKASGAIA. ZIGORRAREN HELBURUAK	71
5. IKASGAIA. ESTATUAREN ZIGORTZEKO AHALMENA. LEGITIMAZIO-AURRESUPOSAMENDUAK (I).	75

6. IKASGAIA. ESTATUAREN ZIGORTZEKO AHALMENA. LEGITIMAZIO-AURRESUPOSAMENDUAK (II).....	78
7. IKASGAIA. LEGE PENALAREN DENBORA- eta LURRALDE-EREMUAK.....	81
8. IKASGAIA. ZUZENBIDE PENALAREN ZIENTZIA.....	86
9. IKASGAIA. LEGEGINTZA PENALA ESTATU ESPAINIARREAN.....	88
10. IKASGAIA. LEGE PENALAREN INTERPRETAZIOA.....	89
1.3.2. BIGARREN ZATIA: DELITUAREN TEORIA OROKORRA.....	91
11. IKASGAIA. DELITUAREN KONTZEPTUA.....	91
12. IKASGAIA. PORTAERA.....	92
13. IKASGAIA. ZUZENBIDEKONTRAKOTASUNA ETA TIPIKOTASUNA.....	94
14. IKASGAIA. TIPOAREN EGITURA.....	96
15. IKASGAIA. DOLOZKO EGITE-TIPOA.....	99
16. IKASGAIA. ZUHURTZIAGABEKERIAZKO TIPOA ETA ASMOZ GAINDIKO KASUAK.....	102
17. IKASGAIA. BIDEGABETASUN TIPOA EZ-EGITE-DELITUETAN.....	105
18. IKASGAIA. ZUZENBIDEKONTRAKOTASUNAREN BAZTERKETA.....	108
19. IKASGAIA. LEGEBIDEZKO DEFENTSA.....	109
20. IKASGAIA. BEHARRIZAN-EGOERA.....	110
21. IKASGAIA. EGINBEHAR BAT BETETZEA ETA ESKUBIDE BATEN BIDEZKO EGIKARITZA. ADOSTASUNA: BIDEZKOTZEAREN ETA TIPIKOTASUNA BAZTERTZEAREN ARTEAN.....	111
22. IKASGAIA. ERRUDUNTASUNA EDO EGOZPEN PERTSONALA.....	116
23. IKASGAIA. EGOTZEEZINEZKO KAUSAK.....	117
24. IKASGAIA. ZUZENBIDEKONTRAKOTASUNAREN KONTZIENTZIA ETA ERRUGABETZEKO KAUSAK.....	119
25. IKASGAIA. ZIGORGARRITASUNA ETA HORREN BAZTERKETA.....	121
26. IKASGAIA. DELITUAREN GARAPEN-GRADUA.....	122
27. IKASGAIA. EGILETZA ETA PARTAIDETZA.....	124
28. IKASGAIA. DELITUAREN INGURUABAR ALDARAZLEAK.....	127
29. IKASGAIA. DELITU ZIGORGARRIEN UNITATEA ETA ANIZTASUNA.....	129
1.4.- OINARRIZKO BIBLIOGRAFIA.....	130
1.4.1. ZATI OROKORREKO DELITUAREN TEORIARI BURUZKOA.....	130
1.4.2. ZATI OROKORREKO SARRERARI BURUZKOA.....	131
1.4.3. ONDORIO JURIDIKOEI BURUZKOA.....	131
1.4.4. KASU PRAKTIKOEI BURUZKOA.....	132
2. ZATI BEREZIA.....	133
2.1.- ESKEMA PRAKTIKOAK: KALIFIKAZIO- EDO AKUSAZIO-IDAZKIA.....	133
2.2.- GAIEN ARABERAKO KASU PRAKTIKOAK.....	136
2.2.1. GIZA HILKETA ETA ERILKETA.....	136
2.2.2. BURUAZ BESTE EGITEKO INDUKZIOA ETA LAGUNTZA.....	137
2.2.3. ABORTUA.....	138
2.2.4. LESIOAK.....	138
2.2.5. ASKATASUNAREN AURKAKO DELITUAK.....	139
2.2.6. SEXU-ASKATASUNAREN ETA SEXU-UKIGABETASUNAREN AURKAKO DELITUAK.....	139
2.2.7. SOROSPEN-EGINBEHARRA EZ BETETZEA.....	140
2.2.8. FAMILIA-HARREMANEN AURKAKO DELITUAK.....	141
2.2.9. ONDAREAREN AURKAKO DELITUAK.....	141
2.2.10. INGURUMENAREN BABESARI BURUZKO DELITUAK.....	143
2.2.11. HERRI-OSASUNAREN AURKAKO DELITUAK: DROGA-TRAFIKOA.....	143
2.2.12. TRAFIKOAREN SEGURTASUNAREN AURKAKO DELITUAK.....	144
2.2.13. FUNTZIONARIO-EROSKERIA.....	144
2.3.- ESKEMA TEORIKOAK.....	145
1. IKASGAIA. ZUZENBIDE PENALAREN ZATI BEREZIRAKO SARRERA.....	146
2. IKASGAIA. GIZA BIZI INDEPENDENTEAREN AURKAKO DELITUAK (I).....	147
3. IKASGAIA. GIZA BIZI INDEPENDENTEAREN AURKAKO DELITUAK. (II).....	150
4. IKASGAIA. MENPEKO GIZA BIZIAREN AURKAKO DELITUAK.....	152
5. IKASGAIA. OSASUNAREN ETA GORPUTZ-OSOTASUNAREN AURKAKO DELITUAK.....	154
6. IKASGAIA. ASKATASUNAREN AURKAKO DELITUAK.....	158
7. IKASGAIA. OSOTASUN MORALAREN AURKAKO DELITUAK.....	161
8. IKASGAIA. SEXU-ASKATASUNAREN AURKAKO DELITUAK (I).....	163
9. IKASGAIA. SEXU-ASKATASUNAREN AURKAKO DELITUAK. (II).....	167

10. IKASGAIA. ONDAREAREN ETA ORDENA SOZIOEKONOMIKOAREN AURKAKO DELITUAK.....	171
11. IKASGAIA. ONDAREAREN AURKAKO DELITUAK (I).....	174
12.- IKASGAIA. ONDAREAREN AURKAKO DELITUAK (II).....	180
13. IKASGAIA. ONDAREAREN AURKAKO DELITUAK (III).....	183
14. IKASGAIA. INGURUMENAREN AURKAKO DELITUAK.....	186
15. IKASGAIA. DROGA-TRAFIKOAREN INGURUKO DELITUAK.....	191
16. IKASGAIA . TRAFIKO-SEGURTASUNAREN AURKAKO DELITUAK.....	194
17. IKASGAIA. EROSKERIA DELITUA.....	195
2.4.- OINARRIZKO BIBLIOGRAFIA	196
2.4.1. ZATI BEREZIKO DELITUEI BURUZKOA.....	196
2.4.2. KASU PRAKTIKOEI BURUZKOA.....	197
HIZTEGIA: EUSKARA-GAZTELANIA.....	198
HIZTEGIA: CASTELLANO-VASCO.....	205

Hitzaurrea

Liburu honen helburu nagusia Zuzenbide Penala euskaraz ikasi nahi duten ikasleei lana erraztea besterik ez da. Horretarako Euskal Herriko Unibertsitateko Zuzenbide Fakultatean hamar urtetan zehar emandako irakaskuntzari esker bilduriko materialak idatziz eskaintzen dira *Zuzenbide Penaleko Ikasgaiak* honekin batera. Horrek ez du esan nahi, ordea, Zuzenbide Penaleko liburu hau ohiko eskuliburuak edota bibliografia berezia ordezkatzera datorrenik; ezta gutxiago ere: gehien jota osatzera baizik. Izan ere ikasketa unibertsitario oro ezin baita idatzizko erreferentzia bakar batera murriztu ezta esku-libururik onena balitz ere. Orduan zertara dator esku artean duzun lan hau?

Zuzenbide Penaleko Ikasgaiak hau arlo juridikoa eta, zehatz-mehatz, esparru juridiko-penala euskalduntzeko bidean aurre egin beharreko erronkatik ulertu beharra dago. Euskal Herriko Unibertsitatean, Zuzenbide Fakultatean, irakasgai guztiak euskaraz ematen direnean, eta esparru akademikoko hizkeraren oinarriak behar bezala bideraturik dauzkagunean, ez dira oraindik asko ikasleak (ezta irakasleak) eskura dituen idatzizko materialak. Horiek, jakina denez, klase magistraletan, praktikoetan eta mintegietan esandako eta eztabaidatutakoa gehiago sakontzeko ezinbestekoak dira, eta baita aldi berean esparru akademikotik kanpo aritzen diren eragile juridikoekin elkarrizketa areagotzeko tresna egoki eta eragingarriak ere. Hortaz, irakasleen lehenengo trebakuntza-fasea igaro ondoren, irakaskuntzaren gutxieneko kalitatea bermaturik badago ere, ikasle eta irakaslearen arteko jakintza sortzeko prozesuak bigarren urratsa eskatzen du: idatzizko erreferentziak sortzen hastea. Beste hitzetan: irakasgai juridiko bakoitzaren euskarazko diskurtsoa finkatzeko eta estandarizatzeko moduan gauden honetan, dagoeneko klaseetan erabiltzen den diskurtso juridikoa eta terminologia-altxorra ikasleen eskura ahoz ez ezik idatziz ere jarri beharra dago.

Zuzenbide penalari dagokionez ZIGOR KODEaren bertsio elebiduna¹ aipatu ahaleginetan kokatu beharreko lehenengo mugarrria dugu, horren itzulpen-lanaren ondorioz zigor-zuzenbideko 3.250 sarrera inguru bildu zirelako. Edonola ere, aipatu sarrera kopuru mardularen gainetik, hainbat erakunderen arteko lan horri esker, arlo penalaren diskurtso juridikoaren lehenengo zimentarri sendoak jarri ziren. Ildo honetatik doa, hain zuzen ere, *Zuzenbide Penaleko Ikasgaiak* hau, batez ere ikasleei begira egindako lana izanik, terminologia-arloan eta diskurtso juridikoan jarraipen-lana aurrera eramaten delako. Kontuan eduki beharra dago Zigor Kodearen legean jasotako testuak ez duela inolaz ere agortzen horren gainean dotrina zientifikoak sortu eta eragile juridikoek erabiltzen duten terminologia eta hizkera teknikoa. Ikuspegi honetatik eskuliburu honen bukaera aurkitzen den hiztegi terminologikoa ZIGOR KODEa bildutakoaren osagarri gisa ulertu behar da.

Batek baino gehiagok arestian esandakoarekin bat etorri arren zera galdetuko luke: eta zergatik ez zaio esku-liburua edo antzekoa egiteari ekiten Zigor Kodearen itzulpenari edo esku artean dugun *Zuzenbide penaleko Ikasgaiak* izenekoari baino lehenago? Esparru juridiko-penala euskalduntzea ezin da arineketan gauzatu eta, batetik, euskararen egoera eta erabilera arlo jakin honetan eta, bestetik, euskalduntzeari ekiteko dauden baliabideak kontuan harturik, hauxe da une honetan eman ahal den urrats apala. Edonola ere argi izan dezagun aurkeztzen den *Zuzenbide Penaleko Ikasgaiak* etorkizunari begira bidea zabaldu behar diola Zuzenbide Penaleko ohiko esku-liburuak sortzeari: zeren eta orduan bai Zati orokorreko bai Zati bereziko funtsezko oinarri akademikoak finkaturik gertatuko baitira.

Lan honen ezaugarriak eta zergatia aurkezturik berez doa ezin dela lan hau azken hitza bezala ulertu. Eta ez da azken hitza, noski, zuzenbide penalaren zientziaren ikuspegitik ezta euskararen inguruko aukeraketatik, bi alderdiotatik muga nabarmenak dituelako. Hainbat urtetako irakaskuntzaren eskarmentuak emandako fruitua besterik ez da ikasleei lagungarri gerta dakiekelakoan modu xumean prestatua eta edozein kritika jasotzeko prest dagoena, baita nahi gabeko okerrak edota ekarpenaren bat ahanzi izana zuzentzeko prest ere.

Hitzaurre luze hau bukatzeko eskerrak eman nahiko nizkieke lan hau ahalbideratzeko orduan erabakigarri izan diren lankide batzuei: lehenik eta behin Rafael SAINZ DE ROZAS BEDIA LAUNETA Zuzenbide Penaleko irakasleari (EHU), euskarazko irakaskuntzan elkarrekin hainbat urtetan aritu ondoren eskuliburu honen *egilekidetza* leporatu behar zaion neurrian; beste alde batetik Adela ASUA BATARRITA Zuzenbide Penaleko katedradunari (EHU) talde-lanaren gidaritzatik *ezinbesteko laguntza* eman baitu eta

¹ Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea/Euskal Herriko Unibertsitatea/Deustuko Unibertsitatea, *Zigor Kodea. Código penal*, Deustuko Unibertsitatea, Bilbo, 2001.

azkenik Norberto DE LA MATA BARRANCO, Maria José VIRTO LARRUSCAIN irakasle titularrei (EHU) baita Mertxe LANDERA LURI irakasleari (EHU) ere. Eskertu beharrekoa da orobat, Euskal Herriko Unibertsitateko Euskara Errektoreordetzak eman duen laguntza ekonomikoa, *Zuzenbide Penaleko Ikasgaiak* hau argitara ematea ahalbideratu duena. Azkenik Antton ELOSEGI ALDASORO irakasleari (EHU) eskerrak baino gehiago eman beharko nizkioke, bere goitik-beherako hizkuntz zuzenketei, aholkuei eta proposamen ugari eta futsezkoei esker testuak zalantzarik gabe hobera jo duelako. Norbaitenak izatekotan, hortaz, berarenak dira lan honen hizkuntza merituak, nireak, ordea, zuzentzen jakin ez ditudan okerrak.

Laburdurak

adib.	adibidez
AG	Auzitegi Gorena (Espainiako Estatuarena)
art.	Artikulu/k
BJLO	Botere Judizialeko Lege Organikoa
Del	Delitua/k
Dot	Dotrina (zientifikoa)
EAO	Estatuko Aldizkari Ofiziala
<i>et alter</i>	Eta beste bat (batzuk)
eta hurr.	Eta hurrengo(k)
GG	Garapen-gradua
Hurr	Hurrengo/k
I	Inguruabar/rak
ik.	Ikusi
Infra	Behean
KA	Kontuzko araua
EK	1978ko Espainiako Konstituzioa
Krit	Kritika
KZ	Kode Zibila
LO	Lege Organikoa
Ond. Jurid.	Ondasun juridikoa
OP (ZA)	Oinarrizko pena (Zigor abstraktua)
orr.	orria (orriak)
PG	Partaidetza gradua
PZ (ZZ)	Penaren zehaztapena (Zigorren zehaztapena)
Seg.-Neurr.	Segurtasun-neurria
Supra	Goian
Z.	Zuzenbidea
ZB	Zati berezia
ZO	Zati orokorra
ZK	Zigor Kodea/Kode penala
ZP	Zuzenbide penala (Zigor zuzenbidea)

Sarrera: Zuzenbide Penaleko Ikasgaiak honen egitura

Zuzenbide Penaleko Ikasgaiak honek bai Zati orokorreko bai Zati bereziko *eskema praktikoak*, *kasu praktikoak*, *eskema teorikoak* eta *oinarrizko bibliografia* biltzen ditu eta bukaeran lan osoan zehar erabilitako terminologiaren bilketa (*hiztegia*) dakartza. Egiturak berak hasiera batetik argi uzten du lanak alderdi praktikoei lehentasuna ematen diela, alderdi teorikoa ere gutxietsi barik. Horregatik bai Zati orokorraren hasieran bai Zati bereziaren lehenik eta behin **Eskema praktikoak** azaltzen dira. Hauen bitartez zuzenbide penaleko kasu praktikoetan azaltzen diren arazorik funtsezkoentzako irtenbide-ereduak eskaintzen dira era sistematikoan. Zati orokorrari dagokionez delituaren teoriaren inguruko eskemak dira gehienbat, alegia, edozein delituren atzean egon beharreko ezaugarriak modu sistematikoan lantzen dituztenak. Zati bereziaren kasuan, ordea, *kalifikazio-idazkia* erdigunean dugu, hain zuzen ere jarduera deliktiboen aurreko tipifikazioa, partaidetza gradua, zigorra eta abar ezartzeari begira.

Eskema praktikoak landu ondoren, zenbait **kasu praktiko**, gehienetan gaztelaniazko epaietatik ateratakoak, zenbaitetan dotrina zientifikoak sorturikoak, sailkatutik ematen dira. Gaiari arabera sailkapenak berak nabarmentzen du kasu praktiko bakoitzean zein den landu beharreko alderdi edo arazo juridiko-penalik garrantzitsuenak. Horrek ez dio, ordea, kalterik egiten, kasu gehienetan sailkatutako gaiez kanpoko bestelako arazoak ere biltzeari, zuzenbide penaleko kategorien arteko lotura estuaren adierazgarri argia dena. Aurrerago itzultzen diren kasuen zailtasunari dagokionez, bai Zati orokorrekoak, bai Zati berezikoak bereziki konplexuak dira, erakunde juridikoen mugetan hoberen trebatzen delako norbanakoak bereganatutako jakintza teorikoa.

Ulertzekoa den bezala, bai eskema praktikoek bai aukeratutako kasu praktikoek ez dute ahitzen zuzenbide penaleko arazoen aniztasuna. Horregatik halaberrez Europako zuzenbide fakultatean ohikoak diren egitarauen arabera aukeraketa egin da, beti ere Euskal Herriko Unibertsitateko Zuzenbide Fakultatean jarraitzen den ildotik (baita etorkizunean ikustekoa denetik ere, *plan berria* heltzearekin baita).

Alderdi praktikoen ondotik **Eskema teorikoak** deituriko atala dator. Horren helburua zuzenbide penaren inguruko jakintza teorikoa landu edota sakondu nahi duen orori euskarazko egituraketa sistematikoa eskura jartzea besterik ez da. Eskemak zuzenbide fakultatean ematen diren klaseen azalpenarekin batera erabiltzeko eginak daude eta horrexegatik horien tankera estilistiko laburtua ulertu beharra dago, ideien gida, ez horien erredakzio bukatua, eskaini nahi izan den neurrian.

Bukatzeko **Oinarrizko bibliografia** —orokorra zein alderdi praktikokoak bereziki lantzeko— eskaintzen da, aurreko atalekin gertatzen zen bezalaxe Zati orokorreko eta Zati berezikoak bereizirik.

Liburu honek azkenean **Hiztegia** deitutakoa dakar: hitzaurrean genioen moduan Zigor Kodearen bertsio elebidunean hasitako lanaren jarraipena izatea nahi dugu eta horrexegatik han emandako sarrerak, salbuespenak salbuespen, onartzen eta erabiltzen dira. Horren aldean berezitasun hau dago: Zigor Kodearen testuan azaltzen ez diren baina esparru juridikoan egunero erabiltzen diren esamolde eta hitz garrantzitsu batzuk ematen direla. Euskarazko diskurtso juridiko-penala osatzera datorren hau, ordea, tentuz hartu beharra dago, ez behin betikoak baizik hausnarketarako proposamenak besterik ez diren neurrian, erabili izanaren bermez argitara ematen direnak baina iritzi oinarrituago baten aurrean aldatu, moldatu edota ezerezteko modukoak izan daitezkeenak.

1. ZATI OROKORRA

Ohikoa den egituraketa akademikoaren arabera Zuzenbide Penaleko irakasgaia bi zatitan banatzen da: Zati *orokorra* eta *berezia*. Zigor Kodeak berak halako egituraketari ekiten dio lehenengo liburuan “Delitu eta faltei, pertsona erantzuleei, zigorre, segurtasun-neurriei eta arau-hauste penalaren gainerako ondorioei buruzko xedapen **orokorrak**” ematen direnean, bigarren liburuan “Delituak eta horiei dagozkien zigorrak” azaltzen diren bitartean. Bi zati edo atalon arteko funtsezko aldea delituen deskribaketa egiteko ikuspegian datza, izan ere Zati orokorrean delitu guztietan agertzen diren zertzeladak —eta ez bakoitzak bereizgarri duena— baita interesgarri. Batean orokortzeari ekiten zaio, bestean banako delituei. Alegia, Zati orokorrean delitu orok dituen ezaugarri komunak deskribatzeari ekiten zaio. Bai giza hilketa, bai delitu ekologikoa, bai lesioak, bai prebentzioak, bai abortua... denek badituzte erakunde juridiko komunak, arau berberen arabera funtzionatzen dutenak eta horregatik komeni da erakunde horiek (bidezkatze-kausak, erruduntasuna baztertzen duten kausak, errakuntza, doloa, saiakuntza, egiletza...) guztiak batera jorratzea. Zati bereziarekin, ordea, delituak estudiatzeko ikuspegia aurkakoa dugu, izan ere komuna dena bilatu eta aztertu beharrean, delitu bakoitzak duen berezitasuna nabarmentzen baita: Zati berezian, delitu guztiek komuna dutena finkatutzat emanik, jarduera deliktibo bakoitzak dituen ezaugarri propio eta bereizgarriak identifikatu, ordenatu eta sailkatzen dira.

Liburu honen sarreran genioen bezala, Zati orokorra lantzeko jarraitu den eskema hurrengo hau dugu: lehenik eta behin *eskema praktikoa* aurkeztuko ditugu; bigarrenik, eskema horien laguntzaz soluzioa ematekoak diren kasu praktikoa azaltzen dira; hirugarrenik zati teorikoa dator, bertan, irakur daitezke Zati orokorreko ikasgairik garrantzitsuenen laburpen modura uler daitezkeenak; eta, laugarrenik, oinarritzko bibliografia. Ekin diezaiogun bada lehenengoari.

1.1.- ESKEMA PRAKTIKOA

Zati orokorrak delitu guztien erakunde juridiko komunak identifikatu, aztertu eta haien arteko harremanak argitu behar baditu, orduan ulertaraz da eskema praktikoa erakunde juridiko garrantzitsuenen berri emango digutela aldarrikatzea. Are zehatzago, eskema gehienak *delituaren teoriaren* barne atalei buruzkoak dira, batez ere *zuzenbidekontrakotasun penala* edo *bidegabetasun tipoaren* kategoriatan sistematikoaren logikan. Baina lehenengo epigrafe honetan (*eskema praktikoa*) eskemak ematea ez ezik osagarria den beste helburu bat ere bilatzen da: kasu praktikoei irtenbidea emateko metodologia gureganatzea hain zuzen ere. Horrek ordea eskemaren aurretiko azalpen orokorra eskatzen du, aldi berean delituaren teoria zer den eta gero emango diren eskemak ere argitzen lagunduko diguna.

1.1.1. KASU PRAKTIKOEI EZARRI BEHARREKO METODOLOGIA

Hiru fase jorratu behar dira, Zati orokorraren ikuspegitik, kasu baten ebazpena bilatzerakoan:

1.1.1.1. LEHENENGO FASEA: KASUA ULERTU BEHARRA

Lehenengo arauak/aholkuak:

- 1.- Kasua patxadaz eta bi edo hiru aldiz irakurri behar da.
- 2.- Zuzenbide penalaren ikuspegitik garrantzia izan dezaketen elementu faktikoa (egitateko osagaiak) bereziki kontuan hartu behar dira (honek suposatzen du aurrez ezagutzen dela dotrina juridikoa, jurisprudentzia eta lege-arauaketa penala).
- 3.- Ikusi beharra dago zein puntutaraino jo daitekeen frogatutzat aztertzen ari den elementu eta egitate bakoitza.
- 4.- Kasua, soluzio juridikoa emateari begira, antolatu egin behar da, ahal bada, grafikoak erabiliz.

1.1.1.2. BIGARREN FASEA: EGITATEZKO SUPOSAMENDUAREN AZTERKETA JURIDIKOA

A) SARRERA

Hiru baliabide tekniko, nagusiki, erabili beharko dira:

- aplikatu beharreko lege-arauketa;
- interpretazio jurisprudenziala;
- interpretazio dotrinala.

Delituaren teoria juridikoa, gure kasuan, **teoria orokorra**, menperatzen dela esan daiteke, hain zuzen, aipatu hiru baliabideak behar bezala ezagutzen eta erabiltzen direnean.

Azterketa juridikoa egiteko **ESKEMEZ (ik. infra 1.1.2.1. eta hurr.)** baliatuko gara, delituaren teoria orokorra, guztia, biltzen dutenak. Eskemetara, hortaz, biltzen da azterketa juridikoa aurrera eramateko ezinbestekoa den delituaren teoria. Eskemek orduan gida-funtzioa izan behar dute, edozein delituren aurrean erantzulea nor/nortzuk diren eta zein ondorio dakar/dakartzan ere argitzeko bidean.

Erantzukizun penalaren eskema laburtuan (1.1.2.1.) hiru bloke nagusi desberdinak behar dira:

- 1) delituaren elementuak: funtsezkoak eta akzidentalak
- 2) (delituaren) agerpen erak: hots, garapen eta partaidetza graduak eta
- 3) ondorio juridikoen zehaztapena: penaren zehaztapena, segurtasun-neurriena, pena zein ondorio erantsiena, erantzukizun zibilarena eta prozesuaren kostuena.

Bigarren eskemak [**Delituaren funtsezko osagaien eskema (1.1.2.2.)**] delituaren funtsezko elementuei besterik ez die ekiten. Ikuspegi pedagogikotik begiraturik, egokien eta ezinbesteko suertatzen da eskema hau delituaren teoria orokorra zer den ulertzen hasteko.

B) DELITUAREN ELEMENTUAK: LEHENENGO HURBILKETA.

1. Delitu guztiak hiru motaren arabera, **HIRU TIPO**² desberdinen arabera, sailka daitezke: egite-delitu dolozkoa, egite-delitu zuzurziagabekoa eta ez-egite tipoa (dolozkoa zein zuzurziagabekoa izan daitekeena).

Adibidez:

- Giza hilketa: noiz hiltzen da dolo? **DOLOA**, *bidegabetasun tipoa* (<<tipo de injusto>> delakoa) deskribatzen duen egoera objektiboa egiteari buruzko jakintzan eta nahian datza. Doloak suposatzen du, bidegabetasun tipoa objektiboki deskribatzen duena jakinaren gainean gauzatu egiten dela. Egileak badaki zer egiten duen (jakintza) eta hori egiteko *asmoz* dihardu (egiten ari dena nahi du egin: nahia). Giza hilketaren adibidearen kasuan, hortaz, dolozkoa da, baldin eta egileak bazekien labankadak, esaterako, ematen ari zela eta hori nahi bazuen.
- Giza hilketa zuzurziagabekoa: esaterako, ikastola baten aurretik azkarregi gidatzeagatik norbaitek haur bat kotxez harrapatu eta hiltzen du. Egileak ez du EMAITZA nahi. Horregatik dolorik ez dago: Zigor Kodearen 138 artikulua deskribatzen duen hilketa nahi ez duelako. **ZUHURTZIAGABEKERIA**ren oinarrian *kontuzko arauaren urrapena* (<<infracción de la norma de cuidado>> delakoa) dago (*behar bezala ez aritzea*), hain zuzen, dolozko tipo batean deskribatzen den egoera objektiboa sortzen duena, baina, egiten ari den ekintza-jarduera ezagutu eta nahi arren (gidariak azkar gidatu *nahi* du: doloa), azkenik gertatzen den egoera objektiboa nahi ez duela (gidariak, ordea, ez du haurra harrapatu nahi: ez du emaitza nahi).
- **EZ-EGITE** kasu argia: Zigor Kodearen 195 artikulua. Egite eta ez-egitearen arteko desberdintasuna, egituran eta zentzu normatiboan bilatu beharra dago.
 - Egituran: egite-delitua gertatzen da Zigor Kodeak deskribatzen duen jarduera aurrera eramaten denean (Kodeak dio: ez hil —ZK 138 art.—; baina norbaitek tiroz hiltzen du bere emaztea). Ez-egite delitua, ordea, gertatzen da, deskribatzen den jarduera aurrera eramanez, beste ekintza bat egiten denean: hala nola (ZK 195 art.) norbaitek ez du gelditu nahi, odoletan eta hiltzeko zorian dagoen beste pertsona bat laguntzeko. Kasu horretan Kodeak dio: *lagundu!* eta egileak, ordea, ez du laguntzen.

² Benetan, sailkapena **egite eta ez-egite** delituen artekoa izan behar da eta, aldi berean, egite delitua dolozkoa eta zuzurziagabekoa izango da, ez-egite delitua ere dolozkoa eta zuzurziagabekoa izan daitekeen bezalaxe. Sailkapena, hortaz, ez da “hirukoitza”, baina arrazoi pedagogikoengatik horri eustea komenigarria deritzogu.

- Zentzu normatibotik begiratuta: egite-delitueta, debeku-araua urratzen da (*ez hil!*); ez-egite delitueta, berriz, agindu-araua (*lagundu!*).

Aipatu hiru *tipo* edo delitu-mota desberdinei, elementu edo osagaien eskema desberdin bana dagokie. Are zehatzago: egite-delitu doloekoaren eskemaren muina (baita gainontzeko tipoentzat komunak diren elementuen eskema ere) **1.1.2.1. apartatua** jasotzen da. Zuhurtziagabekeriakko tipoaren eta ez-egite tipoaren berezitasunak, ordea, **1.1.2.11. eta 1.1.2.12. apartatueta** bilduta daude: azken bi hauek, hortaz, doloeko egite-tipoaren funtsezko eskemaren osagarri gisa ulertu behar dira, komunak diren osagaien gainetik zenbait berezitasun gaineratzen dituzten neurrian. Arrazoi pedagogikoengatik, une honetan, egite-doloeko tipoari ekingo diogu, zuhurtziagabekeriak eta ez-egiteak aurkeztzen dituzten berezitasunak alde batera utzirik.

2. Dena dela, kasu guztietan, delitua egon dadin, zigortzen den delitua egon dadin, **EKINTZA** (*PORTAERA* edo *JARDUERA* ere izendatuko duguna), **TIPIKOA**, **ZUZENBIDEKONTRAKOA**, **ERRUDUNA** eta **ZIGORGARRIA** izan behar da (**ik. 1.1.2.2.**). Elementu hauek delituaren existentzia baldintzatzen dute, horregatik **DELITUAREN FUNTSEZKO OSAGIAK** dira: hauetariko bat gabe deliturik ez delako. Hauen aldean, elementu edo **OSAGAI AKZIDENTALAK** ditugu, Zigor Kodearen 21, 22 eta 23 artikuluetan aurreikusten direnak (**ik. 1.1.2.3.**).

2.A. **DELITUAREN FUNTSEZKO OSAGIAK. 1.1.2.2.** eskemaren arabera, bi zutabe desberdin behar ditugu, ezkerrekoa eta eskuinekoa:


- ezkerrekoa: elementu POSITIBOen zutabea du;g
- eskuinekoa: elementu NEGATIBOen zutabea da (dagokion elementua baztertzen duen kausen berri ematen diguna).

Eskemaren zutabeak, hortaz, delitua deskribatzeko tresna gisa ulertu behar dira. Ezkerreko elementuek delitu baten —edozein delituen— deskribaketa abstraktua (positiboa) ematen digute. Horretarako zein elementu edo osagai gertatu behar diren argitzen digu: giza hilketa, lesioak, prebarikazioa, atentatua, bortxaketa, eta abar... Guztiek portaera tipikoa, zuzenbidekontrakoa, erruduna eta zigorgarriak izan behar dute; bestela ez da deliturik.

Eskuineko zutabeak, berriz, funtsezko osagai positiboak noiz baztertzen diren, hau da, noiz ez diren gertatzen argitzen digu. Norbaitek hiltzen badu gizon bat jarduera tipikoa da baina legebidezko defentsan aritu bazen ez da deliturik egongo: are zehatzago, legebidezko defentsa bada bidezkotze-kausa bat da eta hura gertatuz gero, jardueraren zuzenbidekontrakotasuna desagertzen da. Ezkerreko zutabeak, beraz, elementu positiboak baztertzeko arrazoiak ematen dizkigu: delituaren deskribaketa abstraktu-negatiboa ematen digu.

Baina zutabeen ezaugarri nagusiaren (positibo-negatibo) jakinaren gainean egonik, bada bigarren ezaugarria ezinbestekoa dena aipatu eskema behar bezala ulertu ahal izateko, osagai funtsezkoak logika *piramidalaren* arabera eratuta egotea. Azal dezagun ideia garrantzitsu hau grafiko baten bitartez.

DELITUAREN TEORIA JURIKIOARI DAGOKION AZTERKETA PIRAMIDALA



Delituaren teoria orokorraren azterketa modua **PIRAMIDALA** dugu, piramide baten antzera: hau da, elementu bakoitza, hurrengoaren auresuposamendua da eta falta bada azterketa geldiarazten du. Alegia: ekintzarik (portaerarik) ez badago, badakigu deliturik ez dela eta ez dugu aztertuko ea tipikoa den; edo portaera tipikoa izan arren, zuzenbidekontrakoa ez bada ez dugu azterketarekin aurrera jarraituko; eta abar. Azterketa modu hau Europa kontinentalean oro har jarraitzen da (Alemania, Austria, Suitza, Italia, Grezia edo Estatu espainiarrean, eta beste hainbat Estatutan, besteak beste, Europaz kanpoko Japonia, Turkia eta abarretan ere). Mundu anglosaxoian, berriz, ez dute kategoriaz osatutako sistema batez funtzionatzen:

topologia lineala eta konmutatiboaren sistemaz, hau da, kasu-taldearen sistemaz baizik. Gure sistema, ordea, *mailakatutako kategoriaz osatutako sistema*³ da.

Ikuspegi praktikoa batetik begiratuta esandakoak zera dakar: delituaren teoriak ezartzen duen aztertze modua osagaien hurrenkera bakarra eta finkoari loturik dago. Beti ere, lehenengo osagaietatik hurrengo kategorietara eraman behar da azterketa elementuen hurrenkera inolaz ere aldatu barik. Eskemaren zutabeen ikuspegitik, azterketa *goitik behera* egin beharra dago, beharino iritsi arte deliturik ez baita izango.

Sistemak eskaintzen duen **abantaila** zera da: arazo juridiko-penalak aztertzeko *lupa* bat eskura jartzea, pentsatzeko lupa alegia. Gainera azterketa heltzen den puntuaren arabera, egindako ekintzaren ondorioak desberdinak izango dira. Esaterako, ekintza erruduna izan ezean, zigorrik zentzu hertsian ez da ezarriko baina segurtasun-neurriak ezar daitezke; edo zuzenbidekontrakoa ez bada ere, delitutik eratortzen den erantzukizun zibilari batzuetan aurre egin beharko zaio, eta abar.

Sistemari esker, kasuak aurkezten dituen arazoak sailkatu ahal izango ditugu eta hurrengo galdera hauek taxuz erantzun ahal izango ditugu: nor izan beharko den zigortua eta baita ere zigortuta suertatuko ez direnen artean, zergatik batzuei edo besteei ondorio juridiko desberdinak egozten zaizkien.

Esandakoari jarraiki honako **arau edo aholkuak** kontuan hartu beharko dira, AZTERKETA JURIDIKOari ekiteko:

1. Arazo juridikoak identifikatu behar dira eta KOKATU eskemaren barruan dagokion tokian.
2. Ekintza deliktiboan parte hartzen duen pertsona bakoitzaren kasuan, delituaren kategoria guztiak baieztatu beharko dira. Pertsona bakoitzari ESKEMA OSOA aplikatu behar zaio (berezitasunak ikusiko dira partaidetzaren/egiletzaren arazoa aztertzekoan). Edozein kasutan *erantsitasunaren printzipioari* (<<principio de accesoriadad>> delakoari) jarraiki, lehenik egilearen erantzukizuna aztertu beharko da eta gero partaideena, azken hauena aurrekoaren menpe dagoelako.
3. Azterketa beti elementuz elementu egin beharko da: lehenik ea ekintza den, gero tipikoa ote den...delituaren teoriak ORDENA LOGIKO hori jarraitzen duelako eta baieztatzen den (ala ez den) kategoriaren arabera, ondorioak desberdinak direlako.

2.B. DELITUAREN OSAGAI AKZIDENTALAK (ik. 1.1.2.3.). Delituaren existentzia ez dago osagai hauen menpe. Delitu askotan ez da batere inguruabarrik gertatzen eta bada delitua, zigortu beharrekoa. Inguruabar aldarazle **aringarri, astungarri edo mistoaren** funtzioa da, beraz, egindako delituaren larritasunaren neurria are gehiago zehaztea. Hiru motatakoak izan daitezke inguruabar aldarazleak: aringarriak, astungarriak eta mistoak.

Inguruabarren kasuan, zuzenbide penaleko erakunde juridiko gehienekin gertatu ohi den bezala, ez da komeni horiek intuizio hutsez ezartzea, alegia, aldez aurretik inguruabarren esanahi tekniko eta interpretazioa, jurisprudenziala eta dogmatikoa ezagutu gabe ezartzea. Ez ezazu aplikatu, beste hitzetan, hitzez hitzeko idazketaren arabera, edukia eta esanahia azaletik *argia* balitz ere.

Delituaren azterketaren barruan funtsezko osagaiak eta osagai akzidentalak identifikaturik, garapen gradua eta partaidetza gradua aztertu beharko lirateke. Eta azkenik penaren eta beste ondorioen zehaztapena letorke. Bai *gradu*en bai delituaren ondorio juridikoen oinarritzko azalpenerako zuzenean eskemetara igortzen dugu (**ik. 1.1.2.4 eta hurr.**). Hiru atalok ikusirik kasuaren azterketa bukatutzat jo daiteke, baina eman ditzagun beste aholku batzuk, kasuaren irtenbidea erredaktatzeari buruzkoak. Gero, berriro ere, delituaren osagaien eskemara itzuliko gara, are sakonago kategoria orokorrekin lotutako oinarritzko beste azalpenak emateko.

1.1.1.3. HIRUGARREN FASEA: KASUAREN AZTERKETA JURIDIKOA ERREDAKTATZEA

³ Sistema honen ezaugarriak hauek dira: sistema bereizgarria –bereizketak egiten dituen-, mailakatua eta ez-konmutatiboa (osatzan duten elementuen ordena aldatuz gero, ez du emaitza berberarik ematen, elementuak elkarren trukatzekoak ez direlako).

Kasu praktikoa guztien helburua ekintzaren parte-hartzaileen erantzukizunak zehaztean datza. Hori **idatziz** eman beharra dago eta horretarako honako alderdi hauek kontuan hartu beharko dira ikuspegi formalekiko zein materialekiko:

- 1.- Kasu praktikoa ezin da hitzez hitz berriro ere errepikatu. Hau batez ere ekintzaren apartatuen kontuan hartzeko da: hobe da, datuen aukeraketa jakin bat egitea puntuz puntu, garrantzitsuenak azpimarratuz.
- 2.- Parte-hartzaile bakoitzaren erantzukizuna bereizirik zehaztu beharko da: beraz apartatu desberdinetan —formalki desberdinetan— argitu beharko da egile bakoitzaren eta partaide bakoitzaren azterketa.
- 3.- Delituaren kategorია bakoitza apartatu batean formalki bereizita azaldu behar da eta parte-hartzaile bakoitzari kategoría guztien azterketa dagokie: ez itzazu batu ekintza desberdinak edo parte-hartzaile desberdinen azterketak.
- 4.- Kasu bakoitzean arazorik nagusia identifikatu behar da eta sakonki aztertu. Proportzioa gorde behar da, arazo nagusiari ematen zaion denbora zein espazioaren eta bigarren mailako arazoei ematen zaien artean.
- 5.- Arazo juridikoei irtenbidea ematerakoan argudiatu egin behar da: argudiorik gabe benetako ebazpenik ez dago. Ezin da asertiboa izan, hau da, baieztapen hutsen bitartez kasua ebatzi: argudioak eman beharko dira beti.
- 6.- Argudioak ematerakoan beti argitu behar da, ea argudio dotrinala, argudio jurisprudenziala edo norberaren argudioa den.
- 7.- Artikuluen erreferentziak egiterakoan ez transkribatu literalki artikulua osoa.
- 8.- Erabiltzen den hizkuntzari dagokionez argia eta zehatza izan behar du, hizkuntza juridiko-penala erabiliz (ekintza deskribatzerakoan, berriz, hizkuntzak ezin du aurrez epaitu kasua: hor saihestu behar dira termino teknikoak —*lapurtu du....*; ez; hobe, *dirua hartu zuen indarkeriaz*—).
- 9.- Azkenik, beti azpimarratu behar dira leku bakoitzean ezartzen diren zatikako konklusiorik garrantzitsuenak eta, azkenean parte-hartzaile bakoitzaren erantzukizuna laburki eman beharko da, azkeneko konklusio gisa.

1.1.1.4. EGITE-DELITU DOLOZKOAREN AZTERKETA, ZENBAIT ELEMENTU NAGUSIRENA: BIGARREN HURBILKETA

1. Delituaren teoria orokorrak, delituen —guztien— edo delitu-multzo batzuen ezaugarri komunak biltzen eta sistematikoki aurkezten ditu. Orain **egite-delitu dolo**zkoari dagozkionak besterik ez ditugu ikusiko; zuhurtziagabekeria eta ez-egite delituetan gertatzen diren berezitasunak **1.1.2.11 eta 1.1.2.12**. apartatuen eskemetan aurki daitezke.

Ezaugarriok, indarrean dagoen **zuzenbide positiboan oinarritzen dira, Zigor Kodean gehienbat**. Interpretazio desberdinak onartzen dituzte, noski, baina zuzenbide positiboak ematen duen esparruaren barruan.

2. Delituaren teoria orokorrean bi ZATI NAGUSI egin daitezke edo, beste hitzetan, bi kategoría nagusi nabarmentzekoak dira: ekintza tipikoa eta zuzenbidekontrakoa batetik —**BIDEGABEKO EGITATEA edo ZUZENBIDEKONTRAKOTASUN PENALA**— eta **ERRUDUNTASUNA edo EGOZPEN (ERANTZUKIZUN) PERTSONALA** bestetik.

Hau da, zuzenbidearen kontra aritu izana *objektiboki* baieztatzen zuzentzen den kategoría batetik eta, bestetik egindako ekintza zuzenbidekontrakoren eta egile zehatzaren arteko harremana ezartzen zuzendurikoa. Lehenengo zatian **EKINTZA**z arduratzen gara, bigarrenetan **EGILEEZ** eta **-PARTE-HARTZAILEEZ**. Lehenengo zatian ekintza jakin baten zuzenbidekontrakotasun objektiboa (zehatzago esanda, intersubjektiboa) ezarri nahi da, bigarrenengo pertsona jakin bati erantzukizunaren egozpena, pertsonalki, esleitu nahi zaion bitartean.

3. Une honetan lehenengo kategoriaren barruan bakarrik *ekintza* (edo portaera) eta *tipikotasuna* osatzen duten zenbait azpi-osagai izango dira aztergai

3.A. EKINTZA-PORTAERA

Kategoria honen **izenaren** beraren gainean ez dago adostasunik: ekintza dotrina tradizionalak erabili (eta erabiltzen) badu ere, beste batzuek nahiago dute *portaera* edo *jarduera* hitzak eredu fisiko-naturalek aldentzeko asmoz. Alegia ekintza zer den ere irizpide juridikoekin neurtu beharreko zerbait da, jarduera deliktibo gehienetan *ekintza* bat baino gehiago baitago (adibidez, hogeitabakarkadaz hiltzea, giza hilketak *portaera/jarduera*, bakarra).

Edonola, *portaera* delituaren teoria orokorraren lehenengo kategoria izatea, **legegilearen erabakia** da: Zigor Kodearen 10 artikulutik ondorioztatzen delako, bakarrik gizabanakoak (pertsona fisikoak) delitu egin dezakeela (<<societas delinquere non potest>>: alegia, pertsona juridikoek ezin dute teknikoki deliturik egin). Delitu egon dadin gertatu beharreko portaera, hortaz, ez da ezer *naturala*, erabaki baten emaitza *arautzailea* baizik.

Ekintza dagoen ala ez aztertu aurretik, beraz, beti **tipifikazio** jakin batetik abiatu beharko dugu. Zuzenbide penaleko kasu praktikoko baten aurrean lehenengo galdera beti izango da: Kode penalak babesten duen ondasun juridikoren bat arriskuan jarria/kaltetua izan al da? Hala bada, orduan, deskribatu beharko dugu gizabanako baten/batzuen *portaera*. Beraz: egitea edo ez-egitea ote den galdetuz gero, erantzuna tipo baten erreferentzia eman beharko da.

Dena dela, lehenengo kategoria honetan oraindik ez da **ekintza tipiko zehatza** deskribatuko, terminologia juridiko-penala saihestu behar baita. Momentuz ea *ekintza orokorrako* bat egon den galdetzen da, hain zuzen, gizabanako batengandik etorritakoa, tipo baten oinarria izan daitekeena.

Estatu sozial demokratiko eta zuzenbidezkoaren ondorio logikotzat jo behar da *ekintza* kategoria hori galdatzea, izan ere horretatik zera ondorioztatzen da: barruko ekintza (pentsamendua) eta borondatezko⁴ ekintza ez dena, hau da, *helburu batera zuzentzen den (helburuzko)* ekintza ez dena, zuzenbide penalek kanpo uztea. *Kanpoko* ekintzen gainean antolatzen da gure zuzenbide penala eta hain zuzen arauaren mezua —arauaren motibazioa— posible den giza ekintzen kasuan.

Bi funtzio betetzen ditu kategoria honek delituaren teoria orokorraren baitan:

- a) bata, **funtzio negatiboa**, desbalorazio penala merezi ez duten portaera jakin batzuk lehenengo momentutik zuzenbide penalek kanpo uztea; hau da, aldeztutako aukeraketa, bazterketa, barruko ekintzak eta borondatezkoak ez direnak esparru penalek kanpora bidaliz;
- b) eta bestea, **funtzio positiboa**: oinarria ematea gainontzeko kategorientzat; honen gainean, delituaren eraikinak lurra izango duelarik: ekintza-portaera izeneko kategoria delitu ororen *gutxieneko euskarria* dugu.

3.B. TIPIKOTASUNA

Tipikotasunaren funtzioa **legezkotasun printzipioarekin** lotuta dago: ez dago deliturik aldeztutako legeak jarduera jakin bat delituzkotzat jotzen ez duen bitartean. Guk ez dugu erabakitzen zer den delitua, legeak baizik. Horregatik kasu praktikoko baten irtenbidearen bila bagabiltza, kategoria hau aztertzerakoan beti Zigor Kodearen artikuluen zenbakia/k azaldu behar dira, manu penal bereziei dago(z)kienak, delitu baten **BEREZITASUNEN** (*tipikoa* denaren) berri ematen diguten neurrian.

Tipo mota guztietan tipo **objektiboa** eta tipo **subjektiboa** desberdindu behar ditugu: desberdintzea ezin da, ordea, zentzu absolutuan hartu:

- Tipo **objektiboa**, egileak/parte-hartzaileak egindako ekintzaren elementu tipiko objektiboak, *kanpoko elementuak* deskribatzen dira, hain zuzen, delituaren legezkotasunaren arabera (giza hilketak deskribatzen dutenak, edo lapurreta, nola aurrera eraman den, gertatutako emaitza...).

⁴ Bai dolozko, bai zuzenbidearen egite-delituaren, baita ez-egite delituaren ere “borondatezko” jarduerak gertatu behar dira. Ezin da nahastu “borondatezkoa” izatea eta “doloz” jardutea.

- Tipo **subjektiboan**, egilearen/parte-hartzailearen *barruko aldea* (doloa, zuhurtziagabekeria) aztertzen da baina ekintzarekiko harremanetan (ez *barruko jarrera hutsa*: pentsamenduak ez du deliturik egiten) eta EDOZEIN PERTSONA ARRUNTAREN ereduaren arabera. Tipikotasunaren alderdi subjektiboan oraindik ez dira egile jakinaren anormaltasun zehatzak kontuan hartzen, aurrez suposatutzat jotzen delarik, egilea/parte-hartzailea *normala* dela, hots, gaitasun psikiko normalak dituela edo motibatze gaitasun normala duela (anormaltasunak, patologiak, hortaz, sistematikoki aurrerago aztertzekoak dira: erruduntasunean hain zuzen ere). Galdetzen da, zehatz-mehatz, zein motatako BORONDATEZ jardun duen egileak/parte-hartzaileak: ea ekintza egiterakoan ote zekien zer egiten zuen eta ea hori nahi ote zuen; ala *nahi gabe* aritu zen, hau da, zuhurtziagabekiaz.

Tipo objektiboaren elementuak (egite-tipo dolozkoarenak).

- SUBJEKTU AKTIBOA: tipoa, ekintza tipikoa, aurrera eramaten duena da (egileta/partaidetza arazo bereziak, ordea, oraindik sakontzen ez badira ere);
- TIPO MOTA. Tipoaren inguruko sailkapen abstraktuak kontuan hartzen dira hemen. Sailkapen nagusiak honako hauek dira: egite/ez-egitea; dolozkoa/zuhurtziagabekoa; emaitza-delitu/jarduera soilekoa. Emaitza-delitueta, tipoak galdatzen du, egindako ekintzaren ondorioz emaitza jakin bat sortzea, hala denboran nola espazioan ekintzatik desberdintzen dena (esaterako: lesio delitua, giza hilketa). Jarduera soileko delitueta ekintza egitearekin, emaitzarik ez badago ere, nahikoa da tipoa osaturik gerta dadin (adibidez, arma edukitze zilegia ez dena). Azken sailkapen honek garrantzi praktikoa berezia dauka, kausalitate-harremanari dagokionez, izan ere bakarrik (egiteko) emaitza-delitueta KAUSALITATE-HARREMANA baieztatu behar baita. Kausalitate-harremana, izaera fisikoa duen harremana dugu, ekintzaren eta emaitzaren artekoa. Tipo guztietan, ordea, ez da kausalitate-harremanaren elementu tipiko hura eskatzen tipo objektiboa ezarri ahal izateko: alegia, jarduera soileko delitueta eta ez-egite tipoetan ez da kausalitate-harremanik galdatzen tipikotasuna osatzeko.
- EGOZPEN OBJEKTIBOA (EZ SUBJEKTIBOA EDO PERTSONALA → ERRUDUNTASUNA): kausalitate-harreman fisikoa zenbait tipotan bakarrik galdatzen bada ere, egozpen objektiboa BETI baieztatu behar da edozein tiporen alderdi objektiboa ezartzerakoan. Honen eduki zehatza aldatuko da tipo motaz tipo mota, baina, oro har, ARRISKU-HARREMANA ezartzeraz zuzentzen den elementua dugu. Hau da, honen bitartez, ekintzak sortu duen arriskua, legeak debekatu nahi duen horietarikoa ote den ala ez —maila BALORATIBOAN, ez fisikoan— baieztatu nahi da. Dolozko egite-delitueta, emaitzakoetan hain zuzen, bi azpielementu baieztatzeraz behartzen gaitu:
 - juridikoki gaitzetsitako arrisku bat sortu den eta,
 - ea gertatu den emaitza sortutako arriskuaren gauzatzea ote den.
- ONDASUN JURIDIKO BABESTUA (ondasun juridiko-PENALA), OBJEKTU JURIDIKOA ere deitua: lege zehatzak, tipoak, babestu nahi duen objektu abstraktua da, honen identifikazioa aldeztu aurretik bereganatutako eduki teorikoen menpe dagoela (esaterako: bizitza, ondarea, ingurumena, eta abar).
- SUBJEKTU PASIBOA: babestutako ondasun edo interesaren titularra da. Kontzeptu hau bereizi behar da delituaren objektu materialaren kontzeptutik eta kaltetuarenetik (<<perjudicado>>). Azken hau, erantzukizun zibilar dagokio, izan ere, kaltetuak asko izan baitaitezke (hildakoa ez ezik, senitarteko guztiak, eta abar).
- OBJEKTU MATERIALA: baita *ekintzaren objektua* ere deitua, ekintza tipikoa fisikoki jasaten duen objektu edo pertsona dugu (hildakoa, lapurtutako dirua...).

4. Tipikotasunaren ondoko kategorian, **zuzenbidekontrakotasunean**, ikuspegia bestelakoa da: ez dira jarduera tipikoaren elementu positiboak baieztatzen, baizik eta tipikoa ematen duen ekintza noiz ez den, salbuespenez, delituzkoa. Hiltzea, esaterako, delituzkoa izan ohi da legebidezko defentsarik ez badago. Kategoria honekin loturik, hortaz, bidezkotze-kausen azterketari ekiten zaio, debekatuta dagoenaren gaineko definizio *objektiboa* osatzen delarik.

5. Azkenik jarduera tipikoa eta zuzenbidekontrakoa izanez gero, egile edo partaidearen **erantzukizun pertsonala —erruduntasuna—** aztertzen da. Egindakoa delituzkoa dela baieztaturik, orain egindakoaren eta egilearen arteko lotura interesatzen zaigu: pertsona *normala* da delitua egin duena? Kategoria honetan egin denaren aurrean erantzun behar den (zigorra) ala ez erabakitzen da, subjektua *normala* ez den kasuetarako segurtasun-neurriak ezarri ahal izango direlarik.

1.1.2. ZATI OROKORREKO FUNTSEZKO ESKEMA PRAKTIKOAK

Orain aurkezten diren eskemak hurrenkera jakin baten arabera ordenaturik daude, hain zuzen arrazoi pedagogikoek bultzatutako hurrenkera.

Lehenengo hirurek (**1.1.2.1.; 1.1.2.2.; eta 1.1.2.3.**) delituaren teoria orokorraren eskema nagusia biltzen dute eta aurreneko apartatua (**ik. 1.1.1.**) horien funtsezko azalpena ematera zuzendu da. Lehenengo hiru eskema hauen ardatza doloeko egite-delituak dugu, ikuspegi historikotik begiratuta zuzenbide penalaren zientzia modernoaren sorreran egon zen *delitu-eredua* hain zuzen ere. Hiru eskemok, ordea, gainontzeko delitu-ereduetarako osagai komunak ere badakartzate bai zuhurtziagabekeria (**ik. 1.1.2.11.**) bai ez-egite (**ik. 1.1.2.12.**) eskemaren berezitasunekin harremanetan jarri beharrekoak. Delituaren teoria orokorraren logika behar bezala ulertu ahal izateko ez da, aitzitik, komeni, hasiera batean bederen, doloeko, zuhurtziagabeko eta ez-egite delituak, denak batera, estudiatzen hastea. Hobe da, lehenik eta behin, Zati orokorraren logika doloeko tipoaren esparruaren testuinguruan aurkeztea eta gero gaineratzea beste delitu-tipoek dituzten berezitasunak eta ñabardurak.

Laugarren eta bosgarren eskemak (**1.1.2.4. eta 1.1.2.5.**), dagoeneko delituaren funtsezko osagaiak eta osagai akzidentalak ikusirik, jarduera deliktiboaren graduak buruzkoak dira. Delituak, egile jakin baten buruan hura egiteko asmoa sortzen den unetik egiten den arte, *bide* bat (<<iter criminis>>) jarraitzen du. Delitu egiteko planak ez dira beti arrakastatsuak suertatzen eta agian, hala nola, hil nahi zuen arren egileak ez du hori lortzen. Garatze graduari buruzko eskemak arau nagusiak ematen dizkigu, zehazteko, kontuan hartuta delitu noraino heldu den, erantzukizun penalak nolakoa izan behar duen eta nondik aurrera hasi behar duen ere. Partaidetza graduak, beste ikuspegitik, jarduera deliktiboan parte hartzeko moduak jorratzen ditu eta parte-hartzaile ugari dauden kasuetarako bakoitzaren erantzukizuna nola argitu behar den inguruko arauak aurkezten ditu. Daukan garrantzi praktikoagatik eta zailtasun-maila ere oso altua denez gero, saiakuntzari buruzko eskema oso bat eranstean da (**1.1.2.5.**).

Delituaren osagaiak eta garapen edo partaidetza graduak ikusi ondoren hurrengo bost eskemak (**1.1.2.6.; 1.1.2.7.; 1.1.2.8.; 1.1.2.9.; eta 1.1.2.10.**) zigorrari eta, oro har, delituaren ondorio juridikoei buruzkoak dira. Hauetariko lehenengoak (1.1.2.6.) zigorraren zehaztapena era sistematikoan aurkezten du, baita zigorra ez diren segurtasun-neurri, ondorio erantsi, erantzukizun zibil eta prozesu-kostuei dagokiena ere. Lehenengo eskema honen helburua ikuspegi orokorra ematea besterik ez da, batez ere zigorraren zehaztapena taxuz aurrera eraman ahal izateko kontuan hartu behar diren arauak eta artikuluak, oinarritzkoenak, bildu eta sailkatzeari begira. Bigarren eskeman (1.1.2.7.) zigor-motak azaltzen dira, Zigor Kodean nagusi diren sailkapenen arabera. Hurrengo hiru eskemak, zigorrari buruzkoak alegia, alderdi are praktikokoagoak jorratzera zuzentzen dira: dela zigorraren zehaztapena areago sakontzeko asmoz Auzitegi Gorenaren irizpideen ikuspegia ere kontuan hartuz (1.1.2.8.), dela ordezpenaren inguruko arauak era osatuagoz aztertze (1.1.2.9.), dela zigor erantsien ingurukoak zabalago aurkezteko (1.1.2.10.).

Aurkezteko falta diren gainerako eskemak bi multzotan sailka daitezke: bat, berezitasun tipikoak gaineratzen direnean eta, bigarrenik, bidezkotze-kausei buruzkoan.

1.1.2.11. eta 1.1.2.12. eskemetan, behin baino gehiagotan esan dugun moduan, delitu mota hauetan gertatzen diren zenbait berezitasun tipiko egituraturik azaltzen dira. Ikuspegi kontzeptualetik zailtasun gehiago dakartzaten delitu-ereduok, gure aburuz, *galdatzen zuten* ahalegin pedagogiko berezia, horien tipoei dagokien argumentazio-moduak errazteari begira.

Era berean, **1.1.2.13.; 1.1.2.14.; 1.1.2.15.; eta 1.1.2.16.** ataletan bidezkotze-kausei dagokien eskemak ditugu. Aurrenekoen kasuetan gehienbat tipikotasunaren inguruko alderdiak jorratu dira. Oraingo hauetan, tipikotasunaren ondorengo kategoriari ekiten zaio: zuzenbidekontrakotasun (penal)ari alegia. Bidezkotze-kausak duten ondorioetariko bat erantzukizun penala baztertzea da, babestu nahi den ondasun juridiko-penalak beste arloetako ondasunen argitan lehentasuna merezi ez duen neurrian. Hori gertatzeko, ordea, bidezkotze-kausa egon dadin alegia, ukanbehar jakin eta zorrotz batzuek gertatu behar dute. Eskemetan bidezkotze-kausen aurreuposamendu eta ukanbeharrak era sistematikoan aurkezten dira, horien ezarpena, beti ere ikuspegi praktikotik, errazteari begira.

1.1.2.1. ERANTZUKIZUN PENALAREN ESKEMA LABURTUA

DELITUAREN ELEMENTUAK

A.) FUNTSEZKOAK:

PORTAERA (EKINTZA-JARDUERA)
TIPIKOA
ZUZENBIDEKONTRAKOA
ERRUDUNA (EGOZPEN PERTSONALA-ERANTZUKIZUNA)
ZIGORGARRIA

B) AKZIDENTALAK:

ARINGARRIAK
ASTUNGARRIAK
MISTOA (BITARIKOA)

AGERTZEKO ERAK eta PARTAIDETZA

A.) GARATZE-GRADUA:

BURUTZEA
SAIKUNTZA
PRESTAMEN-EKINTZAK

B) PARTAIDETZA-GRADUA:

EGILETZA:
 zuzenekoa,
 bitartekoa,
 egilekidetza
PARTAIDETZA:
 induktorea,
 ezinbesteko laguntzailea,
 sopikuna

ZIGORRAREN ZEHAZTAPENA

- A.) Delituaren zigorra (61-72 artikulua)
- B.) Zigorren zehaztapenerako arau bereziak (73-79 artikulua)
 - Delitu pilaketa: erreal, ideiala
 - Delitu jarraitua
- C.) Zigor askatasun-gabetzaileak ordeztzeko erak (80-89 artikulua)
- D.) Segurtasun-neurriak (95-108 artikulua)
- E.) Zigor erantsiak (54-57 artikulua)
- F.) Ondorio erantsiak (127-129 artikulua)
- G.) Erantzukizun zibila (109-122 artikulua)
- H.) Prozesu-kostuak (123-124 artikulua)

1.1.2.2. DELITUAREN FUNTSEZKO OSAGAIEN ESKEMA

1.- DELITUAREN ELEMENTUAK	
A. FUNTSEZKOAK	
BIDEGABETASUN TIPOA (PORTAERA TIPIKOA ETA ZUZENBIDEKONTRAKOA)	
POSITIBOAK	NEGATIBOAK
PORTAERA (EKINTZA-JARDUERA)	PORTAERARIK EZA: indar jarkiezina, etab.
TIPIKOA * <u>tipo objektiboa</u> : - subjektu aktiboa - tipo mota - Kausalitate-harremana (?) - egozpen objektiboa - ondasun juridiko babestua - subjektu pasiboa - objektu materiala * <u>tipo subjektiboa</u> : doloa/zuhurtziagabekeria eta beste elementu subjektiboak.	ATIPIKOTASUNA *tipo(zko) errakuntza (14. Art.)
ZUZENBIDEKONTRAKOA	BIDEZKOTZE-KAUSAK - legebidezko defentsa (20.4 art.) - beharrian egoera bidezkotzailea (20.5 art.) - Eginbehar, eskubide, ogibide edo kargua (20.7 art.)
ERRUDUNA (EGOZPEN PERTSONALA-ERANTZUKIZUNA)	
EGOZGARRITASUNA	EGOTZEZINTASUNEZKO KAUSAK - anomalia edo aldakuntza psikikoa (20.1 art.) - buru-nahaste iragankorra (20.1 art.) - toxikazio osoa (20.2 art.) - adingabea (5/2000ko LO) - aldakuntza oharmenean (20.3 art.)
ZUZENBIDEKONTRAKOTASUNAREN KONTZIENTZIA	DEBEKU(ZKO) ERRAKUNTZA (14 art.)
BESTELAKO PORTAERA BATEN GALDAGARRITASUNA	-BELDUR GAINDIEZINA (20.6 art.) -BEHARRIZAN EGOERA ERRUGABETZAILEA (20.5 art.)
ZIGORGARRIA	
	ZIGORRA GALARAZTEN DUTEN KAUSAK - Kausa pertsonalak: immunitate eta desenkusa absolbitzaileak (268, 454, 480 art., etab) - Zigortzeko baldintza objektiboak.
B. AKZIDENTALAK	
- Inguruabar aringarriak (21 art.) - Inguruabar astungarriak (22 art.); ik. 136 art. Zigor-aurrekarien ezerezteari dagokionez - Inguruabar mistoa -edo bitarikoa- (23 art.)	

1.1.2.3. DELITUAREN OSAGAI AKZIDENTALEN ESKEMA (erantzukizun kriminalaren inguruabar aldarazleak)

ERANTZUKIZUN KRIMINALAREN INGURUABAR ALDARAZLE ARINGARRIAK (21. ARTIKULUA)

- 1- Salbuesle ez-oso (osatugabea).
- 2- Mendekotasun larria.
- 3- Zoroaldia, itsualdia edo beste grinaldi bat.
- 4- Aitortzea.
- 5- Kaltea konpontzea/murritztea.
- 6- Analogikoa.

ERANTZUKIZUN KRIMINALAREN INGURUABAR ALDARAZLE ASTUNGARRIAK (22. ARTIKULUA).

- 1- Alebosia/Maltzurkeria.
- 2- Mozorroa, nagusitasun abusu edo leku zein denbora-inguruabarrak edo beste pertsona batzuen laguntzaren ondoriozko inguruabarrak aprobetxatzea (ofendituaren defentsa ahuldu edo delitugilearen zigorgabetasuna erraztekoak).
- 3- Prezioa, saria, hitzmate
- 4- Arrazakeria- nahiz bereizkeria-zioak.
- 5- Biktimaren sufrimendua handitzea (ankerkeria).
- 6- Konfiantza-abusu.
- 7- Izaera publikoaz baliatzea.
- 8- Berrerortzea.

ERANTZUKIZUN KRIMINALAREN INGURUABAR ALDARAZLE MISTO (EDO BITARIKOA) (23. ARTIKULUA).

INGURUABAR ALDARAZLEEN TEORIA OROKORRA:

- Komunikagarritasuna (65 artikulua).
- Inguruabarren jokabide orokorra (66 artikulua).
- Atxikitasuna (67 artikulua).
- Bateragarritasuna.

1.1.2.4. DELITUA AGERTZEKO ERAK: IKUSPEGI OROKORRA

A. GARATZE GRADUA

PRESTAMEN EKINTZAK

Arau orokorra: zigorgabeak. Salbuespenez, ordea, zigorgarriak dira, legeak bereziki horien zigorra ezartzen duenean: hala nola, baina ez bakarrik, **konspirazio, proposamen eta probokazio/zirikatz**e kasuetan, hauen zigorra legeak aurreikusten duenean (17-18 art.).

(Beti ere, prestatu ondoren, saiakuntza edo burutzea gertatzen ez bada!!!)

SAIAKUNTZA (16 art.)

Kanpo-egintzen bidez, zuzeneko egikaritzaren hasiera dugu. Egikaritz-ekintzak, guztiak, bakarra edo gutxi batzuk aurrera eramaten ditu egileak, baina ez da burutzen, hain zuzen bere borondatez kanpoko arrazoiak direla-eta. Egikaritz bertan behera utziz gero, zigorgabe geldi liteke.

BURUTZEA

Tipoaren elementu objektibo eta subjektibo guztiak gertatzen dira. Ez da beharrezkoa delitugileak bere azken asmoa lortzea (**agortzea**)

B. PARTAIDETZA GRADUA

EGILETZA (28 art.)

Egileak dira portaera aurrera eramaten dutenak:

- beren kabuz (**egile zuzenekoa**)
- elkarrekin (**egilekideak**)
- tresnatzat erabiltzen duten beste baten bitartez (**bitarteko egilea**).

Egiletzat joko dira (egiletzaren legezko kontzeptua):

- zuzenean eta eraginkortasunez, baina esku hartu gabe, egitatea gauzatzera induzitzen dutenak (**induktorea**)
- delitua burutzeko ezinbestekoa den laguntzaren bat jartzen duena (**ezinbesteko laguntzailea**)

Egiletza-kasu bereziak: 30 eta 31 art.ak.

SOPIKUNTZA edo KONPLIZITATEA (29 art.)

Egitatea gauzatzen laguntzen dute, aurreko edo aldi bereko egintzen bitartez, baita gerokoen bitartez ere aldeztu aurretik agindutakoak izan badira. Edonola ere egile izatera heldu barik (**sopikuna edo laguntzaile hutsa**)

ESTALKETA (451 art.)

Ez da partaidetza modu bat, delitu independente eta autonomoa baizik. Egitate zigorgarriaren gauzatzearen berri eduki eta hurrengo moduetako batean jokatzean datza:

- delitugileei laguntza ematea, haien probetxua atera dezaten;
- delituaren gorputza, ondorio edo tresnak ezkutatzea;
- delitugilea ezkutatzea edo haren ihesean laguntza ematea, baldin eta funtzio publikoen abusua badago edo zenbait delitu astunetan.

1.1.2.5. SAIAKUNTZARAKO IRIZPIDE PRAKTIKOAK

1 - NOIZ HASTEN DA SAIAKUNTZA? PRESTAMEN ETA EGIKARITZA EKINTZEN ARTEKO EZBERDINTASUNA:

TEORIA MATERIALA, OBJEKTIBO-SUBJEKTIBOA (MIR PUIG):

- 1. Subjektu aktiboaren plana kontuan harturik**
- 2. Hura baloratu behar da era *objektiboan*: hau da,**
 - 2.1. Arrisku jartze hurre-hurrekoa (<<inmediato>>): jarduerak ondasun juridikoa dagoeneko arrisku bizian jarri al du?
 - 2.2. Ondasun juridikoarekiko lesio-hurbiltasuna (hurre-hurrekotasuna) denboraren ikuspuntutik: ba al dago beste ekintza posiblerik egikaritza tipikoaren eta egindakoaren artean? (bitarteko ekintzen teoria)

2.- SAIAKUNTZAREN BEREZITASUN TIPIKOAK —16 art.— (ELEMENTUAK):

1. TIPO OBJEKTIBOA:

- 1.1. EMAITZA GERTATZERIK EZ
- 1.2. EGIKARITZA EKINTZA BAT EDO BATZUK
- 1.3. BORONDATEZKO BERTAN BEHERA UZTERIK EZ

2. TIPO SUBJEKTIBOA:

BURUTZEKO DOLOA (Zuhurtziagabekeria ez da posible)

1.1.2.6. ZIGORRAREN ZEHAZTAPENA: IKUSPEGI OROKORRA

A. DELITUAREN ZIGORRA

DELITUARENA OROKORKI

- Tipoan ezarritakoa: oinarritzko zigorra (edo zigor abstraktua)
- Zigorren sailkapena: 33 art.
- Gradu-aldaketa:
 - *goiko gradukoa: 70 art.
 - *beheko gradukoa: 71 art.
- Isuna: 51 eta 52 art.
- Beste zigorrak: 72 art. analogiaz erabiltzekoa.

DELITUAREN GRADUA

- Garatze-gradua:
 - *burutzea: legean ezarritako zigorra (61 art.)
 - *saiakuntza: gradu bat edo bi gutxiagoko zigorra, arriskutsutasun eta egikaritza mailaren arabera (62 art.). Salbuespena: 64 art.
- Partaidetza-gradua:
 - *egilea: legean ezarritako zigorra (61 art.)
 - *sopikuna: gradu bat gutxiagoko zigorra (63 art.). Salbuespena: 64 art.

INGURUABAR ALDARAZLEAK

- Aringarri eta astungarrien jokabide arrunta (66 art. 1, 2 eta 3 arauak)
- Gradu bat edo bitan zigorra beherarazi egin dezaketenak:
 - *bi aringarri edo gehiago, edo aringarri oso kualifikatu bat (66.4 art.)
 - *salbuesle ez-oso (osatugabea) (21.1/68)
- Isunak: epaile-erabakimena, egindako kaltea, lortutako etekinaren balioa, inguruabarrak eta, batez ere, delitugilearen egoera ekonomikoa kontuan hartuz (52 art.)

B. ZIGORRAREN ZEHAZTAPENERAKO ARAU BEREZIAK

-ARAU OROKORRA (73 art.)

Zenbat delitu, hainbat zigor, denak batera betetzeko ahal bada.

-DELITU JARRAITUA (74 art.)

- *Arau orokorra: lege-urratze astunenaren zigorra, bere goiko erdian
- *Ondasunaren aurkako urratzeetan: eginiko kalte osoa kontuan edukiko da eta, egitateak astuntasun handi eta nabarmenekoak izateaz gain, pertsona multzo handi bat kalteturik suertatuko balitz, orduan zigorrak gradu batean edo bitan gora egingo luke.

-DELITU-PILAKETA ERREALA (73, 75, 76, 78 art.)

Zenbat ekintza, hainbat delitu. Zigorrak:

- *bateragarriak direnean: denak batera eta osorik bete behar
- *bateraezinak direnean: elkarren segidan, astunenaren hirukoitza eta beti ere gehienez 20 urteko muga gainditu ezin delarik. Salbuespenak: 76.1 eta 78 art.

-DELITU-PILAKETA IDEALA (77 art.)

Portaera bakar bat, hainbat delitu. Edo beste delitua gauzatzeko bidea izan den delitua.

Zigorra: astunena, bere goiko erdian edo, mesedegarriagoa izatekotan, zigor guztien batuketa.

C. ZIGOR ASKATASUN-GABETZAILEAK BETEARAZTEKO ORDEZKO ERAK

- **Baldintzapeko kondena** edo zigor askatasun-gabetzaileen betearazpena etetea:

- *gaixotasun sendaezina (80.4);
- *bi urte arteko zigorra, aurrekari penalik gabe (80.1/81);
- *hiru urte arteko zigorra, drogamenpekotasunagatik egin bada delitua (87 art.).

Betekizun bereziak: 83 eta 87 art.

-Espetxealdi urtebete artekoa (88.1 art.) edo, salbuespenez, bi urte artekoa **ordeztea**:

*asteburuko atzipenaldia

*isuna

-Asteburuko atzipenaldiak **ordeztea** (88.2 art.)

*isuna

*gizartearentzako lanak

-Atzeritarrentzako: sei hilabete artekoak, **kanporatzea** (89 art.)

D. SEGURTASUN-NEURRIAK

-Noiz:

***salbuesle osoaren** kasuan: 20.1,2,3 art./101, 102, 103 art.

***salbuesle ez-osoaren** kasuan: 21.1/20.1,2,3 art./104 art.

-Bikarriotza-sistema: 99, 101, 102, 103, 104 art.

-**Adingabeen kasuan**: 19 art./Urtarrilaren 12ko 2/2000 Lege Organikoa

E. ZIGOR ERANTSIK

-Epaian berariaz kondenatu beharra dago (56 art.)

-Zigor nagusiaren iraupen bera (55 art.)

-Zigor nagusi bakoitzari dagozkionak (55, 56, 57 art.)

F. ONDORIO ERANTSIK

-Konfiskazioa (127, 128 art.).

-Enpresa, elkarte, eta abarri dagozkienak (129 art.)

G. ERANTZUKIZUN ZIBILA

-Erantzukizun zibila duten pertsonak (116, 122 art. eta 1. Xed. Derg.: 20.1 art. ZK zaharrekoa)

-Noraino heltzen da erantzukizun zibila (109 eta 115 art.)

H. PROZESU-KOSTUAK

-Nortzuei ezartzen zaizkien (123 art.)

-Barne biltzen direnak (124 art.)

1.1.2.7. PENA-SISTEMA: IKUSPEGI OROKORRA

Egungo lege-arauketa

1. **Zigor Kode berriaren** lehenengo liburuaren III. TITULUAK honako izena du: "ZIGORRAK" (32 art. eta hurr.).

Aipatu tituluak hiru kapitulu ditu:

- I. Kapituluak: Zigorak, zigor-motak eta ondoreak.
- II. Kapituluak: Zigorren ezarpena.
- III. Kapituluak: Zigor askatasun-gabetzaileak betearazteko ordezkotako erak

Lehenengoan zigor-mota bakoitzaren edukia deskribatzen da, 32tik 60 arteko artikuluetan.

2. Asteburuko atzipenalaldiaren kasuan eta gizartearentzako lanaren kasuan, Zigor Kodeaz gain, **Apirilaren 26ko 690/1996ko Errege-Dekretua** kontuan eduki behar da (<<Real Decreto 690/1996, de 26 de Abril, por el que se establecen las circunstancias de ejecución de las penas de trabajo en beneficio de la comunidad y arresto de fin de semana>>).

Sailkapen nagusiak

Hiru dira, 32 eta 33 artikuluetan ezartzen diren sailkapenak.

1.- Ukitzen den ondasun juridikoaren arabera zigorak hurrengo mota honetakoak izan daitezke (32 art.):

- * zigor **askatasun-gabetzaileak** (<<pena privativa de libertad>>),
- * **beste eskubide batzuek gabetzekoak** (<<pena privativa de otros derechos>>),
- * **isuna** (<<multa>>).

2.- Zigorra **nagusia** (<<principal>>) edo **erantsia** (<<accesoria>>) izan daiteke⁵: lehenengoa delituari zuzenean ezartzen zaion zigorra dugu; bigarrena, berriz, zigor nagusi batekin lotuta doan pena da (ZKaren 54 artikulua eta hurr.).

Zigor erantsietarako kondenak beti berariazkoa izan behar du: hau da, epaileak/auzitegiak, zigor nagusiarekin lotuta doan pena, beti epaian espresuki aipatu eta zehaztu behar du (79 artikulua). Hala egin ezean, ezingo da inolaz ere ulertu erruztatua inongo zigor erantsira kondenaturik dagoenik.

3.- Penaren izaera eta iraupenaren arabera sailkapen hirukoitza egitea badago (33 artikulua):

- * zigor **astuna**,
- * zigor **ez hain astuna**,
- * zigor **arina**.

Ukitutako ondasun juridikoaren arabera zigorren zerrenda

ZIGOR ASKATASUN-GABETZAILEAK (35 artikulua)

- * ESPETXEALDIA (36 artikulua)
- * ASTEBURUKO ATZIPENALDIA (37 artikulua)

⁵ 32 artikulutik ondorioztatzen den sailkapena.

* ISUNA EZ ORDAINTZEAGATIKO ERANTZUKIZUN PERTSONAL SUBSIDIARIOA (53 artikulua)

BESTE ESKUBIDE BATZUEZ GABETZEKO ZIGORRAK (39 artikulua)

*ERABATEKO DESGAIKUNTZA <<inhabilitación absoluta>> (40, 41 artikulua)

*DESGAIKUNTZA BEREZIA <<inhabilitación especial>>:

enplegu eta kargu publikorako, lanbide, ogibide, industria nahiz merkataritzarako, guraso-ahalaren eskubide edo tutoretza-, zaintza- nahiz kuradoretza-eskubideetarako, edota hautagai izateko eskubiderako (40/42, 44 eta hurr.).

*ENPLEGU EDO KARGUALDI PUBLIKOAREN ETENDURA
<<suspensión de empleo o cargo público>> (40/43 artikulua)

*ZIKLOMOTORRAK EDO MOTORDUN IBILGAILUAK GIDATZEKO ESKUBIDEAZ
GABETZEA

<<privación del derecho a conducir vehículos a motor o ciclomotores>> (40/47.1 artikulua)

*ARMAK EDUKITZEKO ETA ERAMATEKO ESKUBIDEAZ GABETZEA
<<privación del derecho a la tenencia y porte de armas>> (40/47-2)

*LEKU JAKIN BATZUETAN BIZILEKUA IZATEKO, LEKU HORIETARA JOATEKO
ESKUBIDEAZ GABETZEA, EDOTA BIKTIMARENGANA (EDO SENIDE EDO BESTE
PERTSONENGANA) HURBILTZEKO EDO HORIEKIN KOMUNIKATZEKO DEBEKUA
<<privación del derecho a residir en determinados lugares o acudir a ellos, o de aproximarse a la víctima
(...) familiares u otras personas o de comunicarse con ellos>> (40/48)

* GIZARTEARENTZAKO LANAK (40/49)

ISUNA (50, 51 eta 52 artikulua)

1.1.2.8. ZIGORRAREN ZEHAZTAPENA: IKUSPEGI PRAKTIKOTIK (AUZITEGI GORENAREN IRIZPIDEAK)

1)- ABIAPUNTUA: 61 art. (OINARRIZKO PENA EDO ZIGOR ABSTRAKTUA)

2)- 62, 63 (64) art.: GARAPENA (SAIAKUNTZA)-PARTAIDETZA:GRADUAK BEHERA (I)

- GRADUAK GORA ETA BEHERA: 70.1 art.
 - BEHERA: 70.1.2
 - GORA: 70.1.1
- GRADUAK BEHERA (II):
 - ARINGARRI OSO KUALIFIKATUA: 66.4 art.
 - SALBUESLE EZ-OSOA (OSATUGABEA): 21.1/68 art.
- GORAKO GEHIENENKO MUGA: 70.2 art.
- BEHERAKO MUGARIK EZ: 71 (88-80) art.

3).- INGURUABARREN JOKU OROKORRA: GOIKO ETA BEHEKO ERDIA

- aringarri eta astungarriak edo ez batzuk ezta besteak ere (66.1)
- aringarri bat, bakarra (66.2)
- astungarri bat edo batzuk (66.3)

PENAREN ZEHAZTAPENA: ADIBIDEA

(giza hilketa, sopikun eta aringarri bat: aitorpena)

OP-----138 art.-----10-15 u. (espetxealdia)

GG-----61 art.----- “

PG-----63/70.1.2 art.-----5-10 u.

I-----21.4/66.2 art.-----5-7,5 U.

PZ-----5 urteko zigorra

ARAU BEREZIAK: DELITU PILAKETAK:

- ERREALA: 73 art. eta hurrengoak
- IDEALA: 77 art.
- DELITU JARRAITUA: 74 art.

Noiz ezarri behar da 66 artikulua? KASU BEREZIAK (I)

- 62 ETA GERO: 66? BAI
- 63 ETA GERO: 66? BAI
- 21.1/68 ETA GERO: 66?
 - Dot.: EZ
 - AG:
 - GRADU BAT eta gero: BAI
 - BI GRADU eta gero: EZ (BAI)

Noiz ezarri behar da 66 artikulua? KASU BEREZIAK (II)

- 62 eta 66.4 (+63): posible da, eta ohikoa
- 62 eta 68 (+63): posible da, eta ohikoa
- 66.4 eta 68 (+62,63): posible da (ez-ohikoa)

FALTAK:

61-72 EZ:638 art.

ISUNA

- ARAU OROKORRA: 50 art.
(66 art. : BAI)
- SALBUESPENA: 52 art.
(66 art. : EZ)
- ORDAINDU EZEAN: 53 art.: Erantzukizun pertsonal subsidiarioa

1.1.2.9. ORDEZPENA (88 art.)

- **Helburua:** iraupen laburreko presoaldiaren alternatiba izatea, batez ere aurrezaintza bereziaren arrazoitari oinarriturik (kodean konpontzeari berebiziko garrantzia ematen zaio).

-**Erabakimena:** epaileak/auzitegiak erabakitzen du, ordezpena ezartzen duen ala ez (<<podrán sustituir>>).

- Aldez aurretik alderdi guztiak entzun behar dira.
- Erabakia epaian bertan edo epaia eta gero (<<posteriormente en auto motivado>>) baina zigorraren betearazpena hasi aurretik hartu ahal da.

-**Ordezpena bete ezean gero** (88.2 artikulua), ordeztutako presoaldia beteko da, dagoeneko betetakoa, emandako neurketa-irizpideen arabera, deskontatuz. Urratzea ez da, halere, kondena-urraketaren delitutzat joko⁶.

-83 artikulua **betebeharraren bat edo batzuk** ezarri ahal izango dira.

-Ezin da **ordezpenaren ordezpena** egin (88.4).

ESPETXEALDIAREN ORDEZPENA: ERREGIMEN ARRUNTA (88.1)

-Presoaldia ezin da **URTE BAT** baino luzeagoa izan (urte bat, pena zehatza)⁷;

-Kondenatua ezin da **ohiko erruztatua** izan (Ohiko erruztatuaren definizioa: 94 art)⁸;

-Presoaldiaren ordeztze, **isuna edo gizartearen aldeko lanak** ezarri ahal izango dira:

Neurketa-irizpideak (<<bihurtze-moduluak>>):

- Isunaren kasuan: presoaldi-egun bakoitzeko 2 kuota (isuna ez ordaintzeagatik erantzukizun pertsonal subsidiarioaren kasuan erabiltzen den irizpide-neurketa berbera: 53 art.).
- Gizartearen aldeko lanen kasuan: presoaldi-egun bakoitzeko lan-egun bat.

⁶ 468 artikulua eta hurrengoak.

⁷ Pena batzuk batera egonez gero (oraindik betearazi gabekoak) batu behar dira eta urtebete baino gehiago izanez gero, ez da aplikatuko (hala nola, delitu-pilaketa errealearen kasuan...).

⁸ Hiru delitu edo gehiago egin izana galdatzen da “ohiko erruztatua” izateko, delituok kapitulu berekoak badira, bost urte arteko epean egin badira eta horien ondorioz jadanik kondena jaso bada.

ESPETXEALDIAREN ORDEZPENA: LEHENENGO ERREGIMEN BEREZIA (88.1, 2. lerroaldea)

- Gainontzeko guztia berdin mantentzen dela, **2 urteko** presoaldiak ordeztu ahal dira: beti ere, salbuespenez, aurrezaintza eta gizartean birsartzeko helburuak bereziki balioztatu ondoren.
- Presoaldiaren ordeztariko dira:
 - Isuna edo
 - Isuna ETA gizartearen aldeko lanak

ESPETXEALDIAREN ORDEZPENA: BIGARREN ERREGIMEN BEREZIA (88.1, 3. lerroaldea)

Ordeztu nahi den zigorraren delitua 173.2 izanez gero (etxeko indarkeria, ohikoa):

- Presoaldiaren ordeztariko lanak besterik ezin dira ezarri
- Eta betebeharrak (83.1 eta 2) halaberrez ezarri behar dira baita gizartean birsartzeko zein tratamendu psikologikorako egitarauak jarraitu beharra ere.

1.1.2.10. ZIGOR ERANTSIK

Pena **nagusia** (<<principal>>) edo **erantsia** (<<accessoria>>) izan daiteke⁹: lehenengoa delituari zuzenean ezartzen zaion pena dugu; bigarrena, berriz, **pena** nagusi batekin lotuta doan pena da (KParen 54 artikulua eta hurr)¹⁰.

Pena erantsia **ondorio erantsietatik** bereizi behar da. Ondorio erantsiak Kode penaleko I. liburuaren VI. tituluan aurreikusita daude (127 art. eta hurr.), bertan **konfiskazioa** eta **enpresa edo pertsona juridikoentzako neurriak** arautzen direlarik. Ondorio erantsiak ez dira penak, zeren eta penak dituen helburuetako bat ere betetzen ez baitute (ez ordainketa ezta aurrezaintza ere).

55 ARTIKULUA

Aipatu definiziotik abiatuta, benetan erantsia den pena bakarra 55 artikuluan ezarritako **erabateko desgaitzaintza** dugu, 10 urte edo gehiagoko espetxealdiarekin automatikoki lotuta doa-eta.

Erabateko desgaitzaintzak eduki hirukoitza du (41 artikulua):

- 1.- penatuak dituen ohore, lanbide eta kargu publiko guztiak **betiko kentzea** (<<privación definitiva>>¹¹), hauteskunde bitartez lortutakoak izanda ere;
- 2.- aipatu ohore, kargu eta eskubideak lortzeko gaitasunik eza, kondenak irauten duen bitartean;
- 3.- kargu publikoetarako hautatua izateko eskubideaz gabetzea, kondenak irauten duen bitartean.

Pena honen edukia inoiz ez da aldatzen, pena nagusi nahiz erantsi gisa ezarria izanagatik. Iraupena bai aldakorra dela, erantsia denean, beti pena nagusiaren iraupen berekoa izango baita (33.6 art.)¹².

56 ARTIKULUA

Artikulu honetan aurreikusten diren penak ezarri ahal izateko ezinbestekoa da **kentzen den eskubideak delituarekin zerikusi zuzeneko izatea**. Esaterako: erostetxe handietako zinpeko zaindari batek lantokian bertan lapurreta egiten badu, lanbide (pribatuaren) desgaitzaintza ezarri ahal izango zaio.

Beraz, zigor erantsiak ez dira automatikoki ezartzen. Horregatik, pena astunago batekin automatikoki lotuta ez doazen neurrian, erantsitasuna galtzen da. Ez dira pena erantsiak, pena **konposatuak** (<<compuestas>>) baizik, nolabait klausula orokor baten bitartez (56 art.) zenbait delitutarako aurreikusiak.

Zigor hauen iraupena ere zigor nagusiaren berbera dugu (33.6 art.).

57 ARTIKULUA

Delitua egin zen lekura itzultzeko debekua edo biktimak edo familiak duten bizilekura joatekoa, biktimologiaren testuinguru berrian kokatu behar dira. Saihestu nahi da, zenbait delitu pertsonaletan, delitua egin eta oso denbora gutxian, delitugileak eta biktimak elkar ikustea.

Teoriaz pena nagusia eta erantsia izan badaiteke ere, praktikan erantsia besterik ez da, izan ere, ez dago aurreikusita nagusi bezala Kode penal berrian inongo delitutan, ezta faltetan ere.

⁹ 32 artikulutik ondorioztatzen den sailkapena.

¹⁰ Pena erantsietarako kondena **beti** espresuki ezarri da: hau da, epaileak/auzitegiak, pena nagusiarekin lotuta doan pena, beren beregi aipatu eta zehaztu beharko du (79 artikulua).

¹¹ Hau da, kondenaren ondoren berreskura ezina.

¹² Pena nagusia denean, iraupena dagokion delituaren menpe dago, iraupen gutxienekoa eta gehienekoa, 40 artikuluen arabera, 6 eta 20 urte bitartekoa delarik.

Pena honen erantsitasuna are eztabaidagarriagoa da, **pena** batekin lotuta ez doan neurrian. Lotuta doa, aitzitik, delitu batekin. Argitasun handiagoz, pena konposatu baten aurrean aurkitzen gara, klausula orokorraren bitartez ezarritakoa.

Pena honek beste berezitasun garrantzitsu bat dauka: bere iraupena ez dela pena nagusiarena. Beraz, 33.6 artikularen salbuespena dugu, epaileak erabakimenez erabaki beharko duelarik iraupena, beti ere 5 urteko gehieneko muga errespetatuz.

Pena honen betearazpena¹³ ez da etengo, penatuak irteteko baimena, presondegizko onurak (<<beneficios penitenciarios>>) edo indultua eskuratuko balitu ere, bestela penaren zentzua galduko litzateke eta.

¹³ Kondena ezartzen den unetik hasten dena, presoaldia batera bete beharko balitz ere.

1.1.2.11. ZUHURTZIAGABEKERIAZKO TIPOAREN ESKEMA

TIPO OBJEKTIBOaren berezitasun tipikoak

1. KONTUZKO ARAUAREN URRATZEA (EKINTZA-GAITZESPENA).

1.1. **Barruko kontuzko araua:** arriskuaz alde zuretik jabetuz/ aurreikusi beharra.

1.2. **Kanpoko kontuzko araua:**

- ekintza arriskutsu jakin batzuk aurrera eraman ezina;
- prestatu beharra edota informazioa eduki beharra;
- egoera arriskutsuetan arretaz aritu beharra.

BAREMOA:

- gizabanako arrunta (pertsona arrunta);
- ex ante: alde zurretiko ikuspuntua;
- egilearen egoera zehatzean;
- egilearen ezaugarri zehatzak;
- egilearen ezaguera zehatza.

2. EMAITZAREN EGOZPEN OBJEKTIBOA (EMAITZA-GAITZESPENA).

2.1. Kausalitate-harremana: baldintzen baliokidetzaren teoriaren arabera.

2.2. Arrisku-harremana:

2.2.1. Arrisku tipikoa sortzea: dagoeneko ekintza-desbalioan baieztaturik.

2.2.2. Emaita, sortutako arriskuaren gauzatzea izatea.

TIPO SUBJEKTIBOaren berezitasun tipikoak

1. Zuhurtziagabeko ekintzaren ezaguera izatea eta hura (ez emaitza) nahi izatea; elementu positiboa (kulpaz kontziente ala inkontziente).

2. Gertatutako emaitza nahi ez izatea: elementu negatiboa.

1.1.2.12. EZ-EGITE TIPOAREN ESKEMA

EZ-EGITE HUTSAren berezitasun tipikoak

TIPO OBJEKTIBOA (bai dolozkoa, bai zuhurtziagabekeriazkoa denean)

1. Egoera tipikoa.
2. Portaera jakin bat ez egotea.
3. Ekintza egiteko gaitasuna.

TIPO SUBJEKTIBOA (bakarrik dolozko tipoetan)

Dolua jarduera pasibo edukitzeko (edo horretan irauteko) erabakian datza, jakitun izanik horren bidez tipoa osatu ahal izan daitekeela.

EZ-EGITEARENGATIKO EGITEAren berezitasun tipikoak

TIPO OBJEKTIBOA

1. Egoera tipikoa : BERME-EGOERA baieztatu behar;
2. Portaera jakin bat ez egoteaz gain : EMAITZA gertatu behar;
3. Ekintza egiteko gaitasunaz gain : EMAITZA SAHIESTEKO GAITASUNA

BERME-EGOERA MOTAK:

1. Ondasun juridikoaren babes-funtzioa:

- 1.1. Familia-harreman hertsia baten existentzia.
- 1.2. Arrisku-komunitatea.
- 1.3. Babes-funtzio baten onarpen borondatezkoa.

2. Arrisku-iturri baten kontrol-funtzioa:

- 2.1. Aldez aurretik jardutea.
- 2.2. Norberaren menpe-eremuan kokatutako arrisku-iturriak kontrolatu beharra.
- 2.3. Beste pertsonen jardueragatiko erantzukizuna.

1.1.2.13. LEGEBIDEZKO DEFENTSAREN ESKEMA

ERASOA (funtsezko ukanbearra: hau barik, ezin da salbuesle ez-osoan estimatu).

-**Ondasun juridiko indibidualen** kontrakoa: normalean biziaren edota osasuna/osotasun fisikoaren kontrakoa, baina beste edozeinen kontrakoa ere (ondare eta etxebizitzaren kasuetan lege-arauketa berezia).

(muga-kasuetan: erasotzailea errugabea da, edo desproporzio nabaria... alde egin behar)

-**Erasoa** fisikoa ala ez, pertsona batengandik datorrena, dolozkoa ala zuhurtziagabekoa, egite edo ez-egitearen bitartez, burutua ala saiaturakoa.

-Bidegabekoa, hots, **zuzenbidekontrakoa**: bi teoria. Bat: delitua bakarrik (portaera tipikoa eta zuzenbidekontrakoa, penala). Bi: edozein ekintza zuzenbidekontrakoa (penalaz gain, baita bidegabe zibila, eta abar ere).

-**Hurre-hurrekoa edo aldi berekoa**: (premia abstraktua-gehegikeria hedatzailea). Erasoa bukatu bada, ezin da legebidezko defentsa inbokatu.

-**Benetakoa**: bestela, legebidezko defentsa putatiboa (edo gehegikeria putatiboa, legebidezko defentsan), tipozko ala debekuzko errakuntzaren moduan (14 art.) tratatu beharrekoa.

-**Liskarraren** kasuan ezin da legebidezko defentsa estimatu (salbuespenak egon daitezke).

Erasoaz defendatzeko edo hura saihesteko zentzuzko beharritza (salbuesle ez-osoan estima daiteke, desproporzioa izugarria ez bada).

-**Premia zehatza** (gehegikeria intentsiboa): kalterik txikiena eragin behar da defentsa egiterakoan (neurtzeko irizpideak: ex ante, gizabanako arrunta neurbide, egile zehatzaren ezaugarriak eta jakintza zehatza kontuan harturik baita egoera zehatzean gure burua kokaturik ere). Azterketa: *gutxi gora beherakoa* izan behar (tentsio handiko egoerak dira eta).

-**Elementu subjektiboaz**: hots, doloz (barruko motibazioa ez da erabakigarri).

Defendatzailearen aldetik probokazio/zirikatzeko nahikorik eza (salbuesle ez-osoan estima daiteke).

Erasoa aurreko probokazio baten erantzun normala bada, orduan ez dago legebidezko defentsa estimatzerik.

1.1.2.14. BEHARRIZAN EGOERAREN UKANBEHARRAK

1.- FUNTSEZKO UKANBEHARRA: BEHARRIZAN-EGOERA IZATEA

Horretarako:

1.1. Arrisku-egoera gertatu behar da:

a. Arriskua:

- hurre-hurrekoa (hurre-hurrekotasuna ezartzeko irizpideak: *ex ante*, gizabanako arruntaren ezagueraz baita pertsona zehatzarenaz ere, azken honen egoera zehatzean kokaturik) eta
- benetakoa (bestela, premiazko egoera putatiboa gertatzen da).

b. Kalte edo gaitza:

- kaltea zer den balioesteko irizpide juridiko-soziala;
- norberarena edo beste batena izan daiteke (beharrizanerako laguntza), ondasun juridiko supraindibidualak ere defendagai direla.

1.2. Premiazkotasuna (erreakzionatzeko premia abstraktua).

1.3. Elementu subjektiboa.

GAINONTZEKO UKANBEHARRAK (KPn ESPRESUKI AIPATUAK DIRENAK)

2.- ERAGINDAKO KALTEA/GAITZA EZIN DA SAHIESTU NAHI DENA BAINO HANDIAGOA IZAN.

Jokoan dauden ondasun juridikoak ez, baizik eta kalteak konparatu behar dira, irizpide kualitatiboetan —duintasun balioa bereziki kontuan harturik— oinarritu beharra dagoela.

3.- BEHARRIZAN EGOERA SUBJEKTUAK ASMOAREKIN ERAGIN EZ IZANA.

-Beharrizan-egoera sortzea ez da nahikoa: arrisku-egoera bera, alegia, interesen elkarjotze bera aldeztu aurretik doloz sortu bada ezingo da gero bidezkotze-kausa hau argudiatu.

-Asmoz diharduen subjektua, beharrizanerako laguntzaren kasuan, laguntzailea da.

4.- BEHARRIZANA DUENAK, BERE BURUA, SAKRIFIKATZEKO BETEBEHARRA EZ IZATEA BERE OGIBIDE EDO KARGUA DELA ETA.

1.1.2.15. EGINBEHAR BAT BETETZEA (kargu publikoen kasua)

Aurresuposamendua: penala ez den lege batek, ondasun juridiko batean kaltea egiteko eginbearra;

- Eginbearra berezia, espezifikoa, izan behar (esaterako, atxilotzekoa);
- Eginbearra legezkoa izan behar da: ukanbeharrak legezatasun hori ziurtatzeko dira.

**Ukanbear
subjektiboa**

- 1.- Dagokion kargua izatea (esaterako, polizia);
- 2.- Kargua egikaritzen aritzea (<<competencia funcional>> izenekoa).

**Ukanbear materiala:
eginbeharraren muga
objektiboak**

Premiazkotasunaren eta proportzionaltasunaren printzipioak (mugak) errespetatu behar:

-premia abstraktua: funtzio publikoa aurrera eramateko premia egon behar (ez da kargu publikoaren kontrako erasorik behar);

-premia zehatza: proportzioa (egindako delituaren menpe).

Errakuntza

-normalean, bidezkotze-kausa baten egitatezko aurresuposamenduei buruzko errakuntzaren tratamendu orokorra;

-proportzionaltasunaren ingurukoa izanez gero, gaindi daitekeen errakuntzaren kasuan: zuhurtziagabekeriaren pena, salbuesle ez-osoarekin.

1.1.2.16. ZOR DEN OBEDIENTZIA (eginbehar bat betetzearen kasu berezia)

Aurresuposamendua

- Eginbeharraren legezkotasun-azterketa aginduari dagokio: ukanbeharrak, horregatik, aginduarenak dira.
- Aginduaren ukanbeharrak ZK 410 artikulutik ondorioztatzen dira, aipatu artikuluan funtzionarioen obediencia araututa dago eta.

Ukanbehar formalak

- 1.- Agintariaren eta aginduaren arteko hierarkiazko harremana egon beharra;
- 2.- Agindua emateko eskuduntza (materiala) eta menpekoari agintzekoa (eskuduntza pertsonala), beti ere eskuduntza abstraktua izan behar delarik hau da, ekintza-mota agintzekoa;
- 3.- Aginduak, legezko formalitateak bete behar ditu (ekintza deuseza egiten dutenak hain zuzen ere).

Horietariko edozein ukanbehar formal falta izanez gero ezin da salbuesle ez-osoia ere estimatu.

Ukanbehar materiala

Aginduaren zuzenbidekontrakotasuna oso agerikoa izanez gero, ez da betetzekoa (betez gero, delitua dago, zor den obediencia ezin da argudiatu; esaterako, hiltzeko agindua).

Agerikotasuna ezartzeko irizpidea: itxuraren teoriatik, *ex ante*, egile zehatzaren ezaugarriak eta ezaguera (ez iritzia) egoera zehatzean kontuan harturik, gizabanako arrunta neurbide dela.

1.2.- GAIEN ARABERAKO KASU PRAKTIKOAK

Ikusi berri ditugun eskemek duten helburua kasu praktikoen aurrean erabilgarriak izatea besterik ez da, Zati orokorreko arazo juridiko-penalak identifikatzen eta ordenatzen lagunduko dutelakoan. Horretarako apartatu honetan hainbat kasuren itzulpenak eskaintzen dira aipatu eskemen eragingarritasuna baieztatzeko aukera emango dutelakoan.

Gaur egun, zoritxarrez, Euskal Herrian jarduera juridikoa, salbuespenak salbuespen, oraindik ere erdarazkoa denez gero, kasu gehienetan itzultzeari ekin diogu. Horretarako, gehienetan, Espainiako Estatuko Auzitegi Gorenaren epairik esanguratsuenetariko batzuk aukeratu ditugu¹⁴, izan ere esparru akademikoan kasu praktikoari irtenbidea ematerakoan sortuko den eztabaida, benetan egon zenaren argitan –argi kritikoa– begietsiko baita. Benetako kasuak ditugu, hortaz, eta bi zentzutan benetakoak: benetan gertatu zirelako, batetik, eta, bestetik, benetan Justizia-Administraziora iritsi eta horien gaineko epaia eman zelako. Oinarri hau unibertsitatean dugun erronkari hoberen egokitzen zaiona da, jarduera juridiko-penala ezagutzeaz gain esparru akademikotik egin beharreko lan kritikoa ere ahalbideratzen eta errazten duelako.

Zuzenbide penaleko Zati orokorrarekin zerikusi duten arazo guztien gaineko kasu praktikoen bilduma ez dago egiterik. Alde horretatik gaien eta arazoen aukeraketa-lana egin behar izan dugu. Horretan irizpide artezkaria liburu honen helburu pedagogikoa izan da, zuzenbide-ikasketak egin nahi dituen eta hasi berria den ikaslearentzat ezinbestekoak diren arazoei ekiteko oinarritzko kasuei lehentasuna emanaz. Beste alde batetik, eskaintzen diren kasuak ia hamar urteko irakaskuntzan erabilitakoak ditugu eta horrek, hala ulertzen dugu guk bederen, nolabaiteko bermea gaineratzen du kasuon gaineko lanak eduki dezakeen eragingarritasunari begira.

Kasu praktikoa aurkezteko hurrenkera delituaren teoria orokorraren egitura eta ordenaren arabera dugu, orain argitu nahi ditugun ñabardura gutxi batzuekin. Hasteko zigorraren zehaztapena, mekanika, menperatzen laguntzeko ariketa batzuk proposatzen dira (**ik. 1.2.1.**), zigorraren graduak eta goiko edo beheko erdia zer diren, nola eta noiz ezarri behar diren argitzeko helburuarekin. Zigorraren zehaztapena erakargarria izan ohi da hasi berri den ikaslearentzat eta horrexegatik ere landu beharreko lehenengo alderdi praktikoa izateko egokia dela uste dugu. Beste alde batetik, eduki teorikoa bereganatu arte ikaslea ez dago zenbait alderdi praktikoa landu eta ulertzeko egoeran. Lehenengo ariketa horien ondoren, bidegabetasun-tipoaren mota funtsezkoak jorratzera zuzendutako kasuak ditugu (**ik. 1.2.2.-1.2.4.**). Hortaz bai doloazko bai zuzenbidearen lortu beharreko ezinbesteko erroka eta aldi berean zailtasun nabarmena. Aurrekoa ikusi eta ulertu delakoan oinarriturik, bidezko-kausen logikan eta mekanikan trebatzeko moduan gaude (**ik. 1.2.5.-1.2.7.**), horretarako, legebidezko defentsaren, beharizan egoeraren, eginbehar bat betetzearen, eta zor den obediencia gaineke kasuak proposatzen direlarik. Honekin zuzenbidekontrakotasun penaren kategoria sistematikoa, zentzu zabalean ulertuta, gaudituzat jo dezakegu eta delituaren teoria orokorraren bigarren funtsezko atalari ekingo diogu: alegia, erruduntasunari edo, egungo terminologia modernoaren arabera, egozpen (edota erantzukizun) pertsonalari. Hemen (**ik. 1.2.8.-1.2.10.**) batez ere egotzezinezko kausak erdigunean izango badira ere, bai debeku- errakuntza bai beldur menperaezinari buruzko kasuak ere eztabaidarako dakartzagu.

Delituaren funtsezko osagaien jokoak ulertutzat jo beharra dago bai zuzenbidekontrakotasun bai erruduntasun inguruko alderdi praktikoa nagusiak ikusi ondoren. Hala ere, aurrenekoak bezain garrantzitsuak ditugu garapen- eta partaidetza-arazoak (**ik. 1.2.11.**), saiakuntzaren mugak eta partaidetza-tituluen (egiletza, indukzioa, ezinbesteko laguntza, sopikuntza) arteko ezberdintasunak ezagutzera behartuko gaituztenak.

Azkenik, zigorraren zehaztapenaren inguruko arazo bereziekin zerikusi duten atalak kokatu dira. Alde batetik, beti korapilatsuak suertatzen diren delitu-pilaketak (delitu jarraitua barne) azaltzen dira (**ik. 1.2.12., 1.2.13.**); eta bestetik, izugarritzko joko praktikoa ematen duten baldintzapeko kondena eta ordezteak sakontzera zuzentzen den azkeneko apartatua (**ik. 1.2.14.**).

¹⁴ Zati orokorreko kasu praktikoen aukeraketa-lanean bereziki kontuan hartu dugu **ECHANO BASALDUA, Juan I. (koordinatzailea), Derecho penal. Parte general. Materiales didácticos, Bilbo, 1997.**

Bukatzeko argigarri gerta daitekeen azkeneko oharra: Zati orokorreko arazoei begira eginda dagoen kasu praktikoen bilduma honek gehienetan giza hilketa (erailketa) delitua du ardatz. Oso gutxitan izango dira bestelako jarduera deliktiboen ingurukoak. Horren arrazoia argia da: atal honetako helburua ez da tipifikazioa egiten ikastea, hori Zati Bereziaren egitekoa delako. Horregatik, Zati Bereziko edukiaren esperoan, guztiz aholkagarria da giza hilketari ekitea: hain zuzen ere, Zati Orokorreko dogmatika juridiko-penal modernoaren jatorrian dagoen delitua baita.

1.2.1. ZIGORRAREN ZEHAZTAPENA: ARIKETAK

- a) 227 artikuluko elikagai-pentsioa ez ordaintzeagatiko egilea, berrerortzeaz.
- b) Saiatutako ebasketaren egilea (234 art.).
- c) Gauzetan indarrez egindako lapurreta, saiakuntzan, laguntzaile huts gisa, biztanleduna den etxebizitzan (241 art.), prezioaren astungarriarekin.
- d) Delitu ekologiko baten ezinbesteko laguntzailea, hondamendia gertatzeko arriskua sortu duena (325 eta 326 art.), errudunaren izaera publikoaz baliatu izandakoa.
- e) Erailketa baten inductorea (139 art.), senarra biktima dela, buru-nahaste iragankorraren salbuesle ez-osoaz.
- f) Eroskeria (<<cohecho>>) delitu baten sopikuna (419 art.), legez kontrako ekintza jakin bat egiteagatik 150.000 € eskuratu dituen.
- g) Negozio-lokal batera sartzearekin batera, gizonetzko batek eta emakumezko beste batek, bertan dagoen saltzailea labana handi batez mehatxatu egiten dute, kutxan dauden 600 € ematea lortuaz. Gero biktimaren laguntzaz, etorritako jendea uxatzeko labanaz baliatuz alde egiten dute. Esandakoaren ondorioz, larderiez egindako lapurreta baten egilekideak dira biak (242.1 eta 2 art.). Gizonarengan aringarri oso kualifikatua estima daiteke, egitateen unean psikotropikoekiko mendekotasun astuna zuen eta. Biak birjausleak dira.
- h) Emakume bat, bigarren aldiz ezkontzen da, aurreko ezkontza, legearen arabera, oraindik baliaduna dela jakinik. Beraz bigamia-delitua egiten du (217 art.), beharizan egoeraren salbuesle ez-osoaz.
- i) Adingabeen artean droga leunak –haxixa gehienbat– banatzeari ekiten dio erakunde baten nagusiak (droga-trafikoaren delitua: 368, 369 eta 370 art.). Atzemandako drogaren balioa 3000 €koa da. Droga banatzeko erabilitako furgonetak 25.000 € balio du.
- j) Ausarkeria nabari eta larriaz kotxez gidatu du emakume batek, gainontzeko biziekiko mesprezua erakutsiz (384 art.), autoritateei urrapena aitortzeagatik aringarri oso kualifikatua estima daitekeelarik. Emakumeak bere jabetzakoa den ibilgailua gidatzen zuen, 50.000 €tan balioetsita. Bere lanari esker, urtero 15.000 € garbi irabazten du eta bere senarrarengandik legez banatuta dago, bere kargu hiru seme-alaba dituela.
- k) 16 urteko gaztea, lesio-delitu bat egindakoa, horretarako baliabide arriskutsuak erabiliz (148 art.). Alkoholen menpe aritu izanagatik aringarri soila estimatzea badago.
- l) 19 urteko gaztea, indarkeriaz aurrera eramandako sexu-erasoagatik (178 eta 180.2 art.), mozkortuta aritu izanagatik aringarriaz.

1.2.2. DOLOZKO TIPOA

Robertok oso harreman txarrak zituen Andresekin, honek elkarrekin zeramaten negozio batean engainatu zuelako. Hori dela eta, Robertok Isidoro konbentzitu zuen Andres hiltzen laguntzeko.

Aipatutako helburuaren bila, Roberto, gau hartan, parke bateko zuhaitz batzuen atzean ezkutatu zen, Andres, lanetik etxera bueltatzean, egunero egiten zuen moduan, noiz pasatuko zen zain. Isidoro, Robertorengandik hurbil, bidearen bazter batean kokatu zen eta, hitzarturikoaren arabera, Andres ia gainean zuela, zigarro bat piztu zuen. Seinaleaz oharturik, Roberto bidera azaldu eta, zeraman eskopetaz baliatuz, tiro egin zuen, bi metrotara zegoen Andresen aurka.

Andres, larriki zauriturik, lurrera erori zen eta minutu gutxiren buruan, kaletik zihoazen pertsona batzuek ikusi zutenean, jaso eta ospitale batera arineketan eraman zuten. Han interbentzio kirurgikoa egin bazioten ere, hilabete baten buruan hilik suertatu zen, jasandako zauri larriak gainditu ezin izan zituelako.

Robertok, erabilitako eskopeta eramateko eta erabiltzeko zegokion gida bazeukan. Beste alde batetik, Roberto aurreko urteko egun berberean kondenatua izandakoa zen, hain zuzen 6 hilabeteko presoaldira, lesio-delitu batengatik.

(138 art. eta hurr)

II

Evaristok, anbulantzia-enpresa baten arduraduna, Ciudad Realeko Tomelloso hirian bere seme-alabekin batera lanari ekiten zion. Egitateen aldian, INSALUDEkin zeukan kontzertua kendu zioten: aipatu kontzertu horri esker, kendu aurretiko aldian, erakunde publikoek abisatzen zioten, gaixoak eramateko, hain zuzen kontzertuaren titularrak zerbitzua egin ezin zuen bakoitzean. Aldi berean, Tomelloson Gurutze Gorriaren postu bat zegoen, enpresa pribatuek ezin zuten kasueterako, gaixoak eramateaz arduratzen zena. Edonola, Evaristok eta bere seme-alabek, Gurutze Gorrikoek lana kentzen zietela pentsatzen zuten.

2001eko uztailaren 15ean Evaristo Tomellosoko Gizarte Segurantzaren anbulatoria goizeko 8ak inguruan bere anbulantzia –Simca 1200 markakoan– joan zen, anbulatorioaren ondoko Concordia izeneko kalean anbulantzia aparkaturik utzi zuela. Hurbileko kafetegi batean kafe eta kopakada bat hartu ondoren, kaleratzerakoan –9ak aldean– anbulatoriotik Victor ateratzen zela ikusi zuen. Victor Gurutze gorriko tenientea zen, anbulatorioan A.T.S moduan lan egiten zuena. Biak elkarrekin gurutzatzerakoan, elkarri so egin zioten. Evaristo bere anbulantziara igo eta aldi berean Victor –Vespa motozikletaz– Evaristoren kontrako norantzakoan normaltasun osoz gidatzen hasi zen.

Victor berarengana gidatzen ari zela ikusirik, automobila martxan jarri eta Victorri kalte fisikoa eragiteko asmotan –heriotza bera baztertu barik– Victorren kontra indarrez azeleratu zuen, 15 bat metro eta gero, Vesparen kontra bortizki joz.

Elkar jotzearen ondorioz, Victorrek bai buruan bai hanketan zauri larriak jasan zituen, medikuntza-sendabidea eta sendabide kirurgiko ugari behar izan zituztenak. Azkenik, sekuela moduan, ezkerreko hanka betiko baliogabe geratu zitzaion.

(138 art. eta hurr.; 147 art. eta hurr.)

III

Amaiak, 17 urtekoa, bere senargaia Pedroren bitartez –drogazalea zena– Javierri heroína-dosi bat garbi-garbia pasatu zion. Bai Amaia, bai Pedro jakinaren gainean zeuden oso kaltegarria izango zitzaiola, izan ere Amaia mendeku bila zebilen, bere kontrako auzibide penal batean Javierrek emandako lekukotzarengatik.

Pedrok dosia pasatu zion Javierri azken honen etxean eta berarekin batera bere etxean egon zen, azken honek heroína bere buruari xiringatu arte: orduan etxetik alde egin zuen. Heroína zela kausa, Javier hil egin zen eta egunkarien bitartez horren berri izandakoan, Pedro, damuturik, poliziarengana joan zen, gertatutakoa aitortzeko.

IV

Pedrok, prozesatua, gaueko 10 t'erdia eta 11ak bitartean bere etxebizitzara heldu zenean, Maria, bere emaztea, erdi biluzik eta mozkor-egoeran aurkitu zuen. Hori dela kausa, eta Pedro alkoholiko kronikoa zenez gero, oso era bortitzean erreakzionatu zuen, Mariaren kontrako ukabilkada eta ostiko indartsu eta ugari emateari ekiten. Kolpeak emateko era mugagabekoa izan zen: hots, kolpearen ondorioz etor litekeen edozein emaitza baztertu barik, ezta oso emaitza astuna edo heriotza bera ere. Emandako kolpeen artean, urdailaren eta sabelaren kontrakoak bortitzenak izan ziren. Kolpatu ondoren, ohera eraman zuen eta han berarekin batera etzan zen.

Hasiera batean Pedro lotan gelditu bazen ere, denbora gutxiren buruan esnatu zen, izan ere Maria ohetik erori baitzen. Pedro, Mariari buelta ematerakoan, haren koroka¹⁵ entzutearen ondorioz beldurturik eta berak egindakoaz damuturik, oraindik bizirik zegoelakoan, mediku baten bila abiatu zen. Osagileak, ekintzako lekura heldu zenean, Maria hilik zegoela baieztatu besterik ez zuen egin, zeren eta, gero egin zitzaion autopsiatik ondorioztatzen den moduan, emandako kolpeengatik sortu ziren barruko lesioa oso astunek Mariaren heriotza eragin baitzuten.

(138 art. eta hurr.)

V

Akusatua, Francisco Javier, Armadako brigada, HIES¹⁶ eramalea zen eta horren jakinean zegoen, hainbat medikuntza-azterketaren emaitza positiboek esker; azkenekoa 1998ko urtarrilaren 22an egindakoa hain zuzen ere. Bere lanbidea dela eta, Santa Cruz de Tenerifera joan behar izan zuen, 1998ko otsailaren 5ean jadanik lanari ekiten ziola. Tenerifera heldu bezain laster, Ana, adin nagusikoa, ezagutu zuen eta biek, harremana hasi eta 8 edo 10 egunen buruan, elkarrekin oheratzeari ekin zioten, inolako preserbatiborik erabili barik. Oheratu zirenetan. Franciscok HIES eramalea zela bazekien ere, ez zion Anari ezer esan eta Anak, edonola ere, ez zuen horren berririk. Sexu-harremanaren ondorioz Franciscok Ana HIESaz kutsatu zuen, zenbait froga positibok agerian utzi zutenez; azkenekoa, 1998ko maiatzaren 26an egindakoa. Ana eta Franciscoren arteko harreman sentimentala bertan behera gelditu zen 1998ko martxoaren bukaeran.

Denbora gutxiren buruan, HIESaren berririk eman barik eta Ana kutsatu zuela jakin arren, adin nagusiko Maria Begoñarekin sexu-harreman osoak izan zituen. Hura, ordea, ez zen kutsaturik suertatu, geroago –urte bereko iraila eta abendua bitartean– burutu ziren froga batzuek erakutsi zuten moduan.

VI

Peiok Mikelekin eztabaida gogorra eta sutua izan zuen, ur-putzu bat erabiltzeko lehentasuna nork izan behar zuen. Hori dela eta, Peiok eskuan zeukan makilaz baliatuz, Mikeli buruan kolpe bakarra, sikua, eman zion, eta horren ondorioz Mikel putzura erori zen. Berehalaxe Peiok Mikel putzutik atera egin zuen, baina gero putzu ondoan utzi zuen. Bustidura zela eta, betidanik jasaten zuen bronkitis kronikoaren laguntzaz, Mikelek pulmonia idiopatikoa harrapatu zuen, heriotza ekarri ziona. Makilaz egindako zauriak, hortaz, ez zion heriotzarik eragin, gertatutakoa gertatu izan ez balitz, zauria hiru hilabeteetan sendatuta suerta baitzitekeen.

VII

Karlos, prozesatua, bere lagun batzuekin batera, hauetariko baten gurasoen txaletaren barruan zegoen, gauez, jai bat ospatzen. Une jakin batean, Oierrek, botila bat hartu eta Karlosi erronka bota zion, tiro batez botilan baietz jo, Oierrek berak zer bait edaten zuen bitartean. Karlos, ertzaina, txaletera heldu zenez geroztik, harropuzkerietan ibilitakoa zen, bere pistola ofiziala erakutsiz eta punteria egiteko trebetasun itzela zuela aldarrikatuz. Karlosek erronka onartu eta, Oierrek botilari eusten zion bitartean, destatu eta tiro egin zuen. Baina, tiro egiteko unean bertan, Oier mugitu egin zen, bere gainera eroritako ardo-tanta batzuk

¹⁵ **Koroka** (edo **zarra**): gaztelaniaz "estertor". Arnasa hartzeko modu berezia, antsiatua, hiltzeko zorian edo koma-egoeran izaten denekoa.

¹⁶ Hartutako Inmuno-Eskasiaren Sindromea.

astintzeko asmoz. Mugimendua zela eta, jaurtigaiak bihotz erdi-erdian jo zuen eta hilabete baten buruan Oier hil egin zen.

VIII

Sandrak, kartzela batean preso zegoen bere mutil-lagunari bisita egiteko zain zegoela, beste pertsona baten enkargua jaso zuen, hain zuzen beste preso bati pakete bat pasatzekoa, hainbeste bisita zegoenez itxaron ezin zuelako. Paketearen barruan, banana batzuetan ezkutaturik, droga zegoen. Sandrak ez zekien, ordea, droga zegoenik.

(368 eta 369 art.)

IX

Aingeruk, Luisenganako zuen aspaldiko gorrotoak eraginda, hura (Luis) hiltzeko erabakia hartu zuen. Erabakia hartzerakoan ez zekien Luisen ama, María del Carmen, urte askotako emakumea zenik ezta ere bihotzeko arazo larriak zituenenez, bere semearen hilketaren berri nekez jasan ahal izango zuenik.

Aingeru Luisen zain egon zen ordu batez, hain zuzen azken honek egin ohi zuen etxerako bidearen bazter batean ezkutaturik. Ikusi zuenean, bidera azaldu eta zeraman ehiza-eskopetaz baliatuz bi aldiz tirokatu zuen, sabelerantz destatuz. Tiroen ondorioz Luis unean bertan hilik gertatu zen.

Ordu baten buruan, Ertzaintzak hilketa eta gertatzeko moduaren berri Luisen amari eman zionean, tristurari eutsi ezinik, bihotzekoak jota hil zen, eraman zuten erietxean medikuak haren bizia salbatzen ahalegindu baziren ere.

(138 art. eta hurr.)

X

Ana prozesatuaren eta Feria zein Gálvez izenekoaren arteko harremana tentsio handikoa zela, Ana bi gizonen aurrean pasatzerakoan, Feriak, irain egiteko asmoz, "kontuz, zaborra" ozenki esan zuen, aldi berean eskuarekin toreatzeko keinua Anari egiten zion bitartean. Ana oso minduta eta bere duintasunaren kontrako erasoagatik senetik aterata, Feria jaunarengana abiatu zen erasotzeko asmotan, eskuineko hankako erdiko aldean bi ostikada eman zizkiolarik.

Ostikoen ondorioz 2 bider 1,5 zentimetroko hematoma besterik ez zen sortu, kolpearen tokitik ia azalik erori ez zela, laguntza medikurik gabe 15 egunetan osatzeko modukoa. Beraz aipatu epearen barruan arazorik gabe lan egiteko egoeran egon zitekeen, zauriaren manipulaziorik egon ez balitz. Izan ere, gertatutakoa eta gero, Feria jaunaren baimenarekin, identifikaturik ez dauden batzuek zauria manipulatu egin zuten, osatzeko epea luzaraziz, Anaren erantzukizun penala handiagotzeko asmoz.

Baina, manipulazioa dela kausa, gangrenatu egin zen zauria, eta 217 egunen buruan sendatu zen. Ondorioz, Feria jaunari hanka tolesteko ezintasun partziala betiko geratu zitzaion; hala ere, irtenbide kirurgikorik ezean, tramankulu ortopediko batez neurri handi batean konpentsa daiteke ezintasun hori.

(147 art. eta hurr. eta 617 art.)

XI

Biktima hotelera ailegatu zenean ondoezik sentitzen hasi zen, eta lunch moduko zerbeit hartzerakoan bere egoerak txarrera jo zuen. Bikarbonatoa eskatu zuen eta orduan Maria, hotelaren jabearen iloba, horren bila sukaldera abiatu zen. Mariak, ustez bikarbonatoa zeukan sukaldeko flasko bat hartu zuen, Mariaren izebak aipatu botika hartzen zuen bakoitzean erabiltzen zuen antza berberakoa izateagatik nahastuta. Benetan hartu zuen flaskoak, ordea, azido borikoa zeukan.

Mariak flaskoa zerbitzari bati eman zion eta azken honek biktimari. Biktimak, flaskoaren edukia zein zen aztertu barik, horren zati bat urez nahastu eta edan zuen.

Denbora gutxiren buruan, ospitale batean sartu zutenean, Medikuek poliziari eskatu zioten, hotelera bueltatzeko, biktimak hartutako substantziaren lagin bat har zezan. Baina, Mariaren aita Frantziskori produktua zeukan flaskoa emateko eskatu ziotenean, azido borikoa hustu eta bikarbonatoz bete ondoren eman zien.

Ordu batzuen buruan, biktima hil egin zen.

XII

Peiok eta Henrikek, gaueko 9etan "X" herriko dantzalekuan elkar topo egin ondoren, gaua elkarrekin eman zuten, harik eta 12ak inguruan haien arteko eztabaida gogorra piztu zen arte. Peiok, garrantzi txikiko liskarra eta gero, bai Enrike, nahiko mozkortuta zegoena, bai beste lagun batzuk bere kotxez eraman zituen beste dantza-tokirantz. Autoan zihoazela, une jakin batean Enrike eta Peio izan ezik, gainontzeko guztiak ibilgailutik jaitsi eta gerotsuago berriro elkar ikusteko geratu ziren. Martxan abiatu berriro ere Peio eta Henrike haserretzen hasi zirenez, Peiok automobila gelditu zuen eta Henrikeri, toki bakartu batean jaisteko agindu zion. Kanpoan eztabaidatzen hasi ziren eta Peiok Henrikeri kolpe bakar bat, baina indartsua, eman zion aurpegian; ondorioz Henrike erori egin zen. Peiok orduan autora igo ondoren alde egin zuen handik.

Kolpearen eraginez, eta ahultasun-egoera dela kausa, mozkortuta zegoelarik, odol-jario larria izan zuen, eta horrela aurkitu zuten bi lagunek handik ordu batera ospitalera eraman bazuten ere, medikuek ezin izan zuten Henrikeren bizia salbatu.

1.2.3. ZUHURTZIAGABE(KERIA)ZKO TIPOA

I

Alejandrok, medikuak, haurdun zegoen Mariari zesarea izeneko ebakuntza kirurgikoa egin behar izan zion, azken honek haurminetan erakusten zituen arazoak zirela eta. Ebakuntzan Alejandrok hainbat konpresa erabili zituen beste gauza batzuen artean. Azkenik erabilitako tresneria, konpresa, eta abar, buruz errepasatu ondoren, dagoeneko dena errekuaturik zegoelakoan, operazioa bukatutzat jo zuen.

Hala ere, interbentzioan erabilitako konpresa bat errekuaturik auzatu egin zitzaion. Zesarea egin zenez geroztik 48 eta 78 ordu bitartekoren buruan, pazienteak, hesteko ileo¹⁷ batek jota egoteko sintomatologia zeukala, erradiografia pare bat egiteko agindu zuen Alejandrok. Hauek egiteaz arduratu zen medikua, Mariaren sabelean ahaztutako material kirurgikoa zegoela ohartu zen, hain zuzen ezkerreko fosa iliakoa delakoan. Segituan, aipatu medikuak ikusitakoa Alejandrori jakinarazi zion. Honek, bere lankidearen iritzia eta informazioari jaramon egin gabe, ileo bat besterik gabe zelakoan, zegokion medikazioa eman zion Mariari, benetan gertatzen ari zen ileoa indargabetuz.

Pazienteak hobera egin ondoren, Alejandrok alta klinikoa eman zion, bi hilabeteren buruan berrikusteko data jakin bat ezarri.

Baina Mariak egon eza sentitzen zuenez eta aldi berean sabela handiturik zeukanez, Alejandoren kontsultara berriro ere jo zuen. Honek, abdomenean zerbait arraroa zegoela sumatu ondoren, ekografia bati esker, barruan zegoen konpresa ahaztua ateratzeko operazioa egin beharra zegoela diagnostikatu zuen. Horretarako Mariak beste mediku baten eskuetan jarri zuen bere burua, konpresa ateratzearekin batera, falopio-tronpa eta ezkerreko obarioaren gaineko 15 eta 20 zentimetro bitarteko ebakuntza egin behar izan ziona. Azken interbentzio honen ondorioz, ohiko zereginei ekin ezin izan barik 118 egunetan egon behar izan zuen Mariak eta haurrak izateko gaitasuna betiko txikiagotua suertatu zitzaion.

¹⁷ "Ileo intestinal" gaztelaniaz: koliko bortitza, hesteko euskarriak -"asas intestinales"- okertzean, hestea itxita geratzearen ondorioz gertatzen dena, "miserere" izeneko kolikoa eraginez.

(147 art. eta hurr.)

II

Peio, adin nagusia eta aurrekari penalik gabekoa, 1999ko otsailaren 8an Burgostik Sevillarantz bere autoan zihoan.

Gaueko 9ak inguruan, eta autoaren argiak behar bezala pizturik zeramatzala, kamioi baten atzetik, 30 metrotara, herri txiki batera hurbiltzen ari zen. Une honetan bere autoreen abiadura 70 km. ordukoa zen.

Aipatu herrira sartzen ari zela, eta errepidera begiratzen ari ez zelako, 60 urteko Manuel izeneko gizonezko bat harrapatu zuen, hain zuzen, Manuelek errepidea ezkerretik eskuinerantz zeharkatzen zuenean. Manuelek zeharkatutako lekua urrutitik problemarik gabe ikus zitekeen eta errepidearen zabalera puntu horretan 14 metrokoa zen.

Istripuaren ondorioz, Manuelek zauri larriak jasan zituen eta erietxera eraman zutenerako hilik zegoen.

III

Marianok, kamioilaria lanbidez, 1999ko uztailaren 6an biribilki laminatu batzuk bere kamioian kargatu zituen, zegozkion aseguru-klabeak lotu gabe. Xabierrek, Marianoren lankideak, Marianori biribilkiren bat erortzea eta horren ondorioz istripu bat gertatzea posiblea zela ohartarazi zion. Marianok erantzun zion beste alditan era berean bidaiatu zuela eta ez zela ezer gertatu beraz aldi honetan ere ezer gertatuko ez zelakoan zegoela.

Beranduago, Donostiatik Irunera doan errepidetik zihoala, Mariano Seat 600 bat aurreratzen hasi zen errepidearen zati zuzeneko baina labur batean. Zati horren ondoren berehala bihurgune bat zegoen eta Mariano bihurgunera hurbiltzen ari zela bira egin behar izan zuen, errepidearen lerro jarraiarren beste aldera pasatuz. Birakuntza bortitzaren ondorioz biribilki bat automobilaren gainean erori zen eta gidariak jasandako zaurien artean eskuineko begiaren ikusmena galdu zuen. Autoan eragindako kalteen balorazioa 83.000 pezetakoa izan zen. Mariano beste bi kasutan kondenatua izan zen, bi zuhurtziagabekeriazko faltak zirela kausa. Bi falta horien epaiak 1998ko ekainaren 3an eta 1998ko abenduaren 15ean ezarri ziren. Bi falta hauen kondena bakoitza 50.000 pezetako isuna eta gidabaimenaz gabetzea, bi hilabetekoa, izan zen.

IV

1997ko abenduaren 3an, arratsaldeko 6 t`erdiak inguruan, Manuelek Citroën furgoneta bat gidatzen zuen, herri baten sarrerarantz zeraman tarte zuzeneko batetik. Tarte horretako lastertasun gehienezkoa 60 kilometro ordukoa zen eta aipatu errepideko tartearen ezaugarriak honako hauek ziren: ikuspegi garbia, asfalto-garaztadazko zoladura¹⁸, egoera onekoa, eta errodatzeko egokia zena. Errepidearen zabalera 8'60 metrokoa zen. Beribilaren norantzakoaren eskuin aldean bazen ertz zoladuraduna edo oinezkoen pasabidea, osagai desberdinez egina eta errepidea baino pixka bat beherago kokatua, 2'80 metroko zabalera zena.

Victoria eta bere senar Pascual, beren lagun Santiagorekin, eta haren emaztearekin, furgonetaren kontrako norantzakoan, oinezko moduan ertzetik paseatzen ari ziren gertakariaren unean.

Gidariaren esperientzia gutxiagatik, gidabaimena aurreko irailaren 12an atera baitzuen, eta baita adi ez egoteagatik, errepidearen zabalera handia izan arren, furgonetak ertza inbaditu zuen. Santiago, zigarro bat pizteko asmoz, besteak baina atzeratuago gelditu zelarik, beribilak indar osoz harrapatu zuen, eta eragindako zauri larriengatik unean bertan hil zen.

Victoria, ikusitakoak beldurturik eta Santiagoren gorpua lurrean etzanda ikusirik, arineketan atera zen ikaratuta eta kontrako norantzakoan zetorren beste ibilgailu baten gorpilen beheko alderantz abiatu zen; azken honek, ekiditeko ezer egin ezinik, halabeharrez harrapatu egin zuen. Bigarren gertaera hau lehenengoaren ia parean jazo zen eta honen ondorioz Victoriari pelbisen, buru-hezurrean, ahoan eta kopetan hainbat zauri eragin

¹⁸ **Asfalto-garaztadazko zoladura:** gazteleraz "pavimento con riego asfáltico".

zitzaizkion, sendatzeko 93 egun behar izan zituztenak. Egun horietan laguntza medikua behar izan zuen eta eguneroko lanik egin ezin izan zuen; gainera, betiko 12 hortz galtzea, noizbehinka burukomina izatea eta buru hezurreen 6 zentimetroko orbain bi jasan beharko ditu.

(138 art. eta hurr.; 147 art. eta hurr.)

V

18 urteko Manuel, prozesatua, umezurtza, senitartekorik ez zuenez, familiakoa ez zen pertsona baten tutoretzapean egondakoa, bakarrik bizi zen eta duela bederatzi hilabete, 84 urteko bere auzokide Clemenciaren etxetik askotan pasatzen zen. Clemencia ere, alarguna zelarik bakarrik bizi zen eta beraren eta Manuelen arteko auzokide-harremanetan elkarri egindako mesede ugari egon izana baieztatzen da.

Manuelek denbora asko ematen zuen Clemenciaren etxetik pasatzen zenean, telebista ikusteko zeukan neurritz kanpoko zaletasunagatik batez ere. 1999ko ekainaren 21ean telebista ikusten egon zen, ostiraleko gaueko 9 t'erdietatik larunbateko egunabarra arte, ostiral gaueko telebista-emanaldi berezia bukatu arte alegia. Une horretan Manuelek, beste alditan ere egin ohi zuen moduan, bere etxera telebista alokaturik eraman nahi izan zuen, baina Clemenciak horretarako baimenik ez zion eman, Manuelek behin eta berriro eskatu bazion ere.

Atsoak, Manueli sufrimendu handia eragin zioten zenbait esaldik zuzendu zizkion eta Manueli, esandakoa egia ez zelakoan eta dezente asalaturik, pentsatu barik telebista indarrez hartzeko ideia burutik pasatu zitzaion, Clemenciari eskuineko eskuaz kolpe bat ematearekin batera, biak zutik zeuden une hartan. Emakumea lurrera astunki erori eta ia konortetik gabe kexuka gelditu zen. Jarraian Manuelek ezkerreko eskuaz, ura zeukan lurrezko potina hartu eta Clemenciari buruaren eskuin aldean kolpe siku bat eman zion.

Kolpearen eraginez sortutako zauriek Clemenciaren heriotza berehala ekarri zuten, burmuineko kontusio eta hemorragiagatik hain zuzen. Manuelek ehun pezeta, etxebizitzaren giltzak eta telebista hartu eta bere etxera eraman zituen. Azkenik, –irabazi asmoz ere– atsoaren txakur bat askatu zuen, honen idunekoa, 500 pezetatan balioetsitakoa hartu ahal izateko.

(138 art. eta hurr.; 147 art. eta hurr.; 237 art. eta hurr.)

VI

1992ko abuztuaren 16ko ordu bietan, Manolo prozesatua jai batera joan zen eta berak Seteventos izeneko tabernaren aldamenean bere auzokide bi, Manuel eta Jose deitutakoak, topatu zituen.

Azken bi hauek, Manuel eta Jose, aldi berean haien auzokide bi, Peio eta Mikel, ikusi zituzten: Manuelek eta Josek egun batzuk lehenago Peio eta Mikelekin berbena batean gatazka bat izan zuten, Manolo prozesatuak horren berririk ez zuelarik.

Denek elkar ikusi bezain laster, hizketan hasi ziren aipatu berbenan gertatutakoari buruz, eta aurreko inongo akordiorik gabe Manuelek Peioren kontra eta Josek Mikelen aurka borrokatzeari ekin zioten. Manolo prozesatua hitzez Mikelen aurka azaldu zen eta azken honen balizko erasoa indargabetzeko asmotan baita horren ondorioz borrokatzen jarraitzeko modurik izan ez zezan, Manolok lurrean hutsik zegoen botila bat hartu eta Mikeli buruan kolpe jakin bat eman zion, ezkerreko alde fronto-parietalean hematoma bat sortaraziz. Hematomak burmuinaren barruko hemorragia eragin zuen eta horren ondorioz dagokion ospitalean sartu eta une batzuen buruan hil zen Mikel.

(138 art. eta hurr.; 147 art. eta hurr.)

VII

1996ko martxoaren 8an, gaueko 10 t'erdiak baino pixka bat lehenago, Jose, akusatua, bere jabetzako turismo bat gidatzen zihoan, Huescako Ramón y Cajal etorbideetik.

Hirirantz zeraman norantzakoan, bere eskuineko erreititik zirkulatzen zihoala, 40 eta 50 kilometro bitarteko orduko lastertasunez, ez zuen gurutzatzeko argirik piztuta, posizio-argia besterik gabe baizik.

Gertakarien leku zehatza etorbidearen 55. zenbakia izan zen. Aipatu zenbakiaren parean, Gibraltar eta Aragón izeneko kale-gurutzea aurkitzen den puntuan hain zuzen, argikuntza publikoari esker nahiko ondo ikustea bazegoen ere, ez zen erabat ondo ikusten, han zeuden zuhaitz batzuek proiektatzen zuten itzalagatik. Leku honetara ailegaturik, Jose adi ez zegoelako, hau da, errepidean gertatzen ari zenari ehuneko ehun erreparatu barik gidatzen ari zenez, ez zen garaiz jabetu, bere aurrean Manuel erreian etzanda zegoela.

Zazpi metrotara zegoelarik konturatu zenerako, ezin izan zuen automobila gelditu, eta Manuelen gainetik pasa zen, ezkerrean desbideratzen saiatu barik, nahiz eta aurkako erreitik batere beribilik ez etorri.

Gertakariaren tokian, zegoen argia kontuan hartuta, errepidean zerbait bazegoela 20 edo 30 metrotara jadanik jabetzea bazegoen. Beste alde batetik, Manuelen presentziaz konturatu aurretik, Josek, bere aurretik 30 metrotara zihoan beste beribil baten maniobra ikusi zuen, Manuel harrapatzea ekiditeko balio izan zuena, baina Josek desbideratzea ikusi zuen unean, errepideko zulo bat saihesteko zela uste izan zuen.

Harrapaketa onduz, biktimak lesio larriak jasan zituen, edozein jardura aurrera eramateko ezgaitasuna, erabatekoa, eragin ziotenak, eta une horretatik aurrera beste pertsona baten laguntzaren menpe betiko egotera behartu zutenak.

(147 art. eta hurr.)

1.2.4. EZ-EGITE(ZKO) TIPOA

I

Epaia frogatutzat ematen dituen egitateen artean honako datu hauek baieztatzen dira. A) Errekurtsoa aurkeztu duten bost prozesatuak biktimarekin batera aurkitzen ziren, azken honek bere buruari heroina neurri ezezagun batean xiringatu zionean, prozesatuatariko beste hiruarekin batera. B) 10 minutuen buruan biktima txarto sentitzen hasi zen, arnasa hartzeko arazoak ageri-agerikoak zirelarik: aztoraturik, prozesatu guztiak egoera konpontzen saiatu ziren, horretarako modu sinple eta oinarritzekoegiak erabiliz. C) Haietarik inork, biktimaren egoera oso-oso delikatu zela agerian bazegoen ere, ez zuen hartu zegokion laguntza eskatzeko erabakirik, poliziarekin arazorik egon zitekeen beldurragatik. D) Aipatu biktima lozorroan gelditu zenean, prozesatuatariko hiruk alde egin zuten, beste biak tokian bertan gelditu ziren bitartean, edonola ere gertakari hauen egunsentiko ordu ezezagun batean biktima hil egin zen.

(138 art. eta hurr.; 195 art. eta hurr.)

II

Peio, 30 urtekoa, bere amarekin bizi zen jaio zenez geroztik. 1996ko uztailean ama gaixorik jarri zen, bi hilabeteren buruan oheratu behar izan zelarik. Ama eta semea bakarrik bizi zirenez, ama semearen esku zegoen erabat, bai elikatua izateari bai garbitua izateari begira.

Ama ohean zenez geroztik Peiok jateko gutxi ematen zion eta ez zuen inoiz egiten ama garbitzeko eta ohean posturaz aldatzen laguntzeko ezer. Horrela 6 hilabeteen egon ondoren, honako hau zen amaren egoera: infekzio nekrosikoak zituen nonahi, belarrietan zituenak harren larbaz eta bizkarroiz beterik zeudela. Beste alde batetik, hankak itsatsita zituen, bata bestetik banatu ezinik, garbitu ez izanaren eragindako azal gogortua zela kausa. Gorputz osoan zehar ultzera odoltsuak ikus zitezkeen, eta horien gainean paper soilak jarrita zeudela frogatutzat jotzen da.

6 hilabeteren buruan Ama hil zen, bihotzekoak jota, baina frogatutzat jotzen da, bihotzeko gertatzearena ez dagoela nahitaez lotuta jasaten ari zen abandonu-egoerarekin eta elikadura nahiko ez hartzearekin.

(138 art. eta hurr.)

III

Prozesatu Gregorio E.B.ri, eta landa-finka baten jabea zenari, 1996ko irailean bere finkatik zenbait abelburu desagertu zitzaizkion. Hori dela eta, Gregoriok, Pablo R.G. eta Francisco H.G. prozesatuen laguntza eskatu zuen, gertatutakoa argitzeko asmoz, hain zuzen. Gregoriok aipatu Pablo eta Francisco ezagutzen zituen eta, bazekien hauek V.F. delako herriko hiritar portugaldarrekin harreman onak zituztela ere.

1996ko urriaren 13an Pablo eta Francisco, V.F. delako herrira joan ziren eta han Francisco S.R.rekin hitz egin zuten. Francisco S.R., nekazari langilea Pablo R.ren enplegatua izana zen A.ko G izeneko herriko finka batean eta Pablok, Francisco S.R. 1996ko uztailan lanetik iraitzi zuen. Pablo R.G.k eta Francisco H.G.k Francisco S.R.ri Gregorio E.ren ardiak hartu izana leporatu zioten baina Francisco S.R.k ukatu egin zuen. Eztabaidatu ondoren, zeuden tokitik hirurak atera ziren, Francisco S.R. bere borondatez ala bere borondatearen kontra atera zenentz argituta ez dagoelarik. Edozein kasutan, bi prozesatuek Francisco S.R. automobiler Espainiako El Aguila izeneko finkara, Gregorio E.rena, eraman zuten, eta han, automobila gelditu eta berehalaxe, Gregorio E.ri esan zioten: "hemen duzu ardiena". Francisco S.R.k akusazioa ukatu zuenez, 300 metrotara zeuden finkaren etxe nagusietara eraman zuten, ebasketaren egiletza aitor zezan. Bitartean Gregorio hauengana oinez zuzendu zen eta baserrira heldu zenerako jadanik Francisco H.G.k eta Pablo R.k Francisco S.R., ateak zabalik zituen garaje moduko batean sartua zuten.

Garajearen barruan ardiei buruzko galdeketaekin jarraitu zuten baina ustezko egiletza ukatzen zuenez, eta hitz egingo zuela esan ostean, biluzteko agindu zioten, azkar obeditu zuena. Erabat biluzik zegoela, prozesatu batek, Francisco S.R.k, galdetu zuen: "gasolina non dago?". Francisco S.R. garajetik horren bila hasi eta aurkitu ondoren atxilotuaren gainetik bota zuen. Orduan Pablo R.G., eskuan piztutako metxero bat zeukala, hurbildu eta biktimari su eman zion. Francisco S.R., sutan, garajetik korrika atera eta urrun samar zegoen leku batean, beste pertsona batzuek laguntza eman zioten. Hala eta guztiz ere urriaren 29an hil zen, jasandako erredurengatik. Pablo R. eta Francisco H.G. prozesatuek, deskribatutako egitateak egiten zituzten bitartean, finkaren jabeak, prozesatua baita ardien jabea ere zena, Gregorio E. alegia, gertatutakoa guztia ikusi zuen eta ez zen inoiz ekiditen saiatu.

(138 art. eta hurr.)

IV

1991ko apirilaren 12ko eguerdiko ordu bi eta erdiak inguruan, Joxek Bultaco motozikleta bat gidatzen zihoan gidatzeko baimenik gabe. Joxek motozikletaren atzeko jesarlekuan Mikel zeraman, herriaren hirigunetik zihoala.

Lagun Onak tabernara hurbiltzen ari zela, bat-batean 6 urteko Rosa neskatoa korrika errepidera atera eta ezkerretik eskuinerantz zeharkatzen saiatu zen. Rosak motozikletaren kontra jo zuen eta lurrera erori zen. Kolpearen ondorioz Rosak bi eskuetan, aurpegian eta kopetan zauri eta harramaskadak jasan zituen burmuineko konmozioa ere.

Egoera honen aurrean, Joxe eta Mikel gertatutakoaz eta bereziki neskatoa lurrean zegoela jabetu baziren ere, Joxek aurrera jarraitu zuen alde egiten, Mikelek Joxeri gelditzeko edota neskatoari laguntzeko batere keinurik edo ekintzarik egin gabe. Biak gertakaritik hurbil zegoen aldameneko kale baterantz abiatu ziren eta han motozikleta utzi ondoren, istripuaren lekura itzuli ziren zer egin zuten esan barik, ikusle hutsen moduan jardunez.

(138 art. eta hurr.; 195 art.)

V

1995eko irailaren 19an, egunabarreko hirurak aldean, Jesús eta Andrés, Zaratán izeneko herriko diskotekan Raquelekin hizketan hasi ziren, azken hau Valladolidera eramango zutela aginduz. Hirurak Jesús-en automobileran sartu eta behin martxan zeudela, Jesús-ek gidatzen zuen bitartean, Andrések Wamba aldera jotzeko esan zion, eta baita Jesús-ek esandakoari jaramon egin.

Raquel aldatetaz jabetu zenez, Valladoliderantz berriro ere jotzeko eskatu zien eta Jesúsek, hala egiteko, norantzako-aldaketa bortitza egin zuen, eta horren ondorioz autoa errepidearen ertzera erori zen. Beste pertsonen laguntzari esker beribila ertzetik ateratzea lortu zuten eta orduan Zaratán aldera berriro ere zuzendu ziren, aldi honetan Andrés Raquelekin batera automobilaren atzeko aldean eseri zela.

Bidaiak iraun zuen bitartean, Andrések Raquel kolpatu zuen hainbat alditan eta berriro ere Zaratán herriraino iritsi zirenean, Raquel beste behin kolpatu ostean, behartu zuen Andres beraren automobilera sartzera. Raquel Andrésen autoan sartua zela, Andrések berriro ere Wamba aldera gidatu zuen, atzetik Jesús bere kotxez zetorkiola. Bidean, automobilaren lastertasuna gutxitu zela aprobetxatuz, Raquelek bere burua automobiletik kanporan bota zuen. Bai Jesús bai Andrés haien autoetatik jaitsi eta Andrések Raquel automobilera igotzera behartu eta gero, Jesusi alde egin zezala eskatu zion. Honek hala egin zuen. Andrések, bere aldetik, pixka bat beranduago Raquelekin sexu-harreman osoa, hainbat bider izan zuen, : hori zela-eta, geroago bortxaketa delitu batengatik kondenatua izan zen.

(195 art.; 179 art. eta hurr.)

VI

Sorkunde, aldeztu aurretik abisatu barik, bere etxebizitzatik kanpo sei egunean egon zen, nahiz eta bere senarra aipatu etxeko ohe batean zeharo inkomunikaturik eta mugiezirik egon, janaririk edo edaririk lortu ezinean eta medikuak agindutako botikarik hartzeko aukerarik gabe.

Etxetik sei egunetarako joan baino pixka bat lehenago, Sorkundek, bere senarra Pernandoz arduratzen ziren bi erizainen kontratuak bukatutzat jo etxeko lanetan laguntzen zuen emakumea ere kaleratu zuen eta etxe-multzoaren atezainari bere etxebizitzaren giltzak kendu zizkion.

Frogatutako egitateen artean azaltzen den moduan, Pernandoren heriotza etor zitekeen beranduenik ere bost egunen buruan, elikatze edo botika ematen edo behar fisiologikoei aurre egiten lagundu ezean.

Pernando, Sorkunde itzuli aurretik hil zen, baina amasa hartzeko arazo larri bat zela kausa, aurkitzen zen abandonu-egoerarekin zerikusia ez zeukana.

(138 art. eta hurr.)

VII

Manuel gidatzen zihoan ziklomotorrak, kausa ezezagunengatik, atzeko gurpilaz irrist egitearen ondorioz, ustekabearen errepidearen ezkerreko karrila inbaditu zuen. Manuel Jose Antonioren beribilaren aurrean erori zen, eta honek bai Manuel bai ziklomotorra aurretik eraman zituen.

Jose Antoniok, gertatutako istripuaz jabetu zenez, automobila gelditu zuen errepidearen eskuineko ertzean. Bere autoari gertatutako kaltea aztertu bezain laster, inoiz biktimaengana hurbildu barik, beribilera igo eta bidaia jarraitzeari ekin zion.

Manuel errepidearen erdi-erdian etzanda gelditu zen eta geroago erietxe batean sartu bazuten ere, istripuak eragindako zauriak direla kausa hil zen denbora gutxiren buruan.

(138 art. eta hurr.; 195 art.)

1.2.5. LEGEBIDEZKO DEFENTSA

I

Eneko, prozesatua, gaueko 12etan, goizean elkarrekin eztabaidan aritutako auzokide Mikelekin, aurrez aurre aurkitu zen. Aipatu goizeko liskarrean Enekok harrikada batez ezkerreko hankan lesio bat eragin zion auzokideari. Hori dela eta, berriro ere elkar ikustean, borrokari ekin zioten; hasiera batean Mikelek emandako kolpe batez Eneko arinki lesionatua suertatu zen. Erantzun gisa Eneko, metro eta erdiko luzera eta

6 zentimetrotik 2 zentimetrarako lodiera zuen makila batez baliatuz, kolpeka aritu zen Mikelen kontra, bai zutik zegoenean baita gero lurrera erori ondoren ere.

6

Makilakaden ondorioz 19 lesio eragin zizkion, horietatik 11 buruan gauzatutakoak, berez hiltzeko modukoak zirenak.

(138 art. eta hurr.)

II

Raulek, oligofrenia astuna jasaten zuen Vicente engainatu zuen Raulen aitarena omen zen solairu industrial bateraino elkarrekin joateko. Raulen aitak aipatu solairua saldu nahi zuela esanez, leihoen kontra harrika hasteko gonbidapena egin zion Raulek Vicenteri, baita honek onartu ere.

Biek harrika 10 minutu zeramatenean, Fernando, benetako jabea, azaldu zen eta zer ari zen gertatzen ikusi bezain laster, berarekin eramaten zuen txakurra askatu egin zuen, "akaba itzazu" indarrez oihukatzen zuen bitartean.

Txakurrak, ziztu bizian, bai Raul bai Vicente harrapatu zituen eta haginka aritu zen haiekin, jabea, zeuden tokiraino iritsi eta gelditzeko agindu zion arte. Horzkaden ondorioz sortutako lesioek 45 eta 89 egun behar izan zituzten sendatuak izan zitezen.

(147 art. eta hurr.)

III

Ander eta Joxe elkarren aldameneko bi baserriren jabeak ziren, aspaldidanik elkarrekiko ezinikusia eta gorroto nabaria zutenak. 1997ko otsailaren 8an, arratsaldean, lur batzuei buruzko eztabaida gogor eta luzea piztu zen: Anderrek aipatu lurak bereak zirela aldarrikatzen zuen, baina Joxek azken urteotan lur horiei onura atereaz gain, panelez inguraturik zituen eta bereak balira bezala lurron sarrera itxita zeukan. Anderrek azkenik egun hartako eztabaidari amaiera eman zion, "gauzak ez dira horrela geratuko" esanez.

Hurrengo egunean, baserriko lana bukatu bezain laster, Ander Joxeren eremurantz abiatu zen, aurreko eguneaneztabaidagai izandako lurrei buruzko akordio batera iristeko asmoz, sorbaldaren gainean sega bat zeramala. Joxerengandik bi metrotara gutxi gorabehera aurkitu zenean, hitz egiten hasi aurretik, erosoago aritzeko, Anderrek sega hartu eta sorbaldatik altxatu zuen, lurlean uzteko asmoarekin. Joxek Anderren mugimendua ikusirik, eta segaz bera kolpatzera zetorrelakoan, lan egiteko erabiltzen ari zen aitzurra hartu eta Ander kolpatu zuen. Kolpeak sabelean eta bizkarrean eman zizkion, aitzurraren egurrezko eta burdinazko zatiez baliatuz, eta ondorioz Ander lurrera eroraraziz-

Ustekabeko kolpe horien aurrean eta gehiago kolpaturik ez gertatzeko, Anderrek lurretik segaren puntaz kolpe siku bat eman zion orkatilan Joxeri; ondorioz eragindako lesioek sendabide kirurgikoa behar izan zuten eta, urtebete baten buruan sendatu ziren. Anderren lesioak, medikuntza-sendabidea jaso eta gero, hiru astebeteren buruan sekuelarik gabe osatu ziren.

(147 art. eta hurr.)

IV

Goetz, gizon zuria, ertaineko adinekoa, zenbait alditan lapurtua izan zenez, normalean arma baten eramailea zen horretarako zegokion lizentzia eta gida zituelarik.

Lanetik zetorrela, arratsaldeko 7ak inguruan, New Yorkeko metroaren bagoi batera sartu zen. Bagoiaren barruko aldean, alde batean 20 pertsona inguru aurkitzen ziren, eta beste aldean, berriz, 4 bakarrik, 4 gazte beltz.

Goetz, beltzak zeuden aldean eseri zen eta pixka bat geroago, aipatu gazte beltzak, berarengana hurbildu ziren, "modu probokatzailerik bat erakutsiz", prozesatuaren esanetan, eta horietariko batek 5 dolar emateko eskatu zion "era lotsagabez" (berriro ere prozesatuaren esanetan).

Goetzek, hitzik esan gabe, pistola atera eta 5 tiro egin zituen, gazte beltz haietako biri zauri larriak eraginez (batek begia galdu zuen eta besteak, buruan eta besoan jasandako zauriengatik, hainbat ebakuntza kirurgiko jasan eta 200 egun behar izan zituen, sendatua izateko).

(138 art. eta hurr.; 147 art. eta hurr.)

V

1998ko urriaren 5ean, Ana, Antonio, Joxe eta Peio, ados jarri ziren ondokorako: eskopeta bat lortzen saiatuko ziren, eta horretaz baliatuz, ezagutzen zuten zurgindegia jakin batean lapurreta egingo zuten.

Lizentziarik eta gidarik gabeko eskopeta lortu ondoren, Renault batean aipatu zurgindegira abiatu ziren: Joxek eta Peiok, automobiletik atera aurretik, estalki batez aurpegia ezkutatu zuten. Ana eta Antonio automobilaren barruan gelditzen ziren bitartean, Joxe eta Peio zurgindegira sartu eta Joxek, eskopeta erakutsiz, barruan zegoen jabea mehatxatu zuen, zeukan dirua, guztia, emateko galdutuz.

Zurgindegiaren jabeak, mugimendu bortitz baten bitartez, Joxek zeukan eskopetari heltzea lortu zuen, eta bien arteko tirabira zen; azkenik, tirabiragatik, eskopetak tiro bat askatu zuen, horma baten kontra jo zuena.

Joxek eta Peiok, gertatutakoagatik beldurtuta, ihes egin zuten, batere dirurik hartu barik.

Autoan sartzekoan zeudela, jabeak, lizentziaz zeukan pistola batez baliatuz, Peiori ezkerreko hankan bi tiro eman zizkion. Horren ondorioz, hanka moztu behar izan zitzaion, zegoen medikuntza-sendabide kirurgikoaren bitartez.

(237 art. eta hurr.; 563 art. eta hurr.; 147 art. eta hurr.)

VI

1997ko maiatzaren 15ean Angelak bere alaba Camilaren etxeko atearen aurrean Anarekin topo egin zuen: Ana Camilaren ezkonahizpa zen. Ana eta Angela elkarrekin haserretuta zeuden, Camilaren senarrak Camila abandonatu zuelako.

Abandonua zela kausa, Angela eta Anaren arteko eztabaida gogorra piztu zen eta biek elkarri irainak bota zizkieten.

Anak, zeraman euritakoaz Angelari kopetan kolpe bat eman zion, eta ondorioz hemorragia arina eragin zion, batere medikuntza-sendabiderik behar izan ez zuena.

Une horretan, irainak eta jasandako kolpea zirela eta, Angelak, poltsikoan itxita zeraman labana bat atera, zabaldu eta Anaren lepoaren eta bularraren kontrako labankada batzuk eman zituen. Horien ondorioz, Anaren beheko arteria tiroidea eta jugular zaina mozturik gertatu ziren, eta hemorragia aski handia izan zuen; hemorragia senda zedin. 48 eguneko medikuntza-sendabidea behar izan zen.

Angela, gertatutakoagatik zeharo beldurturik, ziztu bizian Guardia Zibileko kuartelera abiatu zen eta deskribatutako egitateak bertan argitu zituen.

VII

Jesus eta Victoriaren sendiak eta Nemesio eta Carmenenak elkarrekin ezinikusi nabarmena zuten, iraganbide bera elkarrekin banatzen zuten auzokideak zirenez gero. 2000ko apirilaren 28an, Jesus bidetik zihoala, beste sendia haren kontra irainka hasi zen, Jesusek, halere, ez zuen jaramonik egin. Bai, berriz, bere emazteak eta

horregatik makila lodi bat hartu eta etxeko atarian zeuden bai Nemesio bai honen semea kolpatzeari ekin zion. Erasoaren aurrean, aipatutakoek Victoriari eutsi eta lurreratu zuten.

Jesusek gertatzen ari zena entzutean, etxera bihurtu zen, eskuan ganibet handi samarra zeramala. Etxeraino helduta, lehenik aurkitu zuen amari labanaz eraso zion: jarraian, semearekin tirabiraka aritu ondoren, ganibeta ezkerreko fosa iliakoan (aldaka aldean kokatzen dena) sartu zion. Carmen zauriturik suertatu zen eta semea hilik.

(138 art. eta hurr.; 147 art. eta hurr.)

VIII

Matiassek, Acacias delako kaleko atezaina, 1995eko azaroaren 26ko gaueko 9ak aldera bere ohiko zereginetan ziharduen. Une horretan Generoso bere familiarekin etxeko ataritik sartu zen. Generosok izaera bortitza zuen eta etxeko auzokide-elkartearen presidentea izan zenean tirabira bat baino gehiago izan zituen Matias atezainarekin.

Geroago Generoso tabako eroatera atera zen, berarekin mendiko ganibeta zeramala: Generosok ohituraz beti aipatu ganibeta praketako barruko zorro ezkutuan eramaten zuen.

Generoso bueltatzean Matiassek hura urduri zebilela pentsatu zuen eta eraso egingo ziolakoan, Matiassek atarian zeukan burdinazko barra batez baliatuz kolpe bat eman zion, eta ondorioz besoan eragindako lesioak 65 egun behar izan zuten sendatzeko.

(147 art. eta hurr.)

1.2.6. BEHARRIZAN EGOERA

I

Egitateak gertatu ziren unean, Agustin, bere ezkonarreba ohiarekin ezkondata zegoena eta bere ilobaren aitordea zena, langabezia zegoen, inolako laguntza ekonomikorik kobratu gabe. Bere emaztea egoera ekonomiko berdintsuan aurkitzen zen; zeukan diru-iturri bakarra, bertako bulego baten eskailerak garbitzeagatik irabazten zuen diru apurra zen.

Agustin, ofizioz ezerezturik egon beharko ziren zigor-aurrekariak zituena, ia diru-sarrerarik ez edukitzeak eragiten zuen egoera larriak bultzaturik, Benignoren etxebizitzaren barrura sartu zen, Benignoren iloba oligofreniako bati —etxean ahaztutako zerbait hartzeko erabiliko zuelako aitzakiaz— eskatutako giltza batez baliatuz. .

Behin barrura sartu ondoren, objektu eta bitxi batzuk hartu zituen, orotara 31.400 eurotan balioetsitakoak. Gero, harrapakinaren truke salerosketa-etxe batean lortu zuen gehiena bingo eta antzeko jokoetan galdu zuen, eta gainerakoarekin bere ilobarentzako jantzi batzuk erosi zituela.

(237 art. eta hurr.)

II

Gaueko hamabi eta erditan Humberto eta bere lagunak, herri bateko jaiak ospatzera joan ondoren, herri hartatik kotxez atera ziren. Oraindik jende ugari zegoen alde batean aurkitzen zirela, kontrako karriletik beste beribil bat azaldu zen.

Humberto bozina jotzen hasi zen berehala eta etengabe, baina beste automobilak aurrera egiten zuela ikusirik, eta aurrez aurreko elkar-jotze arriskutsu bat hurbil-hurbilekoa zela oharturik Humbertok bira egin zuen, horrek zekarren arriskua ezagutu arren.

Errepidetik ateratzean Maria eta bere senarra harrapatu zituzten: biek istripuaren aurrekariak eta inguruabarrak hasiera batetik ikusten ari baziren ere, ezin izan zuten elkarren arteko talka inolaz ere saihestu.

Istripuaren ondorioz Mariak eskuineko begiaren ikusmena galdu zuen eta hanka bietan hausturak jasan zituen, 6 hilabeteko tratamendu medikua behar izan zutenak, kirurgikoa ere barne.

(147 art. eta hurr.)

III

Heroinaren mendetasuna zuen Anak abstinentzia-sindromeak eragiten zion egoera fisiko larriak bultzaturik, bere amari droga bila joateko behin eta berriro eskatu zionean.

Egoera kontuan hartuta eta alabak emandako informazioari esker, identifikaturik ez dagoen pertsona batengana abiatu zen, droga eskuratzeko asmoz. Hornitzaileak amari bost dosientzako heroina eman zion 30 euroren truke. Heroinarekin autoz etxerako bidea hartua zuela, Guardia Zibilak, geldiarazi ondoren, ezkutatzen ahalegindu zen heroina atzeman zion.

(368 art. eta hurr.)

1.2.7. EGINBEHAR BAT BETETZEA

I

Jose akusatua, polizia inspektorea, zigor-aurrekaririk gabekoa eta adinez nagusia, 1998ko abenduaren 27an, arratsaldeko 6 t`erdiak inguruan, Madrilgo plaza batetik paseatzen ari zen zerbitzu-lanetan. Bat-batean konturatu zen, David -19 urtekoa-, Ricardo -17 urtekoa- eta Oscar -17 urtekoa- botilak eta harriak jaurtikiz zuhaitz baten kontra ari zirela, han zintzilikaturik geratutako pilota berreskuratzeko ahaleginetan. Inguruan inor ez bazebilen ere, nahiz eta zuhaitza eliza baten alboan kokaturik egon, polizia haiengana hurbildu zen, egiten ari zirena bertan behera utz zezaten adieraziaz. Josek suhiltzaileei abisatzeko aholkua eman zien baina gazteek ez zioten jaramonik egiten eta elkarren arteko eztabaida piztu zen.

Eztabaidaren une jakin batean Josek bere pistola atera zuen eta horretaz baliatuz Davidi kolpe bat eman zion buru erdian. Ekintza horren aurrean Oskar, poliziarengana eta Davidengana hurbiltzen hasi zen azken biak elkarrengandik banatzeko asmotan, baina momentu horretan Josek lurraren kontra bi tiro bota zituen. Tiro batez Oskarri zauritu zuen hankan eta aldi berean hanka tartean. Horren ondorioz Oskarrek sendabide kirurgikoa beharrezkoa izan zuen, eta 30 egunean lan egin ezinik egoteaz gaiz, betiko orbain handia geratu zitzaion. Davidek lehenengo medikuntza-laguntza behar izan zuen suturako bi puntu emateko, bi egunean lan egin ezin izan zuen, eta sekuela gisa, orbaina kopetan geratu zitzaion betiko.

(147 art. eta hurr.; 617 art.)

II

1999ko martxoaren 21ean, Polizia-Gorputz Orokorreko hiru inspektoreek, autoz egindako pertsekuzio neketsu baten ostean, hiru pertsona susmagarri atxilotzea lortu zuten. Aipatu hiru lagunak kalean zegoen beribil batetik zenbait gauza hartzeko susmagarriak ziren.

Identifikazioarekin hasi zirenean, bat-batean hiru lagunetariko batek korrika alde egin zuen, baina Manuel inspektoreak, orduan, jarraitu, atxilotu eta taldera berrekartzea lortu zuen.

Une batzuen buruan beste atxilotu bat, Luis izenekoa, abiada bizian korrika hasi zen, berriro ere Manuel inspektorea bere atzetik joan zitzaiola. Manuel jadanik hurbil zegoela ikusi zuen une jakin batean, gelditu zen Luis eta inspektoreari aurre egin zion, zeraman 8 zentimetroko labana atereaz. Aldi berean esan zion: "cabrón, si te acercas te rajo".

Mehatxu horren aurrean inspektoreak pittin bat atzera egin eta bere zorrotik lege zeraman errebolberra atera ondoren, Luisengana destatu zen labana uzteko ozenki aginduz. Esandakoari jaramonik egin gabe, Luis itzuli egin zen eta berriro ere korrikari ekin zion.

Momentu horretan inspektoreak, bere errebolberaz 5 metrotara zegoen Luisen aurka tiro egin zuen, azken honek ihes egin ez zezan. Jaurtigaia burmuinaren beheko aldetik, eskuineko alde parietetik hain zuzen, sartu eta ezkerreko alde frontaletik atera zen, barruko txikizio askotarikoa eta hemorragia oso gogorra sortuz, , bizia galtzea ekarri ziotenak.

(138 art. eta hurr.)

III

Roberto, Fuentes izeneko herriaren epailea zena, Z delako puben jabearen oso lagun mina zen. Pub hori aipatu herrian bertan aurkitzen zen eta haren bezeria gutxitzen hasia zen duela gutxi zabaldu berria zen izeneko puba zela kausa.

Robertok, bere lagunaren ustezko egoera ekonomiko larriaz arduraturik, La Esquina Encantada pubaren jabearen kontrako atxilotzeko agindua eman zuen, ustezko droga-trafiko ekintzengatik. Atxilotzeko agindua Ainhoa udal-agenteari igorri zitzaion, zedularen bitartez, aurrera eraman zezan.

Agindua betetzera joan zenean, pubaren jabeak Ainhoa agenteari aurre egin zion eta atxiloketari uko egitearekin batera indarrez lokaletik kanpora bultzatzen zuen, epailearen azpijoko pertsonala zela susmatuaz.

Azkenik Ainhoak jabearen jarkitze-ekintzak indargabetu ostean, polizia-etxera eraman zuen eta han hurrengo egunera arte eman behar izan zuen. Orduan aske utzi zuten, zeren eta droga-trafiko delituagatik diligentsiaz zabaltzeko modurik ez baitzegoen.

(163 art. eta hurr.; 550 art. eta hurr.)

IV

Santa Cruz de Tenerifeko polizia-etxean telefono-dei bat jaso zen, oso ezaguna eta arriskutsutzat jotako krimengilea –Angel izenekoa– Somosierra auzoan zegoela adierazten zuena, hain zuzen Lamárquez familiak bertan zuen etxebizitza batean. Tokiko polizia-nagusiak etxebizitza miazteko agindua eman zuen, horretarako epaile-agindua eskuratu ondoren. Aginduekin batera ustezko krimengilearen zuri-beltzeko argazki bat banatu zen. Miaketa aurrera eramateko polizia-talde bat eratu zen, Angel, Jose, Antonio, Jose Maria, Miguel eta Gregorio agenteek osaturik, Juanen agindupean.

Behin etxebizitza aurkitu ondoren, agenteak atearen aurreko aldean, hainbat leku estrategikotan sakabanaturik jarri ziren, beren arauzko armarekin eta Juanek, pistola eskuineko eskuan ezkutaturik zeramala, atean jo zuen.

20 edo 30 zentimetroz atea zabaldu zuena 21 urteko Bartolome ikaslea izan zen. Juan, zabaldu zuenaren identitatea inolaz ere baieztatu barik, ikaslea Angelekin nahastu eta zabaltzearekin batera "polizia" ozenki oihukatu zuen. Bartolome arrotzen aurrean izutu zen eta atea indarrez itxi zuen, Juanen oina atearekin harrapatu suertatu zela. Horrek Juan desorekatu egin zuen eta lurrera erori zen, nahi gabe pistolak tiro bat askatzen zuen bitartean. Jarraian bere lankideek atetik urruntzen lagundu zuten, zauriturik zegoela pentsatzen zuten zera gero eta aldi berean Juanek, Bartolomek erasotu zuelakoan, bigarren tiro bat egin zuen. Gainerako agenteak, guztiak, era berean, tiroka hasi ziren, Bartolomeren heriotza eraginez, bala-zauri ugari ondoz.

(138 art. eta hurr.)

1.2.8. EGOZGARRITASUNA

I

2002ko maiatzaren 26an, gaueko 11ak inguruan, Peio, 17 urtekoa, eta Mikel, adinez nagusi, Z izeneko tabernan sartu ziren eta, zeramatzaten labanez baliatuz, lokaleko lankide bat, Xabier, mehatxatu zuten. Xabier une hartan bakarrik zegoen tabernan, eta Peio eta Mikel prozesatuek, diru kutxan zegoena – 1.150,50 euro– berei emateko agindu zioten. Xabierrek dirua eman zien.

Peio eta Mikel droga-menpekoak ziren; 1992 urteaz geroztik heroina kontsumitzen zuten. Deskribatutako ekintza egin baino lehentxeago, oso toxikomania astunaren pean zeuden, opiazeoak normalean kontsumitzearen, jasaten ari ziren abstinentzia-sindromea saihesteko asmoz.

Mediku forenseak egindako peritajea frogatutzat jotzen da, ordea, akusatuek ez zituztela ez ezagutzeko ez borondatez jarduteko gaitasunak nabarmen txikiagoturik.

Ahozko epaiketaren unean, Peio prozesatuak, duela 6 hilabete, Gizakia Helburu izeneko erakundean, droga-kontsumoa uzteko tratamendua jarraitzen ari zela baieztatzen da.

(237 art. eta hurr.; 242 art.)

II

, Mikel prozesatuak, patologia alkoholikoa pairatzen zuen eta batzuetan mozkorraldi patologikoa ere izaten zuen. Jakinaren gainean zegoen edari alkoholikoak neurri oso txikitan edan arren, batzuetan erreakzio bortitzak eragiten zizkiotela. Egitateen aldian Mikel taberna desberdinetan eta lagun baten etxean egon zen, garagardo bat eta kopabatzuk koñak edaten.

Edandakoagatik mozkorraldi patologikoaren eraginpean zegoela eta horrexegatik bai nahi izateko gaitasuna bai ezaguera- gaitasuna neurri handi batean txikiagotuak edukita, 20 zentimetroko labana batez Rafa, bere auzokidea, oldartu zuen, ahalik eta kalterik handiena egiteko asmotan, heriotza bera eragiteko aukera ere salbuetsi barik. Rafak zauri larriak bere gorputz osoan jasan bazituen ere, interbentzio kirurgiko zehatz eta arrakastatsuari esker bere bizitza salbatzea lortu zuen.

(138 art. eta hurr.; 147 art. eta hurr.)

III

Juanek aspaldidanik eskizofrenia paranoidea eta epilepsia postraumatikoa jasaten ditu, bere ezaguera eta erabakitze gaitasuna neurri handi batean txikiagotzen dituztenak. Gertakarien egunean, ohiko botika hartu ondoren, bazkaltzen hastera zihoala, Antonio eta haren semea Miguel, 23 urtekoa, azaldu ziren etxera.

Juanek, haserretuta, ez zela etortzeko ordu egokia esan zien, bere ohiko bakea hain ordu desegokian apurtzen ari zirela-eta. Haien arteko eztabaida gero eta bortitzagoa zen eta une jakin batean Miguelek bi aldiz kolpatu zuen Juan, bi aldiz lurreratuz. Minduta eta duintasunean zaurituta,, Miguelek eta haren aitak alde egiten zuten bitartean, etxera sartu zen Juan, ganibeta hartu eta bere aurkariarengana zuzendu zen. Bere aitak abisatua, Miguel itzultzen zen unean Juan dagoeneko gainean zuen eta labankada bat eman zion, besapetik sartu zena. Ondoren, Miguel eta Juan aurrez aurre zeudela, Juanek berriro ere ganibeta sartu zion bular aldean bihotzeraino. Ondorioz sortu zen hemorragiak jota bertan hil zen.

(138 art. eta hurr.)

III

2001eko apirilaren 10ean, arratsaldeko 5ak inguruan, Joaquinek, Renault 9 baten atzeko aldeko maletategiko sarraila apurtu ondoren, han zeuden bi maleta hartu zituen, bai jantziak bai bitxiak barruan zituztenak, orotara 1.180,50 eurotan baloratutakoak. Joakinek, pertsonalitate psikopatiko astuna dauka, eta opiazeoen mendetasuna jasaten du, bere buru-gaitasunak gutxiagotzen dituen baina zeharo indargabetu barik.

(237 art. eta hurr.)

1.2.9. DEBEKU-ERRAKUNTZA

I

Andresi, bihotzekogaixoa, bere etxera zihoala bihotzekoa eman zion. Pepe, Andresen ezaguna, lurrera erortzen zelako lekukoa izan zen. Andres arineketan erietxe batera eramaten ez bazuten Pepe hil egingo zela jabetu zenez, une horretan, deskarga lanak zirela-eta, ateak zabalik eta giltzak jarrita zituen furgoneta batean Andres sartzea erabaki zuen.

Andres dagoeneko barruan sartua zegoela eta Pepe furgoneta martxan jarri bezain laster, Luis, furgonetaren jabea, aurreneko gertakariaren berririk ez zuena, lapurtzen ziotelakoan, atzetik korrika hurbildu zen, "lapurrak, lapurrak" oihukatuz. Pepek furgonetan alde egin ez zezan, Luisek leihatilatik kolpeka jardun zitzaion, bekainean zauri bat eraginez, sendatzeko jostura-puntu batzuk behar izan zituen.

Hala eta guztiz ere, Pepek Andres erietxe batera eramatea lortu zuen, eta horri esker haren bizitza arriskutik atera zen.

(147 art. eta hurr.; 244 art. eta hurr.)

II

Abdulek Bartzelonan erositako beribil batean poliziak, egun batzuen buruan, atzerrian egindako pistola bat aurkitu zuen, Estatu espainiarrera era ez-zilegian sartua eta tiro egiteko egoeran zegoena. Abdulek, automobileko esku-larrutegian zegoen pistola berea zela aitortu bazuen ere, Bartzelonan erosi zuela argitu zuen, eta Espainiara era ez-zilegizkoan ekarria zenik ez zekiela gaineratu zuen; kontrakoa pentsatzeko frogarik ez dago.

(563 art. eta hurr.).

III

Banku baten jabe aberatsa zen Antoniok, eta azken aldi honetan talde terrorista baten aldetik hiltzeko eta bahitzeko mehatxuak jasotzen ari zenak, tiro egin zuen gauez bere txaletaren harresia eskalatzen ari zen pertsona baten kontra. Baina gero konturatu zen, eskalatzen ari zena bere semea zela, etxera nahiko berandu iritsi zenez gero, inork jakin ez zezan, atea jo beharrean, eskalatzeari ekin ziona. Semea hilik suertatu zen.

(138 art. eta hurr.)

1.2.10. BELDUR MENPERAEZINA

I

Duela urte batzuk Ana Franciscorekin bizi zen eta Anak Franciscorengandik zazpi seme-alaba zituen. Gertakarien egunean, Ana bere zazpi seme-alabekin batera garaje batean bizi zen: garajea bikotearen ohiko etxebizitzaren beheko aldean aurkitzen zen eta Ana hor zegoen bizitzen, Franciscorengandik bere burua eta bere seme-alabena babesteko, azken honek azken egunetan haien kontra botatako mehatxuak zirela kausa.

1998ko abenduaren 12an, gaueko ordu bietan, Francisco garajearen atearen kontra mailuka hasi zen indar handiz: Francisco oso-oso urduri zegoen, bere senetik aterata, eta etengabe Anaren eta familiaren gainontzeko partaideen kontrako mehatxuak botatzen zituen, atea kolpatzen jarraitzen zuen bitartean.

Azkenik, atea apurtu eta zabaldu zen: behin Francisco barruko aldean egon ondoren, eta mailua eskuan eta altxaturik zeukala, prozesatuarengana (Anarengana alegia) zuzendu zen, "los mato a todos" oihukatuaz.

Une horretan Anak bi kanoiko eskopeta hartu eta Francisco hiltzeko asmotan, bi metrotara, haren kontra bi tiro egin zituen, bularretik sartu zitzaizkionak. Ana, Francisco bueltatzen zela ikusirik, hain zuzen goiko etxebizitzara eramaten duten eskaileretarantz, haren atzetik joan zen eta aizkora batez baliatuz, Franciscoren alde okzipitalean kolpatu zuen. Tiroek eta kolpeek eragindako zauriengatik Francisco hil egin zen.

Tiroak bota eta gero, Ana Franciscoren atzetik kolpatzera joan zenean uste zuen gizona ez zegoela zaurituta, izan ere gelan argirik ez baitzegoen. Anak uste izan zuen Franciscok goiko etxera joan nahi zuela han zegoen bigarren eskopeta baten bila.

(138 art. eta hurr.)

II

Josefa, Diegorekin ezkontuta egondakoa, elkarrekin etengabe izandako liskarreetatik duela zortzi urte egitatez bananduta aurkitzen da, nahiz eta maiz elkarren interesei buruz hitz egiteko elkar ikusten duten. 1996ko abuztuaren 9an, hain zuzen ere, arratsaldeko 8ak inguruan, elkarrekin zeuden eta, Diegok goiz hartan bien seme batekin izandako eztabaida bat zela kausa, bikotekideen arteko hitzezko aurrez aurrekoa, tentsioz betea, sortu zen.

Zurruburruaren une jakin batean Diegok bere emaztea erasotzeko labana bat atera zuen, baina Josefak indarrez aurre egin zion. Tirabiraren ondorioz eta Diego alkoholismo kronikoagatik oso ahulduta zegoenez, labana kentzea lortu zuen emazteak eta jarraian labankada batzuk eman zizkion.

Labankaden eraginez atake hipobolemikoa gertatu zitzaion, bai gibelean, bai ezkerreko giltzurrunean, bai hestean kalte handiak frogatutzat jo ahal direlarik, hain zuzen heste-zulatzeko eta heste-euskarrien ebiszerazioa. Emandako labankada guztiak hiltzeko nahikoak ziren; hala ere, zegokion medikuntza-sendabide kirurgiakoarekin Diego 89 egunetan sendatu zen.

(138 art. eta hurr.)

1.2.11. GARAPENA ETA PARTAIDETZA

I

2000ko abuztuaren 7an, gaueko 9ak inguruan, Gaizkak bere auzokide Eneko ikusi zuen eta harekin oso haserretuta zegoenez, harengana jo eta automobilera igotzeko esan zion, “geure artekoa, gizonoi dagokigun moduan konpontzeko”. Enekok eskaintzari uko egin zion eta orduan Gaizkak poltsikotik labana bat atera zuen. Gaizka labanaz baliatuz Eneko sabelean zauritzen ahalegindu bazen ere, ez zuen lortu, Enekok abileziaz Gaizkaren eskua geldiaraztea lortu zuelako. Hala ere, Enekok, labankada ekiditean, eskuan zauri arin bat jaso zuen. Segituan Enekok alde egin nahi izan zuen, baina irrist egin eta lurrera erori zen. Orduan Gaizka hurbildu zitzaion eta labana sartzeko zorian zegoela, ertzain bat bien artean jarri zenari esker, ezin izan zuen bere asmoa gauzatu.

(138 art. eta hurr.; eta 147 art. eta hurr.)

II

Anibalek eta Mikelek –azken hau adingabea, 15 urtekoa–, adostutakoaren arabera, ziklomotor batean zihoazela, Ana ikusi bezain laster, berarengana zuzendu eta bizkarretik indartsu tiraka aritu ondoren bere poltsa kendu zioten. Ihes egin zuten eta gero, lasaia, lortutako 400 euro, itsuen aldeko kupoia eta loteria-dezimo batzuk elkar banatu zituzten.

(234 art. eta hurr.)

III

Genoveva kaletik zihoala, bere lagun Luisek oinezko bat labanaz nola mehatxatzen zuen ikusi zuelarik, haiengana hurbildu zen eta biktimari, zeukan guztia emateko gomendatu zion, izan ere bestela Luisek “goitik behera” ebakiko zuen. Luis dirutzaz jabetu zenean, biek, Luisek eta Genovevak, alde egin zuten eta heroina erosteko erabili zuten harrapakina.

(237 art. eta hurr.)

1.2.12. DELITU-PILAKETAK

I

Antoniok, udaltzainak, Robertori bere ibilgailua aparkaturik zeukan lekutik mugitzeko agindu zion. Bien arteko eztabaida gogorraren onoren, Roberto bere automobilerantz abiatu zen. Robertoren emazteak, gertatutako eztabaida ikusi zuena eta zeharo haserretuta zegoena, Roberto bere senarrari, txintik esan gabe, labana bat eman zion: Robertok agentearengana jo zuen eta besagainean labankada bat eman zion. Horren ondorioz agenteak, tratamendu medikua behar izan zuten zauri batzuk jasan zituen, 40 egunen buruan sendatu zirenak.

Gertaera honen ostean, Roberto eta bere emaztea Elviraren etxera korrika abiatu ziren. Elvirak Roberto txikitandik ezagutzen zuen eta Robertok eta bere emazteak gertatutako guztia kontatu zioten. Elvirak biak bere etxean bost egunean ezkutatu zituen.

(418 art. eta hurr.; 231 art. eta hurr.)

II

2002ko urriaren 4an, hamaikak eta laurden inguruan, Jorge eta oraindik identifikatugabeko beste bi pertsonak, hartutako akordioaren arabera, eta aurpegiak buru estalkiez ezkutatuta zeramatzatela, Valenciako Mira izeneko bitxitegira sartu ziren. Barruan, lizentziarik eta gidarik gabeko pistola bat erakutsiz, barruko pertsonak mehatxatu zituzten, oihu egin ez zezaten eta segurtasun-kutxan zegoen dirua eta bitxiak emateko agindu zieten.

19 milioiko harrapakinaz jabeturik bitxitegitik ateratzen ziren unean, bi polizia bertara azaldu ziren, beste pertsonen abisuaren ondorioz. Hauetariko polizia batek identifikatzeko eskatu zien, baina hori egin beharrean, Jorgek oso-oso hurbiletik tiro egin zion, eta agentea unean bertan hilik gertatu zen.

(138 art. eta hurr.; 237 art. eta hurr.; 563 art. eta hurr.)

III

1999ko ekainaren 2an, eguerdiko ordu bata aldean, Angel, 1996an lapurreta delitu batengatik 6 hilabete eta egun bateko presoaldira kondenatua izandakoa, eta José, Vigoko O Pinal tabernara zuzendu ziren. Biak aurpegia estalirik sartu eta pistola batez eta kanoi moztuko eskopeta batez, lizentziarik gabekoak biak, barruan zeudenak mehatxatu zituzten, lapurreta bat zela oihukatuz, eta balioko guztia emateko aginduz. Tabernako jabeari ere kutxaren dirua emateko agindu zioten.

Barruan zeudenean esandakoa betetzeari uko egin ziotenez, Angelek eskopetaz tiro egin zuen, bezero baten alde batean emanez, horren ondorioz unean bertan hil zelarik. Tiro berak jota, beste bezero batengan lesio desberdinak eragin ziren, sendabide kirurgikoa behar izan zutenak baita begi baten ikusmena galtzea ekarri ere.

(138 art. eta hurr.; 147 art. eta hurr.; 237 art. eta hurr.; 563 art. eta hurr.)

IV

Manuelek Ander erail ondoren, hildakoaren familiari, Ander oraindik bizirik balego bezala jardunez, hura askatzeko diru-kopuru oso handia eskatzen dio.

(138 art. eta hurr.; 163 art. eta hurr.).

V

A-k lehegailu bat jartzen du eta horren ondorioz 6 pertsona hilik suertatzen dira eta beste hiru lesio larriekin.

(138 art. eta hurr.)

VI

Ofelia bere autoaren gurpil zulatua aldatzen ari zen bitartean, Peiok automobilaren barruan zegoen poltsatik txeke taloitegi oso bat hartu zuen. Alde egin bezain laster, txeke bat bete zuen 10.000 €ko kopurukoa eta baita Ofeliaren sinadura imitatu ere. Dagokion bankutik aipatutako kopurua ateratzea lortu zuen txekea aurkeztu ondoren.

(390 art. eta hurr. eta 623 art.)

1.2.13. DELITU JARRAITUA

I

1995 ezkeror, Juan Antonioren landa-finka baten administratzailea izan zen. Antoniok arazo ekonomiko larriak zituen bere joko zalekeriarengatik: hori dela kausa, 1997 urteaz geroztik finkaren diru eta ondasunak hartzeari ekin zion, benetakoak ez ziren kalteak edo galerak agerraraziz, edo kobratutako fakturak kobratu izan ez balira bezala jardunez, edo finkaren benetako etekinak ezkutatuz. Egindako guztia estaltzeko asmoz, kontabilitate-operazio konplikatuak bitartez benetako eragiketak aldatzen zituen.

Antonio, finkaren etekin-maila apala zela kausa, eta betidanik finka horrek izandako emaitza onak kontuan harturik, susmatzen hasi zen. Kontabilitatea zehatz-mehatz aztertu ondoren, Antonio jabetu zen Juanek 1997-2000 bitartean 7 milioi hartu zituela. 1997 urtean hiru aldiz bereganatu zituen dirua edo ondasunak, aldi bakoitzean 500.000 pezetako balioa; 1998. urtean 6 aldiz, bakoitza 400.000 pezetakoa; 1999 urtean 8 aldiz, bakoitza 200.000 pezetakoa; 2000 urtean, azkenik, hiru aldiz, bakoitza 500.000 pezetakoa.

(302 art. eta hurr.; eta 535)

II

Mariak, adin-nagusiak eta aurrekari penalik gabekoak, bere NAN (nortasun agiri nazionala) aldatu zuen hurrengo era honetara: bere izenaren ordeztasun, asmatutako bat jarri zuen eta bere egoera zibilari eta helbideari nahiz adinari buruzko aldaketak sartu zituen.

Mariak bere auzokide baten txeke taloitegia bat, Banco Centraleskoa, 87070 kontu-korronteari zegokiona, eskuratzea lortu zuen, aipatu bankuan auzokidearen izenean jaso zuelako, irakurtezinezko sinaduraz izenpetzearen bitartez.

Mariak, 1999ko urtarrilaren 28an, aipatu kontu-korrontearen kontrako taloi bat, 100.000 pezetakoa, izenpetu zuen titularren izenpea imitatuz, eta dirua kobratzea lortu zuen.

Geroago, beste auzokide baten posta-kutxatik beste taloitegi bat atera ondoren, 7854-271 Banco Español de Crédito delakoaren kontu-korrontekoa, taloi batzuk izenpetu zituen: lehenengoa 135.000 pezetakoa, bigarrena 5.000 pezetakoa, hirugarrena 55.000 pezetakoa eta, azkenik, 221.000 pezetakoa, kontu-korrontea hutsik utziz.

(248 art. eta hurr.; 390 art. eta hurr.)

III

Ricardok, adin nagusia eta zigor-aurrekaririk gabekoa, 1995eko urteaz geroztik, eta auzitegietako prokuradore moduan aritzeko beharrezkoak diren jakintza teoriko eta praktikoak lortzeko asmotan, Emilio prokuradorearen bulegoan egiten zuen lan, horren truke, aipatu jakintzaz gain, diru-kopuruak ere irabazten zituela.

1995eko azken hilabeteetan eta 1996ko lehenengoetan, ohiko bezero batzuengandik diru-kopuruak eskuratu arren, ez zizkion prokuradoreari eman, berarentzako gorde eta erabili baizik.

Aipatu diru-kopuruak hauek izan ziren: 200.000 pzta, 500.000 pzta, 1.000.000 pzta eta, laugarren bezero batengandik, 24.797 pzta.

(252 art. eta hurr.)

IV

1993ko apirilaren 16an, gaueko 8ak eta 9 t'erdia artean, Peio, adin nagusikoa eta zigor-aurrekaririk gabekoa, eta Mikel ohartu ziren herriko errepide batetik 14 urteko neska gazte bat zihoala. Biek bat-batean inguratu zuten, beso batetik indarrez eusten, ez oihukatzeak aginduz, bestela okerragoa izango zela mehatxatzen zuten bitartean.

Handik hurbil eta abandonaturik zegoen etxe bateraino eramanez eta biluztu ondoren, biek txandaka sexu-harreman osoak (hiru bakoitzak), baginatik sarketa eginez, izan zituzten. Bietako batek sexu-harreman bakoitza zuen bitartean, besteak biktimari eutsi eta ahoa estaltzen zion, oihu egin ez zezan eta gaitz handiago batekin mehatxatuz.

(178 art. eta hurr.; 163 art. eta hurr.; 169 art. eta hurr.)

V

Josek, 1999ko udan bere emaztearekin eta 13 urteko adopziozko alabarekin bizi izaten zena, lau aldiz, abuztu hartako lau egun desberdinetan, alabatxoaren bularrak bai jantzien kanpoko aldetik bai jantzien barruko aldetik eta bagina –hau jantzien kanpoko aldetik besterik ez– asmo lizunez ukitzeari ekin zion. Lau egunotan alabarekin bakarrik geratzeaz eta bien artean zegoen familia-harremanez probetxua ateratu zuen jarduerak errazago egin ahal izateko.

(181 art. eta hurr.).

VI

Jose Luisek, dirua lortzeko asmoz, Güell izena duen Bartzelonako parkean zeuden beribil batzuen kristalak apurtu zituen. Auto hauen barrutik jantziak, dirua, bitxiak eta abar hartu zituen hurrengo balorazioaren arabera: lehenengo automobiletik 350 €tan baloratutako gauzak eskuratu zituen; bigarrenen 85 €koak, hirugarrenean 230 €koak. Laugarrenaren beira apurtu ondoren, zerbait hartzera joan zenean, berriz, poliziak harrapatu zuen, azken auto honetan 25 €tan baloratutako kalteak eragin zituelarik.

(237 art. eta hurr.).

1.2.14. BALDINTZAPEKO KONDENA ETA ORDEZPENA

1996ko azaroaren 24an, gaueko 8ak inguruan, Antonio, 17 urtekoa, 1996ko maiatzaren 29an eta urte bereko ekainaren 10, 14 eta 21eko epaietan 4 lapurreta-delituengatik kondenatua, Pascualaren aldizkari-kioskora sartu zen. Antonio bere aurpegia zapi batez estaltzen ahalegindu bazen ere, sartu aurretik zapia erori zitzaionez, edozein unetan ezagutzeko moduan egon zen une oro.

Kioskoaren barruko aldean zegoela, Antoniok Pascualari eztarrian labana bat jarri zion, dirua emateko aginduz. Honen ondorioz, Pascualak zauri txiki bat eztarrian jasan zuen, mediku-laguntzarekin sendatu zena. Hala ere, ez zuen dirua eskuratzea lortu, udaltzaingoak bera atxilotu zuelako, beste pertsonak agenteei abisatu eta berehala.

Antonio heroinazalea zen baina ez dago frogarik drogamenpekotasunaren iraupenari buruzkorik ez eta, ekintza egin zenean, bera zegoen egoerari buruzkorik ere. Oso urduri zegoela bakarrik ematen da frogatutzat.

(237 art. eta hurr.)

1.3.- ESKEMA TEORIKOAK

Eskema teorikook irakaskuntza-jarduerari oinarri pedagogikoa emateko asmoz sortu ziren jatorriz. Helburua, hortaz, Zati orokorreko klase teorikoak erraztea besterik ez da. Eskemak direnez gero tankera estilistikoa edukiak ahalik eta gehien laburbiltzera zuzentzen da, ideien egituraketa argiaren bila. Aldi berean kontuan eduki beharra dago, materialok *power point*-en bitartez erabiltzeko eginak daudela.

Zati orokorreko edukiei dagokienez, ohikoak diren hiruretatik bi alderdi nagusi jasotzen dira eskema hauetan: Zuzenbide penalaren sarrera (**ik. 1-10 ikasgaiak**) eta Delituaren teoria orokorra (**ik. 11-29 ikasgaiak**) alegia. Zati orokorreko egitarauetan ohikoa den hirugarren zatiak, delituaren ondorio juridikoak izenekoak, gure aburuz, bestelako metodologia eskatzen du ikasteko: kasu praktikoak lantzearekin batera horien eduki teorikoak ere jorratzea, alegia. Hortaz, liburu honen hasieran aurkeztu diren eskema praktikoetan ondorio juridikoen inguruko kontzepturik funtsezkoenak ikusitzat jo beharra dago.

Lehenengo zatiaren (Sarrera) eta bigarrenaren (Delituaren teoria orokorra) arteko alderik garrantzitsuen zera da: bata *lege ferenda* ikuspegia duela ardatz, besteak berriz, *lege lata*. Azal dezagun labur esan nahi duguna. Sarreran zuzenbidezko estatu sozial eta demokratikoari legokiokkeen zuzenbide penalaren oinarri idealak deskribatzen dira: ardura ez da horrenbeste Espainiako Estatuan indarrean dagoen zuzenbide penal positiboa aztertzea. Zigor Kodeak eta lege penal bereziek zer dioten alde batera utzirik, zelako printzipioak eta mugak, nolako oinarria eduki beharko lituzkeen zuzenbide penal eredugarriak izaten da eztabaidagai. Sarrera, beraz, saiatzen da zuzenbide penalaren –edozein zuzenbide penalen– inguruko hausnarketa egiten, horren existentzia edo justifikazioa auzitan jarritz baita horren joko-arauak errotik aztertuz ere. Zuzenbide penal onargarria den bakarrak mugatua –mugak dituen– dela abiapuntutzat harturik, horrexegatik legezketasun printzipioa, erruduntasun printzipioa, gizatartasun printzipioa, proportzionaltasun printzipioa, eta abar, erdigunean kokatzen dira zuzenbide penalari dagokion alderdi bermatzailea behin eta berriro azpimarratuz.

Eredua aurkezturik, bigarren zatian (Delituaren teoria orokorrean), aitzitik, zuzenbide positiboari, indarrean dagoen zuzenbide penalari alegia, ekiten zaio, legeen edukia jorratzearekin batera kritikagarriak diren alderdiak ere nabarmentzen direlarik eta baita *lege ferenda* proposamenak: hau da lege-alternatibak, ere, eginaz. Beste hitzetan, neurtu egiten da zein puntutaraino Espainiako Estatuan dagoen zuzenbide penala eredutik hurbil dabilen. Ildo beretik, delituaren erakunde juridiko garrantzitsuenekin lotutako interpretaziorik arrazoitsuenak azaltzen dira, ereduaren eta errealtate juridikoaren arteko sintesia egiten.

Orain ikusiko ditugun eskemetan, batez ere **MIR PUIG, Santiago, *Derecho penal. Parte general, Barcelona, 1998*** eta baita **MUÑOZ CONDE, Francisco/GARCIA ARAN, Mercedes, *Derecho penal. Parte General, Valencia, 2000*** ere, esku-liburuak izan dira gidari; zer esanik ez, hortaz, bereziki gomendagarri direla edukietan sakondu nahi izanez gero.

1.3.1. LEHENENGO ZATIA: ZUZENBIDE PENALAREN SARRERA

1. IKASGAIA. ZUZENBIDE PENAL OBJEKTIBOA

- I. Zigor zuzenbidearen kontzeptua, zentzu hertsian.
- II. Zuzenbide Penalaren gizarte-kontrolerako tresna gisa. Ezaugarriak
- III. Elementuak
 - 1.- Delituak, zigorrak eta segurtasun-neurriak.
 - 2.- Segurtasun-neurriei buruzko arazoak
 - 3.- Delitutik eratorritako erantzukizun zibila.
 - 4.- Gainontzeko ondorio juridiko-penalak.
- IV. Zuzenbide Penalaren "sistema penal"aren baitan. Zuzenbide Penalaren eta Zuzenbide Prozesalaren.
- V. Legeria penalak: Zigor Kodea eta zigor-lege bereziak.

I.- ZUZENBIDE PENALAREN KONTZEPTUA ZENTZU HERTSIAN.

- ❖ Abiapuntua: von Liszt-en definizioa: "Zuzenbide penalak arau juridikoez osatuta dago, zeinek krimena – egitate bezala – penarekin – bidezko ondorio gisa – lotzen baitute"
- ❖ z. penalak: bi eratara uler daitezke
 - zentzu objektiboan: arau-multzoak
 - zentzu subjektiboan: *ius puniendi*
- ❖ von Liszt-en definizioari bi ñabardura:
 - zigorra eta segurtasun-neurria;
 - perspektiba dinamiko eta soziologikoa

II.- ZUZENBIDE PENALA GIZARTE-KONTROLERAKO TRESNA GISA. EZAUGARRIAK

- ❖ Gizartearen KONTROL-SISTEMA:
 - helburua: egonkortasuna/ biziraupena
 - tresna orokorra: araua eta zehapena (diziplina)
 - tresna zehatzak: instituzioak, estrategiak, zehapenak...
 - zuzenbide penalak: AZPI-SISTEMA
- ❖ Z. Penalaren ezaugarriak:
 - gizarte-kontrol modua OSO FORMALIZATUA:
 - modu formalak/ informalak: adibideak
 - formalizazioaren zergatia: LEGEA berme bezala
 - beste arlo juridikoekiko ezberdintasuna: ULTIMA RATIO
 - gatazka eta zigor astuntasuna (z. administratiboa)
 - subsidiarioratasuna

III.- ELEMENTUAK.

- ❖ Hiru elementu nagusi: delitua, zigorra eta segurtasun-neurria
- ❖ Beste elementuak: erantzukizun zibila eta abar
- ❖ Arau juridiko-penalak

1.- DELITUAK, ZIGORRAK ETA SEGURTASUN-NEURRIAK.

- ❖ Delitua:
 - kontzeptu formalak (arauak dioena)
 - kontzeptu materialak (ondasun juridikoa)
- ❖ Zigorra:
 - kontzeptuak (gaitza) eta funtzioak
- ❖ Segurtasun-neurria
 - kontzeptuak: ez da gaitza, tratamendua baizik (etorkizunari begira)

- TEORIAZ EZ dago zertan DELITU BATEKIN lotu behar (DELITU AURREKO ETA ONDORENGOak) : arazoak

2.- SEGURTASUN-NEURRIEI BURUZKO ARAZOAK

- ❖ Legegintzaren historia Espainiako Estatuan:
 - 1933 eta 1970 legeak: delitu aurreko Seg. Neurr.
 - Konstituzio kontraktasuna: lege-bermearen aurka
- ❖ Kode Penal berria: Delitu ondorengo Seg. Neurr. Besterik ez
 - kontzeptua
 - frogafuntzioa
- ❖ Pena eta segurtasun-neurria egungo kodean: alderdi komunak
 - delitua: auresuposamendua
 - biak –de facto– gaitzak dira
 - biek funtzio bera: aurrezaintza

3.- DELITUTIK ERATORRITAKO ERANTZUKIZUN ZIBILA

- ❖ Delituaren kalteak sor DEZAKEEN beste ondorioa.
- ❖ Izaera juridikoa: eztabaidagarria.
- ❖ Kontzeptua: kaltea ordaintzea
- ❖ Zuzenbide konparatuaren tratamendua ↔ Estatu espainiarra:
 - Kode penalaren arauketa
 - ikuspegi politiko-kriminala: biktimaren garrantzia
 - kontzeptuak, ordea, Z. ZIBILEKOAK da:
 - Kode Zibilera bidaltzen gaitu lege penalak
 - erantzukizun zibila ez dago beti delituarekin lotuta
 - Konklusioa

4.- GAINONTZEKO ONDORIO JURIDIKO-PENALAK.

- ❖ Ondorio erantsiak:
 - Komisoa (konfiskazioa)
 - pertsona juridikoentzako segurtasun-neurriak: *societas delinquere non potest*

KONKLUSIOA: Z. PENAL OBJEKTIBOAREN DEFINIZIOA:

“ZUZENBIDE PENALA ARAU JURIDIKOZ OSATUTA DAGO, ZEINEK DELITUA, AURESUPOSAMENDU BEZALA, ZIGORREKIN EDO SEGURTASUN-NEURRIAREKIN, ONDORIO JURIDIKO GISA, LOTZEN BAITUTE”

IV.- ZUZENBIDE PENALA SISTEMA PENALAREN BAITAN. Z. PENALA ETA PROZESALA.

- ❖ Z. Penalaren zientzia eta dogmatika
- ❖ Z. Penalaren soziologia eta kriminologia
- ❖ Politika kriminala (*lege lata* eta *lege ferenda*)
- ❖ Zientzia osoa eta gure eginbehera
- ❖ Z. Penala –substantiboa– eta prozesala –adjektiboa–

V.- LEGERIA PENALA: KODEA ETA ZIGOR-LEGE BEREZIAK

- ❖ 1995eko KODE PENALA (LO 10/1995, AZAROAREN 23koa)
- ❖ LEGE BEREZIAK:
 - **Adingabeen erantzukizun penalari buruzkoa** (Urtarrilaren 12ko 5/2000 LOa)
 - Aire-nabigazioari buruzkoa (1964)
 - Diru-trukeari buruzkoa (1979)
 - Kontrabandoari buruzkoa (1995)

- Hauteskundeei buruzkoa (1985)
- Kode penal militarra

2. IKASGAIA. ZUZENBIDE PENALAREN OINARRIZKO HELBURUAK ETA EZAUGARRIAK

I. Oinarritzko helburuak.

1.- Elkarbizitzarako oinarritzko ondasun juridikoen aurkako eraso jasanezinen aurrezaintza.

A. Ondasun juridiko-penalak.

B. Penalki babesgarriak diren ondasunen erreferentzia-markoa.

C. Ondasun juridikoen aniztasuna.

2.- Delituaren eta beraren aurkako erreakzioaren indarkeria mugatzea. Zigortzeko ahalmena arrazionalizatzea eta murriztea.

II. Ezaugarriak.

1.- Zuzenbide penala zuzenbide publiko gisa.

2.- Zuzenbide penalak aurrezaintzarako duen izaera zatikatua eta subsidiarioa, gainontzeko tresna juridikoekin konparatuta.

III. Zuzenbide penala, eta Estatuak zigortzeko dituen gainontzeko baliabideen artean desberdintzeko irizpideak. Bidegabe penala eta bidegabe administratiboa.

I.-OINARRIZKO HELBURUAK.

- ❖ Delituaren definizio materiala ↔ ZParen HELBURUA
- ❖ ZParen HELBURUA ↔ ESTATU-EREDUA (LEGE FERENDA)
- ❖ Aurreko galdera: Z. Penala existitu behar ote?
 - ABOLIZIONISMOA (Dotrinaren gutxiengoa)
 - Beharrezkoa da (hedatzeko joera) baina ZILEGIZKOA izan behar

1.- ELKARBIZITZARAKO OINARRIZKO ONDASUN JURIDIKOEN AURKAKO ERASO JASANEZINEN AURREZAINZA.

- ❖ ZP: gizarte-kontrolerako tresna : noiz jartzen da martxan?
- ❖ Erantzun bat: legegilea---gizartea (GIZARTE-KALTEGARRITASUNA)
- ❖ Baztertzeko den ereduak: EGILE-ZPa (GESINNUNG)
- ❖ Nola dakigu noiz den KALTEGARRIA?

A. ONDASUN JURIDIKO-PENALAK

- ❖ Bi irizpide nagusi: Ond. Jurid eta Gizarte-etika
- ❖ Z. p.aren helburua: Justizia↔Gizartearen babesa
- ❖ Bi ikuspuntuak ez al dira bat etortzen?
 - *De facto* hala da: **funtzio** etikoa ere betetzen da
 - Dotrinaren zati batek helburu bezala defendatzen du: CEREZO MIR, WELZEL, STRATENWERTH, JESCHECK...
 - KRITIKA: Balioen aniztasuna kriminalizatzeko arriskua

B. PENALKI BABESGARRIAK DIREN ONDASUNEN ERREFERENTZIA-MARKOA

- ❖ Abiapuntua: Konstituzioa (EZ ZUZENEAN!!)
 - estatu teokratikoa
 - estatu absolutua
 - estatu liberala
 - estatu sozialean : estatu totalitarioa
 - egungo sintesi historikoa mendebaldeko Europan: ESTATU SOZIAL, DEMOKRATIKO eta ZUZENBIDEZKOA
- ❖ ESTATU SOZIAL, DEMOKRATIKO eta ZUZENBIDEZKOA:
 - Helburu soziala eta muga liberal eta demokratikoak (bermeak)
 - ZParen helburua: delituen aurrezaintza
 - gizartearen babeserako eragingarria bada eta
 - printzipioen mugak

LABURPENA: OND. JURID — ESTATU EREDUA — AURREZAINZA

- ❖ Beraz: AURREZAINZA MUGATUA
 - Oreka efikaziaren eta bermeen artean
 - Konstituzioaren irizpide positiboa ez da nahikoa
 - Ond. juridikoaren irizpidea NEGATIBOA da:
 - interes morala
 - jardura ez-normala
 - ideologia

C. ONDASUN JURIDIKOEN ANIZTASUNA

- ❖ Indibidualak eta supraindividualak (kolektiboak)
 - Indibidualak
 - Adibideak: giza eskubideen muina direnak (bizitza, ondarea...)
 - estatu liberalaren ardatza
 - Kolektiboak:
 - Estatu-aldaketaren ondorioa
 - Noraino heldu behar ordea?

2.- INDARKERIA MUGATZEA, ARRAZIONALIZATZEA, MURRIZTEA

- ❖ Ikuspegi historikoa: indarkeria kontrolatu nahi
 - antzinako gizarteetan: mendekua
 - estatu absolutuan: zigor publikoa, neurrigabekoa
 - Ilustrazioa: arrazionalizazio-prozesua
 - zigor gizatiarragoak
 - zigorraren betearazpen-baldintza duinak
- ❖ Abolizionismorantz?
 - *De facto* EZ (egungo gizartearen egoera!!)
 - *de lege ferenda* ere ez: indarkeria gehiago!!
- ❖ Aurrezaintza mugatua = indarkeria OSOA mailarik baxuenean mantentzea
 - Estatuaren aldetiko indarkeria (gehiegikeriarik ez)
 - biktimen aldetiko balizko erreakzioa (mendekurik ez)
- ❖ Efikaziarik handiena, kosturik txikienarekin

❖ KONKLUSIOA (ZPAREN HELBURUA):

GUTXIENEO ZUZENBIDE PENALA EDO ZUZENBIDE PENAL MINIMOA

II.- EZAUGARRIAK

1.- ZUZENBIDE PENALA ZUZENBIDE PUBLIKO GISA

- ❖ Izaera eztabaidatua iraganean
- ❖ Z. publikoa izatearen aldeko argudioak:
 - Estatua beraren sortzailea
 - Estatua eta delitugilea protagonistak
 - Pertsekuzioa: ofizioz (salbuespenak)

2.- IZAERA ZATIKATU ETA SUBSIDIARIOA.

- ❖ Delitua = ond. jurid. penala. ETA eraso jasanezina (ZATIKAKO BABESA)
- ❖ Gizarte-kontrol juridiko-formala ekintza LARRIENEN aurrean ZIGORRIK LARRIENA ezartzen duena
- ❖ *ULTIMA RATIO*, Subsidiaritasuna

III.- BIDEGABE PENALA ETA ADMINISTRATIBOA

- ❖ Ezberdintze *eztabaidagarria*
- ❖ *DE LEGE LATA*

- zehapena ezartzen duen ORGANOaren arabera
- zigorraren larritasunaren arabera:
 - espetxealdia (presoaldia)
 - isuna?
- ❖ *DE LEGE FERENDA*
- ❖ Zuzenbide Penal administratiboa beharrezkoa ote?
- ❖ Bi zigorrak batera? *NON BIS IN IDEM*
 - bide judizialaren lehentasuna
 - azterketa faktikoaren muga

3. IKASGAIA. ARAU JURIDIKO PENALA

- I.- Arau juridiko penalararen egitura.
1.- Egitatezko suposamendua eta ondorio juridikoa.
2.- Lehen eta bigarren mailako araua.
- II.- Arau penalararen funtzioak: arau juridiko penala balorazioko zein zehaztapeneko arau gisa.
- III.- Lege penal osatugabeak eta zuriz eratutako lege penal zehaztugabeak.

I.-ARAU JURIDIKO-PENALARAREN EGITURA.

- ❖ ZP objektiboaren osagaiak: araua, printzipioa eta balorazioak (PRESKRIPZIO JURIDIKOAK)
 - Printzipioa: ezaugarriak
 - zehaztasun maila apalagoa
 - erabakiak hartzeko arrazoiak
 - betetze-maila: erlatiboa
 - Balorazioa
- ❖ Arau juridiko-penalararen definizioa:
 - arau juridikoa:
 - agindu-mezua (edukia) eta bidea (aditzera ematekoa)
 - legeko testuaren bidea izendatzeko terminologia:
 - legeko enuntziatua, proposamen juridikoa (“proposición”), legeko manua (“precepto”), legeko xedapena (“disposición”), legeko araua (“norma”)
 - KONTUZ bidea eta edukia bereizi behar
 - Arau juridiko OSOA eta legeko enuntziatu BATZUK: adibideak
 - Zati berezikoaren manuak: hizkuntza-iturri nagusia
 - Zati orokorrekoak: xedapen osagarriak
 - Enuntziatu BAKAR BAT BI ARAU: 1. eta 2. mailako arauak
 - hiritarrei zuzendutakoa: debekua
 - epaileari zuzendutakoa: zigorra ezartzekoa

1.- EGITATEZKO SUPOSAMENDUA ETA ONDORIO JURIDIKOA.

- ❖ Arau juridiko-penalararen egitura: auresuposamendua/ ondorioa (adibidea)
- ❖ Legearen balizko formulazioa : berariazko erreferentzia

2.- LEHEN ETA BIGARREN MAILAKO ARAUAK.

- ❖ Abisu- eta informazio- funtzioa
- ❖ Baita arauak transmititzekoa:
 - epaileari (zigortzeko araua)
 - hiritar orori (debekatzekoa)

II.- ARAU PENALARAREN FUNTZIOAK.

- ❖ Bi funtzio posible: aginduzkoa (zehaztapeneko araua)) edota baloraziozkoa
- ❖ Beti lehen mailako arauaren kasuan
- ❖ Baloratzea eta agintzea:
 - ezberdintasuna
 - Estatu sozial, demokratiko eta zuzenbidezkoa: aginduzko araua (aurrezaintza!!):
 - ❖ Lehen mailako araua motibazioa (*ex ante*)
 - ❖ Bigarren mailako araua: baieztapena (*ex post*)
- ❖ Aginduak, edonola ere, balorazio**AK** dakartza: zehatzak eta orokorrak
- ❖ Ondorio praktikoak:
 - zigorra eta ZParen funtzioan (AURREZAINZTA)
 - doloa eta zuzenbidekontrakotasuna
 - balorazioa: muga-bermea (aurrezaintza mugatua)
- ❖ Segurtasun-neurriak: bakarrik 2. MAILAKO araua

III.- LEGE PENAL OSATUGABEAK ETA ZURIZ ERATUTAKO LEGE PENAL ZEHASTUGABEAK.

- ❖ Manu penalak, guztiak OSATUGABEAK (manu penal nagusia osatuen)
- ❖ Zuriz eratutako legea:
 - definizioa:
 - auresuposamenduaren berezitasunak ez dira deskribatzen
 - igorpena-bidalketa: kanpoko lege batera
 - Helburu-legearen hierarkia: legezkotasun printzipioaren arazoak
- ❖ Zuriz eratutako lege alderantzizkoa
 - zigorra ez da zehazten
 - are eztabaidagarriagoa

4. IKASGAIA. ZIGORRAREN HELBURUAK

- I. Zigorraren helburuei buruzko teoriak
 - 1.- Teoria absolutuak: ordainketa.
 - A. Funts erlijiosoa.
 - B. Funts etikoa: KANT.
 - C. Funts juridikoa: HEGEL.
 - 2.- Teoria erlatiboak.
 - A. Aurrezaintza orokorra: beldurraraztea eta aurrezaintza orokor positiboa.
 - B. Aurrezaintza berezia.
 - C. Batasunaren teoriak.
- II. Segurtasun-neurrien funtzioa. Penak eta segurtasun-neurrien arteko harremana.
 - 1.- Sistema monista eta sistema dualista-.
 - 2.- Bikariorza-sistema.
- III. Penaren helburuak eta Konstituzioaren markoa.

- ❖ ZParen helburua : zigorraren helburua
- ❖ Ikasgaiaren eskema:
 - zigorraren teoriak (*lege ferenda*)
 - segurtasun-neurriak: *lege ferenda* eta *lege lata*
 - zigorra: proposamen bat (*lege lata*)

I.-ZIGORRAREN HELBURUEI BURUZKO TEORIAK.

1.- TEORIA ABSOLUTUAK: ORDAINKETA.

- ❖ Kontzepzio tradizionala : merezitako zigorra: ARGUDIOAK

A. FUNTS ERLIJIOSOA

B. FUNTS ETIKOA: KANT.

- ❖ Gizabanakoa = bera helburu absolutua
- ❖ Zigorraren neurria: justizia (imperatibo kategorikoa)
- ❖ Uhartearen adibide ospetsua

C. FUNTS JURIDIKOA: HEGEL

- ❖ Borondate orokorra eta berezia (zuzenbidea-delitua)
- ❖ Eskema dialektikoa: tesia : antitesia : sintesia
- ❖ Iragana da nagusi
- ❖ 1. funtzioa: zuzentasunaren eskakizun absolutua
- ❖ Funtzioa: BERME-FUNTZIOA (proportzionaltasuna)
- ❖ Teoria horien itzulera 2. Mundu-Gerraren ondoren
- ❖ Zigorraren proportzionaltasuna beste teoretatik ere defendagarri:
 - gure planteamendua
 - inoiz ez da teoria absolutu HUTSA jarraitu

2.- TEORIA ERLATIBOAK

- ❖ ONURAn (Gizarte-onuran) oinarritutako teoriak: ETORKIZUNA da nagusi
- ❖ Erlatibotasuna: aurrezaintza aldatokorra da berez
- ❖ Aurrezaintza helburua: baina BI JOERA

A. AURREZAINZA OROKORRA: BELDURRARAZTEA ETA AURREZAINZA OROKOR POSITIBOA

- ❖ FEUERBACH, FILANGIERI, BENTHAM:
 - legeko mehatxua, hertsapen psikologikoa
 - egikaritzaren zentzua
- ❖ Beldurrarazte negatiboa eta aurrezaintza positiboa
- ❖ Aurrezaintza orokor positiboa
 - arriskua: barruko jarrera zigortzea (Gesinnung)
 - alderdi ona: beldurraraztearen muga
 - larriak ez diren jardueretan
 - larriak diren kasuetan

ONDORIOA: AURREZAINZA OROKORRA –NEGATIBOA eta POSITIBOA– BAINA MUGATUA

B. AURREZAINZA BEREZIA

- ❖ Pertsona zehatzari zuzentzen zaio : egikaritze-unea erabakigarria (aurrezaintza indibiduala)
- ❖ Historia modernoa: alternatiba aurrerakoa
 - Korrekzionalismoa; Eskola positiboa; Von Liszt (XIX)
 - VON LISZT:
 - Abiapuntua: helburuaren ideia
 - egitarau politiko-kriminala:
 - zigorra beharrezkoa = zuzena
 - hiru delitugile mota: noizbehinkakoa, ohikoa baina zuzentzekoa eta sendaezina
- ❖ Atzeko ikusmoldea: delituaren kontrako borroka efikaza
- ❖ Historikoki izan zuen arrakasta (zabaltzea):
 - geografikoki
 - eragin zehatza:
 - segurtasun-neurriak
 - instituzio juridiko berriak: zigorraren egikaritze (betearazpena) etetea, baldintzapeko kondena, baldintzapeko askatasuna, zigorraren ordezipena...(birgizarteratzea)
- ❖ Aurrezaintza bereziaren **KRITIKA**:
 - Zigorra ez da BEHARREZKOA:
 - lehendabiziko delitugilea
 - noizbehinkako delitugilea
 - Zigorra EZINEZKOA da (ohiko delitugilea...)
 - Zigorra EZ da ZILEGI (konbentzimenduzko delitugilea)

KONKLUSIOA:

- ❖ Aurrezaintza berezia ezin da helburu BAKARRA izan
- ❖ Funtzioa aurrezaintza orokorraren baitan

C. BATASUNAREN TEORIAK.

- ❖ Zuzentasuna, aurrezaintza orokorra eta berezia ZIGORRAREN ALDERDI EZBERDINAK
- ❖ Teoria eklektikoak (JOERA OROKORRAK):
 - abiapuntua: aurrezaintza
 - teoria eklektikoen bi joera:
 - gizartearen babesa ordainketaren bitartez (atzerakoa)
 - zigorraren muga:
 - gehienezkoa: ordainketa
 - goiko mugatik beherakoa: aurrezaintza
- ❖ EGUNGO JOERA
 - zigorraren funtzioa UNEaren arabera
 - proposamen zabalduenetariko bat: **ROXIN**
 - batasunaren teoria dialektikoa
 - hiru une bereizi behar:

- ❖ legearen mehatxua: AURREZAINZA OROKORRA (MUGATUA)
- ❖ epaile-ezarpena: HIRU HELBURU
 - ◆ aurrezaintza orokorra
 - ◆ erruduntasuna: muga gaindiezina
 - ◆ aurrezaintza berezia
- ❖ kondenaren betearazpena: AURREZAINZA BEREZIA

II.- SEGURTASUN-NEURRIEN FUNTZIOA. ZIGORRA ETA SEG.-NEURR.aren ARTEKO HARREMANA.

1.- SISTEMA MONISTA ETA DUALISTA.

- ❖ Historian zehar, aurreko garaietan, ZP monistaren baliabide bakarra: zigorra
- ❖ XIX. bukaeran. Zigorren eskasiak nabarmen:
 - arriskua egon daiteke deliturik gabe
 - delitua egon arren zigorra ezinezkoa
 - arriskutsutasuna delituaren gainetikoa izan daiteke
 - testuinguru historikoa : efikazia faltan
- ❖ Arriskutsutasunaren gaineko ikerketa zientifikoa (eskola positibista): sistema DUALISTA
- ❖ Sistema dualistaren KRITIKA:
 - etiketen iruzurra (ikuspuntu praktikotik)
 - zigorra eta Seg.-Neurr.-aren arteko bereizkuntza teorikoa desagertzen da
 - berme-maila jaisten da

2.- BIKARIOTZA SISTEMA

- ❖ 99 art: lehenik segurtasun-neurria bete, gero ZIGORRA
 - askatasun-gabetzaileak izan behar
 - deskontatuz
 - eteteko aukera: baldintzak
 - erdi-egotzezinentzat (104 art)
- ❖ Sistema honek kritikak konpontzen ditu:
 - zigorra eta segurtasun-neurria ez dira batzen
 - berme-arazorik ez
 - koordinazio egokia helburuetan
- ❖ Segurtasun-neurriaren helburua eta kontzeptua:
 - aurrezaintza berezia (= zigorra)
 - arriskutsutasuna (kontzeptua)
- ❖ Segurtasun-neurrien motak:
 - neurri terapeutikoak
 - neurri hezitzaileak
 - segurtasunezkoak
 - GIZARTEA/ GIZABANAKOA: OREKA

III.- ZIGORRAREN HELBURUAK ETA KONSTITUZIOAREN MARKOA.

- ❖ Indarrean dagoen Zigor Kodea: ordainketa helburu?
 - berriro ere kontzeptua eta helburua
 - 1978 Konstituzioko 25. 2 art.
 - Presondegari buruzko 1979/1LO orokorra: 1 art. birgizarteratzea
- ❖ Zuzenbide positiboa eta ROXINen teoria:
 - legezko kriminalizazioa: aurrezaintza orokorra
 - epaile-ezarpena:
 - 66.1 art.
 - aurrezaintza berezia
 - proportzionaltasuna
 - baita aurrezaintza orokorra ere (zigor abstraktua!!)
 - baldintzapeko kondena, ordezpena...
 - zigorraren betearazpena (egikaritzea):
 - legea baieztatzen da: aurrezaintza orokor positiboa

- lehentasuna, ordea, aurrezaintza berezia

5. IKASGAIA. ESTATUAREN ZIGORTZEKO AHALMENA. LEGITIMAZIO-AURRESUPOSAMENDUAK (I).

Sarrera.

I. Legezkotasun printzipioa zuzenbidezko Estatuarekin lotutako eskakizun gisara: jatorria eta zentzu politikoa.

II. Legezkotasun printzipioaren bermeak.

III. Legezkotasun printzipioa zuzenbide espainiarrean.

IV. Analogiaren debekua.

SARRERA.

- ❖ Aurrezaintza mugatua : printzipioak
- ❖ *Ius puniendi*-ren ikuspuntua (ZP subjektiboa)
- ❖ Printzipioak *de lege ferenda*
- ❖ Estatu-eredua: abiapuntua
 - Mendebaldeko Europakoa (baita EKkoa ere –1 art.–)
 - Ezaugarri bakoitzetik mugak: (MIR PUIG)
 - Zuzenbide-Estatua: LEGEZKOTASUN. PRINTZIPIOA
 - Estatu soziala: aurrezaintza beharrezkoa eta efikaza
 - Estatu Demokratikoa: hiritarren esanetara

I.- LEGEZKOTASUN PRINTZIPIOA ZUZENBIDEZKO ESTATUAREKIN LOTUTAKO ESKAKIZUN GISARA: JATORRIA ETA ZENTZU POLITIKOA.

- ❖ FEUERBACH: *nullum crimen, nulla poena sine lege*
- ❖ Aurrekariak:
 - Magna Charta Libertatum (1215)
 - Constitutio Criminalis Carolina (1532)
 - ZENTZU MODERNOA (ASKATASUNAREN PALLADIUMA)
- ❖ Oinarri politikoak: Kontratu soziala eta botereen banaketa
- ❖ Legearen funtzioak:
 - segurtasuna hiritarrentzat
 - berme politikoa
- ❖ Printzipio honen onarpena lege positibotan (HISTORIA)
 - 1822 eta 1848ko Zigor-Kodeetan
 - KE

II.- LEGEZKOTASUN PRINTZIPIOAREN BERMEAK.

- ❖ 4 BERME:
 - kriminala
 - penala
 - judiziala
 - egikaritzekoa (betearazpenezkoa)
- ❖ Legearen EZAUGARRIAK (bermeak eragingarriak izan daitezen):

LEX PRAEVIA, SCRIPTA, STRICTA

- **ALDEZ AURRETIKOA (praevia)**
 - Atzera eraginaren debekua (segurtasuna !!)
 - Salbuespena: lege MESEDEGARRIA bada
- **IDATZIZKOA (scripta)**
 - ohitura ez
 - lege mailakoa (berme politikoa)
- **ZEHAZTA (stricta)**
 - Bi eskakizun:
 - zehaztasun-agindua eta analogiaren debekua (gero ikusiko da)
 - legezkotasun printzipio **materiala** –ez soilik formala–
 - klausula orokorrak

- tipikotasuna eta zigorraren zehaztapena
- Segurtasun-neurrien arazoak:
 - arriskutsutasuna: nola zehaztu?
 - iraupena: nola zehaztu?
 - irtenbidea:
 - ♦ delitua aurretik egin izana
 - ♦ iraupen gehienezkoa ezarri beharra

III.- LEGEZKOTASUN PRINTZIBIOA ZUZENBIDE ESPAINIARREAN

❖ Konstituzioa eta Zigor-Kodea

❖ KONSTITUZIO ESPAINIARRA (1978): 25.1 art.

- Espresuki berme kriminala besterik ez (atzera eragin eza)
- Berme penala 9.3 artikuluan
- Hainbat hutsune: berme judiziala, egikaritzekoa (betearazpenezkoa), lege-maila, zehaztasun-agindu eta segurtasun-neurriak.
- Lege-maila:
 - 25.1 “legislación vigente” ?
 - **81 ARTIKULUA:**
 - edukia: lege organikoa eta abar
 - oinarritzko eskubidea (askatasuna)
 - isuna
 - 53.1: beste kasutan behintzat lege arrunta
 - Autonomi Erkidegoa (149.6)
 - Zuriz eratutako lege penalaren arazoa
- Berme judiziala: 24.2 : Lege organikoa!!
- Egikaritzea-bermea (betearazpenezkoa): isilbidez 25.2: Lege organikoa!!

❖ ZIGOR-KODEA

- Berme kriminala: 1 artikulua : pena ETA segurtasun-neurria
- Berme penala: 2 artikulua : pena ETA segurtasun-neurria
 - Atzera eragin ezaren printzipioa
 - Salbuespena: mesedegarriak direnean.
 - ÑABARDURAK
 - erantzukizun zibila: EZ!!
 - lege prozesal-penala: EZ!!
 - ♦ *tempus regit actum* (Kode Zibila 2.3 art.)
 - ♦ salbuespena: berme garrantzitsuak!! (BAI)
 - Mesedegarria den LEGE BITARTEKOAK
 - ♦ zertan datza? Adibidea
 - ♦ dotrinaren gehiengoa: atzerako efektua BAI
 - ♦ argudioa: igurikapena ezin da zapuztu
 - Aldi baterako lege gogorragoa
 - ♦ zertan datza? Epe baterakoak hasieratik (adibideak)
 - ♦ normalean gogorragoak beraz atzera efekturik EZ:
 - bestela efikaziarik (beldurraraztea) ez;
 - gizarte-balorazioan aldaketarik ez dago
 - ♦ Ondorioa: atzera efekturik ez (ZK 2.2 art)
- Berme judiziala:
 - 3.1 ZK
 - 1 Prozedura Kriminalaren Legea
- Egikaritzea-bermea (betearazpenezkoa): 3.2 ZK

IV.- ANALOGIAREN DEBEKUA.

- ❖ *IN MALAM PARTEM* : Legezotasun printzipioa (lege zehatza -*stricta*-)
- ❖ Analogia eta interpretazioaren arteko ezberdintasuna:

- analogia debekatua –kontrakoa bada– ez ordea interpretazioa
- desberdintasuna:
 - interpretazioa: zentzu literal posiblearen barruan
 - analogia: testu literalaren gainetik pasatu nahi da
 - adibidea: ZK 23 artikulua : aurreko ahaidea
- Beraz:
 - interpretazio hedatzailea: zilegi da
 - analogia, erruztatuaren aurkakoa, ez: segurtasuna!!
- ❖ Baina analogia *IN BONAM PARTEM*?
 - Bermea ez da hemen behar baina
 - 4.3 eta 4.1 artikuluen arazoa: aplikazio ZORROTZA

6. IKASGAIA. ESTATUAREN ZIGORTZEKO AHALMENA. LEGITIMAZIO-AURRESUPOSAMENDUAK (II).

I. *Ius puniendiren* mugak Gizarte-Estatuan.

- 1.- Esku-hartze penalaren onura printzipioa.
- 2.- Zuzenbide penalaren izaera zatikatu eta subsidiarioa.
- 3.- Ondasun juridikoen babes eskusiboaren printzipioa.

II. *Ius puniendiren* mugak Estatu demokratikoan.

- 1.- Penaren gizatartasun printzipioa.
- 2.- Erruduntasun printzipioa.
 - A. Zigor pertsonala.
 - B. Egiteagatiko erantzukizuna.
 - C. Doloa edo culpa.
 - D. Egozpen pertsonala.
- 3.- Proportzionaltasun printzipioa.
- 4.- Birgizarteratze printzipioa.

I.- IUS PUNIENDIREN MUGAK ESTATU SOZIALEAN.

1. ESKU-HARTZE PENALAREN ONURA-PRINTZIPIOA.

- ❖ Babeserako efikaza izan behar zuz. penala
- ❖ Galdera: benetan eragingarria al da?
 - Kontrako argudioak: birjauste tasak; delitu larri batzuetan ez da efikaza (terrorismoa, grinaldian egindako delituak...)
 - aldekoak:
 - delitua egiten ez dutenen ikuspuntua
 - eskarmentu historikoa
 - Efikaza ez bada zigorra desagertu behar
 - adibidez: heriotza-zigorra
 - BECCARIA: efikazagoa pena ezartzea, horren astuntasuna baino

2. Z. PENALAREN IZAERA ZATIKATU ETA SUBSIDIARIOA.

- ❖ Ondasun batzuk babesgai, eraso batzuen aurrean (*ultima ratio*)

3. ONDASUN JURIDIKOEN BABES ESKLUSIBOAREN PRINTZIPIOA

- ❖ Irizpide negatiboa (politiko-kriminala), liberala
- ❖ MIR PUIGen definizioa
“gizarte-bizitzaren baldintzak dira, gizarte-sisteman parte hartzeko aukerak zehazten dituztenak”:
funts hirukoitza
 - sistemaren existentzia ahalbideratu (Estatu soziala)
 - hiritarren parte-hartzea bermatu (Estatu demokratikoa):
 - ondasun guztientzat
 - babesaren aukeraketa, hiritarrentzat
 - zehaztasuna eman (zuzenbidezko Estatua)
- ❖ Printzipio hau da estatu-ereduaren ARDATZA

II.- IUS PUNIENDIREN MUGAK ESTATU DEMOKRATIKOAN

- ❖ Gizabanakoaren IRUDI batetik abiatzen gara
 - duintasuna
 - berdintasuna (errealia)
 - parte-hartzea
- ❖ Irudiaren ondorioz: printzipio batzuk

1. ZIGORRAREN GIZATARTASUN PRINTZIPIOA.

- ❖ Gaurko Z. penalaren jatorritik dator (Ilustrazioa...)
- ❖ Heriotza-zigorra eta zigor fisikoak : Kartzela
 - lehenengo fasea: kartzelaren alde
 - bigarren fasea: kartzelaren aurka
 - alternatibak
 - desinkriminazioa
 - betiko presoaldia ez
- ❖ Betearazteko baldintza duinak (minimoak)
- ❖ Ereduen konparaketa: demokrazia/ diktadura
 - preso ere hiritarra
 - Estatua hiritar guztiez arduratu behar

2. ERRUDUNTASUN PRINTZPIOA.

- ❖ Errudun hitzaren zentzu zabala : erantzukizuna
- ❖ Honekin lotzen diren AZPI-PRINTZPIOAK:
 - zigorra pertsonala
 - egiteagatiko erantzukizuna (egitate-ZP)
 - doloaren edo erruaren printzipioa
 - egozpen pertsonalaren printzipioa
- ❖ Erruduntasuna: hitz honen aurkako kritika
 - kutsu morala: nahastekoa
 - bi zentzututan erabiliko dugu:
 - zabalean (politika-kriminala)
 - zentzu hertsian: egozpen pertsonala
- ❖ Printzipio honen atzean dauden balioak:
 - duintasuna eta segurtasun juridikoa (norberak eta dolo edo kulpaz = aurreikusgarria, subjektuak *menperatzen* duen jarduera)
 - berdintasun erreala (egozpen pertsonala)

AZPI-PRINTZPIOAK: BANAN-BANAN

A. ZIGOR PERTSONALA

- ❖ erantzukizun kolektiborik ez
- ❖ pertsona juridikoen erantzukizuna?

B. EGITEAGATIKO ERANTZUKIZUNA

- ❖ Egitea ez EGILEA : Legezkotasun printzipioa (tipoa, zehaztasuna...)

C. DOLOA EDO KULPA (ERRUA)

- ❖ tradizionalena
- ❖ emaitza ez da nahikoa erantzukizuna egoteko (erantzukizun objektiboa!!)
- ❖ izpiritualizatzeko-prozesua (zuzenbide erromatarra)
- ❖ gaur oraindik erantzukizun objektiboaren aztarnak: *versare in re illicita*

D. EGOZPEN PERTSONALA

- ❖ auresuposamendua: motibagarritasuna eta baldintza psikiko normalak
- ❖ egitatea egilearena izan behar objektiboki, subjektiboki eta pertsonalki
- ❖ funtsa: Hegel eta berdintasun erreala
- ❖ zigorrari lehentasuna: gero segurtasun-neurria

3. PROPORZIONALTASUN PRINTZPIOA.

- ❖ Erruduntasun printzipioaren osagarria (segurtasun-neurriak)
- ❖ Gaur: zigorretan ere aplikatu behar
- ❖ Erruduntasunaren menpe zigorra BAI ala EZ: eta horren NEURRIA?
- ❖ Zigorrari dagokionez:
 - delitu eta zigorraren arteko proportzioa: irizpidea?
 - aurrezaintza orokor positiboaren eskakizuna

- estatu demokratikoaren isla
- ❖ Segurtasun-neurriari dagokionez:
 - bermeak galdatu beharra
 - batez ere askatasunaz gabetuz gero

4. BIRGIZARTERATZE-PRINTZPIOA.

- ❖ Azkeneko funtsa: parte-hartzea denentzat
- ❖ beraz: isolamendurik ez; beste erremediorik ez badago
 - kanpoko kontaktua bultzatu beharra (desozializazioarik ez)
 - pertsonalitatea errespetatu (manipulatu, derrigortu ez)
- ❖ Konstituzioan jasota, baina errealitatean?

7. IKASGAIA. LEGE PENALAREN DENBORA- eta LURRALDE-EREMUAK

- I. Gai orokorrak.
- II. Delitua burututako unea.
- III. Lurraldetasunaren printzipio orokorra.
 - 1. Sarrera orokorra.
 - 2. Lurraldetasun printzipioa.
 - A. Lurraldearen kontzeptua.
 - B. Delitua burututako lekua.
- IV. Lurraldetasun printzipioaren salbuespenak.
 - 1.- Pertsonalitate-printzipioa.
 - 2.- Printzipio erreala edo babesari buruzkoa.
 - 3.- Justizia unibertsalaren printzipioa.
- V. Estradizioa.
 - 1.- Kontzeptua eta mota desberdinak.
 - 2.- Iturburuak.
 - 3.- Estradizioaren oinarriko printzipioak.
 - 4.- Atxilotzeko agindu europarra.
- VI. Asilo-eskubidea.
- VII. Nazioarteko zuzenbide penala.

I.-GAI OROKORRAK.

- ❖ Eremuak legezkotasun printzipioarekin lotu behar
- ❖ PROMULGAZIOA (KE 91 art)
 - Gorteak-berretsi-promulgatu-EAO
 - *Vacatio legis* (Kode Zibila 2.1 : salbuespena)
- ❖ INDARGABETZEA (KZ 2.2)
- ❖ Konstituzio-Auzitegiaren EPAIAK (Konstituzio Auzitegiaren LO –38 art–)

II.- DELITUA BURUTUTAKO UNEA.

- ❖ Zein lege ezarri?: delitua NOIZ eta NON egin den jakin behar
- ❖ Delituaren UNEAren menpe:
 - lege aurreko eta ondorengo
 - egilearen egozgarritasuna
 - preskripzioa (epe-neurketa)
- ❖ Delituaren emaitza eta ekintza:
 - batera badoaz: arazorik ez
 - ez badoaz:
 - adibidea: HIESa
 - TEORIAK: DOTRINA:
 - ekintzaren teoria
 - emaitzaren teoria
 - ubikuitatearen teoria
 - balioespen juridikoaren teoria
 - ZIGOR-KODEA: 7 ARTIKULUA
 - denboran aplikatu behar den legearen kasurako bakarrik da ekintzaren teoria

III.- LURRALDE-TASUN PRINTZIPIO OROKORRA

1. SARRERA OROKORRA

- ❖ *Ius puniendi* eta subiranotasuna (LURRALDEA)
- ❖ Gaurko delitugintzaren ezaugarriak:
 - delitugileen mugikortasuna
 - nazioarteko sare krimengileak
- ❖ Beraz: ESTATUEN ELKARLANA ezinbestekoa:
 - nazioarteko zuzenbide PRIVATUA
 - nazioarteko zuzenbide PUBLIKOA (estradizioa)
- ❖ Abiapuntua: lurraldetasuna (salbuespenak)
- ❖ Irizpide politiko hutsen garrantzia (estradizioa)

2. LURRALDE TASUN PRINTZIOA

- ❖ *Locus regit actum*: zertan datza?
- ❖ Zergatik lurraldetasunak lehentasuna?
- ❖ KZ 8.1 art. eta Botere Judizialaren LO 23.1 art.

A.- LURRALDEAREN KONTZEPTUA

- ❖ Kontzeptu juridikoa : subiranotasuna
- ❖ Kontzeptuaren osagaiak:
 - lurraldea zentzu geografikoan:
 - lurra
 - itsasoa
 - aireko espazioa
 - enbaxada, kontsulatua
 - bandera-eskubidea (itsasontziak, hegazkinak)
 - aduanetako bulegoak

B.- DELITUA BURUTUTAKO LEKUA.

- ❖ BJLO 23.1 art.: Espainiako auzitegien eskuduntza
 - arazorik ez, emaitza eta ekintza batera badoaz
 - arazoa: urrunetiko delitua: adibidea
 - Legea isilik
 - DOTRINAK:
 - ekintzaren teoria
 - emaitzaren teoria
 - ubikuitatearen teoria: gehiengoak

IV.- LURRALDE TASUN PRINTZIOOAREN SALBUESPENAK.

- ❖ Lurraldetasun printzipioaren eskasia: zigorgarritasun-hutsuneak
- ❖ Salbuespenen ondorioa: lurraldez kanpokotasuna edo estraterritorialitatea
- ❖ HIRU SALBUESPEN:
 - pertsonalitate-printzipioa
 - babesaren printzipioa (edo erreala)
 - justizia unibertsalaren printzipioa

1.- PERTSONALITATE-PRINTZIOA.

- ❖ Zertan datza? legeak hiritarrari jarraitzen dio
- ❖ funtzio osagarria bakarrik
- ❖ UKANBEHARRAK:(BJLO 23.2 art.)
 - auresuposamenduak:
 - espainiarra izan behar
 - lege espainiarrak delitutzat jo
 - delitua kanpoan egin da
 - 23.2 art.
 - kanpoko legeak delitutzat jo
 - kereila-salaketa aurkeztu behar
 - delitugilea oraindik epaitu ez

- ❖ Helburu praktikoa

2.- BABESAREN PRINTZPIOA (P. ERREALA).

- ❖ Irizpidea ez da NORK, ZEIN DELITU baizik: funtsa
- ❖ BJLO 23.3 art.: ZEIN DELITUTAN?
 - Traizio-delitua.; bake, indepentziaren aurk.
 - Koroaren aurk.
 - Errebelamendu-albaramendua
 - faltsutzea
 - atentatua
 - funtzionario publikoek egindakoak eta Adm. publikoaren aurk.
 - Truke-kontrolari buruzkoak
 - Zigor-Kode militarra
- ❖ GUZTIETAN: BJLO 23.5 art.: epaitua ez izana

3.- JUSTIZIA UNIBERTSALAREN PRINTZPIOA.

- ❖ Interes supranazionalak
- ❖ BJLO 23.4 art.: ZEIN DELITUTAN?
 - genozidioa
 - terrorismoa
 - itsas-lapurreta; hegazkinen bahiketa
 - kanpoko dirua faltsutzea
 - prostituzioaren ingurukoak
 - droga-trafikoa
 - eta bestelakoak (nazioarteko itunak)
- ❖ GUZTIETAN: BJLO 23.5 art.: epaitua ez izana

V.- ESTRADIZIOA.

1.- KONTZEPTUA ETA MOTAK.

- ❖ Epaitzeko auresuposamendua: Estatuaren esku : ESTRADIZIOA
- ❖ DEFINIZIOA:
 - nazioarteko elkarlanerako prozedura
 - helburua: epaitzea, zigorra betearaztea
 - beti bi Estatu jokoan: ESKATZAILEA eta JASOTZAILEA
- ❖ MOTAK
 - pasiboa, aktiboa
 - bidean dagoena
 - birrestradizioa
 - organoen arabera: gubernatiboa, judiziala, mistoa
- ❖ Instituzio juridiko-politikoak:
 - gobernuaren esku
 - horren isla:
 - iturburuak
 - prozedura: estradizio pasiboaren legea 6 art.

2.- ESTRADIZIOAREN ITURBURUAK.

- ❖ KE 13.3 art.:
 - Nazioarteko itunak
 - Legea: Prozedura Kriminalerako Legea. ETA Estradizio Pasiboaren Legea.
 - Elkarrekikotasun printzipioa
- ❖ Hierarkia-harremana? Estradizio Pasiboaren Legea. (1 art.)

3.- OINARRIZKO PRINTZPIOAK.

- ❖ Estradizio pasiboaren kasuan bakarrik
- ❖ Hurrengo hauek:
 - 1.- legezkotasun printzipioa

- 2.- elkarrekikotasun printzipioa
- 3.- inkriminazio bikoitzaren printzipioa
- 4.- naziokoak ez emateko printzipioa
- 5.- delitu batzuen salbuespena
- 6.- pertsekuzio-kasuak, adingabeen kasuak
- 7.- asiloa
- 8.- konmutazio-printzipioa
- 9.- judizializazio-printzipioa
- 10.- berezitasun-printzipioa
- ❖ Prozedura mistoa

4. ATXILOTZEKO AGINDU EUOPARRA.

- ❖ Kontseiluaren Erabaki <<markoa>>: 2003ko ekainaren 13koa
- ❖ 2/2003ko Lege Organikoa, martxoaren 14koa: Audientzia Nazionalaren eskuduntza (Botere Judizialaren Lege Organikoaren aldaketa)
- ❖ 3/2003ko Legea, martxoaren 14koa, atxilotzeko eta emateko agindu europarrari buruzkoa.
 - Art. 1: legearen helburua (Estatuek pertsonak elkarri emateko eta atxilotzeko agindua errazagoa, arinagoa eta efikazagoa izan dadila)
 - Art. 9: zenbait delitutan inkriminazio bikoitzaren printzipioa ez da eskatzen
 - Delitu larriak
 - Behintzat 3 urteko zigorra (gehienezko muga abstraktutik begiratuta, Estatu <<igortzailearen>> arabera)
 - Zerrendan ez dauden delituetan:
 - Inkriminazio bikoitza beharrezkoa da eta
 - Zigorra behintzat 12 hilabeteko presoaldia (zigor abstraktua, gehienezko mugatik begiraturik) edo kondena bada, 4 hilabeteko presoaldia baino luzeagokoa

VI.- ASILO ESKUBIDEA.

- ❖ Kontzeptua: babesa eta estradiziorik ez
- ❖ KE 13-4 art.: 5/1984 eta 9/1994 LOak
- ❖ Helburua: pertsekuziorik ez

VII.- NAZIOARTEKO ZUZENBIDE PENALA.

- ❖ Kontzeptu orokorra: bi ikuspegi
 - Nazioarteko elkarlana eskatzen duen zuzenbide penala edo nazioarteko <<eragina>> duena: leku-eremua (jurisdikzioa, lege aplikagarria, estradizioa, elkarlana...)
 - Nazioarteko mailan <<sortzen>> den zuzenbide penala: dela itunen bitartez, dela nazioarteko ohitura-zuzenbidearen bitartez, dela zuzenbide orokorreko printzipioaren bitartez
- ❖ Bi errealitate bereizi behar:
 - nazioarteko ituna, barruko lege bihurtua
 - horren osagarria <<justizia unibertsalaren printzipioa>>
 - nazioarteko auzitegien joera: barruko legearen gainetik pasatu nahi duena
 - historia:
 - Nürnberg/Tokio (1945)
 - Jugoslavia (1993)
 - Ruanda (1994)
 - **Nazioarteko Gorte penala (1998ko Erromako Estatutua)**
 - Indarrean jarri zen 2002ko uztailaren 1ean
 - Aplikatzen da indarrean jarri zen datatik aurrerako delituetara
 - Auzitegi Iraunkorra (ez da <<ad hoc>>)
 - Jurisdikzio <<osagarria>> (art. 1 eta 13)
 - ◆ Arau orokorra
 - ◆ Salbuespena: NBEko Segurtasun-kontseiluaren erabakia
 - Zein delitu motatara aplikatzen da? (art. 5-8; ZK 607 hurr.)
 - ◆ Genozidioa
 - ◆ Gizateriaren aurkako delitua

- ◆ Guda-delituak
- ◆ Eraso-delitua
- Erantzukizun indibiduala (ez Estatuarena)
- ESTATUTUAREN EGITURAKETA:
 - ◆ I. Auzitegiaren izaera.
 - ◆ II. Eskuduntza, onargarritasuna eta aplikagarria den zuzenbidea.
 - Krimenaren osagaiak eta Prozedura- zein Froga-arauak.
 - Espainiako Lege Organikoa, Nazioarteko Gorte Penalarekin elkarlana arautzen duena (2003ko LO).
 - ◆ III. Zuzenbide penaleko printzipioak
 - ◆ IV. Gortearen egituraketa eta administrazioa
 - ◆ V. Instrukzioa.
 - ◆ VI. Epaiketa.
 - ◆ VII. Zigorrak.
 - ◆ VIII. Errekurtsoak.
 - ◆ IX. Nazioarteko elkarlana.
 - ◆ X. Zigorren betearazpena.
 - ◆ XI. Estatu partehartzaileen <<biltzarra>>.
 - ◆ XII. Finantziak.
 - ◆ XIII. Azkeneko klausulak.
- ❖ Europar Batasuna eta zuzenbide penala:
 - Europar Batasuneko Tratatuen 29 artikulua eta hurrengoak
 - Art. 29
 - Art. 31 e
 - Erabaki <<markoa>>: "emaitza"ren gaineko obligazioa (Art. 34.2 a "Direktiba penala")
 - izaera juridikoa: nazioarteko zuzenbidea da: "Aho batez"

8. IKASGAIA. ZUZENBIDE PENALAREN ZIENTZIA

I. Zuzenbide penala eta bere zientzia: bilakaera historikoa eta metodoa.

II. Egungo zientzia penalak.

1.- Dogmatika penala.

2.- Kriminologia.

3.- Politika kriminala.

I.- ZUZENBIDE PENALA ETA BERE ZIENTZIA: BILAKAERA HISTORIKOA ETA METODOA.

- ❖ Ikasgai honen zubi-funtzioa: metodoa ulertu behar gero zuzenbide positiboa ulertzeko
- ❖ Egungo zientzia penalak BI JOERA NAGUSI aurkezten ditu:
 - Joera kriminologikoa:
 - Delitua zer da? Fenomeno soziala, biopsikologikoa
 - Zientzia penalaren funtzioa: haren kausak identifikatzea eta kontrolatzea
 - Metodoa: soziologikoa, antropologikoa
 - Joera juridiko-dogmatikoa:
 - Delitua zer da? Fenomeno juridikoa
 - Zientzia penalaren funtzioa: hura interpretatzea eta ezartzea.
 - Metodoa: tekniko-juridikoa, dogmatikoa.
- ❖ Bi joerak ibilbide historiko jakin baten emaitza ditugu:
 - Jatorria:
 - XIX. mendearen aldera
 - Natur-zientzien berpizkundea: positibismoa da nagusi: hortaz
 - Batzuek zientzia juridikoa ukatzen dute eta kriminologiari ekiten diote (positibismo kriminologikoa)
 - Beste batzuek zientzia juridikoa natur-zientzia bihurtu nahi dute: positibismo juridikoa
 - Neo-kantismoa:
 - Positibismoa gainditu nahi izaten da
 - Zuzenbidea ez da natur zientzia, zientzia baloratiboa (kultur-zientzia) baizik
 - Harrez geroztik bi delitu-irudi:
 - Irudi kriminologikoa (kausala)
 - Irudi baloratiboa (dogmatikoa)
- ❖ Bi joera hauen arteko ezberdintzea erradikalegia da:
 - delituaren izatea (maila ontologikoa) eta delituaren izan beharra (maila axiologikoa) ezin dira erabat bereizi
 - bien sintesia da ezinbestekoa: ezin da baloratu (zuzenbidea) jakintza kriminologikoen oinarritik ez bada (kriminologia).

II.- EGUNGO ZIENTZIA PENALAK.

1. DOGMATIKA PENALA.

- ❖ Zuzenbide penala arauen multzoa bada, dogmatika juridiko-penala, ordea, arauon jakintzaz arduratzen den zientzia da
 - Ezagutzeko metodoa dogmatikoa dugu, zuzenbide positibotik –dogma bailitzan– abiatzen delako
- ❖ Dogmatikaren funtzioa legezkotasun printzipioarekin lotu behar: zuzenbidea ezagutaraziaz hiritarrei segurtasun juridikoa ematen zaie eta baita berdintasuna legearen aurrean bermatu ere.
- ❖ Dogmatikak funtzio aldarrikatzaile eta sortzailea eduki behar:
 - Zuzenbidea aldarrikatu
 - Zuzenbidea sortu (legeak ez du dena ixten)
- ❖ Dogmatikaren arriskua: lege injustuen legítimazio-lana
 - Gerta ez dadin:
 - jarrera kritikoa (Estatu demokratiko, zuzenbidezkoa eta sozialaren printzipioetatik beti abiatu behar)
 - bestela, *de lege ferenda* proposamenak

2. KRIMINOLOGIA

- ❖ Definizioa ez da erraza: delituaren ikerketa enpirikoaz arduratzen den zientzia baina zer da delitua?
 - Ez da arau juridiko-penalek diotena besterik gabe
 - Halaber arduratzen da:
 - arau juridiko eta gizarte-arauen arteko balorazio-aldeaz
 - jarduera deliktiboen aldaketa-prozesuaz
 - Kriminologia, hortaz:
 - jarduera desbideratuaz arduratzen da eta, horren barruan, desbideraketa penalaz ere
 - eta jarduera desbideratuen definizio-prozesu osoaz (gizarte-kontrola), baita horren barruan kontrol juridiko-penalaren sareaz ere (gizarte-kontrolik formalizatuena)
- ❖ Metodoa:
 - Aurreko garaietan:
 - Hurbilketa biologiko-indibiduala, psikologikoa eta soziala (gizabanakoaren ikuspegi isolatutik)
 - Geroago elkarrekintza-eredua nagusitu zen (pertsonek arteko topaketa-prozesuan zegoen gakoak)
 - Azkenik, hurbilketa soziologikoagoa bihurtu zen: honela, *labeling approach*
- ❖ Sintesiaren beharra: delitua ezin da behar bezala azaldu kontuan hartu barik alderdi indibiduala, elkarrekintzakoa interaktibo eta soziologikoa –denak batera–.

3. POLITIKA KRIMINALA

- ❖ Definizioa: legegintza penalak nolakoa izan behar du (politika)?
 - Helburu praktikoa (delituaren aurreko lege-estrategia)
 - Onura-irizpideak eta justizia-irizpideak kontuan hartuz
- ❖ Dogmatika penala eta kriminologiaren arteko zubi-lana egin behar:
 - Kriminologiaren jakintzak galdakizun politiko-kriminala bihurtu behar
 - Dogmatikaren lan interpretatiboa orientatu behar
 - Hirurek (dogmatikak, kriminologiak, politika-kriminalak) zuzenbide penalaren zientzia osoa osatzen dute.

9. IKASGAIA. LEGEGINTZA PENALA ESTATU ESPAINIARREAN

- I. Kodegintza: ibilbide historikoa.
- 1.- 1822ko Zigor Kodea.
 - 2.- 1848ko Zigor Kodea eta osteko erreformak.
 - 3.- 1928ko Zigor Kodea.
 - 4.- 1932ko Zigor Kodea.
 - 5.- 1944ko Zigor Kodea. Geroagoko erreformak.
- II. Egungo egoera: 1995eko Zigor Kode berria.

I.-KODEGINTZA: IBILBIDE HISTORIKOA.

1.- 1822ko KODE PENALA.

- ❖ Cadiz-eko konstituzioa, hirurteko liberala
- ❖ Indarrean sartu al zen?

2.- 1848ko KODEA ETA OSTEKOAK

- ❖ Kode liberal-kontserbadorea: hurrengo oinarria
- ❖ 1850eko eraldaketa
- ❖ 1870ekoa: udakoa, liberalagoa
- ❖ XX. mende-hasiera: lege berriak

3.- 1928ko KODE PENALA

- ❖ Diktadura : gogorragoa eta modernoa

4.- 1932ko KODE PENALA

- ❖ II. Errepublika (1870ekora itzuli)

5.- 1944ko KODEA ETA OSTEKO ALDAKETAK

- ❖ Diktadura
- ❖ Konstituzioa eta gero: 1980, 1983, 1989 urteetako aldaketak

II.- EGUNGO EGOERA: 1995eko KODEA

- ❖ Aurreneko egitura
- ❖ Etengabeko aldaketa?

10. IKASGAIA. LEGE PENALAREN INTERPRETAZIOA

- I. Kontzeptua eta garrantzia.
- II. Interpretazio motak eta metodoak.
 - 1.- Subjektuaren arabera interpretazioa.
 - 2.- Metodoaren arabera.
 - 3.- Emaizen arabera.
- III. Interpretazioa, subsuntzioa eta ezarpena.
- IV. Lege-pilaketaren suposamenduak. Zigor Kodearen 8. art.
 - 1.- Berezitasun printzipioa.
 - 2.- Subsidiarotasun printzipioa.
 - 3.- Kontsunzio printzipioa.
 - 4.- "Hautabide" printzipioa.

I.-KONTZEPTUA ETA GARRANTZIA.

- ❖ Definizio orokorra
- ❖ Zuzenbide penalaren berezitasuna: ZORROTZA

II.- MOTAK ETA METODOAK.

1.- SUBJEKTUAREN ARABERAKOAK.

- ❖ Benetako interpretazioa
- ❖ Epailearen interpretazioa
- ❖ Dotrinaren interpretazioa

2.- METODOAREN ARABERAKOAK.

- ❖ Gramatikaren arabera interpretazioa
- ❖ Izpirituaren arabera (aurrekoak mugatuta)
- ❖ Logiko-sistematikoa
- ❖ Historikoa
- ❖ Teleologikoa

3.- EMAITZAREN ARABERA.

- ❖ Deklaratiboa
- ❖ Murriztailea
- ❖ Hedatzailea

III.- INTERPRETAZIO, SUBSUNTZIOA ETA EZARPENA.

- ❖ Silogismoaren logika:
 - premisa nagusia (INTERPRETAZIOA)
 - premisa txikia (SUBSUNTZIOA)
 - eta konklusioa (EZARPENA)
- ❖ Epaileen protagonismoa: mugak (ofizioz eta legearen arabera)
- ❖ Justizia-administrazioaren errealitatea:
 - ❖ Kasua erreproduzitu (maila faktikoa):
 - aztarnak, frogak, prozedura-legeak
 - epaileen balioespen-lana : zifra beltza
 - ❖ Kasuaren epaiketa juridikoa
 - legea ez da zehatza: iritzia, dotrina
- ❖ Konklusioa: legea ezartzea, legea baino gehiago

IV.- LEGE-PILAKETAREN SUPOSAMENDUAK: ZK 8 art.

- ❖ Delitu-pilaketa eta LEGE-pilaketa: kontzeptua
- ❖ 8 artikulua: irizpide orokorrak (interpretatu!!!)

1.- BEREZITASUN PRINTZIPIOA (8.1 art.).

- ❖ *Lex specialis derogat legem generalem*
- ❖ Berezia: orokorra eta gehiago

2.- SUBSIDIARIOTASUN PRINTZIPIOA. (8.2 art.)

- ❖ *Lex primaria* (NAGUSIA, GOGORRAGOA) *derogat legem subsidiariam* (SUBSIDIARIOA)
- ❖ Bi mota:
 - espresuki: adibidea: 172.2
 - isilbidezkoa:
 - interpretatu behar !!!!
 - suposamenduak: graduak, alderdi subjektiboa

3.- KONTSUNZIO PRINTZIPIOA (8.3 art.)

- ❖ Desbaloratzean zehatzago
- ❖ Aurreko printzipioen ondotik
- ❖ Kasu ohikoak (dotrina)
 - bi egitate batera joan ohi direnean
 - zigortu barik uzten diren delitu eta geroako egitateak

4.- HAUTABIDE PRINTZIPIOA (8.4 art.)

- ❖ Aurreko printzipioen ondotik
- ❖ Biak %100 berdin : gogorrena
- ❖ Legegilearen errakuntza : *de facto* indargabetzea

1.3.2. BIGARREN ZATIA: DELITUAREN TEORIA OROKORRA

11. IKASGAIA. DELITUAREN KONTZEPTUA

- | | |
|------|--|
| I. | Delituaren kontzeptua. Oinarrizko elementuak. |
| II. | Delituari buruzko teoria orokorraren bilakaera historiko-dogmatikoa. Aldaketa sistematikoak. |
| III. | Delituaren legezko kontzeptua. Zigor Kodearen 10 art.ko definizioa. |
| IV. | Lege-hauste penalen sailkapena, duten larritasunaren arabera: delituak eta faltak. |

I. DELITUAREN KONTZEPTUA. OINARRIZKO ELEMENTUAK.

- ❖ Delituaren teoria orokorra: zer da?
- ❖ Dogmatika eta zuzenbide positiboa: harremana
- ❖ Funtzionalismoa: aurreko auresuposamendua
- ❖ Delituaren definizio dogmatikoa:
 - v. Liszt/Beling: ohiko definizioa
 - Mir Puig-en proposamena

II. DELITUAREN TEORIAREN BILAKAERA HISTORIKO-DOGMATIKOA. ALDAKETA SISTEMATIKOAK.

- ❖ Positibismoaren garaia
- ❖ Metodologia neokantianoa
- ❖ Finalismoa
- ❖ Egungo joera: funtzionalismoa

III. DELITUAREN LEGEZKO KONTZEPTUA: ZK 10 art.

- ❖ Delitu edo faltak dira legeak zigortzen dituen dolo edo zuhurtziagabekeriazko egite eta ez-egiteak.

IV. LEGE-HAUSTE PENALEN SAILKAPENA, DUTEN LARRITASUNAREN ARABERA: DELITUAK ETA FALTAK.

- ❖ Biko sailkapena: delitua eta falta
- ❖ Hiruko sailkapena:
 - delitu astunak
 - delitu ez hain astunak
 - faltak

12. IKASGAIA. PORTAERA.

- I. Ekintza, giza "portaera" bezala. Delituaren teoriaren barnean duen funtzioa.
- II. Ekintza kontzeptuaren bilakaera.
 - 1.- Kontzeptu kausala.
 - 2.- Kontzeptu finala.
 - 3.- Kontzeptu soziala
- III. Portaeraren arauzko kontzeptua.
- IV. Ekintzarik egote eza.
 - 1.- Ekintzarik egote eza eta "*actio libera in causa*"ren teoria.
 - 2.- Indar jarkiezina
 - 3.- Higidura erreflexuak.
 - 4.- Inolako kontzientziarik gabeko egoerak.

I.- EKINTZA, GIZA-PORTAERA BEZALA. DELITUAREN TEORIAREN BARNEAN DUEN FUNTZIOA.

- ❖ Delituaren 1. ezaugarria: 10 art. ZK
- ❖ Ez da ezaugarri naturala
- ❖ Funtzioak:
 - positiboa: euskarri minimoa
 - negatiboa: pentsamenduak ez du deliturik egiten

II.- EKINTZA KONTZEPTUAREN BILAKAERA.

1. KONTZEPTU KAUSALA.

- ❖ Kontzeptu kausal-naturalista eta kritika
- ❖ Kontzeptu kausal-baloratiboa (neoklasikoa) eta kritika

2. KONTZEPTU FINALA.

- ❖ Welzel eta fenomenologia
- ❖ Helburua portaeraren muina

3. KONTZEPTU SOZIALA

- ❖ Ikuspuntu-aldaketa: garrantzi soziala

4. BESTE IKUSMOLDEAK

- ❖ Dotrinaren gutxiengoak jarraitutakoak

III. PORTAERAREN ARAUZKO KONTZEPTUA.

- ❖ Portaeraren kategoria: balioespena
- ❖ Ezaugarriak:
 - portaera zentzu sozialean (ez fisikoan)
 - kanpoko jardura
 - helburuzkoa/ borondatezkoa (*actiones humanae* ez *actiones homini*)
 - egite eta ez-egite, doloazko eta zehurtziagabekeriazkoaren oinarri

IV. EKINTZARIK EGOTE EZA

1. EKINTZARIK EGOTE EZA ETA *ACTIO LIBERA IN CAUSAREN* TEORIA

- ❖ Delituaren portaera eta aurrekoa
- ❖ Arau orokorra: erantzukizuna badago

2. INDAR JARKIEZINA

- ❖ Definizioa.: indar fisikoak beharturik
- ❖ Indarraren zenbatekotasuna (erabatekoa)
- ❖ Indarraren nolakotasuna (fisikoa)
- ❖ *Actio libera in causa*
- ❖ Ez egitea

3. HIGIDURA ERREFLEXUAK (OHARTU GABEKO MUGIMENDUAK)

- ❖ Definizioa: bide subkortikala eta periferikoa (adibideak)
- ❖ Zeintzuk ez dira? Adibideak: kortozirkuitua, erreakzio lehergarriak, INTERVALOS LUCIDOS adimen-bitarteak...

4. INOLAKO KONTZIENTZIARIK GABEKO EGOERAK

- ❖ Hipnotismoa
- ❖ Logura
- ❖ Mozkorraldi letargikoa

13. IKASGAIA. ZUZENBIDEKONTRAKOTASUNA ETA TIPIKOTASUNA

- I. Zuzenbidekontrakotasuna, delituaren ezaugarria.
- II. Tipikotasun penala eta zuzenbidekontrakotasuna: bien arteko harremana.
- III. Zuzenbidekontrakotasunaren eduki materiala zuzenbidezko Estatu sozial eta demokratikoan.
 - 1.- Ondasun juridikoa. Kontzeptua eta funtzioak.
 - 2.- Ekintza-gaitzespena eta emaitza-gaitzespena.

I. ZUZENBIDEKONTRAKOTASUNA: DELITUAREN EZAUGARRIA

- ❖ Definizioa: portaera, tipikoa, bidezkotze-kausarik gabekoa
- ❖ Tipo penalaren funtzioak:
 - desbaloratzea eta agintzea
 - legezkotasun printzipioa, formala eta materiala
- ❖ Zuzenbidekontrakotasuna formala eta materiala
- ❖ *Ex post* eta *Ex ante* ikuspuntua

II. TIPIKIKOTASUN PENALA ETA ZUZENBIDEKONTRAKOTASUNA: BIEN ARTEKO HARREMANA

- ❖ Tipoaren definizioa: eztabaidatua denboran zehar
 - **BELING:**
 - tipikotasuna eta zuzenbidekontrakotasuna: elkarren independenteak (eredu hirukoa)
 - tipikotasuna: definizio formala
 - **NEOKANTISMOA (Mezger, Sauer)**
 - tipikotasuna: definizio materiala (behin-behineko desbalorazio-epaiketa)
 - tipoa: *ratio essendi* (ez bakarrik *ratio cognoscendi*)
 - eredu biko
- ❖ EGUNGO EZTABAIDA
 - **FINALISMOA (Welzel..Cerezo Mir...)**
 - hiruko eredua (*ratio cognoscendi*)
 - baina:
 - elementu subjektiboak tipoa
 - kategoriak ere badu zentzu baloratiboa
 - **TIPOAREN ELEMENTU NEGATIBOEN TEORIA**
 - tipoa: behin betiko desbalorazio-epaiketa (biko eredua)
 - tipikikotasuna: bi zati
 - positiboa
 - negatiboa: bidezkotze-kausak

III. ZUZENBIDEKONTRAKOTASUNAREN EDUKI MATERIALA ZUZENBIDEZKO ESTATU SOZIAL ETA DEMOKRATIKOAN

- ❖ Zuzenbidekontrakotasun penala:
 - abiapuntua: emaitza (emaitza-gaitzespena)
 - baina jarduera arriskutsuak sortua (ekintza-gaitzespena)
- ❖ Zuzenbidekontrakotasuna/ tipikotasuna: harremana
 - *ratio essendi*
 - bidezkotze-kausen desbalorazio osagarria
- ❖ Tipikotasuna baztertzen da: Noiz?
 - jarduera zilegi da
 - ez da zilegi: baina ez hain larria edo ez da komeni zigortzea
 - tipikoa da formalki (azalez, hitzez hitz), ez ordea materialki (arrisku maila oso txikia, edo baimena zegoen, edo egokia da gizartearentzat...)

1. ONDASUN JURIDIKOA. KONTZEPTUA ETA FUNTZIOAK

- ❖ Ondasun juridikoaren. bi zentzuak: dogmatikoa eta politiko-kriminala

- ❖ Zergatik babestu ondasun juridikoak? Horien funtzio soziala
- ❖ Ondasun juridikoaren funtzioak:
 - funtzio politiko-kriminala (kritikoa)
 - funtzio sistematikoa
 - interpretatzeko gida-funtzioa
 - zigorra zehaztekoa

2. EKINTZA- ETA EMAITZA-GAITZESPENA

- ❖ Abiapuntua: emaitza, zentzu zabalean
- ❖ Emaita *ex post* eta jarduera *ex ante*: haien arteko harremana
- ❖ *Ex ante* balorazio-irizpideak: gizabanako arrunta
- ❖ Jarduera soileko delituen berezitasuna
- ❖ Zuzenbidekontrakotasunaren desbalorazio-epaiketaren esanahia:
 - objektiboa (intersubjektiboa)
 - baina alderdi subjektiboak kontuan hartzen dira epaiketa egiteko
 - alegia: doloa edo zuhurtziagabekeria erabakigarri
 - arrazoiak:
 - doloa eta arriskutsutasuna
 - doloa eta gizarte-balorazioa (erreakzioa)
- ❖ Bidezkotze-kausen balorazio-mota:
 - orokorragoa (tipoa osatuz)
 - interes ezberdinen arteko erkatzea (lehentasun-irizpideak)

14. IKASGAIA. TIPOAREN EGITURA

- I. Tipoaren elementuak
 - 1.- Portaera
 - 2.- Subjektu aktiboa.
 - 3.- Subjektu pasiboa.
 - 4.- Objektu materiala.
- II. Tipo-motak.
 - 1.- Subjektuaren arabera.
 - 2.- Portaera motaren arabera.
 - 3.- Elementu subjektiboen arabera: doloak eta zuzentze-akzioak; elementu subjektibo bereziak dituzten tipoak.
 - 4.- Erasandako ondasun juridikoen arabera.
 - A. Intentsitatearen arabera: lesio-tipoak eta arrisku-tipoak. Arrisku zehatza eta arrisku abstraktua.
 - B. Erasandako ondasun juridikoen batasun edo aniztasunaren arabera.
 - 5.- Tipoen arteko harremanaren arabera: oinarritutakoak, kualifikatuak eta pribilegiatuak.
- III. Tipoaren formulazioa.
 - 1.- Elementu deskribatzaileak.
 - 2.- Elementu arautzaileak.

I. TIPOAREN ELEMENTUAK.

1. PORTAERA.

- ❖ Portaera kategoriaren eta portaera tipikoaren arteko ezberdintasuna.
 - A) Portaeraren alde objektiboa (kanpoko)
 - B) Portaeraren alde subjektiboa (barneko):
 - borondate mota: kontziente, inkontziente...
 - elementu subjektibo bereziak

2. SUBJEKTU AKTIBOA

- ❖ Subjektu aktibo, pasibo eta Estatuaren arteko harreman-dinamika
- ❖ Subjektu aktiboaren titulu juridikoak (egileta mota, partaidetza mota)
- ❖ Subjektu aktiboa eta pertsona juridikoen erantzukizuna:
 - 129 artikulua: ondorio erantsiak
 - 31 artikulua: beste baten bidez aritzea

3. SUBJEKTU PASIBOA

- ❖ Ondasun juridiko babestuen titularra
- ❖ Ez da kaltegarria : erantzukizun zibila

4. OBJEKTU MATERIALA

- ❖ Definizioa: portaera —fisikoki gehienetan— jasaten duen pertsona/ objektua
- ❖ Beti ez dator bat subjektu pasiboarekin

II. TIPO MOTAK.

1. SUBJEKTUAREN ARABERA.

- ❖ Delitu ARRUNTA/ BEREZIA
 - Berezia:
 - propioa (benetakoa) edo
 - inpropioa (ez benetakoa)
- ❖ NORBERAREN ESKUKO DELITUA: (gorputz-kontaktua edo egite pertsonala)
- ❖ TOPATZE-DELITUA

2. PORTAERA-MOTAREN ARABERAKOAK (alderdi objektiboa)

- ❖ EMAITZA-DELITUA (denbora, espazioa)
- ❖ JARDUERA SOILEKO DELITUA
- ❖ ALDIUNEKO DELITUA (*instantáneo*)
- ❖ DELITU IRAUNKORRA: burutzen dihardu
- ❖ EGOERA-DELITUA: burutze zehatza
- ❖ EGITE-DELITUA
- ❖ EZ-EGITEA:
 - hutsa (= jarduera soilekoa)
 - ez-egitearengatiko egitea (= emaitzakoa)
- ❖ EGITEKO MODUAK (LEGEZ) ZEHAZTURIK DITUEN DELITUA
- ❖ EGITEKO MODUA (LEGEZ) ZEHAZTURIK EZ DUEN DELITUA
- ❖ EKINTZA BATEKO DELITUA
- ❖ HAINBAT EKINTZAKO DELITUA
- ❖ DELITU ALTERNATIBOA

3. ELEMENTU SUBJEKTIBOAREN ARABERAKOAK

- ❖ TIPO KONGRUENTEA
 - ❖ TIPO INKONGRUENTEA
- (gehiegikeria subjektiboa)**
- A. Elementu subjektibo bereziak:
 - A.1. Bi ekintzako delitu moztua, “cortado”, (386.2)
 - A.2. Emaizta moztutako delitua (218)
 - A.3. *Barruko joera intentsifikatua* duena
 - B. Burutugabeko tipoa: saiakuntza, prestamen-ekintzak.
- (gehiegikeria objektiboa)**
- C. Zuhurtziagabeko tipoa
 - D. Emaizak kualifikatutako delitua

4. ERASANDAKO ONDASUN JURIDIKOAREN ARABERA

A. INTENTSITATEAREN ARABERA:

- ❖ LESIO- DELITUA
- ❖ ARRISKU- DELITUA:
 - arrisku ZEHATZeko delitua
 - arrisku ABSTRAKTUko delitua

B. ONDASUNEN ZENBATEKOAREN ARABERA:

- ❖ DELITU BAKUNA
- ❖ DELITU KONPOSATUA (konplexua, mistoa)

5. TIPOEN ARTEKO HARREMANEN ARABERAKOAK

- ❖ 5.1. OINARRIZKO TIPOA
- ❖ 5.2. KUALIFIKATUAK
- ❖ 5.3. PRIBILEGIATUAK

III. TIPOAREN FORMULAZIOA

1. ELEMENTU DESKRIBATZAILEAK

- ❖ Errealitate naturalak deskribatzen dituzte
- ❖ Elementu naturala eta balioespena saihestu ezin

2. ELEMENTU NORMATIBOAK (ARAUTZAILEAK)

- ❖ Arauetako errealitateak deskribatzen dituzte
- ❖ Bi mota:
 - elementu arautzaile JURIDIKOAK
 - elementu arautzaile SOZIALAK

15. IKASGAIA. DOLOZKO EGITE-TIPOA

- I. Dolozko egite-tipoaren alde objektiboa: kausalitate harremana eta egozpen objektiboa.
- 1.- Planteamendua.
 - 2.- Kausalitateari buruzko teoriak eta Auzitegi Gorenaren jarrera.
 - A. "Baldintzen baliokidetzaren teoria".
 - B. Kausari buruzko beste kontzeptuak.
 - B.1. Indibidualizatzeko teoriak.
 - B.2. Egokitasunaren teoria
 - 3.- Egozpen objektiboaren teoria modernoa. Irizpideak. Auzitegi Gorenari egin beharreko kritika.
- II. Dolozko tipoaren alde subjektiboa.
- 1.- Doloa. Kontzeptua.
 - A. Elementuak.
 - B. Dolo-motak. Inoizkako doloaren gaineko hausnarketa berezia. Teoriak.
 - 2.- Bidegabearen elementu subjektiboak. Esanahia.
 - 3.- Dolorik egote eza: tipoari buruzko errakuntza.
 - A. Tipo-errakuntzaren kontzeptua.
 - B. Motak. Konklusioak.

I. DOLOZKO EGITE-TIPOAREN ALDE OBJEKTIBOA: KAUSALITATE-HARREMANA ETA EGOZPEN OBJEKTIBOA.

1. PLANTEAMENDUA

- ❖ Dolozko tipoetan erabakigarri: doloa baina hobe alde objektibotik hastea; zergatik:
 - doloaren objektua argitu beharra
 - alderdi komuna baita zuhurtziagabekeria ere
- ❖ Alderdi objektiboa: bi elementu: kausalitatea eta egozpen objektiboa

2. KAUSALITATEARI BURUZKO TEORIAK ETA AUZITEGI GORENAREN JARRERA

A. BALDINTZEN BALIOKIDETZAREN TEORIA:

- ❖ Baldintzak, guztiak dira kausa
- ❖ *Conditio sine qua non*
- ❖ Arazo nagusia: erantzukizuna, formula zabalegia
- ❖ Konponbidea:
 - edo beste kausalitate-teoria
 - edo beste betekizunak galdata(ik.3)

B. KAUSARI BURUZKO BESTE KONTZEPTUAK

- ❖ (DOTRINA TRADIZIONALA): BI JOERA
 - a) kausalitatea indibidualizatzeko teoriak
 - b) egokitasunaren teoria

B.1. INDIBIDUALIZATZEKO TEORIAK

- ❖ Kausa eta baldintza ezberdindu nahi: irizpideak
 - kausa efikaza
 - kausa erabakigarria
 - azkeneko kausa, eta abar
- ❖ Kritika: irizpide naturala (fisikoa) eta normatiboa (arauzkoa) nahasten dira
 - hori dela-eta dotrinak abandonatu
 - **AG-k oraindik batzuetan jarraitzen du**
 - terminologia: *eficiente, principal, primera, relevancia, poderío...*
 - lotura kausalaren etena: adibideak

- kritika

B.2. EGOKITASUNAREN TEORIA

- ❖ Baldintza batzuk bakarrik egokiak
- ❖ Egokitasunaren irizpideak:
 - ikusle objektibo/ zuhurraren begitik
 - *ex ante*
 - egile jakinaren ezaguera eta egoera
 - ikusle objektiboaren ezaguera ere
 - alegia: **pronostiko objektiboa ex post**
 - baina hau ez da kausalitate-teoria

3. EGOZPEN OBJEKTIBOAREN TEORIA MODERNOA. IRIZPIDEAK. AUZITEGI GORENARI EGIN BEHARREKO KRITIKA.

- ❖ Egokitasunaren teoriatik dator baina gainditu nahian: **beste ukanbehar tipikoa**
- ❖ Emaizta-delitutan bi betekizun dakartza:
 - juridikoki gaitzetsitako arriskua sortzea (**ekintza-gaitzespena**)
 - emaitzan gauzatzen dena (**emaitza-gaitzespena**)

1. Ekintzaren egozpen objektiboa: noiz EZ da arriskua sortzen

- ❖ Jarduerak arriskua gutxitzen du
- ❖ Arrisku-maila baxuegia
: neurtzeko-irizpideak: egokitasunaren teoriarenak
- ❖ Gizarte-egokitasuna

2. Emaitzaren egozpen objektiboa:

- ❖ emaitzan gauzatu izana
 - = arrisku-harremana ekintzaren eta emaitzaren artean
 - = arauaren babes-eremua
 - = arauaren helburua
- ❖ Auzitegi Gorenari kritika: zeren etena?

II. DOLOZKO TIPOAREN ALDE SUBJEKTIBOA

1. DOLOA. KONTZEPTUA.

- ❖ *Dolus malus* eta *dolo naturala*
- ❖ Doloaren inguruko gaurko eztabaida: borondatea ala ezaguera?

A. ELEMENTUAK

- ❖ Doloa eta elementu arautzaileak: aditua ez denaren balorazioa nahikoa
- ❖ Elementu funtsezko eta akzidentalak doloaren aurrean: errakuntzaren ondorio ezberdinak

B. DOLO MOTAK. INOIZKAKO DOLOAREN GAINEKO HAUSNARKETA BEREZIA. TEORIAK.

- ❖ Lehen graduko zuzeneko doloa (asmoa, lehenengo helburua)
- ❖ Bigarren graduko zuzeneko doloa (ondorio ezinbestekoa, bigarren helburua)
- ❖ Inoizkako doloa edo dolo ebentuala, baldintzatua:
 - delitua balizko ondorioa baina
 - culpa kontzientetik ezberdintzea?
 - bietan: ez da emaitza nahi
 - eta posibleztat jotzen da delitua

HIRU TEORIA (doloa↔zuhurtziagabekeria)

1. BAIMENAREN (ONARPENAREN) TEORIA:

- ❖ Doloa = delitua baimentzea, onartzea
- ❖ Jakin balu ere, berdin delitua egingo zukeen
- ❖ Kritika:

- onartu = on-hartu (asmoaren epaiketa?)
- eta arriskutsutasuna?

2. PROBABILITATEAREN (IRUDIKAPENAREN) TEORIA

- ❖ Doloa = probabilitate-maila altua (*ex ante*)
- ❖ Arriskutsutasuna erabakigarri
- ❖ Kritika: bideragarria al da?

3. TEORIA EKLEKTIKOA

- ❖ Bi elementu doloa egon dadin:
 - seriotzat jotzea (probabilitate-maila)
 - bat etortzea etsipenez bada ere (borondatea)

2. BIDE GABEAREN ELEMENTU SUBJEKTIBOAK. ESANAHIA (tipo motaren sailkapenerako igorpena)

3. DOLORIK EGOTE EZA: TIPOARI BURUZKO ERRAKUNTZA

A. KONTZEPTUA

- ❖ Definizioa: tipoaren (elementuen) gaineko ezaguerarik eza
 - elementu guztien edo batzuen edo baten gainekoa
 - arautzaile edo deskribatzailearen gainekoa
- ❖ Debeku-errakuntza: zuzenbide kontraktotasunari buruzko errakuntza

B. MOTAK, KONKLUSIOAK

- ❖ **Funtsezko elementuei buruzkoa**
 - Gaundiezina (zuhurtziagabekeriari gabekoa)
 - Gaindigarria (zuhurtziagabekoa)
 - Tratamendu juridikoa: 1995 ZK **14.1 art.**
- ❖ **Elementu akzidentalei buruzkoa**
 - Astungarriei (22 art.) edo kualifikazioei buruzkoa:
 - **14.2 art.**
 - berdin gaundigarria ala gaundiezina
 - Aringarriak (21 art.) edo elementu pribilegiatzaileak: arau orokorra: ezagutu behar estimatu ahal izateko

16. IKASGAIA. ZUHURTZIAGABEKERIAZKO TIPOA ETA ASMOZ GAINDIKO KASUAK

I. Erruzko edo zuhurtziagabekeriazko tipoa. Berezitasunak.

- 1.- Kontzeptua.
- 2.- Inkriminazioa.
- 3.- Motak.
 - A. Eduki psikologikoaren arabera.
 - B. Sailkapen "normatiboa".
 - C. Konklusioa.
- 4.- Zuhurtziagabekeriazko tipoaren egitura: tipo objektiboaren azterketa berezia.
 - A. Kontuzko arauaren urrapena (ekintza-gaitzespena).
 - B. Emaiza eragitea eta egozpen objektiboa (emaitza-gaitzespena).

II. Asmoz gainditzea (preterintenzionalitatea) eta emaitzak kualifikatutako delituak.

I. ERRUZKO EDO ZUHURTZIAGABEKERIAZKO TIPOA. BEREZITASUNAK

1. KONTZEPTUA

- ❖ Abiapuntua: ZK 10 art.
- ❖ Definizioa: ez da doloazko tipo objektiboa gertatzea nahi, baina gertatzen da kontuz ibili ez delako
- ❖ Terminologia: zuhurtziagabekeria ala errua?

2. INKRIMINAZIOA

- ❖ 1973 ZK: *numerus apertus*
- ❖ 1995 ZK: *numerus clausus*: 12 art.
 - legezketasun printzipioarekin bat
 - *ultima ratio* printzipioarekin bat
 - zuzenbide konparatuaren ildotik

3. MOTAK

A. EDUKI PSIKOLOGIKOAREN ARABERA:

- ❖ Kulpa kontzientea
- ❖ Kulpa inkontzientea
- ❖ Balioespena:
 - inoizkako doloaz bereizteko balio du
 - baina, eta larritasuna neurtzeko?

B. SAILKAPEN NORMATIBOA

- ❖ ZKaren oinarrian dagoena
- ❖ kontuzko arauaren urrapenaren arabera:
 - **astuna (= ausartegia):**
 - arreta gutxiko gizabanakoa (arreta arrunta)
 - delitua egoteko ezinbesteko baldintza (ez nahikoa: adib. 621.1 ZK)
 - astuntasuna neurtzeko irizpideak:
 - lesioa gertatzeko probabilitate-maila
 - ondasun juridikoaren garrantzia
 - arriskuaren gizarte-balorazioa
 - kontzientea eta inkontzientea
 - **sinplea**
 - arreta arrunteko gizabanakoa
 - urratutako kontuzko araua ez da hain oinarritzkoa
 - falta-erantzukizuna dakar

C. KONKLUSIOA:

- ❖ Zuhurtziagabekeria fenomeno normatiboa da
- ❖ Doloa, orde, fenomeno psikologiko(ago)a

4. ZUHURTZIAGABEKERIAZKO TIPOAREN EGITURA: TIPO OBJEKTIBOAREN AZTERKETA BEREZIA

Tipo objektiboa:

- ❖ Kontuzko arau objektiboaren urrapena (ekintza-gaitzespena)
- ❖ Doloazko tipo objektiboa gertatzea (emaitza-gaitzespena)

Tipo subjektiboa:

- ❖ Zuhurtziagabekeriazko jarduera nahi da(elementu positiboa)
- ❖ Gertatutako egitatea ez da nahi (elementu negatiboa)

A. EKINTZA-GAITZESPENA: KONTUZKO ARAUAREN URRAPENA

- ❖ Kontuzko Arauaren (K.A.) bi alderdi: barruko eta kanpoko K.A.
- ❖ Barrukoa:
 - aldeaz aurretik arrisku zehatzaz, bere larritasunaz, jabetu BEHARRA!!
 - jardun aurretik aztertu BEHARRA!!
- ❖ Kanpoko (K.A.-a)
- ❖ Aztertu eta jabetu den arriskuaren aurrean behar bezala jardun BEHARRA!! alegia
 - ❖ Ekintza arriskutsuak saihestu beharra
 - adibidez: jarduera teknikoetan
 - lanbide-arduragabekeria (*impericia, negligencia*)
 - ❖ Aurretik prestatu edo informatu beharra (kanpoko kautelak, neurriak)
 - ❖ Egoera arriskutsuetan arreta bereziaz jardun beharra
- ❖ BAREMOA (barruko eta kanpoko arauak betetzen diren aztertzeke)
 - Ertaina/ zuhurra den gizabanako bati zer galda dakioke?
 - Gizabanako arrunta baina:
 - *ex ante*
 - egile zehatzaren egoera zehatzean
 - egile zehatzaren ezaguera zehatzekin
 - egile zehatzaren ezaugarri zehatzak:
 - normalak direnak
 - gehi gizabanako idealarengan irudikatzen ditugunak
- ❖ Botere subjektiboari/ pertsonalari buruzko aipamena:
 - ertainarena baina txikiagoa
 - ertainarena baina handiagoa

B. EMAITZA ERAGITEA ETA EGOZPEN OBJEKTIBOA (EMAITZA-GAITZESPENA).

- ❖ Emaizta gertatu behar:
 - horren zentzua
 - funtzioa: berme-funtzioa
- ❖ Egozpen objektiboa
 - auresuposamendua: kausalitate-harremana
 - egozpena:
 - arriskua sortu = K.A.ren urrapena
 - arrisku-harremana: noiz EZ DAGO?
 1. Emaizta zehatza aurreikusezina
 2. Emaiztak ez du arriskuarekin zerikusirik
 3. Jarduera alternatibo zuzenaren kasua

II. ASMOZ GAINDITZEA (PRETERINTENTZIONALITATEA) ETA EMAITZAK KUALIFIKATUTAKO DELITUAK

- ❖ Definizioa: doloazko tipoa egin nahian, BESTELAKO dolo-tipo objektiboa egiten da
- ❖ 1983 urte arteko egoera: erantzukizun objektiboa (*versare in re illicita*)

- ❖ ZK 1995:
 - **asmoz gairdiko giza hilketa:**
 - delitu-pilaketa ideala (77 art.):
 - dolozko lesioa (burutua ala ez) ETA
 - zuhurtziagabeko (edo ausazko) giza hilketa
 - desproporzio itzela denean: AG:
 - zuhurtziagabekeria eta kito
 - hobe, ordea, zigorrik ez (aurreikusezina)
 - **Emaitzak kualifikatutako delituak**
 - egungo egoera
 - gutxienez emaitzarekiko zuhurtziagabekeria

17. IKASGAIA. BIDE GABETASUN TIPOA EZ-EGITE-DELITUETAN

- I. Ez-egitearen kontzeptua.
- II. Motak: Ez-egite hutsa eta ez-egitearengatiko egitea.
 - 1.- Ez-egite hutsaren tipoa.
 - A. Tipo objektiboaren berezitasunak.
 - B. Tipo subjektiboaren berezitasunak.
 - 2.- Ez-egitearengatiko egitearen tipoa.
 - A. Ez-egitearengatiko egitearen onargarritasuna Zigor Kodearen 11. artikulua arabera
 - B. Berme-egoera eta bere iturburuak (tipo objektiboa).
 - C. Emaizta ekiditeko ahalmena.
- III. Egite eta ez-egitea muga-kasuetan.

I. EZ-EGITEAREN KONTZEPTUA

- ❖ ZK 10 art.: dolo zko eta zuhurtziagabekoa
- ❖ Definizioa: irizpide naturalak ez du balio
 - Ez-egitearen **EGITURA**
 - zentzu **ARAUTZAILEA**

II. MOTAK. EZ-EGITE HUTSA ETA EZ-EGITEARENGATIKO EGITEA

- ❖ Ez-egite **HUTSA (PROPIOA)**
- ❖ **EZ-EGITEARENGATIKO** egitea (**INPROPIOA**)
- ❖ Ez-egite **legezkoa** (195, 430...)
- ❖ **Legez gaindikoa:**
 - horrela jaio zen ez-egitearengatiko egitea: adib. 138
 - dotrinak horri ekin dio batez ere: **BERME-EGOERA**
 - gaur egun: legezko bihurtua: **11 art.**

1. EZ-EGITE HUTSAREN TIPOA

A. TIPO OBJEKTIBOAREN BEREZITASUNAK

- ❖ **HIRU ELEMENTU:** (adib. 195 art.)
 - 1. Egoera tipikoa
 - 2. Ekintza jakin baten egotea
 - 3. Ekintza egiteko gaitasuna eduki (**BAREMOA**: betikoa)

B. TIPO SUBJEKTIBOAREN BEREZITASUNAK.

- ❖ Doloaren kontzeptua moldatu behar
- ❖ Ez-egitean egin behar denaren ordezkio jarduerak dago:
 - ordezkioaren gaineko doloa galdatu behar
 - ez-egitea beteko edo bete daitekeela jakinik

2. EZ-EGITEARENGATIKO EGITEAREN TIPOA

A. EZ-EGITEARENGATIKO EGITEAREN ONARGARRITASUNA ZIGOR KODEAREN 11 ARTIKULUAREN ARABERA)

- ❖ Noiz aplikatu daiteke?
 - Emaizta-delituetan
- ❖ Aplikatzeko **UKANBEHARRAK:**
 - 1) egileak bete behar berezia urratzea:
 - jarduteko obligazioa, legezkoa edo kontratuzkoa
 - arrisku bat sortuz, aurreko jardueraren bitartez

2) balioespen aldetik parekoak dira egitea eta ez-egitea

B. BERME-EGOERA ETA BERE ITURBURUAK (TIPO OBJEKTIBOA)

- ❖ Aipatu bi ukanbehar gertatutzat joko ditugu TIPO OBJEKTIBOAREN betekizunak gertatzen direnean
- ❖ TIPO OBJEKTIBOA (= ez-egite hutsa eta...):
 1. Egoera tipikoa + BERME-EGOERA
 2. Ekintza jakinik eza + EMAITZA
 3. Ekintzarako gaitasuna + EMAITZA SAHIESTEKO GAITASUNA
- ❖ Giltzarria: BERME-EGOERA
 - egoera tipiko berezi hau da betebehar bereziaren oinarria
 - NOIZ DAGO berme-egoera maila ABSTRAKTUAN:
 - subjektu aktiboak babes-funtzio berezia duenean
 - edo arrisku-iturria kontrolatzeko funtzio pertsonala duenean
 - hau da: ondasun juridikoaren kalterik eza bermatu behar duenean
- ❖ BERME-EGOERA GERTATZEKO BI UKANBEHAR:
 - 1. Arrisku egozgarria sortzea (edo handitzea):**
 - 1.1. Arriskua sortzea (zerikusia)
 - 1.2. egozgarria:
 - borondatez
 - edo beste gizarte-baldintzatan
 - 2. mendetasun pertsonala:**
 - bere esku dago ondasun juridikoa
 - ez da nahikoa salbatzeko aukera
- ❖ Berme-egoerarik gabe ez dago egitea eta ez-egitea parekatzerik (11 art.):
: orduan, gehienez EZ-EGITE HUTSA (195, 450...art.)

❖ **Berme-egoeraren ITURBURUAK**

1. Ondasun Juridikoaren BABES-FUNTZIOA

- Hauen ondorioa: subjektu aktiboa bermatzaile
- 1.1. SENDI-HARREMAN HERTSIA**
 - erabateko mendekotasun existentziala
 - kasu zehatzean mendetasuna egon behar
 - adibideak
- 1.2. ARRISKU-KOMUNITATEA**
 - jarduera batean askoren parte-hartze borondatezkoa: adibideak
 - Giltzarria: laguntzeko obligazioa aurretik suposatutzat
- 1.3. ONARPEN BORONDATEZKOA**
 - Onartzearen ondorioz mendekotasun existentziala sortzen da (adibidez)
 - Kontratua ez da ezinbestekoa
 - Erabakigarria:
 - onarpena borondatezkoa
 - arriskua handitzen da

2. ARRISKU-ITURRI BATEN KONTROL-FUNTZIOA

- Obligazioa dauka arriskua ez dadin bihur: 3 kasu
- 2.1. ALDEZ AURRETIK JARDUTEA (INJERENTZIA)**
 - Tradizio handikoa eta eztabaidatua
 - Sortu baino gehiago:
 - doloz (egozteko arriskua): 11 art.
 - dolorik ezta zuhurtziagabekeriarik gabe: ez-egite hutsa
 - eta zuhurtziagabekeriak? 195.3 (ala 138/11)
- 2.2. MENPEKO EREMUKO ARRISKUA**
 - adibideak: animalia, makinak...
 - ezin da arrisku gabeko eremuetara eraman: adib. Tabernetan ere?
- 2.3. BESTEEN JARDUERAGATIKO ERANTZUKIZUNA?**

- Noiz?
 1. Zaindu/ artatu beharra ETA
 2. Zaintza-jarduera arriskutsuen gainekoa izan behar

C. EMAITZA EKIDITEKO AHALMENA

- ❖ Kausalitate-harremanik? EZ
- ❖ Balizko kausalitatea nahikoa: hau da,
 - ia ziurtasunez ekidin zezakeen
 - edo, saihesteko probabilitate maila altua

2. TIPO SUBJEKTIBOAREN BEREZITASUNAK

- ❖ **Doloaren edukia zein izan behar da?**
 - Berme-egoeraren aurreuposamenduak eta
 - emaitza ekiditeko aukera

III. EGITEA ETA EZ-EGITEA MUGA-KASUETAN

- ❖ Arazoa: zuhurtziagabekeriaren kalifikazioa
: erantzuna: kausalitatea:
 - zein jardueraren ondorioz gertatu da emaitza?
- ❖ ÑABARDURAK:
 - askotan egitea eta ez-egitea batera: adib. Istripuz harrapatu eta alde egin
 - medikuntza-sendabidearen etena: egitea ala ez-egitea?

18. IKASGAIA. ZUZENBIDEKONTRAKOTASUNAREN BAZTERKETA

- I. Gogoeta orokorrak.
- II. Bidezkotze-kausak.
 - 1.- Funtsaketa.
 - 2.- Konklusioak ("praktikoak").
 - 3.- Bidezkotze-kausa ez-oso (osatugabea).
 - 4.- Ustezko bidezkotze-kausak.

I. GOGOETA OROKORRAK

- ❖ Gure abiapuntu sistematikoa: tipikotasuna eta zuzenbidekontrakotasuna. bi kategoria ezberdin eta bi funtzio ezberdin
- ❖ Tipikotasunak eta zuzenbidekontrakotasunak debekua deskribatzen dute

II. BIDEZKOTZE-KAUSAK

1. FUNTSAKETA

(Bidalketa tipikotasunaren azterketara)

2. ONDORIOAK (PRAKTIKOAK)

- ❖ Jarduera zilegi (zuzenbidearen arabera) bihurtu
- ❖ Legebidezko defentsa ezin da argudiatu
- ❖ Partaidetza ez da zigorgarria
- ❖ Segurtasun-neurririk ez dago ezartzerik
- ❖ Erantzukizun zibila baztertu ahal du (EZ BETI)

3. BIDEZKOTZE-KAUSA EZ-OSO (OSATUGABEA)

- ❖ Funtsezko ukanbeharra falta behar
- ❖ Ondorio praktikoak: 21.1 art.

4. USTEZKO BIDEZKOTZE-KAUSAK

- ❖ Bidezkotze-kausa dagoelakoan jardutea: okderra: BI MOTA
 - Bidezkotze-kausa baten egitatezko aurreuposamenduei buruzko errakuntza
 - Bidezkotze-kausaren existentziaren/ mugaren gaineko errakuntza

19. IKASGAIA. LEGEBIDEZKO DEFENTSA

I. Kontzeptua, oinarria eta izaera juridikoa.

II. Ukanbeharrak. Legebidezko defentsaren hedadura.

- 1.- Eraso, bidegabekoa, aldi berekoa, benetakoa eta erriertaren kasua.
- 2.- Eraso ekiditeko edo erasoaz defendatzeko zentzuzko premia.
- 3.- Defendatzailearen probokazio nahikorik eza.

I. KONTZEPTUA, OINARRIA ETA IZAERA JURIDIKOA

- ❖ Bi funts posible: indibiduala eta kolektiboa
- ❖ Gaurko funtsa: kolektibo-indibiduala
- ❖ Konklusioak

II. UKANBEHARRAK: LEGEBIDEZKO DEFENTSAREN HEDADURA

1. ERASOA, BIDEGABEKOA, ALDI BEREKOA, BENETAKOA ETA ERRIERTAREN KASUA

- ❖ fisikoa (edo ez)
- ❖ ondasun indibidualen aurkakoa (kasu bereziak: jabetza-etxebizitza)
- ❖ pertsona batengandik datorrena
- ❖ dolozkoa (edo zuhurtziagabekoa)
- ❖ zuzenbidekontrakoa (penala ala ez)
- ❖ hurre-hurrekoa: aldi berekoa (*gehiagakeria hedakorra*)
- ❖ liskarraren kasua
- ❖ benetakoa: bestela errakuntza (14.1 art.)

HONEN FALTAN EZTA SALBUESLE OSATUGABERIK ERE (21.1)

2. ERASOA EKIDITEKO EDO ERASOAZ DEFENDATZEKO ZENTZUZKO PREMIA

- ❖ premia zehatza (*gehiagakeria intentsiboa*)
- ❖ salbuesle osatugabea posible da
- ❖ neurtzeko irizpideak: gutxi gorabeherako azterketa
- ❖ barruko motibazioa ez da erabakigarri
- ❖ AG: askotan baliabideak konparatzen ditu

3. DEFENTSARIAREN PROBOKAZIO NAHIKORIK EZ

- ❖ probokatu bada, ezin da argudiatu
- ❖ probokazioaren erantzun normala bada
- ❖ probokazioa, hortaz,
 - eraso
 - edo nahita bilatu den probokazioa (*asmozko probokazioa*, zuzenbidekontrakoa)

20. IKASGAIA. BEHARRIZAN-EGOERA

I. Kontzeptua, oinarria eta izaera juridikoa.

II. Hedadura eta ukanbeharrak.

- 1.-Beharrizan-egoera: arrisku-egoera, premia eta elementu subjektiboa.
- 2.- Kalteen haztapena.
- 3.- Aldez aurretiko asmorik eza.
- 4.- Sakrifikatu beharra.

I. KONTZEPTUA, OINARRIA ETA IZAERA JURIDIKOA.

- ❖ 20.5.: legezko definizioa
- ❖ Dotrinaren definizioa:
 - legebidezko defentsarekiko aldea
 - erasorik ez; zuzenbide aurreko egoera berebean
 - hortaz: proportzionaltasuna nagusi
 - eginbehar bat betetzearekiko aldea
 - erasoa bai baina defentsa pertsonala ez
 - proportzioa baina ez hainbeste
- ❖ Oinarria: *ezberdintzearen teoria*
 - interesak ezberdinak badira: bidezkotze-kausa
 - interesak berdintsuak badira: erruduntasunezko kausa
 - dotrinaren gehiengoaren iritzia: 20.5 art.
 - dotrinaren gutxiengoa: 20.5 art. eta beldur menperaezina (20.6)

II. HEDADURA ETA UKANBEHARRAK

1. BEHARRIZAN-EGOERA: ARRISKU-EGOERA, PREMIA ETA ELEMENTU SUBJEKTIBOA

A. Arriskua:

- ❖ hurre-hurrekoa (irizpideak, jurisprudenzia)
- ❖ benetakoa (errakuntza: 14.1)
- ❖ Kaltea:
 - irizpide juridiko-soziala
 - norberarena edo beste batena

B. Premia

- ❖ beste biderik ez dago, delituren bat egitea baino

C. Elementu subjektiboa

- ❖ dolo: egoeraz jabeturik

(UKANBEHAR FUNTSEZKOA -TEORIAZ-)

2. KALTEEN HAZTAPENA

- ❖ kalteak konparatu behar ez ondasun juridikoak besterik gabe
- ❖ aukerak: bidezkotze-kausa; erruduntasunezko kausa; salbuesle ez-osoak

3. ALDEZ AURRETIKO ASMORIK EZA

4. SAKRIFIKATU BEHARRA

21. IKASGAIA. EGINBEHAR BAT BETETZEA ETA ESKUBIDE BATEN BIDEZKO EGIKARITZA. ADOSTASUNA: BIDEZKOTZEAREN ETA TIPIKOTASUNA BAZTERTZEAREN ARTEAN.

Sarrera.

EGINBEHAR BAT BETETZEA.

- I. Kontzeptua.
- II. Izaera juridikoa.
- III. Hedadura eta ukanbeharrak: kargu publikoen azterketa berezia.
- IV. Zor den obedientzia: eginbehar bat betetzearen kasu berezia.

ESKUBIDE BATEN BIDEZKO EGIKARITZA.

- I. Kontzeptua.
- II. Suposamenduen banakako azterketa (hedadura)
 - 1.- Zentzapen-eskubidea.
 - 2.- Kirolak.
 - 3.- Egitatezko bidea.
 - 4.- Lanbide (ogibide) edo kargu bat egikaritzea: abokatutzaren zein medikuntzaren egikaritzea (medikuntza-sendabidea hertsakorra eta borondatezkoa).

ADOSTASUNA: BIDEZKOTZEAREN ETA TIPIKOTASUNA BAZTERTZEAREN ARTEAN.

- I.- Kontzeptua.
- II.- Izaera juridikoa.
- II.- Ukanbeharrak.

SARRERA

- ❖ Eginbeharraren edo eskubidearen objektua tipo penala gauzatzea da
- ❖ Zor den obedientzia eginbehar (mota) bat besterik ez da.
- ❖ Adostasuna: bidezkotze-kausarik ez bada ere, tipikotasunaren eta zuzenbidekontrakotasunaren artean kokatzen da sistematikoki.

EGINBEHAR BAT BETETZEA

I.- KONTZEPTUA

- ❖ Antolamendu juridikoaren batasuna eta zuzenbide penala (*ultima ratio*)
- ❖ 20.7 artikularen funtzioa: lege-gatazka (penala eta penala ez denaren artekoa) konpontzea
- ❖ Benetako arazoa: penala ez den legea denbora aldetik aurrenekoa eta hierarkia aldetik-beheragokoa denean → horretarako argigarria dugu 20.7ko irtenbidea
- ❖ 20.7 artikulua ogibide (edo lanbide) edo karguari buruz hitz egin arren horiek badute garrantzia eginbeharren— edo eskubideen— iturria diren neurrian.

II.- IZAERA JURIDIKOA

- ❖ Auresuposamendua: eginbehar bat betetzeak ondasun juridikoa lesionatzea dakar
- ❖ Beharrian egoerarekiko ezberdintasunik al dago?
 - 20.7 bereziagoa da: agintzen dena ondasun **jakin** baten **lesio zehatza** da
 - adibidez: poliziak X atxilotzea
 - Ez, ordea, polizien pertsekuzioaren ondorioz norbait istripuz harrapatzea (beharrian-egoera)
 - Hortaz, eginbehar bat betetzeko kasu gehienak (ia guztiak) kargu publikoarekin lotutakoak ditugu, izan ere horietan besterik ez delako horren eginbehar berezia –zehatza, jakina– gertatzen.

III.- HEDADURA ETA UKANBEHARRAK: KARGU PUBLIKOAREN AZTERKETA BEREZIA.

- ❖ Zuzenbidea oro har –eta zuzenbide penala bereziki– egikaritzeko auresuposamendua derrigortzea da: arauak betearazteko askotan derrigortzea ezinbestekoa delako (atxiloketa, epaia betearaztea...)
- ❖ Gakoa: nola egikaritu behar dira eginbeharrak bidezkoak izan daitezen.
 - Batzuetan zalantzarik ez: adibidez epaia
 - Legezketasun baldintzak argiak izan ohi direlako

- Beste batzuetan eginbearra baldintza batzuen menpekoea da, baldintzok estimatzea hain erreza ez delarik: poliziak noiz bota dezake tiroa?

INDARRA ERABILTZeko UKANBEHARRAK (EGINBEHARRAREN LEGEZKOTASUN BALDINTZAK)

▪ **Ukanbehar subjektiboa**

- 1.- Dagokion kargua izatea (esaterako, polizia);
- 2.- Kargua egikaritzen aritzea: eskuduntza funtzionala (competencia funcional).

▪ **Ukanbehar materiala: eginbeharraren muga objektiboak**

- Premiazkotasunaren eta proportzionaltasunaren mugak:
 - ♦ premia abstraktua: funtzio publikoa aurrera eramateko premia (ez da kargu publikoaren kontrako erasorik behar);
 - helburua ez da norbere burua defendatzea (legebidezko defentsa): zuzenbidea edo beste batzuen interesak defendatzea baizik
 - adibidez: delitugile oso arriskutsuaren atxiloteta
 - hori barik ezin da salbuesle osoa ezta osatugabea ere estimatu
 - ♦ premia zehatza: proportzioa (egindako delituaren baitan).

▪ **Errakuntza**

- normalean, bidezkotze-kausa baten egitatezko auresuposamenduei buruzko errakuntzaren tratamendu orokorra;
- proportzionaltasunaren ingurukoa izanez gero, errakuntza gaindigarriaren kasuan: zuhurtziagabekeriaren pena, salbuesle ez-osoarekin.

IV.- ZOR DEN OBEDIENTZIA: EGINBEHAR BAT BETETZEAREN KASU BEREZIA.

- ❖ Zigor Kode zaharrean espresuki azaltzen zen kausa izatetik 20.7 artikuluan sartzera igaro da: balioespen positiboa.
- ❖ Agindu zuzenbidekontrakoak bete behar al dira?
 - Lehengo dotrinak: ez
 - Lehengo jurisprudentziak: baietz...baina ez guztiak, bakarrik ukanbehar jakin batzuk betetzen dituztenak. Hori da egungo jarrera
- ❖ Agindua betetzekoa izateko **UKANBEHARRAK (hortaz bidezkotze-efektua)**
 - **Auresuposamendua**
 - Eginbeharraren legezkotasun-azterketa aginduari dagokio: ukanbeharrak, horregatik, aginduarenak dira.
 - Aginduaren ukanbeharrak 410 artikulutik ondorioztatzen dira, aipatu artikuluan funtzionarioen obediencia araututa dago eta.
 - **Ukanbehar formalak**
 - 1.- Agintariaren eta aginduaren arteko hierarkiazko harremana egotea;
 - 2.- Agindua emateko eskuduntza (materiala) eta menpekoari agintzekoa (eskuduntza pertsonala);
 - Eskuduntza abstraktua (ez zehatza): hots, ekintza-mota agintzekoa (ez ekintza jakin hori agintzekoa);
 - 3.- Aginduak, legezko formalitateak bete behar ditu (funtsezko formalitateak: horiek falta izateak ekintzaren deuseztasuna dakartenak hain zuzen ere).
 - Horietariko edozein ukanbehar falta izanez gero, ez da salbueslea; ez-osoak ere ez.
 - **Ukanbehar materiala**
 - Agindua nabarmenki zuzenbidekontrakoa izanez gero, ez da betetzekoa (betez gero, delitua dago, eta ezin da argudiatu zor den obediencia; esaterako, hiltzeko agindua).
 - Nabarmentasuna ezartzeko irizpidea: itxuraren teoriatik, *ex ante*, egile zehatzaren ezaugarriak eta ezagutzak (ez iritzi soilak) egoera zehatzean kontuan harturik, ertaldeko pertsona neurbidea dela.

ESKUBIDE BATEN BIDEZKO EGIKARITZA

I.- KONTZEPTUA.

- ❖ *Eginbehar bat betetzearen* kasuan dagoen lege-gatazka (interesen gatazka) dago.
- ❖ Eskubideen sailkapena:
 - Ogibide edo karguarekin lotzen ez diren eskubideak
 - Zentzapen-eskubidea
 - Kirolak

- Egitatezko bidea
- Ogibidearekin edo karguarekin lotzen direnak.

II.- SUPOSAMENDUEN BANAKAKO AZTERKETA (HEDADURA).

1. ZENTZAPEN-ESKUBIDEA

- ❖ Senar-emazteak?
 - Ikusmolde historikoa, kritikagarria, gauditua
 - 20.7 EZ
- ❖ Aita-amak edo tutoreak?
 - Premiazkotasuna eta proportzionaltasuna muga direla, adingabearen heziketa eta ongizateari begira
 - Teorian, salbuesle ez-oso gehiegikeriarik balego
 - Auzitegi Gorenak: salbuesle osoa edo ezer ez
- ❖ Beste baten haurren zentzapena? (maisua, andereñoa...)
 - Eskuordetzea espresua edo isibildezkoa denaren arabera
 - baita zigorraren izaeraren arabera ere

2. KIROLAK

- ❖ Adibideak: futbola, boxeoa, errugbia...
- ❖ Irtenbidea:
 - 20.7 baldin eta kirolari dagokion araudiaren arabera ekiten bazaio
 - bestela (araudiaren aurka):
 - edo egokitasun soziala
 - edo garrantzirik ez
 - beti ere kirolari ekiten bazaio borondatea behartu gabe

3. EGITATEZKO BIDEA

- ❖ Definizioa: eskubidea egikaritzea auzitegien bidea alde batera utzirik eta beste pertsona/ pertsonen borondatearen aurka
- ❖ Jarduera tipikoa den neurrian:
 - Norberaren eskubidea nahi den erara egikaritzea (455 ZK)
 - Derrigortze-delitua (172 ZK)
 - Baina aipatu kasu hauetan atipikotasuna da zenbait egitatezko bide ez zigortzeko arrazoiak (20-7 EZ)
 - Senar-emazteak? 20.7 EZ

4. LANBIDE (OGIBIDE) EDO KARGU BATEN EGIKARITZA: ABOKATUTZA eta MEDIKUNTZAREN EGIKARITZA (MEDIKUNTZA-SENDABIDEA HERTSAKORRA ETA BORONDATEZKOA).

- ❖ Ohikoenak: abokatutza, medikuntza, irakasleria (ebakuntza kirurgikoak, barneratze psikiatrikoak, irainak, askatasunaz gabetzea...)
- ❖ Medikuren kasuak dauka garrantzi praktiko gehien: horri ekingo zaio eta han esaten denak besteentzat ere balioko du.

MEDIKUNTZA-SENDABIDEA

- ❖ Planteamendua: medikuntza-sendabidea lesio-deliturik ote?
 - BORONDATEZKO MEDIKUNTZA-SENDABIDEA
 - *Lex artis*-en arabera bada eta arrakastatsua suertatuz gero: ez dago deliturik
 - Dot. tradizionalak: 20.7
 - Egungo dotrinak: tipikotasunik ez
 - ◆ Ondasun juridikoa lesionatzen ez delako (osasunak hobera jotzen du)
 - ◆ Lesiorik ez dago (lesioaren kontzeptuak pertsona osoaren ikuspegia du ezinbestekoa)
 - ◆ Egozpen objektiborik ez: arriskua gutxitzen da
 - *Lex artis*-en arabera bada, baina ez da arrakastatsua suertatzen (adib. hiltzen da, begia galtzen du...)
 - ◆ Batzuentzat ez dago zuzentziagabekeriarik, beraz tipikotasunik ez
 - ◆ Beste batzuentzat adostasunik tipikotasuna baztertzen du

- Sendatzekoak ez diren tratamenduak (estetika hobetzekoak): aurrekoak bezalaxe
- Organoak birlandatzea: adostasuna (156 artikulua ZK)
- **BORONDATEZKOAK EZ DIRENEAN:**
 - Arrakastatsua bada:
 - Zuhurtziagabeko lesiorik ez, baina bai derrigortze-delitua (edo legearen aurkako atxiloketa)
 - Arrakastatsua suertatzen ez bada:
 - Batzuentzat:
 - ◆ Derrigortze-delitua besterik ez
 - Beste batzuentzat (dot. gehiengoa; jurisprudenzia)
 - ◆ Derrigortze-delitua ez ezik
 - ◆ Zuhurtziagabeko lesioa edo giza hilketa ere
 - ◆ Beti ere beharrian-egoera argudiatzerik ez badago
- ❖ Medikuntza-sendabidea medikua ez denak aurrera badarama?
 - *Lex artis*-en arabera bada eta arrakastatsua: gehienez intrusismo delitua (403 ZK)
 - *Lex artis*-en arabera bada eta arrakastatsua ez bada: intrusismo delitua (medikuari aplikatu beharreko irizpideak, berberak)

ADOSTASUNA: BIDEZKOTZEAREN ETA TIPIKOTASUNA BAZTERTZEAREN ARTEAN

I. KONTZEPTUA

- ❖ Kontzeptua: subjektu pasiboak adostasuna ematearen ondorioz ez da gertatzen bestela sortuko litzakeen delitua. Hori bi kasu multzotan gertatzen da:
 - Delitua zuzen-zuzenean subjektuaren borondatearen aurka zuzentzen da: adib. legearen aurkako atxiloketa, etxebizitzaren bortxazintasuna, derrigortze-delitua, ebasketa...
 - Adostasunak tipikotasuna errotik baztertzen du (ondasun juridikoa ez da inolaz ere arriskuan jartzen eta are gutxiago lesionatzen)
 - Delituaren ondasun juridikoaz xedatu ahal du subjektu pasiboak baina ados egonik ere ondasun juridikoaren aurkako lesioa ez da desagertzen: adib. lesio-delitua

II. IZAERA JURIDIKOA

- ❖ Bi izaera, kasu multzoen arabera:
 - Lehenengo kasu multzoan adostasunak tipikotasun baztertzen du
 - Bigarren kasu multzoan: eztabaida
 - Gehiengoak dio zuzenbidekontrakotasuna baztertzen dela (bidezkotze-kausa)
 - De *lege lata* 20.7 artikulura eramaten da: adostasunak eskubidea ematen du jarduera aurrera eramateko

III.- UKANBEHARRAK

- ❖ Adostasunak ez du eragingarritasunik ondasun juridikoa xedagarria ez denean: alegia,
 - Ondasun juridiko kolektiboetan (adib. atentatuak)
 - Ondasun juridiko indibidualen aurkako delituak (adib. bizitzaren aurkako delituak)
- ❖ Zati berezian ikusiko dira adostasunari buruzko arauketa bereziak: hala nola, abortuarena, lesio delituarena, eta abarrena.
- ❖ Ukanbehar orokorrak, adostasuna eragingarria izan daitekeen kasuetarako, guztietarako, komunak eta gertatu beharrekoak:
 - Ez da adostasunari buruzko erregimen juridiko-zibila jarraitzen
 - Jabetzeko gaitasun naturala behar da (ez negozio juridiko zibilak egiteko gaitasuna)
 - Batzuetan, ordea, adin jakinak ezartzen dira (adib. sexu-abusua ez baimendutzat jotzen da 13 urtetik behera, *ex lege* 181art.)
 - Adostasunak kanpotik ezagutzeko modukoa izan behar du: hau da, argia (espresuki) edo isilbidezkoa izan daiteke (ez du, hortaz, beti espresua izan beharrik)
 - salbuespenak egon litezke (adib. 417 bis, 155, 156 artikulua)
 - edonola, adostasunak beti aurretikoa izan behar du (ez ondorengoa: barkamena)
 - Egileak ez du zertan adostasunaren berri eduki behar: ez badaki subjektu pasiboa ados dagoela saiakuntza ezegokia bezala zigortuko da
 - Borondatearen bizioei buruzko teoria juridiko zibila ez da aplikatzen, baina:
 - Derrigortzerik badago, adostasunak ez du eragingarritasunik

- Errakuntza edo engainua balego, hura baloratu behar adostasunaren eragingarritasuna ukatu aurretik

22. IKASGAIA. ERRUDUNTASUNA EDO EGOZPEN PERTSONALA

Sarrera.

I. Kontzeptua eta eboluzio historikoa.

- 1.- Kontzeptua.
- 2.- Eboluzio historikoa.

II. Erruduntasunaren funts materiala.

- 1.- Hautamen-arazoa: askatasuna.
- 2.- Penaren beharra.
- 3.- Motibagarritasuna.

III. Erruduntasuna baztertzen duten kausen ondorioak.

SARRERA

- ❖ Kategoria funtsezkoa (zuzenbidekontrakotasun-erruduntasuna)
- ❖ Hiru elementu: eduki eztabaidagarria
- ❖ Terminologia:
 - erruduntasuna baztertzen duten kausak / errugabetzeko kausak
 - erruduntasuna, erantzukizuna, egozpen pertsonala

I. KONTZEPTUA ETA EBOLUZIO HISTORIKOA

1. KONTZEPTUA:

- ❖ Izpiritualizazio-prozesua bi zentzutan:
 - **erantzukizun objektibotik subjektibora**
 - **erantzukizun kolektibotik pertsonalera**

2. EBOLUZIO HISTORIKOA

- ❖ Erruduntasuna ez da harreman psikologikoa
- ❖ Balioespen bat da: aukera izanik, ez zuen jardun behar bezala

II. FUNTS MATERIALA

- ❖ Zergatik zigortzen da hiru elementu egonez gero?

1. HAUTAMEN ARAZOA: ASKATASUNA

- ❖ Aukeran delituaren alde egiteagatik
- ❖ Arazoa: nola frogatu hori?

2. PENAREN BEHARRA

- ❖ Zigorra beharrezkoa da delituak saihesteko (aurrezaintza orokorra eta berezia)
- ❖ Baina zigorrak pertsona arruntaren aurrean bakarrik funtzionatzen du

3. MOTIBAGARRITASUNA

- ❖ Zigorra zilegia da pertsonak arauaren mezua ulertzen badu
- ❖ Ulertzen ez duena ezin da zigortu: berdintasun printzipioa

III. ERRUDUNTASUNA BAZTERTZEN DUTEN KAUSEN ONDORIOAK

(ik. BIDEZKOTZE-KAUSAK)

23. IKASGAIA. EGOTZEZINEZKO KAUSAK

I. Egozgarritasuna oro har. Kontzeptua eta "*actio libera in causa*".

II. Aldakuntza psikikoa.

1.- Eromena arautzeko modu teorikoak.

2.- Zigor Kodearen modu berria.

A. Lehenengo ukanbeharra: aldakuntza psikikoaren edukia (oinarri patologikoa).

B. Bigarren ukanbeharra: efektu psikologikoa eta jurisprudentziaren jarrera.

3.- Segurtasun-neurri aplikagarriak.

III. Buru-nahaste iragankorra, toxikazio osoa eta abstinentzia-sindromea (20.1 *in fine* eta 2 art.).

IV. Aldakuntza oharmenean (20.3 art.).

V. Adingabea.

I. EGOZGARRITASUNA ORO HAR: KONTZEPTUA ETA *ACTIO LIBERA IN CAUSA*.

❖ **Kontzeptua:** bi gaitasunetan datza (jurisprudentzia):

- ulertzeko gaitasuna (dolo txarra; ezaguera)
- jarduteko gaitasuna (borondatea)

❖ ***Actio libera in causa*:**

- egozgarritasuna neurtzeko unea
- erantzukizun dolozkoa ala zuhurtziagabekoa

II. ALDAKUNTZA PSIKIKOA

1. ARAUTZEKO MODU TEORIKOAK

- ❖ formula biologikoa
- ❖ formula psikologikoa
- ❖ formula mistoa (biologiko-psikologikoa)
 - oinarri patologikoa ETA
 - efektu psikologikoa:
 - ulertzeko gaitasuna ukitua (indargabetua)
 - edota jarduteko gaitasuna ukitua (indargabetua)

2. ZIGOR KODEAREN FORMULA: MISTOA

- ❖ Dot. gehiengoa eta jurisprudentzia

A. LEHENENGO UKANBEHARRA: ALDAKUNTZA PSIKIKOAREN EDUKIA (OINARRI PATOLOGIKOA)

- ❖ psikosia
- ❖ oligofrenia
- ❖ psikopatia
- ❖ neurosia

B. BIGARREN UKABEHARRA: EFEKTU PSIKOLOGIKOA ETA JURISPRUDENTZIAREN JARRERA

- ❖ adib. oligofrenia
 - salbuesle osoa (sakona, ertaina)
 - ez-osoa (arina)
 - aringarria
 - oso kualifikatua (arina, buru-dorpetasuna)

3. SEGURTASUN-NEURRI APLIKAGARRIAK

- ❖ Aurreuposamenduak oro har (6/95): delitua eta arriskutsutasuna
- ❖ Zein ezarri behar?
 - askatasun-gabetzaileak (101-103)
 - **aurreuposamendua:** zigorrak askatasaun-gabetzailea izan behar

- eta orduan, arriskutsutasunaren arabera; ez halabeharrez
- bestela, askatasun-gabetzaileak ez direnak (105)
- ❖ **Iraupena:**
 - inoiz ez zigorra **erlatiboki zehatza** (OZ + graduak) baino luzeagoa
- ❖ Salbuesle **osatugabearen** kasuan: esandakoa eta bikariotza-sistema (104/99)
- ❖ Seg.-neurrien **ordeztea, etetea, bertan behera** uztea (97-98 art.) eta **haustea** (100 art.).

III. BURU NAHASTE IRAGANKORRA, TOXIKAZIO OSOA ETA ABSTINENTZIA SINDROMEAK (20.1 IN FINE eta 2 art.)

- ❖ Ez batak ez besteak ez dute, teoriak, oinarri patologikorik eskatzen
- ❖ Efektu psikologikoaren intentsitatea da erabakigarri
- ❖ Jurisprudentzia: oso zorrotza
 - mailaketa:
 - salbuesle osoa (ia inoiz ez; eta oinarri patologikoa eskatzen du)
 - salbuesle ez-osoa (oso gutxitan)
 - aringarria: kualifikatua eta soila
 - adibideak: neurosia, droga, alkohola, abstinentzia, eta abar
 - ALKOHOLISMO LETARGIKOA:
 - ZK 10 art.
 - kontzientziarik ez; logura
 - SALBUESLE OSOA: 20.2
 - oinarri patologikoa ETA
 - efektua:
 - ◆ ulertzeko gaitasunik ez, edota
 - ◆ jarduteko gaitasunik ez
 - SALBUESLE EZ-OSOA: 21.1/20.2
 - oinarri patologikoa ETA
 - EFEKTUA: GAITASUNAK NABARMEN UKITUAK
 - ARINGARRIA:
 - OSO KUALIFIKATUA (66.4)
 - 21.1.: gaitasunak ukituak

IV. ALDAKUNTZA OHARMENEAN (20.3 art.)

- ❖ Gaitasunak ez daude ukituak baina errealtatearen gizarte-zentzua ez da ulertzen
- ❖ Adib. gormutua, haur-otsoa (Häuser sindromea), autismoa...
- ❖ Formula mistoa
- ❖ Garrantzi praktikoa

V. ADINGABEA (Urtarrilaren 12ko 5/2000 LO)

- ❖ NORENTZAKO LEGEA? (1 art.)
 - 14-18 urtekoentzat (adingabea)
 - baita 18-21 (gaztea):
 - salbuespenez
 - momentuz ez (9/2000 LO)
 - 14 urtetik behera: erantzukizun penalik ez (3. Art.)
- ❖ ZERGATIK?
 - inguruabar pertsonal bereziak (esperimentatzeko joera, inguruko giroaren garrantzia...)
 - baina bai erantzuleak: erantzukizun penal berezia
- ❖ NORK EZARTZEN DU ERANTZUKIZUNA? (3 art.: adingabeen epaileak)
- ❖ LEGERAREN AURRESUPOSAMENDUA: delitua edo falta egin izana (= ZK)
- ❖ ZIGORRIK? EZ: NEURRIAK : 7 art.
 - neurrien zerrenda (7.1 art.)
 - aukeratzeko irizpideak (7.3 art.)

24. IKASGAIA. ZUZENBIDEKONTRAKOTASUNAREN KONTZIENTZIA ETA ERRUGABETZEKO KAUSAK.

ZUZENBIDEKONTRAKOTASUNAREN KONTZIENTZIA.

Sarrera. Errakuntza motak eta kontzeptua.

I. Debeku-errakuntzari buruzko tratamendu juridiko-dogmatikoa.

1.- Doloaren teoria.

2.- Finalismoa: erruduntasunaren teoria.

3.- Kasu berezi bat: bidezkotze-kausa baten egitatezko auresuposamenduei buruzko errakuntza.

II. Debeku-errakuntza. Zigor Kodean.

ERRUGABETZEKO KAUSAK.

Sarrera: galdagarritasun printzipioa.

I. Beldur menperaezina.

II. Beharrian egoera errugabetzailea.

III. Ahaideen arteko estalketa.

ZUZENBIDEKONTRAKOTASUNAREN KONTZIENTZIA

SARRERA. ERRAKUNTZA MOTAK ETA KONTZEPTUA

(ik. tipo-errakuntza)

I. DEBEKU- ERRAKUNTZARI BURUZKO TRATAMENDU JURIDIKO-DOGMATIKOA

❖ Hasiera batean debeku-errakuntza ez zen aitortzen

1. DOLOAREN TEORIA

❖ **gaindiezina: dolorik ez**

❖ **gaindigarria: zuhurtziagabekeria**

❖ debeku- eta tipo-errakuntza gauza bera

2. FINALISMOA: ERRUDUNTASUNAREN TEORIA

❖ debeku-errakuntza eta tipo-errakuntza ezberdinak

❖ debeku-errakuntza

➤ **gaindiezina: erruduntasunik ez**

➤ **gaindigarria: zigor arinagoa**

3. KASU BEREZI BAT: BIDEZKOTZE-KAUSA BATEN EGITATEZKO AURESUPOSAMENDUEI BURUZKO ERRAKUNTZA

(ik. tipo-errakuntza)

II. DEBEKU-ERRAKUNTZAZIGOR KODEAN

❖ erruduntasunaren teoria onartu da: 14.3 art.

❖ edonola erantzukizun zibila bai

ERRUGABETZEKO KAUSAK

SARRERA. GALDAGARRITASUN PRINTZIPIOA

❖ **funtza: egoera salbuespenezkoak** motibagarritasuna txikiagotzen du

❖ subjektua ez da heroi bat (galdatzeko neurria): adib. premiazko egoera errugabetzailea

❖ baina debekuari eusten zaio

I. BELDUR MENPERAEZINA

❖ indar jarkiezina eta beldur menperaezina: hertsapenez dihardu subjektuak

❖ buru-nahaste iragankorra (beldur patologikoa) eta beldur menperaezina

- ❖ menperaezina: AG
 - gizabanako arruntarentzat
 - eta egoera zehatzean/ezaugarri zehatzekin
 - ez ezaugarri patologikoak (neurosirako joera adib.)
- ❖ askotan legebidezko defentsaren gehiegikeria hedatzaileetan aplikagarri

II. BEHARRIZAN-EGOERA ERRUGABETZAILEA

(ik. beharrian-egoera)

III. AHAIDEEN ARTEKO ESTALKETA

- ❖ 454 art. (ZK)
- ❖ Funtsa: senitartekoa, hurbilekoa, salatzea galdagarri?
- ❖ Funtsa eztabaidagaia dugu
- ❖ 451.1 Artikuluaren kasuan ez da zigorra baztertzen!

25. IKASGAIA. ZIGORGARRITASUNA ETA HORREN BAZTERKETA.

- I. Kontzeptua.
- II. Zigortzeko baldintza objektiboak.
- III. Zigorgarritasunaren bazterketa.
 - 1. Desenkusa absolbitzaileak.
 - 2. Beste kontzeptuak.

I. KONTZEPTUA

- ❖ Kategoria eztabaidatua
- ❖ Funtsa: arrazoi politiko-kriminalak
- ❖ Bi elementu osagileak:
 - **positiboa**: zigortzeko baldintza objektiboak
 - **negatiboa**: desenkusa absolbitzaileak, bortxaezintasuna, inmunitatea, eta abar.

II. ZIGORTZEKO BALDINTZA OBJEKTIBOAK

- ❖ Eztabaidatua ere zeintzuk diren
- ❖ Berezitasunik nabarmenena: **doloak** ez du hura barnera biltzen
 - adib. 606.2: elkarrekikotasuna
 - elementu positiboa
 - doloak ez du hura barnera biltzen
 - funtsa: Estatu-buruaren babes berezia

III. ZIGORGARRITASUNAREN BAZTERKETA

1. DESENKUSA ABSOLBITZAILEAK

- ❖ adib. 268 ZK
 - funtsa: familiaren eremuan ez da komeni sartzea
 - zigorra altxatzen da

2. BESTE KONTZEPTUAK

- ❖ Bortxaezintasuna:
 - funtsa: zuzenbide publikoa (zenbait kargu-erakunderen independentzia bermatu behar)
 - epaitu ezinak dira jarduerak (karguarekin zerikusi dutenak)
- ❖ Inmunitatea:
 - ez da zigorra zentzu hertsian baztertzen
 - jazartzeko (esesteko) baldintza objektiboak

26. IKASGAIA. DELITUAREN GARAPEN-GRADUA.

Aldez aurretiko oharra.

I. Prestamen-ekintza zigorgarriak.

1.- Sarrera orokorra.

2.- Prestamen-ekintza zigorgarriak. Konspirazioa, proposamena eta probokazioa prestamen-ekintzak al dira?

A. Lege-arauketa: balorazioa.

B. Konspirazioa: ukanbeharrak.

C. Proposamena eta probokazioa.

II. Saiakuntza.

III. Delitu ezinezkoa (edo saiakuntza ez-egokia).

IV. Bertan behera uztea.

V. Burutzea eta agortzea.

ALDEZ AURRETIKO OHARRA

- ❖ Delituaren gradua (tradizioa) ala tipoaren elementua (joera berria)?

I. PRESTAMEN-EKINTZA ZIGORGARRIAK

1. SARRERA OROKORRA

- ❖ *Iter criminis*-en faseak:

- **Barruko fasea:** pentsatzeak ez du deliturik egiten

- **Kanpoko fasea:** (15-18 art.)

- delitua **prestatzea**

- araua: zigorgabekoa

- salbuespenak: adib. 17-18 art.

- delitua **egikaritzea**

- araua: zigorgarria (saiakuntza) (16)

- salbuespena: falten kasua (15)

- ❖ Nola ezberdindu prestatzea eta egikaritzea? (**noiz hasten da saiakuntza?**)

- Ondasun juridikoaren aurkako lesio-arriskuaren tamainatik (teoria objektiboa)

- Baina egilearen plana kontuan hartuz (teoria subjektiboa)

- Hortaz: **Teoria materiala, objektibo-subjektiboa**

- subjektu aktiboaren plana kontuan harturik

- balioespen objektiboa egin behar, bi irizpideren laguntzaz:

- ondasun juridikoa arriskuan jartzea hurre-hurrekoa al da?

- burutzen hasteko beste ekintzarik falta al da? (bitarteko ekintzen teoria)

2. PRESTAMEN-EKINTZA ZIGORGARRIAK. KONSPIRAZIOA, PROPOSAMENA ETA PROBOKAZIOA PRESTAMEN-EKINTZAK AL DIRA?

A. LEGE-ARAUKETA: BALIOESPENA

- ❖ salbuespenezko zigorra (17-18)

- ❖ balorazio ona: joera liberala

B. KONSPIRAZIOA: UKANBEHARRAK

- ❖ delitu zehatza egiteko akordioa: aurreratutako egilekidetza

- ❖ bi pertsona baino gehiago

- ❖ egikaritze-fasea ez da hasten

C. PROPOSAMENA ETA PROBOKAZIOA

- ❖ bietan delitu zehatza egiteko gonbitea

- ❖ proposamena: pertsona zehatz bati edo batzuei

- ❖ probokazioa: pertsona multzo ezezagunari
- ❖ bietan: saiatutako indukzio-moduak zigorgarri
- ❖ proposamena edota probokazioa ezin dira onartu
- ❖ apologia: probokazio-modua bada, zigortzekoa; bestela ez

II. SAIAKUNTZA (16 art.)

- ❖ Ukanbeharrak:
 - objektiboa: egikaritzen hasi
 - bukatua, bukatugabea
 - subjektiboa: delitu zehatza egiteko asmoa (doloa)
 - ezezkoa: emaitzarik ez, beti ere borondatezko bertan behera uztearen ondorioz ez bada

III. DELITU EZINEZKOA (EDO SAIAKUNTZA EZEGOKIA)

- ❖ Saiakuntza mota bat : **berezitasuna**: hasieratik (*ex ante*) ezegokia dena emaitza gertatzeko
- ❖ Zigorgarritasunaren funtsa: arrisku-irudia (teoria objektiboa)
- ❖ **Saiakuntza irreal**a edo sineskeriazkoa (superstiziosoa), ordea, ez da zigortzen
- ❖ Ustezko delitua edo **delitu putatiboa** (ez da delitu ezinezkoa, alderantzizko debeku-errakuntza baizik)

IV. BERTAN BEHERA UZTEA

- ❖ Funtsa: izaera politiko-kriminala (etsaiak ihesari emanez gero hobe)
- ❖ Ukanbeharrak:
 - borondatezkoa: uzteko aukera dagoenean uztea (motiboa baloratu gabe)
 - bi kasu: egile bakarra (16.2) partaide batzuk (16.3)
 - abandonu efikaza (16.2 eta 3)
 - abandonu ez efikaza (16.3 bakarrik)
 - edonola, egindakoagatiko erantzukizuna bai

V. BURUTZEA ETA AGORTZEA

- ❖ Burutzea: elementu tipikoak gertatzea
- ❖ Agortzea: lortu nahi zen helburua-onura, ondasun juridikoaren lesioa-arriskua benetan eskuratzea-gauzatzea

27. IKASGAIA. EGILETZA ETA PARTAIDETZA.

Sarrera eta lege-arauketa orokorra.

I. EGILETZA.

1- Egiletzaren legezko kontzeptua.

2.- Egiletzaren kontzeptu objektiboa.

A. Teoriak.

B. Motak: zuzenekoa, bitartekoa eta egilekidetza.

II. PARTAIDETZA.

1.- Teoria orokorra.

A. Partaidetza zigortzeko funtsa eta bere izaera juridikoa: kausazioaren teoria.

B. Partaidetzaren printzipio nagusiak.

2.- Motak: indukzioa, ezinbesteko laguntza eta sopikuntza.

3.- Estaltzea

4.- Derrigorrezko partaidetza.

III. KASU BEREZIAK: 30 eta 31 artikulak.

SARRERA ETA LEGE-ARAUKETA OROKORRA

- ❖ Lege-arauketa: 27-31 art.
- ❖ Estalketa ez da partaidetza, delitu bat baizik (451 art. eta hurr.)

I. EGILETZA

1. LEGEZKO KONTZEPTUA

- ❖ 28 art.: ZIGORRAREN ONDORIOETARAKO EGILETZAT
 - benetako egilea (bakarra, bitartekoa, egilekidea)
 - induktorea
 - ezinbesteko laguntzailea
- ❖ Kontzeptualki, batzuk egile, besteak partaide

2. KONTZEPTU OBJEKTIBOA

A. TEORIAK

- ❖ Jurisprudentzian eta dogmatikan gehien zabaldua dagoena:
 - : egiletzaren kontzeptu **MURRIZTAILEA (egileta eta partaidetza ezberdintzean datzana)**
 - : arazoa: nola ezberdindu egilea partaideetatik?
 - HIRU TEORIA:
 - objektibo-formala (jarduera tipikoak)
 - ◆ jurisprudentzia eta dotrinaren gehiengoa
 - objektibo-materiala (jardueraren garrantzia)
 - objektibo-subjektiboa (jarduera menperatzea)
 - ◆ dotrina modernoa (gutxiengoa)

B. MOTAK: ZUZENEKOA, BITARTEKOA ETA EGILEKIDETZA

- ❖ **ZUZENEKOA:**
 - egile bakarra
- ❖ **BITARTEKO EGILETZA**
 - Definizioa:
 - Jarduera materiala nork egiten du?
 - Nor da erantzulea? Atzekoa
 - Nor ez da erantzulea? Aurrekoa: zergatik?
 - tipikotasunik ez (adib. tipo-errakuntza)

- bidezkotze-kausa dagoela diharduelako (adib. zor den obedientzia)
- errugabea delako (adib. oligofrenikoa, adingabea...)

❖ **EGILEKIDETZA**

- Bi ukanbehar:
 - **elementu subjektiboa: akordioa**
 - jurisprudentziaren aurreko akordioaren teoria : gaurkotasuna eta kritika
 - egilekidearen gehiegikeria (akordioaren gainetik pasatzea)
 - **elementu objektiboa:**
 - edo egikaritze-ekintza
 - edo, behintzat, egikaritzarekin lotura logiko eta denborazkoa (adib. biktimari eustea)

II.- PARTAIDETZA

1. TEORIA OROKORRA

- ❖ Nortzuk dira partaide? Induktorea eta laguntzaileak (ezinbestekoa eta hutsa)

A. PARTAIDETZA ZIGORTZEKO FUNTSA ETA BERE IZAERA JURIDIKOA: KAUSAZIOAREN TEORIA

- ❖ Faboratzearen teoria ere deitua
- ❖ Ondasun juridikoaren lesioa egiten laguntzen da
- ❖ Bertan behera utzitako teoria: galbideratzearen teoria (errudun bihurtzen laguntzen da)

B. PARTAIDETZAREN PRINTZIBIOAK

B.1. Erantsitasunaren printzipioa

- ❖ Partaideak menpekoa da: egilerik gabe partaidetik ez
- ❖ Baina nolakoa behar du izan jarduera nagusia partaidetza zigortzen hasteko?
Erantsitasun mugatuaren teoria: jarduera tipikoa eta zuzenbidekontrakoa

B.2. Egozteko tituluaren batasuna

- ❖ Egilearen kalifikazio juridikoa partaideena ere
- ❖ Aurkakoa gertatzen da egilekidetzan
- ❖ Arau orokorra: salbuespenak ere badira

2. MOTAK

INDUKZIOA

- ❖ Delitu zehatza egiteko eragin psikiko zuzeneko (pertsonek zehatz bati)
- ❖ Askatasunaz dihardu eragindakoak (bestela beldur menperaezina, bitarteko egiletza...)
- ❖ Egikaritzen hasi behar (bestela proposamena edo probokazioa izango dira)
- ❖ Dolo bikoitza

EZINBESTEKO LAGUNTZA, SOPIKUNTZA

- ❖ Nola ezberdindu bata bestetik?
- ❖ Garrantzi praktikoa (63 art.)
- ❖ Ez dago adostasuna ez jurisprudentzian ezta dotrinan ere
- ❖ Proposamena:
 - Laguntzarik izan ezean: egileak delitua egingo zukeen edo bertan behera-utzik?

3. ESTALKETA

(Zati bereziko delitua; ez partaidetza mota)

4. DERRIGORREZKO PARTAIDETZA

(ik. tipikotasuna)

III.- KASU BEREZIAK: 30 ETA 31 ARTIKULUAK

- ❖ 31 art.: (ik. tipikotasuna)
- ❖ 30 art.:
 - erregimen berezia
 - argitaletxeen legetik datorrena
 - hedapenerako bideak erabiltzen diren delituatarako
 - sopikunek ez dute erantzukizuna
 - erantzukizun mailakatua, baztergarria eta subsidiarioa

28. IKASGAIA. DELITUAREN INGURUABAR ALDARAZLEAK.

I. Inguruabar aldarazleen teoria orokorra.

- 1.- Estatu Espainiarreko sistemaren izaera juridikoa.
- 2.- Sistema orokorraren ezaugarri nagusiak: komunikagarritasuna, atxikitasuna eta bateragarritasuna.

II. Inguruabarren banakako azterketa.

- 1.- Aringarriak.
- 2.- Astungarriak.
- 3.- Inguruabar mistoa.

I. INGURUABAR ALDARAZLEEN TEORIA OROKORRA

1. ESTATU ESPAINIARREKO SISTEMAREN IZAERA JURIDIKOA

- ❖ Ez dira funtsezko elementuak, akzidentalak baizik (delituaren existentzia ez da horien baitan)
- ❖ Oro har: erruduntasuna / zuzenbidekontrakotasuna mailakatzen laguntzen dute
- ❖ Batzuk ordean zigorgarritasuna dute funtsa

2. SISTEMA OROKORRAREN EZAUGARRI NAGUSIAK

Komunikagarritasuna (65 art.)

- ❖ objektiboak bai ezagutuz gero (65.2): adib. alebosia
- ❖ pertsonalak ez (65.1): adib. birjaustea

Atxikitasuna (67 art.)

- ❖ delituak dagoeneko kontuan hartu badu, ezin estimatu: adib. 139 art.

Bateragarritasuna

- ❖ antzeko funtsa egonez gero, ezin dira bi inguruabar batera estimatu
 - adib. 22.1 eta 22.2

II. INGURUABARREN BANAKAKO AZTERKETA

1. ARINGARRIAK (21 art.)

21.1.: SALBUESLE OSATUGABEA

- ❖ 21.1/ 68
- ❖ Funtsa: bidezkotze-kausak eta errugabeen kasuan (hor: segurtasun-neurriak...104/ 101-103/99 art.)

21.2: MENDEKOTASUN LARRIA

- ❖ droga, alkohola...
- ❖ Funtsa: egozgarritasuna ukitua

21.3: ZOROALDIA, ITXUALDIA, GRINALDIA

- ❖ ez da zioen azterketa morala
- ❖ funtsa: egozgarritasuna

21.4: AITORTZEA

- ❖ Noiz? Prozedura judizial beraren aurka zuzentzen dela jakin aurretikoa
- ❖ Nori? Edozein agintariri (funtzionario publikori)
- ❖ Funtsa: politiko-kriminala : pertsekuzioa erraztea

21.5.: KALTEA KONPONTZEA, MURRIZTEA

- ❖ Funtsa: politiko-kriminala (biktima kontuan hartzearen ondorioa)

- ❖ Ez du zertan erabat efikaza izan beharrik
- ❖ Noiz? Ahozko epaiketa aurretik

21.6: **ANALOGIKOA**

- ❖ Auresuposamendua: antzeko funtsa duen inguruabarra

2. **ASTUNGARRIAK**

22.1: **MALTZURKERIA, ALEBOSIA**

- ❖ Funtsa: bideen arriskutsutasuna (zuzenbidekontrakotasuna)
- ❖ Bi elementu:
 - objektiboa: bideak erabili
 - subjektiboa: jakinda, errazteari begira
- ❖ pertsonen aurkako delituetan besterik ez

22.2: **NAGUSITASUN ABUSUA**

- ❖ Funtsa: arriskutsutasuna (zuzenbidekontrakotasuna) edo jazargarritasuna erraztea (politiko-kriminala)
- ❖ Bigarren mailako alebosia: desoreka objektiboa eta horrezaz baliatzea

22.3.: **PREZIOA, SARIA EDO HITZA EMATEA**

- ❖ Funtsa: eztabaidatua
 - subjektiboa: zio arbuiagarriak (erruduntasuna)
 - objektiboa: arriskutsutasuna (zuzenbidekontrakotasuna)
 - efikazagoa
 - jazargaitzagoa
- ❖ ordaindu eta kobratzen duena

22.4: **ZIO ARRAZISTA EDO ANTZEKOAK**

- ❖ Funtsa: eztabaidagarria
 - gehiengoak (jurisprud.): zio gaitzesgarriak (erruduntasuna)
 - gutxiengoak: taldeentzako arriskua (zuzenbidekontrakotasuna)

22.5: **KRUDELKERIA**

- ❖ Funtsa: eztabaidagarria
 - zio gaitzesgarriak (subjektiboa: erruduntasuna)
 - beharrezkoa ez den tortura (objektiboa: zuzenbidekontrakotasuna)

22.6.: **KONFIANTZA ABUSUA**

- ❖ Funtsa: delitua egitea errazagoa (zuzenbidekontrakotasuna)
- ❖ Lotura morala egon eta egoeraz baliatzea errazago delitua egiteko
- ❖ Ez dago horren presuntziorik (adib. lan-harremana)

22.7.: **IZAERA PUBLIKOAZ BALIATZEA**

- ❖ Funtsa: delitua egitea errazagoa (zuzenbidekontrakotasuna)
- ❖ Karguan jardutea eta horrezaz baliatzea
- ❖ Atxikia funtzionarioen delituetan

22.8.: **BERRERORKETA**

- ❖ Auresuposamenduak: delitua egin izana
 - titulu berekoa ETA
 - izaera berekoa
 - eta ezereztu ez izana (136 art.)
- ❖ Funtsa: eztabaidatua egilea / zuzenbide penala

3. **INGURUABAR MISTOA**

- ❖ Aringarri edo astungarria: interpretazio materiala (ez formala)
- ❖ Oro har: pertsonen aurkako delituetan (astungarri) eta ondare-delituetan (aringarria)

29. IKASGAIA. DELITU ZIGORGARRIEN UNITATEA ETA ANIZTASUNA.

Sarrera. Ekintzaren unitatea eta aniztasuna.

I. Delitu-pilaketa: ideala eta erreala.

II. Delitu jarraitua.

SARRERA

- ❖ Aurreuposamendua: delitu batzuk daude eta ez dira epaitu
- ❖ Zigorra gehitu besterik gabe? EZ **Zigorraren zehaztapenerako arau bereziak (73 art. eta hur.)**
 - Funtsa: zigorra gogorregia izan ez dadin
- ❖ **Delitu-pilaketa ez da lege-pilaketa**

I. DELITU-PILAKETA ERREALA ETA IDEALA

IDEALA (77 art.)

- ❖ Jarduera bakarra eta delitu batzuk (bi ondasun juridiko)
 - adib. udaltzaina lesionatzea (550 art.) eta lesio-delitua (147 art.)
- ❖ Edo delitu bat egin beste bat egiteko bide gisa (mediala)
 - adib. txekoa faltsutzea bankuan dirua kobratzeko
- ❖ Delituri astunena goiko erdian bananduta zigortzea merezi ez badu

ERREALA (73, 75, 76, 78 art.)

- ❖ 73: bateragarriak badira, denak BATERA bete
- ❖ 75: bateragarriak ez badira, BATA BESTEAREN ATZETIK bete
 - **BI MUGA (METAKETA JURIDIKOA)**
 - zigorrik astunena bider hiru baino gehiago ez
 - ETA edonola 20 URTE baino gehiago ez
 - -salbuespenak badaude (75 a, b art.)
- ❖ 78: benetako betetzea (baldintzapeko askatasuna indargabetzeko)

II. DELITU JARRAITUA (74 art.)

- ❖ Delitu-pilaketa erreal berezia
- ❖ Funtsa:
 - oro har: zigorra arintzea (astunena goiko erdian)
 - salbuespenez: ondare-delituetan, batzuetan, goiko graduako zigorra (delitu-masa)
- ❖ Ukanbehar orokorrak:
 - lotura orokorra: plana edo aukera berberaz baliatzea
 - jarduera batzuk (delitu / falta batzuk)
 - ondasun juridiko berbera edo antzekoen aurkakoak
 - subjektu pasibo bera edo batzuk
- ❖ Penaren zehaztapenerako bi erregimen: ondare-delituena eta gainontzekoena
 - ❖ Gainontzekoena (74.1)
 - Ondasun pertsonaletan ezin
 - salbuespena: sexu-askatasuna eta ohorea (74.3)
 - Zigorrik astunena goiko erdian
 - ❖ Ondare-delituetan (74.2)
 - arau orokorra: kaltea batu (goiko erdian EZ)
 - salbuespena: delitu-masa (goiko gradu bat edo bi handiagoko zigorra)

1.4.- OINARRIZKO BIBLIOGRAFIA

1.4.1. ZATI OROKORREKO DELITUAREN TEORIARI BURUZKOA

- MIR PUIG, S., *Derecho penal. Parte general*, Bartzelona, 2002.
- MUÑOZ CONDE, F./GARCIA ARAN, M., *Derecho penal. Parte general*, Valentzia, 2002.
- LANDA GOROSTIZA, J.-M., “1995.eko Kode Penal berriaren balorazio orokorra”, *ELERIA (Euskal Herriko Legelarien Aldizkaira)*, 1996, O zenbakia., 75-89 orr.
- LANDA GOROSTIZA, J.-M., “Unibertsitatearen zeregina legegintza euskaldunean: zuzenbide penaletik egindako hausnarketa” Eleaniztasuna eta teknika legegilea. Plurilingüismo y técnica legislativa, Eusko Legebiltzarra-Parlamento Vasco argitaratzailea, Vitoria-Gasteiz, 2001, 237-246; baita ere *ELERIA (Euskal Herriko Legelarien Aldizkaira)*, 2001, 8 zenbakia., 93-98 orr.
- LANDA GOROSTIZA, J.-M., “Adingabea zuzenbide penalaren aurrean: 5/2000 Lege Organikoarekiko hurbilketa kritikoa”, *ELERIA (Euskal Herriko Legelarien Aldizkaira)*, 2002, 9 zenbakia., 25-39 orr.
- BACIGALUPO, E., *Principios de Derecho penal español. Parte general*, Madril, 1998.
- BERDUGO GOMEZ DE LA TORRE, I., et alter, *Lecciones de Derecho penal. Parte general*, Bartzelona, 1999.
- BUSTOS RAMIREZ, J./HORMAZABAL MALAREE, H., *Lecciones de Derecho Penal I. Fundamentos del sistema penal, esquema de la Teoría del Delito y del sujeto responsable y teoría de la determinación de la pena*, Madril, 1997. *Lecciones de Derecho Penal II. Teoría del delito, teoría del sujeto responsable y circunstancias del delito*, Madril, 1999.
- CEREZO MIR, J.
 - *Curso de Derecho penal español. Parte general*, Tomo I eta II, Madril, 1997 eta 1998.
 - *Curso de Derecho penal español. Parte general. Lecciones 26-40*, Madril, 2000.
 - *Curso de Derecho penal español. Parte generalIII: Teoría Jurídica del delito/2*. Madril, 2001
- COBO DEL ROSAL, M. (zuzendaria), *Comentarios al Código penal*, Tomo I, II, III, IV, Madril, 1999-2000.
- COBO DEL ROSAL, M./VIVES ANTON, T.S., *Derecho penal. Parte general*, Valentzia, 1999.
- CUELO CONTRERAS, J., *El Derecho Penal español. Parte General*, Madril, 2002.
- GIMBERNAT, E. et alter, *Código penal*, Madril, 2003.
- LUZON PEÑA, D.M., *Curso de Derecho penal. Parte general*, Tomo I, 1996.
- LUZON PENA, D.M., *Enciclopedia Penal Básica*, Granada, 2002.
- MORILLAS CUEVA, L., *Curso de Derecho penal español. Parte general*, Madril, 1996.
- POLAINO NAVARRETE, M., *Derecho penal. Parte general*, Tomo II, Bartzelona, 2000.
- QUINTERO OLIVARES, G./MORALES PRATS, F./PRATS CANUT, J.M., *Manual de Derecho penal. Parte general*, Iruñea, 2002.

- QUINTERO, G., *et alter*, *Comentarios al nuevo Código penal*, Iruñea, 2001.
- RODRIGUEZ MOURULLO *et alter*, *Comentarios al Código penal*, Madril, 1997.
- VIVES ANTON, T.S., *et alter*, *Comentarios al Código penal de 1995*, Vol. I eta II, Valentzia, 1996.
- ZUGALDIA ESPINAR, J.M., *et alter*, *Derecho penal. Parte General*, Valentzia, 2002.

1.4.2. ZATI OROKORREKO SARRERARI BURUZKOA

- GARCIA-PABLOS, A., *Derecho penal. Introducción*, Madril, 2000.
- SILVA SANCHEZ, J.M., *Aproximación al Derecho penal contemporáneo*, Bartzelona, 1992.
- CARBONELL MATEU, J.C., *Derecho penal: concepto y principios constitucionales*, Valentzia, 1999.
- GARCIA-PABLOS, A., *Tratado de Criminología*, Valentzia, 1999.
- LANDROVE DIAZ, G., *Introducción al Derecho penal español*, Madril, 1996.
- LOPEZ BARJA DE QUIROGA, J., *Derecho penal. Parte general II (Introducción a la teoría jurídica del delito)*, Madril, 2002.
- POLAINO NAVARRETE, M., *Derecho Penal. Parte general I. Fundamentos científicos del Derecho penal*. Bartzelona, 1996.
- SERRANO MAILLO, A., *Ensayos sobre el Derecho penal como ciencia. Acerca de su construcción*, Madril, 1999.
- VIVES ANTON, T.S., *Fundamentos del sistema penal*, Valentzia, 1996.
- ZUGALDIA ESPINAR, J.M., *Fundamentos de Derecho penal. Parte general. Las teorías de la pena y de la ley penal*, Valentzia, 1993.

1.4.3. ONDORIO JURIDIKOEI BURUZKOA

- GRACIA MARTIN, L., *et alter*, *Lecciones de consecuencias jurídicas del delito*, Valentzia, 2000.
- TAMARIT SUMALLA, J.M., *et alter*, *Curso de Derecho penitenciario*, Bartzelona, 2001.
- BERDUGO GOMEZ DE LA TORRE, I., *et alter*, *Manual de Derecho penitenciario*, Madril, 2001.
- CERVELLÓ DONDERIS, V., *Derecho penitenciario*, Valentzia, 2001.
- LANDROVE DIAZ, G., *Las consecuencias jurídicas del delito*, Madril, 2002.
- LOPEZ BARJA DE QUIROGA, J., *Derecho penal. Parte general IV (Las consecuencias jurídicas del delito. El derecho penal de ejecución)*, Madril, 2002.

- MAPELLI CAFFARENA, B./TERRADILLOS BASOCO, J., *Las consecuencias jurídicas del delito*, Madril, 1996.
- MOLINA BLAZQUEZ, M.C., *La aplicación de la pena. Estudio práctico de las consecuencias jurídicas del delito*, Bartzelona, 2002.

1.4.4. KASU PRAKTIKOEI BURUZKOA

- ETXANO BASALDUA, J., *et alter*, *Derecho penal. Parte general (Materiales didácticos)*, Bilbo, 2000.
- SILVA SANCHEZ, J.M., *et alter*, *Casos de la jurisprudencia penal con comentarios doctrinales. Parte general*, Bartzelona, 1997.
- ALONSO PEREZ, F., *120 casos prácticos de derecho penal. (Planteados y resueltos)*, Madril, 2001.
- BACIGALUPO ZAPATER, E., *La técnica de resolución de casos penales*, Madril, 1995.
- COBO DEL ROSAL, M./QUINTANAR DIEZ, M., *Selección de casos prácticos de derecho penal. Con introducción y consejos para su resolución*, Valentzia, 2001.
- MAQUEDA ABREU, M. L./LAURENZO COPELLO, P., *Derecho penal en casos. Parte general*, Valentzia, 2000.
- MORILLAS CUEVA, L. *et alter*, *Casos prácticos de Derecho penal (Con jurisprudencia). Parte general*, Granada, 1998.
- PAZ RUBIO, J. M., *et alter*, *Código penal con casos prácticos*, Madril, 2001.
- ZUGALDIA ESPINAR, J.M., *et alter*, *El Derecho penal en casos. Parte general*, Valentzia, 1996.

2. ZATI BEREZIA

Zati orokorrarekin alderaturik Zati berezian helburua ez da delitu guztiek duten ezaugarri komunaren gaineko teoria orokorra –delituaren teoria juridikoa besteak beste– eratzea, baizik eta delitu bakoitzak edo delitu multzo jakin batzuek dituzten berezitasunak aztertu, sailkatu eta era sistematikoan aurkeztea. Abstrakzioa jo beharrean, oraingo honetan jarduera jakin bati dagokion tipifikazioa ezagutzen jakitea dugu helburu; hortaz, delituen arteko ezberdintasunak –eta ez alderdi komunak– kokatu behar dira erdigunean.

Zati orokorraren ondotik ikasi ohi den Zati bereziari ekiteko, arestian jorratu dugun egituraketa jarraituko dugu: alegia, lehenik eta behin *eskema praktikoak* izenekoan, gero biltzen diren kasuak behar bezala kalifikatzeko irtenbide-eredua aurkezten da. Bigarrenik *kasu praktikoak* biltzeki dator; berriro ere gehientsuenak epai garrantzitsuen eta mamitsuenetatik atera eta moldatutako kasuak dira. Alderdi praktikoaren ondoren, alderdi teorikoaren baitan, *eskema teorikoak* delakoan hain zuzen ere, ohiko egitarauaren zati garrantzitsuen ikasgaiak lantzen dira, Zati orokorrean bezalaxe, puntuz puntuko laburpen moduko tankerapean. Azkenik, oinarritzko *bibliografia* eranstean da.

Zati orokorrean baino nabarmenago Zati bereziaren inguruko materialok ez dute urrundik ere agortzen Zigor Kodeak eta lege bereziek tipifikatzen dituzten jarduera deliktiboen esparrua. Dena lantzea, argi dago, ezinezkoa da; izan ere, gaur egun indarrean dugun zuzenbide penalaren hedadura kontuan harturik, aukeraketa-lana ezinbestekoa dugu eta horrexegatik bai kasu praktikoak bai eskema teorikoak esanguratsuenak diren pertsonen aurkako eta ondare eta ordena sozioekonomikoaren aurkako delituetara murrizten dira, salbuespenak salbuespen.

2.1.- ESKEMA PRAKTIKOAK: KALIFIKAZIO- edo AKUSAZIO-IDAZKIA.

Akusazioaren printzipioak duen islarik argienetarikoa prozesu penal baten barruan aurrera eramane behar den akusazio formala dugu. Idazki horretan fiskaltzak, herri-akusazioak, akusazio partikularrak, edo akusazio pribatuak —hots, epailea ez denak— erruztatuari leporatzen zaizkion egitateen kalifikazio juridikoa eta dagokion zigorra eta ondorio juridikoak ezartzen ditu.

Aipatu akusazioa ahozko epaiketaren fasean gertatzen da, hain zuzen ere, epaiketaren prestamenerako aurreneko fasea (instrukzioa edo, zehatzago: atariko prozedura) bukatu ondoren, beti ere largespena ez badago edo prozesuaren auresuposamendu materialen bat falta ez bada. Hortaz, egitate zigorgarriaren aztarnak eta pertsona egotzia badira, prozesuak aurrera jarraitzen du, ahozko epaiketa hasteko akusazioari ekiten zaiolarik.

Horretarako idazki bat aurkezten da izen ezberdinak dituen prozesu-mota nagusien arabera: **behin-behineko kalifikazio idazkia** (delitu astunak direnean) prozesu arruntaren kasuan eta **akusazio-idazkia** prozesu laburtuarenean. Une horretatik aurrera organo jurisdikzionalak zehaztasunez ezagutzen du zein iritzi duen akusatzaileak egitate zigorgarriei buruz, horiei ezarri beharreko ondorio juridikoen (penalen zein, daudenean, zibilen) zertzeladei buruz eta egilearen identitateari buruz ere. Erruztatua, dagoeneko akusaziopean (akusatua), defentsari ekiteko moduan dago defentsa-gaia zehatz-mehatz definitu den neurrian.

Akusazioaren bitartez akusatzaileak organo jurisdikzionalari eskatzen dio egin diren egitate batzuegatik pertsona jakin bati (edo batzuei) zigorra (edo dagokien ondorio juridikoa) ezartzeko. Eskaera bi une ezberdinetan gauzatzen da: **behin-behineko** kalifikazio- edo akusazio-idazkian eta **behin betikoan**. Lehenengoa –behin-behinekoa– ahozko epaiketa baino lehen gertatzen da, hain zuzen ere oraindik frogafaseari ekin ez zaiolarik. Oraindik frogatu ez diren egitateen gaineko behin-behineko kalifikazioa aurkezten da horien oinarrian dauden egitateak frogatuko direlakoan. Froga-fasea pasatu ondoren kalifikazioak behin betiko bihurtzeko aukera egongo da.

Esparru akademikoan prozesua erabat berregiterik ez dagoenez kasu praktikoetan deskribatzen diren egitateak frogatutzat joko dira eta, hortaz, behin-behineko edo behin-betiko akusazioa izateak ez du horrenbesteko garrantzirik. Izan ere, Zati orokorreko oinarriei jabeturik Zati berezia ikasten hasi den

ikaslearentzat funtsezkoa kalifikazioak taxuz egitea da. Horregatik liburu honen Zati orokorreko eskemen aldean, Zati bereziko eskema praktikoak, bakarrak, kalifikazio-idazkia du ardatz, ondoko honen arabera.

KALIFIKAZIO- edo AKUSAZIO-IDAIZKIAren ESKEMA PRAKTIKOA

- **LEHENENGOA: (EGITATEEN DESKRIBAPENA —EZ JURIDIKOA—)**
- **BIGARRENA: (EGITATEEN TIPIFIKAZIOA)**
- **HIRUGARRENA: (EGILETZA ETA PARTAIDETZA)**
- **LAUGARRENA: (INGURUABAR ALDARAZLEAK ZEIN SALBUESLEAK)**
- **BOSGARRENA: (ZIGORRA ETA BESTE ONDORIO JURIDIKOAK)**

- KALIFIKAZIO JURIDIKOAREN OINARRIA

1. LEHENENGOA: (EGITATEEN DESKRIBAPENA —EZ JURIDIKOA—)

Lehenengo puntu honetan frogatutzat jotzen diren egitateak deskribatu beharko dira, deskribaketan, ordea, kalifikazio juridikoa saihestu behar da.

Hau da, akusazioak eta defentsak egiten duen deskribaketa faktikoa, geroko kalifikazio juridikoa nola edo hala aurreratu behar duena.

Delitu bakoitzari deskribapen bat dagokio, delituen arteko ezberdintasuna formalki nabarmentzeko.

Adibidez:

- A) (lehenengo delituari dagozkion egitateak)
- B) (bigarren delituari dagozkionak)
- C) (eta abar)

2. BIGARRENA: (EGITATEEN TIPIFIKAZIOA)

Egitateen kalifikazio juridikoa egin behar da (tipifikazioa), beti ere dagokion delituaren artikulua zenbakia(k) azaldu behar delarik.

Hemen ere, idazki osoan zehar bezala, delituen arteko ezberdintze formalari eutsi beharko zaio (A, B, C...)

Adibidez:

- A) Puntu honetara bildutako egitateek lapurreta delitua osatzen dute, indarkeriaz egindakoa (242.1./ 237 art.)
- B) Puntu honetara bildutako egitateek giza hilketa osatzen dute (138 art.)

3. HIRUGARRENA: (EGILETZA ETA PARTAIDETZA)

Honetan akusatuak duen egiletza- edo partaidetza-gradua argitu beharko da, egile edo partaide bakoitzari zehatz-mehatz zein egitate eta delitu leporatzen zaizkion eta zein neurritan ere, azalduaz.

Adibidez:

- A) Delitu honen egilea Iñaki dugu (28 art.), Peio ezinbesteko laguntzailea (28 b art.) eta Ana sopikuna (29 art.).
- B) Delitu honen egilekideak (28 art.) Iñaki, Peio eta Esteban dira.

4. LAUGARRENA: (INGURUABAR ALDARAZLEAK eta SALBUESLEAK)

Hona bilduko dira delitu bakoitzaren inguruabar aldarazleak (aringarriak, astungarriak eta mistoa: 21, 22, 23 art.), egonez gero, eta salbuesleak ere (bidezkotze-kausak, erruduntasuna baztertzen dutenak: 19 eta 20 art.).

Adibidez:

- A) Delitu honetan ez dago inguruabar aldarazlerik.
- B) Delitu honi dagokionez Iñaki birjauslea da (22.8 art.) eta Peio adingabea (19 art.). Mikelek buru-nahaste iragankor osoaren pean jardun zuen (20.1 art.)

5. BOSGARRENA: (ZIGORRA ETA BESTE ONDORIO JURIDIKOAK)

Zigorra (nagusia zein, dagoenean, erantsiak) edo bestelako ondorio juridiko penala (esaterako, segurtasun-neurria, ondorio erantsia, konfiskazioa) eta, dagoenean, erantzukizun zibila ere, ezarri beharko dira.

Zigorra **erabat zehazturik** azaldu beharko da, beti bezala, artikuluen zenbakiak alboan nabarmenduz.

Adibidez:

A) Lapurreta delituarengatik, berrerortze astungarriarekin, 3 urte eta 7 hilabeteko espetxealdi-zigorra, (237, 242.1, 66.3) Iñakirentzat...

KALIFIKAZIO JURIDIKOAREN OINARRIA

Bosgarren puntua jaso ondoren, KALIFIKAZIO JURIDIKOAREN OINARRIA/ZERGATIA adierazi beharko da, bakar-bakarrik arazotsuenak diren alderdi juridikoen nondik norakoak, argituz, bai dotrinaren bai egungo jurisprudentziaren argudioen laguntzarekin.

Ikuspegi formaletik, alderdi arazotsu bakoitzari zenbaki bat esleituko zaio (1, 2, 3, ...) arazo nagusien tratamendu juridikoaren estrategia ahalik eta arinen eta argien identifikatzeko, eta gero (klaseko) ahozko eztabaida errazteari begira.

Orain arte emandako adibideen ildotik, honako puntuok bereziki argudiatu beharrekoak izango ziren:

1. Indarkeriaz egindako lapurreta delitua izateko arrazoiak (*indarkeriaren kontzeptua*) 2. Zergatik da giza hilketa?; 3. Zergatik da birjauslea?; 4. Zergatik dira egilekideak?; 5. Zergatik da ezinbesteko laguntzailea?; 6. Zergatik da laguntzaile hutsa?; 6. Zergatik da buru-nahaste iragankorra eta gainera osoa? Eta abar.

KALIFIKAZIO JURIDIKO ALTERNATIBOA

Egitate berberen aurrean ez da mugatu beharrik kalifikazio juridiko bakarra egitera, areago, batzuetan, komenigarria izan daiteke kalifikazio juridiko ezberdin batzuk –alternatiboak– prestatzea, kalifikazioaren bat geroago onargarria izan ezean edo desegokia suertatuz gero beste bati ekin ahal izateko. Hortaz, aipatu bost puntutan, eta oinarri juridikoan, beti alternatiba batzuk aurkeztu ahal izango dira.

2.2.- GAIEN ARABERAKO KASU PRAKTIKOAK

Zati orokorrari zegokion kasu-bildumaren testuinguruan genioen bezala, hemen ere hainbat egitate deliktiboren adibideak eskaintzen ditugu kalifikazio juridiko-penalaren trebakuntza-gai izan daitezen. Berritoki ere, oraingo honetan, epailetatik ateratako kasuak ditugu gehienak, aldaketa gutxi batzuekin itzuli eta moldatutakoak¹⁹.

Gaiaren aldetiko mugak, ordea, are nabarmenagoak dira: Zati orokorreko alderdi guztien kasu praktikoak ez zeuden moduan, hemen ere, Zati Berezian, delitu multzo batzuei –ez guztiei– buruzkoak izango dira. Ikuspegi honetatik lehentasuna eman zaie honako bi delitu multzoei: pertsonen aurkako delituen multzoari eta ondare-delituen multzoari. Horrela (**ik. 2.2.1.-2.2.9.**) giza hilketa, erailketa, buruaz beste egiteko indukzioa eta laguntza, abortua, lesioak, askatasunaren aurkako delituak eta sexu-askatasuna edota sexu-ukigabetasunaren aurkako delituak, bai ondare-delituak, eta baita sorospen-eginbeharra ez betetzea ere, lantzen dira. Beti ere, xedetzat eduki dugu ikuspegi praktikotik garrantzitsuen eta oinarritzkoen diren azterkizun juridiko-penal batzuk sakontzea.

Pertsonen aurkako delituen eta ondare-delituen ondotik, gizartearen eta Estatuaren aurkako delituen arteko gutxi batzuk aurkeztu dira (**ik. 2.2.10.-2.2.13.**). Lehenik, ingurumenaren babesari buruzko delituak erabiltzen dira, arrisku-delituen joko juridikorako sarrera gisa, eta, horiekin batera funtzionarioen prebarikazio bereziak ikusteko aukera izango da. Horiek bidea zabaltzen diete gero datozen droga-trafikoari eta trafiko-segurtasunari buruzko delituei. Arrisku-delituetan sartzen diren horiek ikuspegi praktikotik ikaragarritzko garrantzia dute. Azkenik, prebarikazioa ikusirik, funtzionarioen delituen artean garrantzitsuenetarikoa den eroskeria delituaren inguruko kasua ere badugu.

2.2.1. GIZA HILKETA ETA ERAILKETA

I

1996ko ekainaren 19an, goiz-goizean, Alejandra, bere senarra zen Antoniorekin ohean zegoen. Haien ondoan, sehaska batean lotan, haien alaba Carmen zegoen, zazpi hilabeteko haur txikia, Antoniok batere gustukoa ez zuena.

Aipatu eguneko goizeko laurak aldean, nekazaritzan ziharduenez gero ohikoa zuen moduan, Antonio altxatu eta sukaldara abiatu zen. Handik gutxira, ura eta zehaztu ezin izan den likido oso-oso toxikoa, gardena ez zena, edalontzi batean nahastu ondoren, edalontziarekin logelara itzuli zen eta alaba esnarazi ondoren, edanarazi zion.

Alejandra, senarrak alabari emandako uraren usain bereziaz oharturik, galdetu zion zer egin zuen. Galdera beldurrez egin zion, senarra oso izaera zaila eta bortitzekoa zen-eta. Antoniok, orduan, erantzun gisa zera esan zion: “Déjala que reviente” eta esatearekin batera etxetik irten zen.

Gertatutakoaz jabetu arren, dena ikusia zuelako, Alejandrak ohean jarraitu zuen alabaren egoeraz inolaz ere arduratu gabe, harik eta goizeko bederatzi eta erdiak aldera, ordurako Carmenek bi aldiz botaka jardun ondoren, medikuari deitu zion arte. Artean alabaren egoeraz biziki kezkatutik zegoen eta, beste alde batetik, egindakoagatik barneak ausikitzen zuen.

Sendagilea etxebizitzara eguerdiko ordu batean azaldu zen, larrialdia zela jakin bazekien ere. Gertatutako guztiaren berri eman zion Alejandrak, alegia, senarrak emandako likidoarena eta harrezkero haurra botaka aritu izanarena ere. Medikuek, ordea, guztiaren jakitun egon arren eta gastroenteritis izateko sintomak agerikoak baziren ere, alde egin zuen, dietan edukitzeko aginduz. Zehatz-mehatz, medikuak esan zuen Carmenek ura edo kamamila azukrez besterik edan ez zezala, hurrengo egunean berriro ere bisitan etorriko zela gaineratuz.

¹⁹ Zati bereziko kasu praktikoen aukeraketa-lanean bereziki kontuan hartu dugu **CORCOY BIDASOLO, Mirentxu (zuzendaria), Sistema de casos prácticos. Derecho penal. Parte especial, Valentzia, 1999.**

Alabak txarrera jo zuen eta egoera gero eta larriagoa zenez gero, medikuari behin eta berriro abisua eman zion. Sendagilea, ordea, ez zen azaldu. Carmen, hurrengo egunean, 1996ko ekainaren 20an, gaueko bederatzieta hil zen.

II

1998ko abenduaren 24an, Jesus Angel eta Consuelo, ezkontutako bikotea, euren alabekin, Carmen eta Elenarekin, emaztearen gurasoen etxean aurkitzen ziren, Gabonak ospatzeko asmoz. Jesus Angel duela gutxi magistratu izendatua izanik eta horrek ekarri beharko zuen familiaren egoitzaren aldaketa zela kausa, afariaren erdian bi ezkontideen arteko eztabaida sutsua piztu zen. Jesus Angelek jarrera oso-oso bortitza erakutsi zuen, izugarria; unerik beroenetan emaztearengandik bananduko zela aldarrikatzen zuen, bera bere etxean kontuan hartzen ez omen zutelako eta zor zitzaion begirunea falta ei zuelako.

Haren emaztea, amaginarreba eta aitaginarreba Jesus Angel lasaitzen ahalegindu ziren, zein egun eta jai berezia zen oroitaraziz, eta horren tamainako haserrea neurrigabekoa eta zeharo desegokia zela azpimarratuz. Consuelok alabekin pixka bat dantzatzeari ekin zion, giroa hobetzeko asmoz eta liskarra bukatutzat jo nahian, baina horrek are gehiago sutu zuen senarra, eta horren ondorioz Jesus Angelek bere gurasoen etxera joango zela agindu zuen, etxe hori data haietan hutsik bazegoen ere. Etxeko ateraino jarraitu zioten ezkontideek eta beraren gurasoek, kafetxo bat hartzeko proposamena eginez, senarra bere onera etor zedin. Baina senarra etxetik irten zen eta une hartan, kaleko atea ixten ari zela, Consuelok, presio psikologiko ikaragarriaren mende egonik, bere gurasoei zera esan zien: “Utz ezazue behingoz urdanga batekin joan dadila”. Atera berri zen Jesus Angelek, entzundakoa entzun bezain pronto, itzuli eta atea jo zuen. Consuelok orduan atea zabaltu zion; senarra, oso haserreturik, berriro ere etxera sartu zen, eta bere emazteari lepoaren ezkerreko aldean eskuineko eskuaz kolpe bat eman zion. Consuelo orduan bueltatu zen bere amarengana; honek etengabe oihukatzen zuen: “Gehiegi da; ez dizut hori inolaz ere onartuko”. Consuelok, amarengana zihoala, aldi berean ere oihuka ziharduen: “Ene ama senetik aterata dago; zerbait gerta dakioke”. Oihuen artean, bat-batean, Consuelok kontzientzia galdu zuen eta lurrera erori ere. Orduan Jesus Angel, segundo bat ere galdu barik, hurbildu zitzaion eta ahoz ahoko arnas hartzearena aplikatu zion, eta bihotzean masaje bat eman zion, lipotimia moduko zerbait gertatu zelakoan. Baina kontzientzia berreskuratzen ez zuenez gero, aitaginarreba medikuaren bila atera zen. Sendagilea heldu zenerako, ordea, ez zegoen zer eginik eta bizkortzeko ariketak egin bazizkion ere, hilik zegoela baieztatu besterik ez zuen egin.

Autopsiaren arabera, heriotza gertatu zen lepoaren ezkerreko alderdian emandako kolpeagatik, izan ere, alderdi erreflexugilea da, sinu karotida barnebiltzen duena hain zuzen ere. Kolpearen ondorioz, hortaz, bihotzekoa eragin zen, egitateen uneko tentsioak lagunduta.

2.2.2. BURUAZ BESTE EGITEKO INDUKZIOA ETA LAGUNTZA

Axelek hemeretzi urteko Luisari sinestarazi zion bera Sirio izarrekoa zela eta hori zela-eta hura lagundu ahal izango zuela beste bizi berri eta hobeago bat lortzen baldin eta emakumea bere gorputz zaharretik banantzen baldin baten. Horretarako bainuontzi batean sartu eta konektatutako lehorgailua erortzen uztea besterik ez zuen egin behar. Ginebrako lakuaren ondoko gune gorri jakin batean gorputz berri bat itxoiten izango zuen eta horren barruan esnatuko zen istripuaren ondoriozko heriotza, itxurazkoa, gertatu bezain laster. Edonola ere, bizitza berrian diruaren premia izango zuenez gero, istripuz eragindako heriotzaren kasuetarako bizi-asegurua kontratatuturik izan beharko zuela aholkatu zion, 50 milioikoa, Axel onuradun izendatuz. Berak kobratu ondoren Ginebrara eramango zion dirua.

Emakumeak dena sinistu zuen eta esandakoa bete ere. Hortaz lehorgailua uretara erortzen utzi zuen bere gorputz berriaren barruan arin baino arinago esnatzeko asmoz. Burutik ez zitzaion pasatu ere egin buruaz beste egin nahi izateko ideia, bederen jatorrizko zentzuan, bere bizitza behin betiko bukatzea nahi ez zuelako. Are gehiago, Luisak buruaz beste egitea oro har arbuatzen zuen, gizakiak erabaki hori hartzeko eskubiderik ez duelakoan.

Akusatuak prestatutako planak, ordea, porrot egin zuen, lehorgailuak behar bezala funtzionatzen ez zuelako. Axelek Luisaren etxera deitu zuenean zur eta lur gelditu zen hura oraindik bizirik zegoela baieztatu ahal izan zuenean. Telefonoz deika jardun zuen, hamar aldiz gutxi gora behera, Luisari zehaztasunak emanez hark bere

buruaz beste egin zezan, harik eta ezinezkotzat jo zuen arte. Frogatutzat ere jotzen da, biktimak ez zuela inongo aldakuntza psikikorik jasaten.

2.2.3. ABORTUA

1997ko apirilean, zehaztugabeko egun batean, Antoniak, prozesatuak, hilekoaren bigarren faltaz jabetu zenean, haurdun zegoelako susmo sendoa hartu zuen. Antoniak, ogibidez etxeko lanari ekiten ziola, bi seme-alaba zituen, 2 urteko bat eta 11 hilabetekoa bestea, eta Eibarren bizi zen hango auzo bateko etxebizitza baten gelan alokatutik bere familiarekin batera. Antoniak zituen ikasketak lehenengo hezkuntza mailakoak ziren eta oso egoera ekonomiko larrian aurkitzen zenez gero, une hartan haurdun egotea gerta lekiokkeen gaitzik handientzat jotzen zuen. Hortaz, Julia izeneko bere auzokide batengana jo zuen, azken honek Antoniari baginako garbiketak egin ziezazkion. Egindako manipulazioen truke Juliak ez zion sosik ere kobratu.

Hirurogeita sei urteko Julia, alarguna eta jubilatua, berrogeita hamar urte bete zituen arte ospitaleko laguntzaile gisa aritua zen. Baina harrezkero bronkioetako min kronikoa zuela-eta lanerako ezintasuna eman zioten.

1997ko maiatzean, Anunciacion, prozesatua, Juliarengana zuzendu zen, era berean manipulazioak egin ziezazkion. Hogeita bederatzi urtekoa, eta ezkondu gabea zen Anunciacionek hiru urteko semea zuen. Beste aldetik HIESAren eramalea izanik, bi urte lehenago xiringa hipodermikoa ohikotasunez erabili izanagatik egitateen aldian, drogamenpekotasuna gainditua zuela eta errahabilitaturik zegoela baieztatu daiteke. Anunciacionek Juliarengana jo aurretik, haurdun izatearen analisiaren emaitza baieztatzeko berri izan zuen; haurdunaldiaren hirugarren hilabetearen zegoela egiaztatzen zuena hain zuzen ere. Hori jakitean ikaragarri beldurtu zen Anunciacion, batetik fetua kutsaturik suerta zitekeelako eta, beste aldetik, bere osasuna ere arriskuan ikusten zuelako. Horri gehitu behar zaio Anunciacion ez dela batere egonkorra sentimenduen alorrari dagokionez. Eskaearen ondorioz, Juliak manipulazioak aurrera eramane zituen.

Maiatzean bertan, Joxe, ezkondua eta lanbidez erdi mailako enpresa-burua, diru arazorik gabea, Juliarengana zuzendu zen; izan ere Maria, Joxeren neska-laguna, bi hilabeteko haurdunaldian aurkitzen baitzen. Joxek Juliaren esku-hartzea nahi zuen, Juliak onartu zuena 130.000 pezetaren truke. Joxek, aurrerapen gisa, 50.000 pezeta eman zizkion, hurrengo egunean abortua aurrera eramango zuela hitzartuz. Maria, ordea, ez zen emaginarengana joan, ezarritako egunean odol-galerak jasan zituelako eta, Ginekologoak esan zion moduan, berezko abortua gertatu zelako.

Frogatutzat jo daiteke lehenengo bi emakumeen haurdunaldia eten egin zela, Juliak egindako manipulazioen ondorioz.

2.2.4. LESIOAK

I

Albertok, bere automobila gidatzen ari zela, Peioren autoaren aurka talka txiki bat izan zuen. Alberto beribiletik atera bezain laster Peiori errua leporatu zion, eta bien arteko eztabaida piztu zen. Eztabaidaren une jakin batean Albertok, zeharo haserreturik, eskuan zuen autodefentsarako spray bat Peioren aurpegira zuzendu eta botoia sakatu zuen. Jariakin kimikoaren ondorioz begietako kerioconjuntibitisa eragin zion Peiori, 8 egunean sendatu zena, eta lehenengo 5 egunetan lan egitea galarazi ziona. Medikuek agindutakoari jarraituz, botika analgesikoak eta hanturaren aurkakoak hartu behar izan zituen aipatu zortzi egunetan.

II

Peiori, bere etxebizitzatik alde egin ondoren, hiru akusatuek jipoi ederra eman zioten, Telefonika-kablezko makila bat, 60 cm-koa, kobrez eta zinta isolatzailez forratutakoa, baliatuz. Aldi berean ostikoka eta ukabilkadaka jardun zuten harik eta lurrera erori arte, eta baita geroago ere. Lesioek lehenengo medikuntza-sendabidea besterik ez zuten behar izan eta 22 egunen buruan sendatu ziren. Lesioek burmuineko eremuan, batez ere, eragina izan zuten eta hauek izan ziren zehatz-mehatz ondorioak: eskuineko kontusio orbitarioa hematomarekin, eskuineko hankako kontusioa hematomarekin, atzeko aldean, lepo aurreko aldean harramaskada linealak, aurpegian, hezur-haustura itxia, eta ahoan, konplikaziorik gabeko barne-zauriak.

Sekuela gisa sudur-trenkadaren desbideraketa geratu zaio Peiori, sudur-hobien aireztapena galarazten ez duena eta zuzentzeko modukoa dena esku-hartze kirurgiko txiki baten bitartez (ezinbestekoa ez dena).

III

A) Rosa, 23 urteko emakume italiarra, 27 urteko Alessio bere mutil lagunarekin ohikotasunez eta babesik gabe oheratzen da, Alessio HIESduna dela jakin arren, maiteminduta dagoelako eta heriotza bidean bakarrik utzi nahi ez duelako. Kutsatzeko nahikoa suertatu ez zenez gero, Alessiok zauri txiki bat jasan zuen eguna aprobetxatuz, zerion odola xurgatu zuen Rosak xiringa batez eta, jarraian, bere buruari xiringatu zion. Egun batzuen buruan HIESduna zela baieztatu zen.

B) Kasu berbera, baina oheratzearen ondorioz besterik gabe kutsatzen da.

2.2.5. ASKATASUNAREN AURKAKO DELITUAK

I

1999ko azaroaren 29an, Iñaki, 19 urteko gazte bat, Bilboko auzo batetik zihoan Estibalizi hurbildu zitzaion era bortitz eta zakarrear, arratsaldeko 8ak inguru zirenean. Estibaliz Iñakiren neska-lagun ohia zen eta biek elkarrekin bi seme-alaba dituzte. Egitateen unean Estibaliz beste gizon batekin kalean zegoen, etxerako bidean, eta Iñakik seme-alabak ikusteko galdatzen zuen modua ikusirik eta Iñaki eta berarekin zegoen gizonaren arteko borroka bat saihesteko asmoz, Iñakiren ibilgailuan sartzeko eskaintza onartu zuen emakumeak.

Automobilak egin zuen bidean zehar Iñakik biraoka ziharduen etengabe Estibalizen aurka, aldi berean hiltzeko mehatxuak eta eraso fisikoak, gorputzaren atal eta toki askoren kontrakoak, zuzentzen zizkion bitartean.

Iñakik Estibaliz ia gau osoan zehar, 8 ordu, autoaren barruan egotera behartu zuen kolpatzeari utzi barik aske utzi zuen arte.

Hurrengo egunean, emakumea gertatutakoa salatzeri joan zenean, eraso fisikoak duela hiru hilabete hasitakoak zirela gaineratu zuen. Egun hartan bertan Ertzaintzak Iñaki atxilotu zuen Estibalizen etxearen ondoan zebilela.

II

Antoniok, Jaimek eta Juliok, haiekin zorrak zituen pertsona baten emaztea giltzapeturik eduki zuten dirua kobratzeko asmoz. Emakumeak senarraren bulegoan bertan goizeko 11etatik arratsaldeko 5ak arte egon behar izan zuen handik atera ezinik aipatu akusatuek bulegoa giltzaz itxia zutelako. Halaz eta guztiz ere, emakumeak telefonoz hitz egin ahal izan zuen nahi izan zuen adina, eta baita bisitak hartu ere. Zorrak kobratzea lortu zuten egun horretan bertan.

2.2.6. SEXU-ASKATASUNAREN ETA SEXU-UKIGABETASUNAREN AURKAKO DELITUAK

I

Miguel R. 1996ko azaroaren 13an gaueko 20:00ak aldera beste gizon batekin –eta ziurrenik hirugarren batekin ere– kotxez zihoan, 14 urteko Desiré eta 15 urteko Miriam eta Antonia ikusi zituenean, auto-stop egiten, herritik kanpo zegoen diskoteka batera joateko asmoz. Kotxea gelditu, neskak jaso eta gidatzeari ekin zion berriro ere Miguelek, baina diskotekara joan beharrean, auzoko bide bakartietatik abiatu zen. Neskak egoeraz jabeturik oihuka hasi baziren ere, gidariaren alboan zegoen gizonak isilarazi zituen kolpeka. Bidaiaren amaiera, Miguelek, akusatua, ezagutzen zuen etxe abandonatu handi bat zen, landa batean isolaturik zegoena. Guztiak etxe barrura sartu ziren eta Miguelek Antonia heltzen zuen bitartean, beste gizon batek makilaz jo zituen bai Miriam bai Antonia, kotxean oihuka egin zutelako. Gero, gela handiaren erdian kokatuta zegoen zutabeari lotu zituen. Orduan, akusatua ez den gizonak, baina akusatuaurrean, Antoniari, bere borondatearen aurka, biluztu eta baginatik eta uzkitik zakila sartu zion, eta, azkenik, uzkitik

makila bat sartu ere. Hori guztia gertatu bezain laster, Antonia jantzi eta zutabeari lotu zuen. Gero Desiré askatu eta Migueli eskaini zioten baginatik zakila sartzeko eta neskak, argi eta garbi, ezetz oihukatzen zuen arren, Miguelek ekin egin zion. Bukatu ondoren, biktimari hanketatik heldu zion beste batek sarketa bai baginatik bai uzkitik egin zezan eta azkenik, makila bat uzkitik sar ziezaion. Egindakoa egin ondoren, berriro ere jantzi eta zutabeari lotu eta gero, Miguelek eta beste gizon batek kotxea hartu zuten eta afaltzeko janari eta edariaren bila joan ziren. Jan ondoren Miriamen txanda izan zen eta aurrenekoek jasandako jarduera berberetatik pasarazi zuten. Erasotzaileek, orduan, lo egitea erabaki zuten baina neskak negar eta zotinka zihardutela-eta, makilaz jo zituzten isil zitezen eta pistola bat erakutsiaz mehatxatu zituzten.

Hurrengo egunean, neskak hiltzeko akordioa aurrera eramateko asmoz, etxearen alboan zegoen hobi bat sakontzeari ekin zioten. Neskak, bizirik oraindik, hobira eraman zituzten eta une horretan bertan, Miguel etxera bueltatu zenean, neskak estaltzeko moketa handi baten bila, Desiréri titiburu bat eta titi inguruko aureola, aliketak erabiliz, erauntsi zizkieten. Dagoeneko Miguel present zegoela, baina parte hartu gabe, biktimak hilko zituztela oharturik oihuka eta laguntza eske ari ziren bitartean, bai harriz bai makilaz kolpatu egin zituzten etengabe. Horrezaz gain, hil aurretik, Desiréri bizkarrean bi ganibetakada eman zizkion akusatua ez den batek. Bukatzeko, hiru neskak hobiaren barruan zirela, Miguel ez den batek, Miguelek dena ikusi arren eta ekiditeko ezer egin barik, buruaren kontrako tiroak bota zizkien eta unean bertan hilik gertatu ziren hiru neskak.

II

A-k behin baino gehiagotan bere 14 urteko alabaren aurkako sexu-erasoak aurrera eraman zituen: hilabete batean, bi egun ezberdinetan, oheratzen ahalegindu zen, batean baginatik sarketa lortu arren, eiakulazioa kanpoan suertatu zelarik eta bestean, nahiz eta sarketa egiten saiatu, alabak saihestu ahal izan zuen. Beste hiru alditan, hiru egun ezberdinetan, gorputzaren leku guztietatik ukitzeari ekin zion, batzuetan jantzien kanpoko aldetik, beste batzuetan barruko aldetik. Halakoak gertatu ziren guztietan horien berri eman zion alabak bere amari, A-rekin batera –ezkonduta egonik– bizi zena. Alabak horren bitartez aitak halakoak egiteari uztea lortu nahi zuen, baina amak ez zuen deus ere egin aipatutako jarduerak gerta ez zitezen.

III

Lupiciniok, akusatuak, bazekien M^a Angeles oligofrenikoa zela, oligofrenia arinekoa baina astundua hain zuzen alkoholarekiko zuen menpekotasunagatik. Egitateen egunean autobusetik jaitsi bezain laster, autobusen geltokitik hurbil zegoen leku bakarti baterantz abiatu zen Lupicinio M^a Angelesekin. Bertan akusatuak M^a Angelesi prakak jaitsi zizkion, bere prakak erantsi zituen, eta biktimaren gainean etzan zen. Biak ikusi zituzten pertsona batzuen abisuari esker, M^a Angelesen ahizpa arineketan joan zen haiengana baina leku hartara heldu zenerako, bai Lupicinio bai biktima prakak jatzten ari ziren.

2.2.7. SOROSPEN-EGINBEHARRA EZ BETETZEA

I

1995eko urriaren 20an, gaueko hamarrak eta laurdenean, Iñaki M., adin nagusikoa eta zigor-aurrekaririk gabekoa, Ebro markako kamioia gidatzen ari zen. Kamioia, B. 9089 BL matrikuladuna, ez zen berea, Antonio F.rena baizik, baina azken honen adostasunarekin eta nahitaezko aseguruarekin erabiltzen ari zen. Iñaki Sabadellerantz doan den BV 1248 errepidetik zihoan ikusmen oneko zati zuzen batetik, 60/70 Km orduko lastertasunaz, gurutzatzeko argiak piztuta. Aurkako norantzakotik zetorren beste ibilgailu bat pasatu bezain laster, aurretik 5 m-tara Guzzi markako ziklomotorra zeukala ohartu zen. Ziklomotorra lastertasun txikiaz zihoan kamioiaren norantzako berean eta ez zuen atzeko argirik. Iñakik aurreratzeak erabakia hartu zuen eta ezkerretik aurrea hartzen ari zela, buruan kolpatu zuen Mercedes U. 16 urtekoa, ziklomotorrean atzeko bidaiari zihoana, eta, gorputzean, berriz, Luis R. gidaria. Talkaren ondorioz ziklomotorra lurrera erori eta Mercedes, unean bertan hilik gertatu zen eta Luisek lesioak jasan zituen, sendatzeko 480 egun behar izan zituztenak. Beste alde batetik, Luisi ezkerreko besoa mugiezin gelditu zitzaion betiko, sendatzeko aukerarik gabe. Ziklomotorrean eragindako kalteen balioa 5.000 pesetakoa izan zen. Ez da behar bezala baieztatuta geratu Iñaki edari alkoholadunen eraginpean gidatzen ari zenik.

Iñakik aitortu zuen aurrera jarraitu zuela, kamioiaren atzeko aldean kolpe txiki bat nabaritu arren. Izan ere atzerako ispilutik ikusi ahal izan baitzuen biak nola erortzen ziren baina aldi berean mugitzen bide zirela. Minutu gutxiren buruan Mercedes eta Luis hurbilen zegoen erietxera eraman zituzten, kamioiaren atzetik, 500 m-tara, zihoan ibilgailuaren gidariak, Federicok, emandako abisuari esker.

II

Kasu berbera, baina inork ez du abisurik ematen eta hurrengo egunean Mercedes eta Luisen gorpuak, biak hilik, aurkitzen ditu poliziak.

2.2.8. FAMILIA-HARREMANEN AURKAKO DELITUAK

I

1998ko maiatzaren 9an, Margarita, arratsaldeko 5:30ak aldera, Tolosa etorbidearen espaloiairen gainean eserita zegoen, eskean. Bere ondoan kartoizko kaxa bat zeukan, 125 pezeta, txanponetan, zituela. Dirua lortzeko eta errukia pizteko asmoz, bere 20 hilabeteko alaba, Sonia izenekoa, erabiltzen zuen, ibiltariak dirua eman zezaten.

II

Emakume batek bere semea beste pertsona baten eskuetan uzteko erabakia hartu zuen pertsona horrek haren umearen ardura izan zezan. Emakumeak, horretarako, hitzeman zion semearen behar guztientzako adinako dirua emango ziola. Semea eman bezain laster, ordea, alde egin zuen aztarnarik utzi gabe. Egun batzuen buruan emakumea aurkitu zuten, prostituzioan jarduten zen club batean.

III

Akusatuak, banaketa-itunaren arabera bisita bat pasatu ondoren, ez zuen bere semea itzuli, horren zaintza amari emandakoa bazen ere. Amaren ekimenez familia-epaitegiak egindako errekerimendu formalari ere ez zion jaramonik egin. Gertaera hauek baino lehenago beste betetze eza egindakoa zen akusatua.

IV

Alejandrok eta Anak banaketa-ituna egin eta lehen instantziako 3. epaitegiak, epai irmoz onartu zuen 1994ko otsailaren 7an. Horren arabera Alejandrok bere andre izandakoari hileroko 60.000 pezeta ordaindu behar zion, ezkontzaren zamari eta elkarrekin zuten alabaren elikadurari aurre egiteko. Alejandrok, ordea, 1994ko urtariletik 1995eko abuztua arteko kopuruak ez zituen ordaindu. Emakumeak ez zuen inolaz ere onartu 1994ko azarotik aurrera Alejandrok ez ordaindutakoa konpentsatzea elkarrekin izandako etxebizitza baten salmentari esker lortu zuen diruaz.

V

Haurdun zegoen emakumeak beste pertsona batzuekin adostu zuen haiei semea ematea, eta erditzea gertatu zenean, aipatu pertsonak semeaz arduratu ziren. Haurdunak hospitalekoei agindu zion identifikazio kontuak erditze-txostenetik ezabatzeko eta bere familikoei erditzean haurra hilik suertatu zela esan zien.

2.2.9. ONDAREAREN AURKAKO DELITUAK

I

Kaltetuak etxebizitza erosi zuen, sukaldea altzariz beteta emango ziotelakoan eta bi igerileku ere egingo zirelakoan, bi baldintzok aldeztu aurretik hitzartu ziren neurrian. Areago, baldintza horiek zirela-eta erosleak egin zuen etxebizitza horren aldeko aukera.

Etxebizitzaren saltzaileak ez zituen ez bata ez bestea bete.

Etxebizitzaren salmenta-prezioa 50 milioikoa izan zen.

II

1996ko irailaren 3an, goizeko 6ak inguruan, A.k eta B.k, adinez nagusiak, ados jarririk, San Fernando izeneko liburu-dendako erakuslehoia apurtu zuten eta egindako zulotik hainbat ale hartu zituzten, guztira 68.700 pezetatan -peritoen arabera- zenbatetsitakoak. Alde egiten ari zirela, poliziakoak agertu eta haiek jazartzen hasi ziren. Azkenik poliziak atxilotu zituen eta liburuak berreskuratu zituen. Egindako kalteak 101.730 pezetakoak izan ziren.

III

Negozio jakin batzuk aurrera eraman nahi zituelako aitzakiaz eta merkatuan ziharduen enpresa baten burua zelako itxura eginez, A.k V. eta X. hornitzaileengandik saltzeko produktuak eskuratu zituen. Jasotako salgaiak 1.500.000, 200.000 eta 347.000 pezetatan zenbatetsita zeuden eta ordaintzeko baldintza hauek ezarri ziren: epeka ordainduko ziren salgaiak horretarako kasu batzuetan A.k ganbio-letrak onartuko zituen eta, beste kasu batzuetan, kontu korronteko txkeak emango zizkien hornitzaileei. Kasu guztietan, ordea, A.k ez zuen inongo asmorik atzeratutako ordainketei benetan aurre egiteko. Horrezaz gain, A-k hirugarrenei salgaiak saldu zizkien, benetako prezioa baino askoz merkeagoa zen batean, era horretan arineketan dirua, efektiboa, lortzen zuela irabaziak bi erataria eskuratuz: ez ordaindutako salgaiaren bidez batetik eta, bestetik, baldintza horietan salduaz

IV

A., Barceló Suites izeneko hotelean lan egiten zuen emakumea, 7221 gelan maisu-giltzaz baliatuz sartu zen, bertan bizi zen bikotea atera berri zen unean -goizeko 10ak aldera-. Bertan, 170.000 pezetaz, dirutan, eta hiru kreditu-txartelez ere jabetu zen, hiruetariko biren kasuan, zegozkien segurtasun-zenbakiekin batera. Arratsalde horretan hartutako bi txartel erabili zituen bi kutxazain ezberdinetan, batetik 50.000 eta bestetik 60.000 pezeta atera zituela. Horrezaz gain, txartelak denda batzuetan erabili zituen hurrengo kopuruetako ordainketak egiteko: 14.000, 13.800, 15.545, 16.125, 25.000, 25.645, 26.440 eta 28.450. Aipatu azken kasu guztietan V.ren sinadura faltsutu zuen ordainketen egiaztatgiritan.

V

A., B. eta C., ados zeudelarik, V.rengana hurbildu ziren, zeina kalean zegoen kotxe batean bere ekipajea sartzen ari baitzen. Haietarik batek mapa bat erakutsiaz, V. distraitzen zuen bitartean, beste biek biktimaren maleta bat hartu zuten eta, jarraian, ihes egiteari ekin zioten. Une horretan, ordea, handik zeuden polizia batzuek -egoeraz jabeturik- bat atxilotzea lortu zuten eta astebete baten buruan beste biak. Maleta, hiruren atxilotetaren ondoren, jabeak berreskuratu zuena, 300 eurotan zenbatetsita zegoen eta barruan hegazkin-bilete bat ere bazen, 550 euroko baliokoa, eta zozketatu gabeko ONCEko billete bat ere, 2 eurokoa, baina maleta hartu eta bi egunen buruan sariduna suertatu zena, 600.000 euroko sariarekin.

VI

1999ko urriaren 29an, goizeko 9ak inguruan, Juan Carlos, nor den jakiterik ezin izan den beste pertsona batekin batera, Renault 9 markako kotxe batean zihoan. Autoa, Enrique X. izenekoarena zen, eta hilabete hartako 24an, kotxeko kanpoko sarraila apurtu ondoren, Juan Carlosek berak ostutakoa. Aipatu autoan, Malagako Aurrezki Kutxako sukurtsal baterantz abiatu zen eta hango langileak mehatxatu zituen, zeraman eskopeta erakutsiaz. Aipatu eskopeta 9528 serie zenbakiduna zen eta kanoiak eta kulata moztuta zituen hobeto izkutatu ahal izateko asmoz. Egitateen egunean 24.600 pezeta eskuratu zituen, irabazi-asmoz.

Urte bereko abenduaren 9an Juan Carlos atxilotu zuten dagoeneko hilik dagoen beste pertsona batekin batera kotxez zihoala. Aipatu kotxea Andres Y. izenekoarena zen eta zegoen garajetik Juan Carlosek ostu zuen egun batzuk lehenago, garajea babesteko zegoen alarma saihestu ahal izan zuelako, eta garajeko atea -jabearen giltzak jarrita zeudenez gero- inongo arazorik gabe zabaltu ahal izan zuelako. Beste alde batetik, kotxeak berak zuen alarma indargabetu ahal izan zuen, zegokion kablea moztuaz. Atxiloteta gertatu zen unean aurrezki kutxan erabilitako eskopeta aldean zeraman akusatua, kotxearen barruan zegoen poltsa

batean sartuta. Dagokion epaile-aginteaz María del Carmen P. izenekoaren etxean egindako miaketan, atxiloketaren egunean bertan, eguerdiko hiruretan, polizia gidatzeko baimen bat atzeman zuen. Baimen-txartelean Juan Carlosek bere argazkia sartua zuen, karnetaren izena Daniel Z. bazen ere.

VII

A.k, Deutsche Schule ikastetxeko ekonomia-administratzailea izateaz baliatuz, merkataritza-establezimendu batzuek luzatutako zenbait fakturatan zorrak azalarazi zituen benetako kopuruen gainetikoak. Fakturak horrela manipulatzearen bitartez benetako kopuru eta azalarazten zuenaren arteko aldeaz jabetu egiten zen.

2.2.10. INGURUMENAREN BABESARI BURUZKO DELITUAK

1971ko azaroan, Cercs izeneko zentral termikoa, FECSA enpresarena, martxan jarri zen. Enpresa hau Alt Berguedan, Llobregat errekaldean, kokaturik zegoen, eta haren jardueran ikatza erabiltzen zen erregai. Ikatz hori, lignito motakoa, oso-oso sufreduna zen.

1980ko urritik aurrera zentralaren zuzendaria Ernesto izendatu zuten, lanbidez ingeniaria, enpresa horren funtzionamenduari zegokionez arduradun nagusi eta bakar aritu zedin. Funtzionamenduz kanpoko hainbat erabakitan, hala nola, zein erregai erabili behar zenekoan Ernesto FECSAren administrazio-kontseiluaren menpe zegoen, azken hau enpresaren jabea zen neurrian.

Errekuntza-prozesuan, lignitoren ezaugarriak zirela-eta, sortzen zen kea, sufre-dioxido ugariakoa, atmosferarekin bat egitean, batzuetan azido sulfuriko bilakatzen zen, eta orduan euri azido izenekoak gertatzen zen. Askotan kea basoetan zuzen-zuzenean disolbatzen zen besterik gabe, zuhaitz eta landareen nekrosia eta klorosia eraginez. Azken prozesu hauetan eragin nabarmena zuten ikatza erretzearen ondorioz kearekin batera gorpuztuta ateratzen ziren partikula txikiek.

1985 urteaz geroztik baieztatu ahal izan zen egindako igorpena 9.000 mg/Nm neurrikoa baino askoz handiagoa izan ohi zela, indarrean zeuden araudien mugen gainetik, gorpuztutako partikulen kasuan, ordea, 500 mg/Nm neurria gainditzen ez bazen ere.

Igorpenen ondorio zuzenekoak izan zen zentralaren aldamenean zeuden hainbat eta hainbat baso larriki kutsaturik gertatu zirela, ukitutako hektarea-kopurua, zehatz-mehatz- zehaztu ezin izan bazen ere, 30.000 ingurukoa zelarik. Egitateon eraginez alde geografiko horretarako kalte larria gertatzeko arriskua izan zela frogatutzat jotzen da. Aitzitik, pertsonen osasunerako, animalientzako edo uretarako lesio objektiboa zehazterik ez da posiblea izan.

Igorpenak iraun zuen bitartean, Generalitatek eta Industria Ministerioak indarrean zeuden araudiek xedatzen zutenaren gainetiko igorpena baimendu zuten, hain zuzen ere Industria-Zuzendaritza Orokorreko bi ebazpenen bitartez (1985eko abuztuaren 5ekoa eta 1987ko ekainaren 24koa). Azken bi ebazpenotan ezarritako igorpenerako muga ez zen inoiz gainditu.

Frogatutzat jotzen da, FECSA enpresak sufre-igorpena sahiesteko iragazkiak jartzeari uko egin ziola, bestela jarduera onuragarria izango ez zelakoan. Aldi horretan enpresaren inguruko aldeetan langabezi tasa handia zen.

2.2.11. HERRI-OSASUNAREN AURKAKO DELITUAK: DROGA-TRAFIKOA

Enekok bere semea, Garikoitz, Huelvako presondegian sarturik dauka. 1997ko irailaren 8an bisita bat egitera joaten denean semearen egoera larriaz jabetzen da, azken honek duen heroinaren menpekotasunak eragindakoa. Garikoitzek bere aitari erreguka eskatzen dio, behin eta berriro, droga eraman diezaion, hori lortzea hain zaila denez abstinentzia-sindromeak sortzen dion sufrimendua leuntzeko aitzakiaz.

Aipatu egoeraren aurrean aitak, kontzientzia eta borondatea nabarmenki nahasita edukirik bere semeak jasaten zuen sufrimenduagatik, 1997ko urriaren 9an pakete bat eraman zion semeari. Pakete hori Huelvako Presondegiak duen komunikazio eta paketetarako sailean utzi zuen bere semeari eman ziezaioten.

Paketearen barruko aldean, bertan ziren praketako gerrikoan ezkutaturik, poltsatxo txiki bat zegoen, 0,8 heroína gramorekin, semearen sufrimendua arintzeko xedez.

Presondegiko zerbitzuan, semearengana iritsi aurretik, funtzionarioek heroína atzeman zuten.

2.2.12. TRAFIKOAREN SEGURTASUNAREN AURKAKO DELITUAK

Longinok Renault 11 GTX ibilgailua gidatzeari ekin zion, Nules izeneko herrixkatik kopa batzuk koñak edan ondoren. Edandakoaren ondorioz gidatzeko gaitasuna murriztuta zeukan Longinok.

Egin zioten errepide-kontrollean alkoholemiaren frogatik pasatu behar izan zen, emaitza positiboarekin: lehenengoan, botatako aire litro bakoitzean 1,56 mg eman zuen eta bigarrenean 1,44 mg.

Longinok koherentziarik gabeko erantzunak ematen zituen eta ibilera ere ezegonkorra zuen. Alkoholarekin kiratsa zerion eta gidatzen zuen autoak ez zuen aseguratik ezinbestekoa den erantzukizun zibilaria aurre egiteko.

Longinok alkoholismo kronikoa jasaten du, sendabide erraza ez duena, zeinaren ondorioz, askotan nahi gabeko mozhortze-egoera larri-larrietan erortzen baita. Egoera horien eragile askotan edan izana bada ere, edandakoaren xedea ez da mozkorra harrapatzea, abstinentzia-sindromeak eragiten dion sufrimendua lehuntzea baizik.

2.2.13. FUNTZIONARIO-EROSKERIA

1999ko urrian Lleidako polizia-inspektore buruak jakin ahal izan zuen susmatzen zela La Farga de Moles izeneko muga-kontrollean aritzen ziren bi funtzionariok –Andres A.k eta Benito B.k– diruaren truke bai ibilgailuak bai pertsonak pasatzen uzten zituztela ez merkantzia ezta bidaiarien gaineko inongo kontrolik egin gabe. Aipatu funtzionarioek, aztarnen arabera, Carlos C. portugaldarra bitartekari gisa erabiltzen zuten.

Arestian aipatutakoa argitzeko asmoz bi agente berezik –Daniel D. eta Ernesto E. – enpresaburuaren plantan egin zituzten Carlos C.rekin Andorran kontaktatu zutenean 1999ko azaroan. Carlosi argitu zioten muga zeharkatu nahi zutela kontrolatuak izan gabe. Carlosek zera esan zien: “No hay problema” eta, aldi berean, Andres A. funtzionarioaren telefonoa eman zien. Agenteek azken honi deitu zioten eta Andresek esan zien prezioa 100.000 pezetakoa zela eta beste 25.000 pezeta bitartekariarentzat (Carlos C.rentzat), eta Alto Segre izeneko jatetxean, dagoeneko Espainian, ordaindu beharko zela mugaz beste aldera pasatu ondoren alegia.

1999ko abenduaren 5ean, goizeko 10ak aldean, agenteok kamionetaz muga zeharkatu zuten hitzartu bezala, hots, inongo kontrolik gabe. Geroago portugaldarrari esandako 25.000 pezeta ordaindu zioten. Are beranduago, arratsaldeko 4etan, agente bereziok Benito B. funtzionarioa atxilotu egin zuten, azken honek maletin bat zeramala. Maletinean alde batetik, 800.000 pezeta zeuden eta bestetik, kartazal bat Carlos C. izena idatzita zuena beste 150.000 pezetarekin.

Hurrengo egunean, goizean, egunkariak deskribatutakoaren berria zekarten. Egun horretan zehar Humberto M. eta Luis P. kamioilariak komisaldegira hurbildu ziren deklaratzeko bakoitzak muga horretako funtzionarioei 200.000 pezeta ordaindu ziotela, aipatu funtzionarioek hala egiteko eskatu ziotelako bestela kamioiak mugan geldiarazita izango zituztelako mehatxuaz. Funtzionarioek kamioiari zehazki esandakoa izan zen ordaindu ezean gau osoko ikuskaritzari ekingo ziotela kamioiak goitik behera miatzeko xedez eta ondorioz, hurrengo egunera arte han, mugan, egon beharko zutela.

Geroago baieztatu zen Humbertok aspaldidanik ordainketak egiten zituela muga pasatzen zuenean kontrolik izan ez zedin.

2.3.- ESKEMA TEORIKOAK

Eskema teorikook, Zati orokorrekoetan esaten genuen bezala, irakaskuntza-jarduerari oinarri pedagogikoa emateko asmoz sortu ziren jatorriz. Helburua, hortaz, Zati bereziko klase teorikoak erraztea besterik ez da. Eskemak direnez, tankera estilistikoa edukiak ahalik eta gehien laburbiltzera zuzentzen da, ideien egituraketa argiaren bila. Aldi berean kontuan eduki beharra dago, materialok *power point*-en bitartez erabiltzeko eginak daudela.

Zati bereziaz ari bagara ere, ez daude Zigor Kodean —are gutxiago lege berezietan— aurreikusten diren delitu guztien gaineko eskemak: aukeraketa-lana, berriro ere, ezinbestekoa izan dugu. Horri dagokionez, eta kasu praktikoen atalean (**ik. supra 2.2.**) egin genuenaren ildotik, hiru delitu multzotara bildu dugu aurrerantzean eskainiko den lana. Lehenik eta behin (**1-9 ikasgaiak**) pertsonen aurkako delituak zentzu zabalean aurkezten dira: giza hilketa eta erailketa, buruaz beste egiteko indukzioa eta laguntza, abortua, lesioak, askatasunaren aurkako delituak (mehatxuak, legearen aurkako atxiloketak, derrigortzeak), osotasun moralaren aurkako delituak eta sexu-askatasunaren eta ukigabetasunaren aurkako delituak. Oro har, xedapen hauen bitartez pertsonarekin lotuta dauden ondasun juridiko indibidual garrantzitsuenak babestu nahi dira eta, aldi berean, tradiziorik luzeena eta isla praktikorik ikusgarriena duten delituak ditugu.

Bigarrenik ondare-delituek (**10-13 ikasgaiak**) osatzen duten multzoari ekiten zaio. Isla praktikoari dagokionez, aurrekoa bezain garrantzitsua den multzo honek, zubi-funtzioa betetzen du babesteko ikuspegiari begira. Izan ere, ondasun juridiko indibidual hutsa (jabetza, ondarea) besterik ez dela babesten ematen badu ere, babesaren alde supraindividuala gero eta garbiago aditzera ematen hasten da, Estatu sozialari dagozkion hainbat interes kolektibo berri, ohikoak diren ondare-interes indibidualekin nahastearen ondorioz.

Azkenik (**14-17 ikasgaiak**) garrantzi teorikoa ez ezik garrantzi praktiko nabarmena ere baduten lau figura deliktibo aztertzen dira. Babes-ikuspegiari dagokionez ondasun juridiko supraindividualak babes-gai dira ingurumen, droga-trafiko, trafiko-segurtasun eta eroskeriaren inguruko xedapenotan. Edonola ere, bestelako arazo juridikoak dakartzaten arrisku-delituak ditugu tradiziozko jarduera deliktiboetatik aldentzen direnak eta horrexegatik bestelako interpretazio-ahalegina eskatzen dute. Horrek guztiak bidezkatzen du ulergarriagoak eta ezagunagoak diren beste bi delitu multzoren ondoren kokatu izana.

Amaitzeko, esan dezagun orain ikusiko ditugun eskemetan batez ere ondoko esku-liburuak izan ditugula gidari, eta, hortaz, bereziki gomendagarriak direla edukietan sakondu nahi izanez gero: **QUINTERO OLIVARES, Gonzalo (zuzendaria) /MORALES PRATS, Fermín (koordinatzailea), *Comentarios a la Parte especial del Derecho penal*, Iruña, 2002; MUÑOZ CONDE, Francisco, *Derecho penal. Parte Especial*, Valentzia, 2002; baita ere BAJO FERNANDEZ, Miguel (zuzendaria), *Compendio de Derecho penal (Parte especial) II*, Madril, 1998 eta COBO DEL ROSAL, Manuel, *Compendio de Derecho penal español. Parte especial*, Madril, 2001.**

1. IKASGAIA. ZUZENBIDE PENALAREN ZATI BEREZIRAKO SARRERA.

- I.- Zati orokorraren eta bereziaren arteko harremana.
- II.- Zati bereziaren sistema eta delituak.
 - 1. Zuzenbidekontrakotasuna eta zuzenbidekontrakotasun penala.
 - 2. Ondasun juridiko-penalaren lesioa: tipoaren muina.
 - 3. Legezko ordena.

SARRERA I.- ZATI OROKORRAREN ETA BEREZIAREN ARTEKO HARREMANA

- ZO: egozpen printzipioak (erkideak)  ➤ ZB: berezitasunak (delitu bakoitzarenak)
- ZBa ZOaren JARRAIPENA: maila abstraktutik balorazio zehatzera. (JURISPRUDENTZIAREN GARRANTZIA)
- EGITARAUA praxiaren logikatik:
 - ➔ sailkapena: ond. juridikoena
 - indibidualak
 - supraindibidualak (=kolektiboak)
 - ➔ pertsonen aurkako delituak
ondarearen aurkako delituak.
gizartearen aurkako delituak.

II.- ZUZENBIDE BEREZIAREN SISTEMA ETA DELITUAK:

- 1.-ZUZENBIDEKONTRAKOTASUNA ETA ZUZENBIDEKONTRAKOTASUN PENALA
- 2.- ONDASUN JURIDIKOEN LESIOA: TIPOAREN MUINA.
- 3.- LEGEZKO ORDENA.

1.- ZUZENBIDEKONTRAKOTASUNA ETA ZUZENBIDEKONTRAKOTASUN PENALA

- ❖ ZParen HELBURUA: aurrezaintza orokor mugatua.
- ❖ Zatikako izaera eta *ultima ratio* printzipioa.
- ❖ Gizarte-kaltegarritasuna eta tipo penala (= delitua)
- ❖ Tipifikazioa: honen zergatia eta zentzua:
 - legezkoatasun printzipioa (bermea)
 - zigorraren gehiegikeria saihestea
 - egitate-zuzenbide penala (**egile-zuzenbide penala**).

2.- ONDASUN JURIDIKO-PENALAREN LESIOA: TIPOAREN MUINA

- ❖ Debekuaren zentzua (Moralak ↔ Aurrezaintza)
- ❖ Hitzez-hitzeko idazketa eta interpretazioa.

3.- LEGEZKO ORDENA: GIZARTE-BALIOESPENAREN ETA ONDASUN JURIDIKOEN ARABERAKOA

2. IKASGAIA. GIZA BIZI INDEPENDENTEAREN AURKAKO DELITUAK (I).

I.- Giza hilketa.

1. Ondasun juridiko babestua.
2. Subjektu aktiboa eta pasiboa
3. Tipo objektiboa.
4. Tipo subjektiboa.
5. *Iter criminis* eta partaidetza.

II.- Erailketa.

1. Erailketaren funts materiala (sarrera).
2. Parrizidioa eta haur-hilketa desagertzea.
3. Erailketa giza hilketa astundua bezala eta inguruabarren azterketa.
 - A. Alebosia.
 - B. Prezioa, saria edo hitzemia.
 - C. Ankerkeria
 - D. Zigor Kode zaharra.
4. Erailketaren autonomia (ondorio praktikoak).
5. Tipo subjektiboa eta *iter criminis*.
6. 140 artikuluen esanahia.

SARRERA: Giza hilketa, erailketa, buruaz beste egitea, abortua...

I.- GIZA HILKETA Giza bizi independentearen aurkako delituak –I-

1.- ONDASUN JURIDIKO BABESTUA.

- ❖ Giza bizi independentea (KE 15. Art.)
- ❖ Biziaren definizio arautzailea

2.- SUBJEKTU AKTIBOA ETA PASIBOA.

- ❖ Delitu arrunta (≠ berezia)

3.- TIPO OBJEKTIBOA.

- ❖ Tipo mota:
 - egite-delitu eta emaitza-delitu
 - bide zehaztugabekoa.
- ❖ Objektu materiala:
 - gutxieneko muga: jaiotza (abortua)
 - gehieneko muga: heriotza (froga-arazoa → erazketa)
- ❖ Kausalitate-harremana eta egozpen objektiboa.
- ❖ Ez-egitea.

4.- TIPO SUBJEKTIBOA.

- ❖ Dolozkoa---zuhurtziagabekeria: delitu eta falta.
- ❖ Doloa: kontzeptua
- ❖ Errakuntza: motak
- ❖ Inoizkako doloa
- ❖ Doloaren froga
- ❖ Asmozgaidikotasuna

5.- ITER CRIMINIS, PARTAIDETZA, ETA ABAR.

II.- ERAILKETA

Giza bizi independentearen aurkako delituak –II-

1.- ERAILKETAREN FUNTS MATERIALA (SARRERA).

- ❖ Eztabaida handia: tipo autonomoa ala giza hilketa astundua?
- ❖ ZK berrian bi interpretazio hauek posibleak dira

2.- PARRIZIDIOA ETA HAUR-HILKETA DESAGERTZEA.

- ❖ Parrizidioa:
 - Lehengo interpretazioa: delitu autonomoa eta astunagoa
 - (Argudioak)
 - Kritika:
 - astuntasunaren lehengo zergatiaren kritika: erruduntasunaren kontzepzioa.
 - kutsu moral eta sinboliko hutsa.
 - TORIOren ikuspuntua
 - Jurisprudentiaren jarrera gaur egun: inguruabar mistoa, astungarria (kritika)
- ❖ Haur-hilketa:
 - Balioespen soziala aldatzearen ondorio nahitaezkoa

3.- ERAILKETA GIZA HILKETA ASTUNDUA BEZALA (F. MORALES): INGURUABARREN AZTERKETA.

- ❖ Planteamendua
- ❖ Astunagoa izatearen funtsa:
 - Dotrinako gehiengoaren iritzia.
 - Eztabaida: testuinguru historikoa.
 - Beste iritziak → kritika
 - Gure abiapuntua: zuzenbidekontrakotasun maila astunagoa

A. ALEBOSIA (139-1 art.)

- ❖ Definizioa (ZK 22.1 art.) → kontuz: joera-kutsua
- ❖ Funtsa:
 - Dot. zati bat: erruduntasunean bilatu nahi → kritika
 - Dot. gehiengo eta jurisprudenzia: zuzenbidekontrakotasuna (ekintza-gaitzespen astunagoa)
- ❖ Eztabaida: babesik gabeko pertsonetikiko alebوسيا
 - Auzitegi Gorena: BAI
 - Dot. gehiengo: EZ
 - Elementu subjektiboa (*joera kutsua*) erabakigarria
 - konponbidea:
 - *de lege lata*: giza hilketa eta nagusitasun-abusua (22.2)
 - *de lege ferenda*: 139 art.an sartu

B. PREZIOA, SARIA EDO HITZEMATEA (139.2 art.)

- ❖ Dot. zati batek eta jurisprudenzia:
 - funtsa erruduntasunean kokatzen dute: zio zitalak
 - kritika → GESINNUNG
- ❖ Gure proposamena:
 - funtsa ekintza-gaitzespenean bilatu behar:
 - lanbidez hiltzailea
 - ikerketa zailagoa
 - alebوسia mota bat azken buruan

C. ANKERKERIA (139.3 art.)

- ❖ Dot. tradizionalaren ikuspuntua
- ❖ Zertan datza? Beharrezkoak ez diren gaitzak

- ❖ Gure proposamena: emaitza-gaitzespen astunagoa (zuzenbidekontrakotasuna)

D. ZIGOR-KODE ZAHARRA

- ❖ Bide arriskutsuak eta alde aurretiko asmoa desagertzen dira.

4.- ERAILKETAREN AUTONOMIA (ONDORIO PRAKTIKOAK)

- ❖ Alternatiba formala: tipo AUTONOMOA/ tipo KUALIFIKATUA
- ❖ Benetako arazoa: zein ondoriotarako dira inguruabarrak? (66 art.: EZ; baina 65?)

- ❖ Dot. tradizionala: AUTONOMIA

- 65 art.: EZ → egozteko tituluaren BATASUNA
- Errakuntza: zuhurtziagabeko giza hilketa posible da (pilaketan ere)
- Gero eta jarraitzaile gutxiago bai dotrinan, bai jurisprudenzian

- ❖ Gorako joera: GIZA HILKETA ASTUNDUA

- 65 art.: BAI → egozteko titulua APURTZEN da
- Errakuntzak beti baztertzen du 139 artikulua

5.- TIPO SUBJEKTIBOA ETA *ITER CRIMINIS*.

- ❖ Doloaren edukia (inoizkakoa ez)
- ❖ Saiakuntzaren arazo bereziak:
 - inguruabarraren alde objektiboa ez da gertatzen (subjektiboa bai)
 - inguruabarra gertatzen da; heriotza ez (geroago inguruabarrik gabe)
 - hiltzen hasi inguruabarrik gabe; gero, ordea, bai eta burutzen da.

6.- 140 ARTIKULUAREN ESANAHIA.

- ❖ Edukia (inguruabar berezia; orokorra bada → 66 art.)
- ❖ Kritika: gehiegikeria
- ❖ Interpretazio alternatiboa (baina inposatuko ez dena)

- 142 art.: **ZUHURTZIAGABEKERIAZKO GIZA HILKETA.**

- 141 art.: **PROPOSAMENA, PROBOKAZIOA ETA KONSPIRAZIOA.**

3. IKASGAIA. GIZA BIZI INDEPENDENTEAREN AURKAKO DELITUAK. (II)

- I.- Borondatezko hilketari buruzko zenbait hausnarketa.
- II.- Buruaz beste egiteko indukzioa eta laguntza.
- III.- Eutanasia.
 - 1. Sarrera (sailkapenak).
 - 2. 143.4 artikuluan sartzen ez diren kasuak.
 - 3. 143.4 artikuluan sartzen dena.
 - 4. Zuzenbide konparatua: Holandaren kasua

I.- BORONDATEZKO HILKETARI BURUZKO ZENBAIT HAUSNARKETA.

- ❖ Galdera nagusia: bizitzaz xeda daiteke?
- ❖ 143 art. eta giza hilketari: arautzeko eredu muturrekoak.
- ❖ ZIGOR-KODEaren inguruko eztabaida:
 - Bi joera dotrinal:
 - 1) buruaz beste egitea: zuzenbidekontrakoa
 - →KE 15 art.: berme-funtzioa baina xedatzerik ez
 - 2) Xeda daiteke
 - →15 art.aren esanahia: argudioak
 - ◆ askatasuna (KANT)
 - ◆ duintasuna: neopertsonalismoa
 - Auzitegi Konstituzionala
 - Konklusioa: 143 artikuluen oinarria ETIKOA, MORALA (ez juridiko-konstituzionala)
- ❖ LEGEaren alderdi onak (ZK zaharrarekin alderatuta).
- ❖ **BURUAZ BESTE EGITEA, ezinbesteko elementua, baina nola ulertu behar da?**
 - Arazoa: 143 art.aren eta giza hilketaren arteko muga
 - Bi joera nagusi: giza hilketari ADOSTUTAKOA
 - giza hilketari arrunt bezala (138 art.)
 - tipo arindu bezala (143 art.)
 - GURE PROPOSAMENA: 143 art. PARTE-HARTZEA bakarrik; beraz EGILETZA buruaz beste egiten duenak eduki behar.
 - Egiletza egiteko BALDINTZAK:
 - adostasuna espresuki eta aldi berekoa;
 - adosteko gaitasuna ← → egozgarritasuna.

II.- BURUAZ BESTE EGITEKO INDUKZIOA ETA LAGUNTZA.

- ❖ 143 art.aren EGITURA: indukzioa ← → ezinbesteko laguntza:
(arrunta eta EGIKARITZAILEA)
- ❖ Kritika de *LEGE FERENDA*.
- ❖ Egungo EZTABAIDAK: noraino da delitu autonomoa zentzu teknikoan?
 - Eztabaidagai nagusiak:
 - Saiakuntza al da zigorgarria?
 - Indukzio edota laguntzaren partaidetza al da zigorgarria?
 - Doloa zuzeneko izan behar al du? (inoizkako--zuhurtziagabekeria)
 - Ez-egitez erantzukizuna egon liteke 143 artikuluen arabera?
 - Proposamena: ez saiakuntza, ez partaidetza, ez inoizkako doloa, ezta ez-egitea ere, ez lirateke zertan zigortu behar
 - Ikuspegi "praktiko"tik, ordea:
 - Indukzioa:
 - Saiakuntza zigorgarria dugu, buruaz beste egiten hasi bada (eta orduan lesio-delitu baztertzeko da)

- Indukzioaren partaidetza ez da zigortuko aldi berean ezinbesteko laguntza (edo laguntza egikaritzaila) ez bada
- Indukzioa doloa behar du izan (zuhurtziagabekeriaren erantzukizuna egonez gero, giza hilketaren bidetik -142 art.- joan beharko litzateke: ad. Medikuek minbiziaren berri modu ez egokian emateagatik gaixoak buruz beste egiten du)
- Ez-egitea ez dago indutitserik
- Laguntza (ezinbestekoa edota egikaritzaila)
 - Saiakuntza zigorgarria buruz beste egiten hasi bada
 - Laguntzaren laguntza (partaidetza) ez da zigorgarria
 - Inoizkako doloa edota zuhurtziagabekeriaren jardunaz gero, giza hilketaren esparrura joan beharko litzateke (zuhurtziagabeko giza hilketak -142 art.-)
 - Ez egitea laguntza batzuetan Jurisprudentiak onartu du, batzuetan ezinezkoa dela esan du (bestela 195 artikuluen arabera "teoriko" legoke, berme-egoera ez badago subjektua)

III.- EUTANASIA.

1. SARRERA (SAILKAPENAK)

- ❖ Zein eutanasiari buruz ari gara?→HILTZEKO ESKUBIDEA (INOLAZ ERE EZ: eutanasia eugenetikoa, ekonomikoa, kriminologikoa)
- ❖ Egoera kliniko larriari dagokion EUTANASIAren barruan:
 - borondatezkoa ala ez;
 - AKTIBOA –zuzeneko eta zeharkakoa– eta PASIBOA.

2. 143.4 ARTIKULUAN SARTZEN EZ DIREN KASUAK.

- ❖ Borondaterik gabekoa
- ❖ Eutanasia aktiboa baina ZEHARKAKOA:
 - borondatezkoa;
 - borondatea jakiterik ez dagoenean?
- ❖ Eutanasia PASIBOA→alegia, EZ-EGITE zigorgabekoa:
 - ez-egitearengatik egitearen ikuspuntutik;
 - ez-egite hutsaren ikuspuntutik

3. 143.4 ARTIKULUAN SARTZEN DENA.

- ❖ 143.4 jardura tipikoaren NOLAKOTASUNA (sopikuntzarik ez).
- ❖ NORI zuzentzen zaio?→GAIXOTASUNAREN KONTZEPTUA:
 - larria;
 - heriotza ekartzeko dakarrena ala
 - pairamen etengabe etengabeak eta jasanezinak ekartzeko dakartzana. (De lege ferenda: hobe bakarrik medikuntza-alorrean tipifikaturik).
- ❖ BORONDATEZKOA: nola ESKATU behar?
 - Kasu eztabaidatua: bizi-testamentu izenekoa.

4. ZUZENBIDE KONPARATUA: HOLANDAREN KASUA

4. IKASGAIA. MENPEKO GIZA BIZIAREN AURKAKO DELITUAK.

I.- Zenbait hausnarketa politiko-kriminal.

II.- Abortua.

1. Lege-araketa oro har.
2. Ondasun juridiko babestua (eta objektu materiala).
3. Artikuluz artikuluko azterketa (indikazioak).
 - A. 144 artikulua: adostasunik gabeko abortua.
 - B. 145 artikulua: adostasunarekin egindako abortua.
 - C. 146 artikulua: abortu zuzenaren aurkako delitua.

I.- ZENBAIT HAUSNARKETA POLITIKO-KRIMINAL.

- ❖ Giza hilketaren gutxienezko muga: noiztik aurrera jardueraren giza hilketak da (eta ez abortua)?
 - Abortua, fetuari eragindako lesioak eta manipulazio genetikoak;
 - Babesaren zentzua ezin da denbora-ikuspegi besterik gabe ulertu (giza hilketak, abortua, manipulazio genetikoak)
 - abortuaren eta lesioen objektu materiala: ENBRIOIA
 - manipulazio genetikoarena: GIZAKIAREN ONDASUN GENETIKOA (pilaketak)
- ❖ Berrikuntzen balorazio positiboa: babes gehiagoren premia zen.

II.- ABORTUA.

1. LEGE-ARAUAKETA ORO HAR.

- ❖ 144, 145, 146 art. ZK berriak eta 417 BIS ZK zaharrean
- ❖ Sistematikak hobera egin du: sinpletu da.

2. ONDASUN JURIDIKO BABESTUA (ETA OBJEKTO MATERIALA).

- ❖ Menpeko giza bizitzaren balioespina: Zergatia eta biologia.
- ❖ Abortuaren hasiera: ENBRIOIA EZARRIONDORENGOIA: ZERGATIA:
 - Arrazoi politiko-kriminalak:
 - froga-arazoak: berez obulua galdu;
 - *in vitro* ernalketa;
 - haurdunaldi estrauterinoak;
 - DIUren erabilera.
 - Oinarri juridiko-konstituzionala: 15 art. titularrak.
 - Lagundutako giza ugalketaren legea (35/1988)

KONKLUSIOA: GIZA BIZITZA, ENBRIOI FASEARI DAGOKIONA, HAIN ZUZEN ERE ANIDAZIO-GENETIKO JAIO ARTE

3. ARTIKULUZ ARTIKULUKO AZTERKETA (INDIKAZIOAK)

A. 144 ART.: ADOSTASUNIK GABEKO ABORTUA

- ❖ Zigorraren zergatia:
 - fetuaren eta amaren aurkako erasoak gertatzen da (*pluriofensibilidad*)
 - ez dago amaren eta fetuaren arteko interesen gatazka
- ❖ Tipo mota: bide zehaztugabekoa, emaitzakoa; ez-egitearengatik egitea eta saiakuntza posible dira.
- ❖ Adostasunik eza = indarkeria, mehatxua, engainua : PILAKETAK
- ❖ Doloa (inoizkako ere).

B. 145 art.: ADOSTASUNAREKIN EGINDAKO ABORTUA

- ❖ 145 art.ak barnebiltzen dituen kasuak (egilekidetza; norbere buruari egindakoa): ZIGOR DESBERDINEN ZERGATIA.
- ❖ LEGEAK ONARTZEN DITUEN KASUETATIK KANPO = INDIKAZIOAK:

- legezko erreferentziak (417 bis) eta bidezkotze-kausa orokorrak;
- 417 bis artikulua mantentzeko arrazoiak:
 - lege berri baten inguruan ados jartzerik ez;
 - interesen gatazka oinarrian.
- Abortua arautzeko bi legezko sistema: INDIKAZIOENA eta EPEARENA;
- 417 bis art.aren HIRU INDIKAZIOAK:
 - TERAPEUTIKOA: emakume haurduna mehatxatzen duen arriskuaren araberakoa;
 - ETIKOA EDO KRIMINOLOGIKOA: bortxaketaren ondoriozkoa:
 - lehenengo 12 astean bakarrik;
 - bortxaketaren kontzeptua.
 - EUGENESIKOA EDO ENBRIOPATIKOA:
 - lehenengo 22 astean bakarrik;
 - fetuak eduki beharreko gaixotasuna.
- Bestelako ÑABARDURAK indikazioen inguruan:
 - indikazio sozio-ekonomikoa?
 - medikuentzat presio gehiegi ez ote da?
 - izaera juridikoa: BIDEZKOTZE-KAUSAK
 - betekizun administratiboen falta

C. 146 art.: ABORTU ZUHURTZIAGABEKOA

- ❖ ZK berriak ekarritakoa: eremua (astuna; hirugarrenak egindakoa)
- ❖ Zigorraren aldaketa (2003): presoaldia (3-5 hilabete) edo isuna (6-10 hilabete)
- ❖ Edozein lanbidetarako desgaitasuna.
- ❖ Balioespen politiko-kriminala (positiboa)

5. IKASGAIA. OSASUNAREN ETA GORPUTZ-OSOTASUNAREN AURKAKO DELITUAK.

- I.- Sarrera: ondasun juridiko babestua eta lesioaren kontzeptua.
1. Ondasun juridiko babestua.
 2. Lesioaren kontzeptua.
- II.- Oinarritzko tipoa eta tipo kualifikatuak. Adostasuna.
1. Oinarritzko tipoa: 147 artikulua.
 2. Tipo kualifikatuak: 148, 149 eta 150 artikulua. Adostasuna.
 - A. 148 artikulua.
 - B. 149 eta 150 artikulua.
 - C. Adostasuna.
- III.- Liskarrean parte-hartzea.
- IV.- Familia eremuan gertatutako indarkeria.

I.- SARRERA: ONDASUN JURIDIKO BABESTUA ETA LESIOAREN KONTZEPTUA.

1. ONDASUN JURIDIKO BABESTUA.

- ❖ Dotrinaren gutxiengoa: osotasun fisikoa ETA osasun fisikoa eta burukoa.
- ❖ Dotrinaren gehiengoa: OSASUNA, fisikoa eta burukoa.
- ❖ Zuzenbide konparatua: pertsonaren/ gorputzaren minik eza
 - gutxitan jarraitutakoa Estatu espainiarrean;
 - indarkeria fisikoa, lesio-emaiztarik gabekoa:
 - legegintzaren historia;
 - ZK berria:
 - 617.2 (tratu txarrak)
 - 173-177 (osotasun moralaren aurkako del.)
 - 153 (familia-eremuan)
 - 2003ko Aldaketak
 - Bi tratu txarrak:
 - ◆ Arruntak (617.2; 620.1 eta 2)
 - ◆ Etxeko indarkeriarekin loturikoak:
 - 153: (lehengo faltak orain) delituak
 - 620.2 in fine: falta
 - ◆ Ohikotasunez egiten dena: 173.2
- ❖ 2003ko aldaketek ekarri duten egoera berria:
 - Faltak/Etxeko indarkeria:
 - <<Arruntak>>
 - 617.1: lesio-falta (medikuntza sendabiderik gabekoa)
 - 617.2: tratu txarra
 - 620.1: mehatxu arina arma edo bide arriskutsuekin
 - 620.2: mehatxu, derrigortze, iraina, iseka
 - Etxeko indarkeriarekin loturiko "faltak": orain 153
 - 153 (617.1)
 - 153 (617.2)
 - 153 (620.1)
 - 620.2 in fine: falta kualifikatua (ez 153)
 - Ohikotasunez eginez gero: 173.2
 - 4 falta delitu bihurtu daitezke: 147.1 in fine
 - falta: 617.1 edo/eta 2
 - urte batean
 - ebasketan ere berdina: 234 eta 244.1
 - Ebakuntza genitala: 149.2
 - Hainbat zigorren aldaketa (asteburuko atzipenaldia desagertzegatik)

- ❖ TIPO MOTA:
 - ez-egitearengatiko egitea: (148.1,2; 153; 154 izan ezik)
 - zuhurtziagabekeria: 152 –delitua–; 621.1,3 –faltak–
 - asmozgaindikotasuna: suposamenduak.
- ❖ PILAKETAK:
 - osotasun moralaren aurkako delituekin;
 - sexu-erasoekin;
 - adingabeak abandonatzearekin;
 - indarkeriaz egindako lapurretarekin;
 - kalte handiekin;
 - trafiko-delituekin.

2. LESIOAREN KONTZEPTUA.

- ❖ 147 art.aren definizioa eta aplikagarritasun-eremua.
- ❖ Tratu txarretatik desberdintzea: jurisprudentzia eta dotrina.
- ❖ Lesioa eta gaixotasuna, psikikoa barne.

II.- OINARRIZKO TIPOA ETA TIPO KUALIFIKATUAK. ADOSTASUNA.

1. OINARRIZKO TIPOA: 147 art.

- ❖ Tipo objektiboa:
 - medikuntza-sendabidea:
 - faltarekiko muga (617.1)
 - 11/2003ko LOak muga erlatibizatu du (147.1 in fine)
 - zehaztugabea (baina lehen baino hobeto)
 - sendatzailea (ez aurrezaintzailea)
 - behin baino gehiagotan errepikatu beharrekoa, salbuespenekin
 - jurisprudentziaren joera
 - sendabide kirurgikoa;
 - zaintza edo jarraipen hutsa ez da nahikoa;
 - sendabidearen balioespen objektiboa: egozpen objektiboaren arazoak eta biktima.
- ❖ Tipo subjektiboa:
 - doloa;
 - zuhurtziagabekeria: 152, 621.1,3.
- ❖ Tipo pribilegiatua: 147.2.
 - funtzioa: malgutasuna ematea
 - 11/2003ko LOak zigorra gogortu du (presoaldia edo isuna)
 - irizpideak: delitua egiteko BIDEA eta EMAITZA
 - 147.2. eta 148 batera gertatuz gero: 147ak lehentasuna.

2. TIPO KUALIFIKATUAK: 148, 149 ETA 150 ARTIKULUAK. ADOSTASUNA

A. 148 ARTIKULUA

- ❖ Irizpide orokorrak: emaitza (147.2) eta arriskua
- ❖ 148.1: Armak, baliabide zehazki arriskutsuak
 - arriskuaren emaitza: 149, 150 art.
 - arrisku ZEHATZA
 - su-armak, arma zuria...eta alebosia bideak
 - erasoa eta bidea = 11 art. EZ
 - PILAKETAK ? sexu-erasoa (180.5) eta lapurreta (242.2)
 - saiaturako giza hilketa?
- ❖ 148.2: Ankerkeria
 - kontzeptu objektiboa → tortura;
 - pilaketa: tratu apalesgarria (148.1,2 eta 173, 177)
- ❖ 148.3: 12 urte baino gazteagoa (edo ezgaia) → kritikagarria (22.1,2 ?)
- ❖ Oro har: zuhurtziagabekeria ez da posible

B. 149, 150 ARTIKULUAK

- ❖ Definizio orokorra: iraunkorra (= sendaezina edo ondorioduna)
- ❖ Galera = ezintasuna → mutilazioa eta indargabetzea –zatikakoa ere–
- ❖ Organo eta gorputz-atala → kanpoko eta barrukoa
- ❖ Zentzumenak: ikusmena eta besteak ere –entzumenak...–
- ❖ Organo/ gorputz-atal NAGUSIA
- ❖ Inpotentzia=antzutasuna
- ❖ Itxuragabetzea: larria, iraunkorra, agerikoa
- ❖ Gaixotasun larria: sendaezina edo heriotza-arriskua dakarrena
- ❖ Posibleak: zuhurtziagabekeria eta inoizkako doloa
- ❖ Ebakuntza genitala: 11/2003ko LO
 - Aldaketa sinbolikoa
 - Adingabea edo ezgaiaren kasuetan zigor berria ezartzeko aukera (desgaikuntza)

C. ADOSTASUNA

- ❖ Estatu espainiarreko bidea zuzenbide konparatutik: BIDE BITXIA → ARINTZE-EFEKTUA (EZ SALBUESLEA)
- ❖ Hortaz: osotasun moralaren eta fisikoaren arteko KONTRAESANA
- ❖ Kasu bereziak:
 - medikuntza-sendabidea
 - norbere burua arriskuan jartzea → egozpen objektiboa
- ❖ 155.2: Adingabeen eta ezgaien babes berezia
- ❖ Adostasunaren ezaugarriak:
 - askea eta (=) berezkoa: alegia, bitarteko egiletzarik ez;
 - zergatik espresuki?
 - egileak ez du zertan ezagutu behar
- ❖ Norbere buruari egindakoa → atipikoa
- ❖ Salbuespena: 156 → SALBUESLE-EFEKTUA HIRU KASUTAN:
 - 1.- organoak birlandatzea;
 - 2.- kirurgia transexuala;
 - 3.- antzutea
 - bizioak;
 - babes bereziaren salbuespena → ezgaituen antzutea (156.2)

III- LISKARREAN PARTE-HARTZEA.

- ❖ Aurrekari historikoa: EMAITZA-DELITUAK → erruduntasun printzipioa kolokan
- ❖ Egungo zentzua: ARRISKU-DELITUA:
 - balorazio positiboa
 - pilaketa desordena publikoarekin? (557)
- ❖ Auresuposamendu tipikoak:
 - batzuek, elkarren artean eta modu nahasian, baliabide arriskutsuekin: ERANTZUNA egon behar (kritika)
 - eraso fisikoak: tratatu txarrak irentsita;
 - eta 11 art. EZ
- ❖ Arrisku ZEHATZA:
 - erreferentzia: 147.1
 - abstraktua balitz: falta, 620.1
 - pilaketak lesioekin
- ❖ Zuhurtziagabekeria ez da posible
- ❖ 15/2003ko LOa: zigor-aldaketa
 - presoaldia: 3-12 hilabete edo
 - isuna: 6-24 hilabete

IV.- FAMILIA-EREMUAN GERTATUTAKO INDARKERIA

- ❖ 11/2003 LOa: lehen falta zena orain <<tratu txarren delitu>> bihurtu da
 - subjektu pasiboaren egoerarengatik kualifikatzen dena
 - jarduera tipikoa:
 - delitua ez den lesioa,
 - (lesioarik gabeko) tratu txarra zentzu hertsian
 - edota mehatxu arina armarekin edo bestelako bide arriskutsuekin
 - ohikoa ez denean: bestela 173.2 artikulua berria
- ❖ Subjektu pasiboaren esparru berria (173.2 artikulurako igorpena):
 - Ezkontidea (dena edo izandakoa)
 - (Ezkontidearen) antzeko harremana (duena edo izandakoa, bizikidetza gabe ere)
 - aurrekoak (norberarenak, ezkontide edo antzeko harremana duenarenak)
 - ondorengoak (norberarenak, ezkontide edo antzeko harremana duenarenak)
 - anai-arrebak/neba-ahizpak
 - odol, adopzio zein ezkontza bidezkoak eta
 - norberarenak, ezkontide edo antzeko harremana duenarenak
 - bizikidea den edonor (adingabeak, ezgaiak edo bestelakoak)
 - baita ere bereziki ahulak diren batzuk, zaintza-toki publiko zein pribatuetan daudenak
 - ALEGIA:
 - emakume-indarkeria zena gero familia-indarkeria bihurtu; geroago etxeko indarkeria (bizikidetza); eta orain etxeko kanporakoa ere (zaintza-tokiak)
 - "ofenditu"en esparrua nabarmen handitu da, oso errealitate kriminologiko ezberdinak parekatuz (emakumearen aurkako indarkeria eta bestelakoak ez dira berdin)
- ❖ Zigor berria:
 - Presoaldia: 3-12 hilabete edo gizartearen aldeko lanak (31-80 egunez)
 - Eta armak eduki edota eramateko eskubideaz gabetzea (1-3 urte)
 - Epaileak egokia deritzon: desgaitasun berezia (guraso-ahala, tutoretza, kuradoretza, zaintza edo harrerarena) (6 hilabete-3 urte)
 - Kualifikazioa: zigorrak goiko erdian
 - Adingabeen aurrean delitua egiten bada edo
 - Armak erabiliz gero edo
 - Partekatzen den, edo biktima den, etxebizitzan egiten bada edo
 - Zigor (egoteko, hurbiltzeko, komunikatzeko debekua 48 art.) edo neurriren bat (kautelazkoa zein segurtasunezkoa) urratuz gero.

6. IKASGAIA. ASKATASUNAREN AURKAKO DELITUAK.

- I.- Gogoeta orokorra.
- II.- Legearen aurkako atxiloketa eta bahiketa.
 - 1. Lehenengo definizioa eta lege-pilaketa.
 - 2. Ondasun juridiko babestua.
 - 3. Oinarrizko tipoa.
 - 4. Ondorioztatuko tipoak.
 - A. Tipo pribilegiatuak.
 - B. Tipo kualifikatuak.
- III.- Mehatxuak.
 - 1. Hausnarketa orokorra.
 - 2. Kontzeptua.
 - 3. Elementuak.
 - 4. Motak.
- IV.- Derrigortzeak.
 - 1. Ondasun juridiko babestua eta subjektu pasiboa.
 - 2. Jarduera tipikoa (tipo objektiboa).
 - 3. Tipo subjektiboa.
 - 4. Pilaketak (berrikuspina).
 - 5. Tipo kualifikatua.
 - 6. Delituak eta faltak.

I.- GOGOETA OROKORRA.

- ❖ Lehengo egoera: askatasuna eta segurtasuna batera → egungo egoera: balioespena
- ❖ Ondasun juridiko babestua: lehenengo hurbilketa orokorra

II.- LEGEAREN AURKAKO ATXILOKETA ETA BAHIKETA.

1. LEHENENGO DEFINIZIOA ETA LEGE-PILAKETA

- ❖ Askatasuna eta beste ondasunak babesten direnean (sexu-askat; lapurreta...)
- ❖ 530 artikulutik desberdintzea: funtzioen abusua
- ❖ Atxiloketa eta derrigortzea: jurisprudentziaren irizpidea

2. ONDASUN JURIDIKO BABESTUA

- ❖ Mugitzeko askatasuna
- ❖ Kasu bereziak
- ❖ Testuinguru orokorra: arau nagusia, bidezkotze-kausa dago

3. OINARRIZKO TIPOA

- ❖ TIPO OBJEKTIBOA:
 - giltzapetu eta atxilotu
 - delitu iraunkorra: burutzeko unea
 - derrigortzearen muga-kasuak
 - egiteko bide zehaztugabea
 - tipikoa da, alde egitea balego ere, baina...
 - subjektu aktiboa (funtzionarioa bada → 167 edo 530)
- ❖ ZUZENBIDEKONTRAKOTASUNA:
 - *habeas corpus*
 - adostasuna (530 artikulua kasua)
 - buru-gaixoak barneratzea
 - norbanakoek egindako atxiloketa: Prozedura Kriminaleko Legea 490, 496 art.
 - TIPO SUBJEKTIBOA: zuhurtziagabekeriak ez
- ❖ EGILETZA/ PARTAIDETZA: bitarteko egiletza posible da

- ❖ (DELITU) PILAKETAK:
 - pertsona batzuk atxilotuz gero → 77 art.
 - delitu jarraitua → INOIZ EZ

4. ONDORIOZTATUTAKO TIPOAK

A. TIPO PRIBILEGIATUAK

- ❖ 163.2:
 - hiru egun baino gutxiago ETA helburua lortu ez (oinarrizko tipoa)
 - funtsa: damutzea/ delituan atzera egitea
- ❖ 163.4: agintaritzari aurkezteko asmoa

B. TIPO KUALIFIKATUAK

- ❖ 163.3: 15 egun baino luzeagoa
- ❖ 164: BAHIKETA (= baldintza galdatzea)
- ❖ 165: subjektu aktiboaren edo pasiboaren ezaugarriaz baliatzea
- ❖ 166:
 - Atxiloketa baino gehiago → ez da argitzen non dagoen atxilotua
 - susmo-delitua???
 - interpretazio alternatiboa: *behartutako desagerraraztea*
 - interpretazio hitzez-hitzekoa, onartezina
- ❖ 167: agintari edo funtzionario publikoen kasua
- ❖ (168: Prestamen-ekintza zigorgarriak)

III.- MEHATXUAK.

1. HAUSNARKETA OROKORRA

- ❖ Ondasun juridiko babestua: borondate-prozesu askea
- ❖ Arrisku-delitua (salbuespena: baldintza lortzen denean)
- ❖ Subjektu pasiboa: edonor, egotzezinak ere.

2. KONTZEPTUA

- ❖ 169: KALTEAREN ezaugarriak (jurisprudentzia):
 - etorkizuneko, zehatza, posiblea, subjektu aktiboaren menpekoa, beldurtzeko egokia, ez-zuzena (oro har), serioa, iraunkorra...
- ❖ Familiaren aurkakoa
- ❖ Kaltea delitua denean...

3. ELEMENTUAK

- ❖ Burutzea: mehatxua ezagutzen denean
- ❖ Subjektu aktiboa: ez du zertan izan behar kaltea egingo duena
- ❖ Zuhurtziagabekeriarik ez

4. MOTAK

- ❖ Mehatxu bereziak (498, 490.2, 504...): erregearen aurkakoa...
- ❖ Lege-pilaketa: lapurreta, sexu-erasoa...
- ❖ Mehatxu SOILA//HUTSA: 169-2
 - faltatik ezberdintzea
- ❖ Mehatxu BALDINTZAPEKOA:
 - DELITUA DEN KALTEAREKIN mehatxatzen denean (169):
 - delitua: ez falta;
 - baldintza ZILEGIA bada ere (gogorregia batzuetan)
 - burutzea: baldintza lortzen denean
 - idatziz... kualifikazioak zentzurik ez

- DELITUA EZ DEN KALTEAREKIN (171.1):
 - baldintzarik gabe: falta
 - HARREMANAREN TEORIA: BIDEZKOA DEN JARDUERA
 - Xantaia
- ❖ Tipo ASTUNDUA: 170
 - azkeneko aldaketa
 - balioespen politiko-kriminala
- ❖ Falta: 620.1,2 → Kritika: zehaztugabeegia

IV.- DERRIGORTZEAK.

1. ONDASUN JURIDIKO BABESTUA/ SUBJEKTU PASIBOA

- ❖ Borondatea izateko gaitasuna eta horren egikaritzea
- ❖ Subjektu pasiboa: egotzezinak ere bai

2. JARDUERA TIPIKOA (TIPO OBJEKTIBOA)

- ❖ 172 art.aren egitura: bi jarduera + indarkeria
 - Emaizta-delitua
 - legeak debekatzen duena atipikoa → eztabaidak (buru-hilketa; gose-greba; medikuntza-sendabidea)
 - INDARKERIAREN KONTZEPTUA (eztabaida):
 - DOTRINA: bakarrik *indarkeria fisikoa eta narkotikoak*
 - JURISPRUDENTZIA:
 - fisikoa, narkotikoak ETA...
 - beldurrarazpena:
 - ◆ mehatxutik ezberdintzeko irizpidea: beldurra etorkizuneko;
 - ◆ kritika: ez du funtzionatzen;
 - ◆ muturreko kasua;
 - indarra gauzetan: adibideak eta kritika
 - ÑABARDURAK:
 - derrigortzea zeharka ?
 - ez-egitearen bitartez ?

3. TIPO SUBJEKTIBOA

- ❖ JURISPRUDENTZIA: doloa + helburu berezia
- ❖ DOTRINA: doloa, lehen graduko zuzenekoa

4. PILAKETAK (berrikuspena)

- ❖ Atxiloketa: denboraren iraupena (lege-pilaketa)
- ❖ Mehatxuak: (lege-pilaketa)
- ❖ Lesioak: (delitu-pilaketa)

5. TIPO KUALIFIKATUA (172.2)

- ❖ Oinarrizko eskubidea: EK 14-38 art.
- ❖ Lege-pilaketak: 510 art. eta hurr.; 315.3.

6. DELITUA/ FALTA (620.2)

- ❖ Irizpideak
- ❖ Delituaren zigorra: isuna/ presoaldia → irizpide berberak.

7. IKASGAIA. OSOTASUN MORALAREN AURKAKO DELITUAK.

- I.- Babestutako ondasun juridikoa.
- II.- Tratu apalesgarriak: oinarritzko tipoak (173, 175 art.).
- III.- Tortura delitua.
- IV.- Ez-egitea.
- V.- Pilaketak.
- VI.- Zigorrak.

I.-BABESTUTAKO ONDASUN JURIDIKOA.

- ❖ Titulu berria: (tortura delitua besterik ez da Zigor Kode zaharrekoa)
- ❖ Lehenengo hurbilketa:
 - oinarritzko tipoak: 173, 175 (176)
 - tortura-delitua: 174 (176)
 - pilaketetarako arauketa
- ❖ Kritika: zehaztugabeegia (duintasuna→ ondasun juridiko babestua?)
- ❖ *De lege ferenda*→ proposamenak

II.- TRATU APALESGARRIAK: OINARRIZKO TIPOAK (173,175)

- ❖ 173.1: oinarritzkoena
 - Legegilearen (ustezko) helburua: norbanakoen torturak→ adibideak
 - Tratu apalesgarrien kontzeptua? (jurisprudentzia)
- ❖ 173.2 artikulua berria: <<tratu apalesgarri mota bat>>
 - 11/2003 LOa
 - lehengo "ohiko tratu txarren delitua" orain 173 artikuluan:
 - beraz: aldaketa sistematikoa
 - zigor gogorragoa (6 hilabete-3 urte presoaldia)
 - ◆ kualifikazioak ere aurkustun dira: 173.2 bigarren leerroaldea (153 artikuluan bezala)
 - subjektu pasiboen esparrua handitu da (153 artikuluan bezala)
 - indarkeria fisikoa edo psikikoa izan daiteke:
 - ◆ psikikoak frogatuta zaila du
 - ◆ ez da emaitza-delitua (emaitzarik gabeko tratu txarra): emaitza badago, delitu-pilaketa (173.2 lehengo leerroaldea in fine)
 - tratu txarren delitu eta 173.2 ren arteko alde nagusia <<ohikotasunean>> datza:
 - ◆ ohikotasunaren definizioa, legezkota (173.3)
 - ◆ irizpideak: ekintzen kopurua, haien arteko denbora-hurbiltasuna eta pertsona bera edo ezberdinen aurkakoak badira ere eta ekintzak epaituak izan diren ala ez
 - balorazio politiko-kriminala: tratu apalesgarrien bestelako jarduerak ilundurik gerta litezke
- ❖ 175: sasi-tipo berezia
 - Bi azpi-tipoak: astuna/ astuna ez dena → kritika
 - Aplikazio-eremua: tortura helbururik gabe; tratu oso txarrak
 - Zigorraren funtsa: izaera publikoa

III.- TORTURA DELITUA (174)

- ❖ Kode zaharraren tipifikazioa→ tipo kualifikatua (bidalketa zuzeneko)
- ❖ Kode berriaren aldaketak: (nazioarteko ituna, 1984koa)
 - tipo autonomoa
 - helburuen zabaltzea→ zigortzea ere
 - poliziaren/epailearen ikerketa-testuingururik ez da behar
- ❖ Elementuak:
 - Subjektu aktiboa:
 - karguaz abusatzea→ alebosia atxikia

- 2. lerroaldearen interpretazioa: eztabaida
- Jarduera tipikoa:
 - zehaztasun falta
 - ankerkeria atxikia
- Helburuak:
 - 15/2003 LOari esker, aitortzeaz, informatzeaz edo zigortzeaz gain <<bereizkeria>> ere helburu tipikoa dugu
 - berme prozesalen aurkako delitua

IV.- EZ-EGITEA.

- ❖ 176: funtzionario edo agintari kasuetarako besterik ez (174,175)
- ❖ ZK zaharrean betetzen zuen funtzioa: zigorrik eza saihestea, norbanakoen torturaren kasuan.
- ❖ Gaur egungo funtzioa: ez-egitea zigortzen dela argitzea:
 - lehen eta gaur zalantzak zeuden/ daude: prebarikazioa (AG); “infligir” hitzak egitea galdatzen omen du (TAMARIT)...
 - BERME-EGOERA beste pertsonen jardueragatik?:
 - oro har: partaidetza EDO babes-funtzioa;
 - 176: babes-funtzioa karguarengatik ETA doloa
 - 176: Subjektu aktiboak→ epaileak, poliziak, funtzionario militarrek ETA medikuak!!!!!! (CONDE PUMPIDO)

V.- PILAKETAK (177).

- ❖ Zehaztasunik ezaren ondorio logikoa→ deskribaketa: bi arauak
- ❖ KRITIKA:
 - 1. ARAUA:
 - delitu-zerrendak hutsune nabarmenak
 - zigorrak GEHITZEA? DELITU-PILAKETARIK EZ?: PROPOSAMENA: delitu-pilaketa, ez lege-pilaketa.
 - 2. ARAUA:
 - ankerkeria (22.5; 139.3; 148.2)
 - sexu-erasoa (180.1)
 - 534.2
 - guda-egoeran (609; 611.6; 612.3)
 - eta abar

VI.- ZIGORRAK.

- ❖ Oinarrizko tipoena
- ❖ 175 astuna eta tortura ez-astuna
- ❖ Tortura
- ❖ Baita desgaikuntza ere!!

8. IKASGAIA. SEXU-ASKATASUNAREN AURKAKO DELITUAK (I).

I.- Babestutako ondasun juridikoak.

1. Askatasuna.
2. Sexu-ukigabetasuna.
 - A. Adingabeen babesa.
 - B. Ezgaien babesa.
3. Beste ondasun juridiko-penalik?

II.-Sexu-erasoak.

1. Oinarritzko tipoa.
 - A. Tipo objektiboa.
 - B. Tipo subjektiboa.
 - C. Burutzea.
2. Bortxaketa.
3. 180 artikuluko tipo kualifikatuak.

III.- Sexu-abusuak.

IV.- Sexu-jazarpena.

I.- BABESTUTAKO ONDASUN JURIDIKOA.

- ❖ 1989ko Lege-aldaketaren zentzua: ohoretik sexu-askatasunera
- ❖ 1999ko 11/LO, apirilaren 30ekoa: sexu-ukigabetasuna
- ❖ 2003ko 11 eta 15 LOak: zigorrak gogortu dira ondasun juridiko berberekin
- ❖ Dotrinaren gehiengoaren abiapuntua: ondasun juridiko batzuk bai, baina moralkeriarik gabe
- ❖ Oro har babestutako ondasun juridiko-penalak (MUÑOZ CONDE):

1. ASKATASUNA:

- ❖ askatasuna > sexu-askatasuna;
- ❖ mehatxutik, derrigortzetik eta atxiloketatik ezberdintzea.

2. SEXU-UKIGABETASUNA

- ❖ hainbat delitutan sexu-askatasuna ezin da babestu: adib.
- ❖ adingabeen eta ezgaien kasuetan garapena eta sexu-objektu ez bihurtzea dira babes-gaiak;
